

ADINEKOAK EUSKADIKO EKONOMIAN

Maria-Angeles Durán



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

ADINEKOAK EUSKADIKO EKONOMIAN

Maria-Angeles Durán

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2014ko ekaina

Ale-kopurua: 200 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Internet: www.euskadi.net

Autorea: Maria-Angeles Durán
Ad Honorem irakaslea
Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseilua

Itzultzailea: Belax

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Eusko Jaurlaritzaren Inpreta eta Errepografia Zerbitzua

L.G.: VI 350-2014

HITZAURREA

Euskadiko biztanleriak izandako zahartzearen eta horrek dakarren etorkizun demografia begien bistako arreta-iturri dira ezagutza-arlo horietan diharduten arduradun politikoentzat, planifikatzaileentzat eta adituentzat.

Gertakari hori era askotara ulertu daiteke; gizarte aurreratuen arrakasta gisa, erronka gisa edo arazo gisa, besteak beste.

Lan honen helburua adinekoek Euskadiko ekonomian duten kokalekua aztertzea da, eta horretarako darabilen ikuspegia Stiglitz, Sen eta Fitoussi ikerlariek egindako proposamenaren antzekoa da (Garapen Ekonomikoa eta Aurrerapen Soziala Neurtzeko Batzordea), eta nazioarteko erakundeen dokumentu ugarian sustatutakoa bezalakoa, bereziki Nazio Batuen Konferentziako Ekintza Plataforman (Pekin, 1995). Datuen ekarpenean oinarritutako azterketa.

Adinekoen egoera ekonomikoa balioesteko —hori da azterlan honen helburua—, ulertu behar da haien ekonomia-jardueraren zati handi bat merkatu-ekonomiatik kanpo garatzen dela, diru-konpentsaziorik ez duen etxeetako ekonomian nagusiki, zeina gutxi aztertu eta baloratu baita. Biztanleria-talde horrek zerbitzuak sortzen ditu bere buruarentzat eta besteentzat, eta, kalkuluen arabera, zaintzaren zama orokorraren herena baino gehiago hartzen dute beren gain, gutxi edo batere baloratzen ez den lana den arren.

Estereotipo sozialek ez dituzte datu horiek egiaztatzen; adinekoak herritar pasibotzat jotzen dira, zerbitzu publikoen kontsumitzaile huts eta ezeren ekoizle ez direlakoan, eta arazo ekonomikoen iturri direla uste da; baina egia oso bestelakoa da: diru-konpentsaziorik ez duen etxeetako ekonomian egiten duten lana, oso ikusgarri eta baloratua ez izan arren, ongizate-estatuaren euskarria da, krisi-garai hauetan bereziki. Higiezinaren herenaren jabe dira, diru-hartzaile eta -gastatzaile egonkorak dira, haien ekarpena egiten diote autonomia erkidegoko BPGari... Diru-konpentsaziorik gabeko ekonomian egiten duten lanarekin ekonomia arruntaren arrakastaren alde lan egiten dute, bertatik erdi-baztertuta egon arren. Baina estereotipoek indartsu diraute; horren erakusgarri da Albert Einstein fisiko eta filosofo handiaren esaldia: “Garai tristea gurea! Errazago da atomo bat desintegratzea aurreiritzi bat baino.”

Azterlan hau Matia Institutuarekin lankidetzan egin da, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak argitaratu eta finantzatu du, merkatutik kanpo eta diru-konpentsaziorik gabe ekonomia errearen alde adinekoek egiten duten lan ikusezina aintzat hartzea eta baloratzea helburu, eta, finean, beharrezkoak ez diren bidegabeko aurreiritziak “desintegratzeko”.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA

EUSKADIKO EKONOMIAREN ESPARRU OROKORRA ETA ZAHARTZEAREN ERAGINA.

IKUSPEGI BERRITZAILE BAT. 11

I.1. Ikerlanaren helburuak eta metodologia.	11
I.1.1. Helburuak.	11
I.1.2. Metodologia eta iturriak.	12
I.2. Euskadiko egitura demografikoa.	16
I.2.1. Euskadiko biztanleriaren zahartzea eta belaunaldien arteko ekonomia.	16
I.2.2. Bizitza-zikloaren defizitaren finantziazioa.. . . .	19
I.2.3. Epe motzeko eta ertaineko proiektzioak: zazpi egoera desberdin.	20
I.3. "Adineko" terminoaren definizio anitzak: adina, okupazioa, bizimodua.	24
I.3.1. Zahartze-prozesuko atariak.	24
I.3.2. Adinekoa eta inaktiboa ez dira sinonimoak.	25
I.4. Zenbait mito (eta hain mito ez direnak) zahartzeak ekonomian duen eraginari buruz..	30

II. KAPITULUA

ADINEKOAK EUSKADIKO KONTU EKONOMIKOETAN. ORAINA ETA GEROA. 33

II.1. Euskadiko esparru ekonomikoa. Familien errentak, enplegua eta langabezia.	33
II.2. Euskadiko lanaren prezioa eta bizitzaren kostua.	35
II.2.1. Euskadiko lanaren prezioaren eraketa.. . . .	35
II.2.2. Zaintzaren burdinazko legea: behar duten lana ordaindu ezin dutenak.	36
II.2.3. Beren lana legez saldu ezin dutenak..	37
II.2.4. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanen arteko osagarritasuna eta ordezkapena.	37
II.3. Kontu ekonomiko tradizionalen helburua.	41
II.3.1. Egoera ekonomikoaren hautemate subjektiboa eta kontu Ekonomikoen ikuspegia.	41
II.3.2. Adinekoak ekonomiako sektore tradizionaletan: eduki sinbolikoaren balioa.	42
II.3.3. Adinekoak osasunaren ekonomian.	47

II.3.3.1. Osasuna, gastua ala inbertsioa?	47
II.3.3.2. Osasunaren finantziario publikoa eta pribatua.	49
II.3.3.3. Adierazleen harikortasuna: hautemandako osasuna.	51
II.3.3.4. Antzietatearen eta depresioaren sintomak, adinaren eta generoaren arabera.	54
II.3.3.5. Osasuna, zahartzea eta gaixotasun kronikoak Euskadin.	55
II.3.4. Adinekoek lekurik al dute hezkuntzaren ekonomian? Bizi-ikasketa ulertzeko beste modu batzuk.	56
II.3.5. Adinekoak hotel-, ostalaritza- eta turismo-ekonomian. Eguneroko ostatuaren balio ikusezina.	60
II.4. Adinekoen eta Administrazio Publikoaren arteko zeharkako harremana Euskadin.	61
II.4.1. Adinekoak eta Administrazio Publikoak.	61
II.4.2. 2013ko Aurrekontu Orokorrak. Esleitu ahal zaizkie baliabide gehiago adinekoek?	65
II.4.3. Gizarte Babesa Euskadin.	70
II.4.4. Adinekoen gizarte-babeserako egungo sistemen alternatibarik al dago?	75

III. KAPITULUA

ADINEKOEN ETXEEN ONDAREA. EUROPAKO IKUSPEGIA. 83

III.1. Adineko biztanleriaren pobrezia eta aberastasuna.	83
III.2. Adinekoen etxeen ondarea Europan.	84
III.3. Ondasun higiezinaren jabetza.	88
III.4. Adinekoen etxeen finantza-ondarea.	93
III.5. Adinekoen etxeen zorrak.	98
III.6. Adinekoen ondarearekin lotutako arriskua eta egonkortasuna.	103
III.7. Etxebizitza eta ondarea Euskadin. Adinekoen egoera.	105

IV. KAPITULUA

BALIABIDE MONETARIZATUEN EGUNEROKO GESTIOA. 109

IV.1. Adinekoen errenta Euskadin: jatorria eta zenbatekoa.	109
IV.1.1. Zahartzearen ziklo ekonomikoa.	109
IV.1.2. Adineko gizonaen eta emakumezkoen arteko errenta-desberdintasuna.	114
IV.1.3. Sarrera estatistikoen fikziozko eragin aberasgarria.	118
IV.2. Adinekoen kontsumoa. Handitzen ari den merkatu-segmentu ahaltsua.	119
IV.2.1. Adinekoen gastu-bolumena.	119
IV.2.2. Banaketa funtzionala.	120
IV.2.3. Adinekoak potentzia kontsumitzailea eta handitzen ari den merkatu-segmentua dira Euskadin.	124
IV.3. Errenta ondare bihurtzea eta gero lanaren ondorengo errenta. Pentsio-planak eta adinekoen fiskalitatea.	125
IV.4. Inflazioak adinekoen ekonomiaren gainean duen eragin kaltegarria.	128

V. KAPITULUA

EUSKADIKO MONETARIZATU GABEKO EKONOMIA ETA ADINEKOEN ZEREGINA. 129

V.1. Etxeak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak.	129
V.1.1. Familiak eta etxeak Euskadin. Goranzko eta beheranzko filialtasuna.	129
V.1.2. Adinekoen etxeen tipologia eta banaketa Euskadin.	131
V.1.3. Etxeetan bizi ez diren adinekoak.	133
V.2. Emaileak eta hartzaileak. Adinekoen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen arteko harremanak.	135

VI. KAPITULUA

ORDAINDU GABEKO LANA ETA HORREN INTEGRAZIOA ANALISI EKONOMIKOAREN

ESPARRU OROKORREAN.137

VI.1. Ekonomiaren ikuspegi berritzailea, Nazio Batuek bultzatua.	137
VI.2. Gaitasunen teoria zahartze aktiboan aplikatzea.	139
VI.3. Eustatek Euskadiko ordaindu gabeko lanaren ezagutzari egindako ekarpen aitzindaria.. . . .	140
VI.4. Denboraren Erabilerari buruzko Inkesten mundu mailako hedapena eta Garapen Ekonomikoa eta Aurrerapen Soziala Neurtzeko Batzordearen txostena (Stiglitz-Sen-Fitoussi).	143
VI.5. Ordaindu gabeko lanaren balioa: kantitatea, kalitatea, intentsitatea eta funtzioa.	144

VII. KAPITULUA

ADINEKOEN ORDAINDU GABEKO LANA.147

VII.1. Denboraren erabilera eta jardueren banaketa batez besteko egun batean, Euskadin eta Espainian.	147
VII.2. Janaria prestatzea eta janari-gastuetan aurrezteak.	152
VII.3. Nork bere burua zaintzea eta besteak zaintzea: anbigutasun semantikoak.	154
VII.4. Zaintzaren belaunaldi arteko balantzea.	155
VII.5. Mendekotasuna eta mendekoak zaintzea.	156
VII.6. Mendekotasun ekonomikoa, afektiboa eta fisikoa. Landunen mende dauden mendekoen zaintza Euskadin.	163

VIII. KAPITULUA

ADINEKOEN EKONOMIA MONETARIZATUAREN ETA MONETARIZATU GABEKOAREN ARTEKO

INTERAKZIOA.167

VIII.1. Etxeen muga ekonomikoa: ordaindutako etxeko lana kontratatzea eta horren isla BPGan.	167
VIII.2. Kontratutako funtzioak eta asteko orduak.	168
VIII.3. Funtzioak etxeko beste kide batzuen, beste etxe batzuen eta zerbitzu publikoen esku uztea.	171

IX. KAPITULUA

SINTESIA ETA KONKLUSIOAK.175

IX.1. Aurreko kapituluen sintesia.	175
IX.2. Euskadiko etorkizuneko zaintza-eskaria. Banaketa-agertokiak.	181

BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK.185

ESTADISTIKA ERANSKINA.191

I. KAPITULUA

EUSKADIKO EKONOMIAREN ESPARRU OROKORRA ETA ZAHARTZEAREN ERAGINA. IKUSPEGI BERRITZAILE BAT

I.1. IKERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

I.1.1. Helburuak

Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzarentzat egin da, Ingema Fundazioak proposatuta. Ikerketak Euskadiko adinekoen zereginari buruzko ikuspegi berritzaile bat ematea zuen helburu, bereziki alderdi ekonomikoei dagokienez.

Bi dira erreferentzia-esparru nagusiak: alde batetik, ikuspuntu sozialean, nazioarteko hainbat erakundek zahartze aktiboaren eta adinekoen gizarteratze osoaren alde egiten dituzten programak; beste batetik, ikuspuntu zientifikoari dagokionez, ikerketa sozioekonomikoan monetarizatu gabeko baliabideak –batik bat, etxeetako zaintza-lanaren eskaria eta kontsumoa– nabarmentzen dituzten korrontekak.

Zahartze aktiboa eta adinekoen gizarteratze osoa lortzen laguntzeko helburuan, gizarte-eragile askok hartzen dute parte, eta haiek dira ikerketa honen hartzaileak, zuzenekoak zein zeharkakoak: lehenengo eta behin, adinekoak berak, bai banaka, bai haiek biltzen edo ordezkatzan dituzten erakundeen bidez. Halaber, adinekoekin lotutako politika publikoen organismoak eta arduradunak –hau da, zahartzaroarekin lotutako politika sektorialen zuzeneko arduradunak–, baina baita, zahartzaroaren fenomenoaren erabat zeharkakoa denez, biztanleriaren adinaren egitura eragina duten eta egitura horren aldaketan eragina duten erakunde eta zerbitzuetako arduradunak ere. Halaber, honako hauek ere ikerketa honen hartzaileak dira: irabazi-asmorik gabeko erakundeak, merkatuaren barruan adinekoei berehalako edo etorkizuneko zerbitzuak ematen dizkieten erakunde pribatuak (aseguru-etxeak, aurreikuspen-erakundeak, etab.), eta adinekoek beren bizimodua –osorik edo partzialki– ematen duten etxe-sareak.

Ikerketa hau egiteko, hau hartu da premisatzat: ezagutza da nahi dugun etorkizuna sortzeko tresnarik onena, bai eta ikerketak egoera problematikoak azaleratzen baditu ere, edo egoera horiek konpontzea zer zaila izango den erakusten badu ere. Horretarako, ikerketaren metodologian, Euskadiko adinekoen egungo eta etorkizuneko egoeraren alderdirik positiboak nabarmentzen dituzten ikuspegiak

sartu dira, baita adinekoen ahulezia sozial eta ekonomikoa agerian uzten dituzten ikuspegiak ere.

1.1.2. Metodologia eta iturriak

Ikerketa hau egiteko, milaka datu bildu eta ehun iturritara baino gehiagotara jo dugu. Hala ere, haren ekarpen nagusia teorikoa da. Alegia, ikerlanaren izenburuan aipatutako kontzeptu nagusiak (adinekoak, ekonomia, Euskadi) aztertu dira, baita haien arteko loturak ere.

Adineko kontzeptuak adiera bat baino gehiago ditu. Alegia, guztiz baliokideak ez badira ere, askotariko sinonimoak eta hitzak daude, erabilera- eta onarpen maila desberdinekoak zenbait ingurutan (akademikoak, kazetaritzakoak, lagunartekoak eta legalak). Zahartzaroaren definizio asko daude, eta denak erabiltzen dira estatistikak, erregistroak, dokumentuak eta lanerako materialak prestatzeko. Oso kontuan hartu beharrekoa da hori edozein ikerketa egiterakoan; batez ere, zenbait iturriren arteko azterketa konparatiboak egiten badira.

Ekonomiari dagokionez, aspalditik eztabaidatzen da zer den eta zer ez den. Duela bi mila eta bostehun urte baino gehiago sortu zen ekonomia kontzeptua, etxearen administrazio onari buruzko *Oykonomicos*¹ tratatuan. Gerora, ekonomialarien interesa aldatu egin da, eta orain, hauek jorratzen dituzte, besteak beste: natura- eta ondare-baliabideak, eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpena. XXI. mendean, oraindik ere, ondasun eta zerbitzuen ekoizpena azpimarratzen duen paradigma da nagusi. Dena den, beste ikuspegi batzuk ari dira finkatzen, monetarizatu gabeko baliabide urrien banaketaren edo zereginaren garrantzia azpimarratzen dutenak. Baliabide horiek ura eta airea dira, eta esate baterako, monetarizatu gabeko zainketa-lana, etxeetan egiten dena.

Oinarrizko hirugarren kontzeptuari –hau da, Euskadi– dagokionez, azterketa honek ekonomia kontzeptuarekin lotuta soilik aztertuko du; hots, “*Euskadiko ekonomia*” aztertuko dugu, hain zuzen. Hala ere, Euskadiko ekonomia irekia da. Alegia, Euskadiko enpresek beste lurralde batzuetan ere jarduten dute, esportatzeko eta inportatzeko, eta konbentzioz soilik zehaztu daiteke zer ekoizten den edo zer kontsumitzen den lurraldearen espazio- edo administrazio-mugen barruan. Ekonomiaren internazionalizazioari eta globalizazioari dagokionez, lurraldeari lotutako paradoxa laburtzeko kontzeptu berria sortu da: globalizazioa (Azúa, 2011)².

Izenburuak ikerketa-prozesuko gida modukoak dira, eta apurka-apurka zehazten eta egokitzen dira. Ikerketa honek bi urte iraun du, eta denbora horretan, prozesuaren zenbait fasetan, izenburuaren osagaien batek erakartzen zuen arreta, eta beste batzuetan, berriz, ikerlarien arreta edo ikerketaren zirkunstantziak beste alde batera orientatzen ziren; orduan, izenburua aldatzea komeni zen. Garrantzi handirik ez duela ematen badu ere, behin betiko izenburua aukeratu baino lehen, asko eztabaidatu zen, eta askotariko aukerak probatu ziren. “*Adinekoen posizio ekonomikoa*” izan zitekeen izenburua –izan ere, hori izan zen behin-behineko izenburua–, baina, azkenean,

¹ Jenofonte, k.a. 2440. urte inguruan.

² Azúa, Jon. “La internacionalización de las empresas vascas. La paradoja de su internacionalización en un mundo globalizado”, 2011ko azaroa.

ekonomia kontzeptua ez dagokio adinekoei soilik, Euskadiko egiturari berari baizik.

Beste modu batean esanda, ikerketa hau Euskadiko ekonomia zaharkituari eta Euskadiko adinekoren egoera ekonomikoari buruzkoa da. Ikerketa egiteko prozesuko tarteko faseetan, ikerlanak izenburu hauek izan ditu: *“Adinekoren posizio ekonomikoa”* eta *“Adinekoren ekarpen ekonomikoa”*. *Posizio ekonomikoaren* kontzeptua ez da hain konprometitua ideologikoki, eta dinamismoa eta aldaketa iradokitzeke abantaila du; izan ere, koiunturala eta aldakorra denarekin lotzen ditugu posizioak. Aitzitik, *“ekarpen ekonomikoaren”* kontzeptuak zama ideologiko handiagoa du, eta oldarkorragoa da; izan ere, ekarpenak, borondatezkoak zein derrigorrez lortutakoak, prozesu batekin lotuta daudela uste da. Azkenik, lehen aukera nagusitu zen. Bestalde, izenburuan *“Euskadin”* edo *“Euskadiko”* jartzea ez da hutsala, nahiz eta irakurle gehienek alde txiki horri erreparatu ez. Bata bestearen ordean erabil daiteke ia, baina *“Euskadin”* terminoa gertu-gertuko erreferentzia espazialekin erlazionatzen da, eta *“Euskadiko”* terminoa, berriz, ez. *“Euskadiko”* erabili dugu, eta ez *“Euskadin”*; hain zuzen ere, beste garai batean Euskadiko ekonomiari lagundu zioten adinekoei buruzko hausnarketa bat sustatzeko, nahiz eta adineko horiek, orain, lurraldean bizi ez, edo eskura dauden iturrietan haien aipamenik aurkitu ez.

Zahartzearekin lotutako gaiak zeharkakoak dira, bizitza sozial osoari baitagozkio. Ekonomia konbentzionalari buruzko azterketaren esparruan, adinekoren zeregin ekonomiko nagusiak hauek dira:

1. Lan egin osteko errentak jasotzea; batik bat, pentsioak.
2. Monetarizatutako ondasun eta zerbitzuak kontsumitzea.
3. Ondasun higigarri eta higiezinaren jabe izatea.
4. Monetarizatutako ondasun eta zerbitzuak ekoiztea; gehienetan, norberaren konturako edo ezkutuko ekonomian.

Lerro berritzaile batean –Stiglitz, Sen eta Fitoussi³ bultzatutako norabidean–, aztertu ohi diren zereginenez gain, honako hauek ere kontuan hartu behar dira:

1. Monetarizatu gabeko ondasun eta zerbitzuak kontsumitzea; batez ere, zainketarekin lotuak.
2. Monetarizatu gabeko zerbitzuak garatzea, norberarentzat eta hirugarrenentzat; gehienbat, zainketarekin lotuak.
3. Errentak eta kapitala hirugarrenei ematea, trukean ezer kobratu gabe.

Proiektu honen helburua da hiru zeregin ekonomiko horiei buruzko ezagutza handitzea eta Euskadiko testuinguruan kokatzea. Horretarako, eskura dauden iturriak berrikusiko dira, eta azken hiru jardura ekonomiko horiek konbentzionala baino konplexuagoa eta errealistagoa den azterketa-esparru batean sartzea.

³ Stiglitz, Sen eta Fitoussi. *Report by the Commission on the Measurement of Economic Performance and Social Progress*. 2009.

Gaur egun, eskura dagoen informazio ekonomiko gehiena monetarizatutako ondasunei buruzkoa da; hots, merkatu-balioa dutenei buruzkoa. Hortaz, ikerketa honetan, dokumentu eta iturri konbentzionalak aztertzeaz gain, ezinbestekoa izango da berrikuntzarako beharrezkoa den irudimena erabiltzea, monetarizatu gabeko baliabideak interpretatzerakoan. Espainiari dagokionez, alde aurretiko ikerketen arabera, hirurogeita bost eta laurogei urte bitarteko biztanleriaren zainketa-eskaria Euskadikoa halako bi izango da aldi horretan. Laurogei urtetik gorako biztanleriarena, berriz, halako 3,5 izango da.

Hausnarketa teoriko bat egingo da, adinekoen aurrezki-kapitalak Euskadiko ekonomian duen garrantziari buruz. Kapital hori hauek dira, bereziki: pentsio-planak, banku-sistemari ordaindutako mantentze-kuotak eta pentsio-planetan pilatutako kapitala erreskatatzeko kostuak (PFEZaren gehikortasuna dela eta). Orobat, hausnarketa teorikoa eta metodologikoa egingo da, Euskadin etxebizitzaren jabetzak bizitza-kalitatearen adierazleetan duen garrantziari buruz; batez ere, pobrezia eta ongizateari buruzko azterketetan.

Eztabaida teorikoaren argitan, bigarren mailako iturriei esker lortutako datuak aztertuko dira. Gaur egun eskura dauden osasun- eta ekonomia-iturrietan, kostuaren edo gastuaren ikuspegitik bereziki aipatzen da zahartzaroa (osasun-zerbitzuen erabilera, pentsioen gastua). Eta apenas ez dago ekoizpen-alderdiari buruzko informaziorik, denboraren erabilerari buruzko inkestek ematen dutena alde batera utzita. Hala ere, denboraren erabilerari buruzko inkestek ere ez dituzte merkatutik kanpoko ekoizpen-denborak behar bezala adierazten; izan ere, askotan, denbora horiek ez dira erregistratzen, aldi bereko jarduerak direlako, eraldaketa fisikorik eragiten ez dutelako, eta kokapen espazial argirik ez dutelako.

Aurrekontu-mugak direla eta, ezinezkoa izan da datu berriak ad hoc lortzea; alegia, behaketa estentsibo bidez lortzea (ikerketarako bereziki egindako inkesta monografikoa). Horrenbestez, asko erabili ditugu dagoeneko eskura dauden iturriak; gehienbat, EUSTAT, INE eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Euskadiri buruzko datuak soilik ematen dituen iturririk zegoenean, lehenetsua eman zaie, iturri horiek EUSTATenak, INErenak edo beste iturri batzuk izan. Horrelako iturririk ez zegoenean, edo haiek lortzerik izan ez denean, Espainiari buruzko datuetara jo dugu, eta Euskadiren berezitasunak adierazi. Halaber, beste erakunde batzuen iturriak ere nabarmen erabili dira; hala nola Eurostatenak, Eusko Jaurlaritzarenak, Ikerketa Soziologikoen Zentroarenak (CIS), Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluarenak (CSIC), Nazio Batuenak eta INGEMARENak. Iturri bakoitzak errealitatearen alderdi desberdin bati begiratzen dio, berezko definizio eta esparruen bidez. Hori dela eta, iturri horiek bilatzeko, horien oinarri metodologikoak aurkitzeko eta konparagarri bihurtzeko soilik lan mardula egin behar da. Internet bidez ere, informazio asko lortu da, eta horrek ikerketaren garapena baldintzatu du; izan ere, Interneten informazio asko egon arren, azkar aldatzen da eta aldatzeko erritmoa desberdina da iturrien arabera. Datuen dinamismoa, horien ordeztu beste aurrerapen batzuk eta behin-behineko datu berriak agertzea, datuek sarean iraunkortasunik ez izatea eta horien trazabilitatearekiko kezka ere erabakigarriak izan dira ikerketa-prozesuan. Izan ere, ezin zitekeen bestela izan IKTen garaian.

Testua irakurterrazagoa izan dadin, bigarren mailako interesa duten taulak eranskin batean ageri dira, dagozkion epigrafearen zenbakiarekin.

Ikerlanak hiru bloke ditu. Lehen blokea (I. eta II. kapituluak) bilakaera demografikoari eta adinekoek Euskadiko ekonomia monetarizatuan duten posizioari buruzkoa da. Sarreraren ostean (I. kapitulua), zahartzaro, zahartze eta adineko kontzeptuak aztertzen dira. Gainera, Euskadiko proiektio demografikoei buruzko azterketa egiten da. Ondoren (II. kapitulua), adinekoak kokatzen dira Euskadiko Kontu Ekonomikoen esparruan (EUSTATEk aldian-aldian egiten ditu). Ekoizpen-sektore handien kontu makroekonomikoetan, ez da ekoizleen adina aipatzen. Hortaz, ikuspegi horretan oinarrituta edozein azterketa egiteko, beste iturri batzuk erabili behar izaten dira; esaterako, biztanleria aktiboaren inkesta. Industrian eta eraikuntzan –hau da, soldatapeko lana nagusi den sektoreetan–, adinekoek oso garrantzi txikia dute. Nekazaritzan eta arrantza tradizionalan, adinekoek jabe eta langile autonomo gisa duten parte-hartzea araka daiteke, zeharka bada ere; parte-hartze txikia dute, baina sektore horietan jarraitzen dute: presentzia erreal pixka bat dute, eta presentzia sinboliko handia. Zerbitzu-sektorean, adinekoen parte-hartzea txikia da ekoizle gisa. Kontsumitzaile gisa, ordea, gauzak asko aldatzen dira: zerbitzu orokorren kontsumitzaile gisa, parte-hartze handia dute, eta zenbait zerbitzu espezifikoren kontsumitzaile gisa, oso handia. Parte-hartze hori zeharka azter daiteke, merkatuko eta merkatutik kanpoko zerbitzuen kontuen bidez; batik bat, Estatuko Administrazioaren eta Euskadiko administrazioen kontuen bitartez.

Euskadiko ondare higiezinaren zati handi baten jabeak dira adinekoak (III. kapitulua); hortaz, etxebizitza da adineko gehienek duen ondare nagusia. Hori aztertzeko, datu hauek erabili dira: Etxebizitza Sailak emandako datuak (EUSTAT), Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (Eusko Jaurlaritza, 2012), Bizi Baldintzen Inkesta (INE, 2010-2012), Familia Aurrekontuen Inkesta Jarraitua (2005), Espainiako Kontabilitate Nazionala (2000-2012) eta Europako Banku Zentralaren datuak. Xehetasun bereziz aztertu da pentsioek adinekoen bizitza ekonomikoan eta Espainiako eta Euskadiko ekonomietan duten garrantzia, baita inflazioak errentadunen eroste-ahalmenean duen eragina ere.

Euskadiko errenta pertsonala eta kontsumoa aztertzeko (IV. kapitulua), EUSTATen Errenta Pertsonalaren eta Familiarraren Estatistikak erabili dira. Haietan, adinaren, sexuaren eta lanbidearen arabera ematen dira datuak. Estatistika horiez gain, IMSERSOren Adinekoek buruzko Inkesta (2010) ere baliatu dugu, baita CISen eta Zerga Agentziaren beste iturri batzuk ere. Kontsumoa aztertzerakoan, arreta berezia jarri dugu etxeko langileei ordaintzeko gastuan.

Ikerlanaren bigarren zatian, monetarizatu gabeko ekonomiari buruzkoan (III. kapitulutik VIII.era), hasieran, familiak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak entitate ekonomikotzat hartzen ditugu, ondasun eta zerbitzuen ekoizleak eta kontsumitzaileak diren aldetik (V. kapitulua). EUSTATEk Inkesta Demografikoan bereizitako familia-tipologiak aztertzen dira, eta xehetasun handiz erreparatu zaie erreferentziazko pertsona hirurogei urtetik gorakoa duten familiei. Metodologiaren aldetik, oso garrantzitsuak dira etxean bizi ez diren adinekoek buruzko datuak (Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2011); izan ere, inkesta gehienetan bildutako informazioak alborapen positiboa izaten du, oso zaharrak diren pertsonak eta oso gaixo daudenak behar baino askoz gutxiago azaltzen baitira laginetan.

Euskadi aitzindaria izan da denboraren erabilerari eta ordaindu gabeko lanari buruzko ikerketetan; hain zuzen ere, EUSTAT hasi zen horri buruzko inkesta monografikoak egiten. VI. kapituluan, ordaindu gabeko lanaren bidez etxeetan egiten diren zerbitzuak

aztertzen dira, eta zerbitzu horien kantitatea, kalitatea, intentsitatea eta funtzioa neurtzeko zailtasun metodologikoak daudela adierazten da. Nazio Batuek zenbait proposamen egin ditu, Ordaindu Gabeko Lanaren Kontu Satelite bat sortzeko eta Kontu Nazionalen Sistemari txertatzeko. Ikerlan honetan, proposamen horien testuinguruan kokatzen dugu etxeetako ordaindu gabeko lana, adinekoek zeregin garrantzitsua betetzen baitute horretan.

Adinekoek eta gainerako biztanleek oso bestelako joerak dituzte, ordaindu gabeko lanaren ekoizpenari eta kontsumoari dagokienez. VII. kapituluaren zehatz-mehatz aztertzen da Euskadiko eta Espainiako adinekoek denbora nola erabiltzen duten, 2009-2010eko Denboraren Erabileraren Inkestan oinarrituta. Halaber, adinekoen artean, gizonek eta emakumeek oso modu desberdinean erabiltzen dute denbora. Zainketa-denboraren kontsumoa aztertzeko, honako hauek erabili dira iturri nagusi gisa: IMSERSOren Adinekoen Inkesta, 2010ekoa; Euskadiko Gizarte Premiei buruzko inkestak; aipatutako Denboraren Erabilerari buruzko inkestak eta Ikerketa Soziologikoen Zentroaren inkesta batzuk (adinekoen etxeetan zainketa-jarduerak langile ordainduei transferitzeari buruzko datu garrantzitsuak ematen dituzte inkesta horiek), eta Familia Aurrekontuen Inkestako etxe-zerbitzuari buruzko modulu berezia (INE, 2010).

Monetarizatutako eta monetarizatu gabeko ekonomien arteko interakzioa VIII. Kapituluaren aztergaia da. Bereziki, etheen arteko funtzio-aldaketa, soldatapeko etxe-langileen kontratazioa eta funtzioak zerbitzu publikoen esku uztea aztertzen dira.

Hirugarren blokea oso laburra da. Ikerketaren ondorio modukoa da. Hartan, zahartzearekin lotutako edozein politika egiterakoan, Euskadiko monetarizatutako eta monetarizatu gabeko ekonomiak batera aztertu behar direla argudiatzen da. Euskadiko zenbait agertoki ekonomiko proposatzen ditu etorkizunerako, eta adinekoek haietako bakoitzean zer-nolako eginkizuna izango duten azaltzen du.

I.2. EUSKADIKO EGITURA DEMOGRAFIKOA

I.2.1. Euskadiko biztanleriaren zahartzea eta belaunaldien arteko ekonomia.

Zahartzea biztanleriari, ohitura sozialei eta egitura ekonomikoari aplikatzen zaie.

Gizarte batean, 60 urtetik gorako biztanleen kontsumoa 19 urtez beherakoena baino handiagoa bada, ekonomia zaharkitu batez hitz egiten dugu (CELADE, 2013)⁴. Gaztaroaren eta zahartzaroaren atariak askotariko helburuekin zehaztu badaitezke ere, oso baliagarria da definizio egonkorrak izatea nazioarte mailako alderaketak egiteko. Badaude egitura ekonomikoa zahartzearen beste adierazle batzuk: euskarri ekonomikoko arrazoa (ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko ratioa) eta euskarri fiskaleko arrazoa (zergadunen eta onuradunen arteko ratioa). 2040. urtean 73 herrialdek ekonomia zaharkituaren ataria gaindituta izango dutela aurreikusten da.

⁴ CELADE (2013). "El futuro del envejecimiento en México. Fechas emblemáticas y opciones de políticas: una mirada hacia 2040 y más allá". G. Donehwer-ek egin du dokumentua, P. Saad-ek eta T. Miller-ek ikuskatuta.

I.2.1 mapa 2040ko ekonomia zaharkituen mapa



Iturria: CELADEk egina (CEPALeko Biztanleria Dibisioa), CNT proiektuaren datu-baseetan oinarrituta.

Pentsaera ekonomikoan, “belaunaldien arteko ekonomia” oso berrikuntza garrantzitsua da. Orain arte, gai horri buruz egin diren ikerketa guztiak ez ziren etiketa beraren barruan biltzen⁵. Belaunaldien arteko ekonomiak belaunaldien arteko truke ekonomikoak aztertzen ditu. Korrante horrek lau puntu aztertzen ditu nagusiki (Mason eta Lee, 2011)⁶. Hona hemen:

1. Belaunaldi edo adin-talde bakoitzak baliabideak ekoizteko, kontsumitzeko, elkarbanatzeko eta aurrezteko erabiltzen dituen gizarte-erakundeak eta mekanismo ekonomikoak.
2. Belaunaldien edo adin-taldeen arteko fluxu ekonomikoak, belaunaldien arteko ekonomiaren bereizgarriak.
3. Belaunaldien arteko fluxuak agintzen dituzten kontratu esplizitu eta implizituak.
4. Aurrekoaren ondorioz, sarreren edo kontsumoaren belaunaldi arteko banaketa.

⁵ 2014ko otsailean, mintegi bat egin nuen Ikerketa Demografikoen Zentro Latinoamerikarreko Paul Saadekin batera. Mintegi hartan, Saadek Mexikoko ekonomia interpretatu zuen belaunaldien arteko transferentzien ikuspuntutik. Mexikoko Elkargoari eskertu nahi diot mintegi hartan parte hartzeko aukera eman izana.

⁶ Mason, A. and Lee, R. “Population Aging and the Generational Economy: A global Perspective”, Cheltenham, UK; Edward Elgar, 2011.

I.2-1. taula
2005eko aurreikuspena eta 2014ko datu egiaztatuak.

		2005EKO AURREIKUSPENEA		DATU EGIAZTATUAK 2014
		EUSKADI GAUR	EUSKADI 2020	
DEMOGRAFIA	65 urteko edo gehiagoko biztanleria	% 17,0	% 25,0	20,20
	Gizonen bizi-itxaropena	76,4	80,0	79,03
	Emakumeen bizi-itxaropena	83,7	87,3	85,4
	Etorkin atzerritarrak (Europar Batasunekoak eta kanpokoak)	% 1,5	% 10	
	Jaiotza-tasa	‰ 8,8	‰ 12	‰ 9,3 (a)
	Ezgaitasunik gabeko urte-itxaropena 65 urtetik aurrera	10 urte	15 urte	
ENPLEGUA ETA ENPRESAK	16 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa guztira	% 62,5	% 75	% 63,7 (b)
	55 eta 65 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa	% 39,7	% 55	
	16 eta 64 urte bitarteko emakumeen okupazio-tasa	% 49,3	% 60	% 59,8 (b)
	Kalitate- edo etengabeko hobekuntza-sistemak ezarrita dituzten erakundeak	% 30 (10 langiletik gorako enpresetan)	% 75	
	Industria-enpleguaren pisua enplegu guztiarekiko	% 27,5	% 25	% 20 (c)
PRESTAKUNTZA	Etengabeko prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten landunak	% 22,3	>% 90	
	Eskola-porrota	% 17,2	% 13	
PRODUKTIBITATEA	BPGaren hazkundera	2,4%	3%	-% 1,2 (d)
	Produktibitatearen hazkundera landuneko	<%1	%2 urtean	
BERRIKUNTZA POLITIKA PUBLIKOAK	I+Gko gastua BPGarekiko	% 1,5	% 4,5	
	Osasuneko gastua BPGarekiko	% 6,1	% 8	% 8,8 (e)
	Hezkuntzako gastua BPGarekiko	% 5	% 7	
	Gizarte-babeseko gastua BPGarekiko	% 19,6	% 25	% 24,5 (f)
	Presio fiskala eta nahitaezko ekarpenak	% 36 inguru	% 40	
POLITIKA SOZIOSANITARIOA	Adinekoak zaintzeko politika:			
	- Formala (administrazioa)	% 26	% 50	?
	- Informala (familiak)	% 72	% 50	?
PENTSIOAK	Enpleguko aurreikuspen-sistema osagarrietan kotizatzen duten landunak	% 26	% 70	?
	Ordezkapen-tasa (urtebeteko batez besteko pentsioaren eta batez besteko soldataren arteko erlazioa)	% 76,3	% 60	% 63,4 (g)
	Erretiro-adina	65 urte	Librea	?

Iturria: M.A. Duránek egina. 2005eko aurreikuspenarako, Beristain, I. (zuz.): "El envejecimiento de la población vasca y sus consecuencias económicas y sociales", Eusko Jaurlaritza, 2005, 162. or. 2014ko datu egiaztatuetarako, EUSTATen iturri batzuk 2014 ingurukoak.

a) Eustat, bizirik jaiotakoak eta jaiotza-tasak, 2012, 2012ko abenduaren 2a.

b) Eustat, okupazio-tasa, 2013ko IV. hiruhilekoa.

c) Eustat, biztanle landunak sektorearen arabera, 2011.

d) Eustat, hiruhileroko kontu ekonomikoak. 2013ko IV. hiruhilekoan, hiruhileko arteko % 0,3ko hazkundera izan zuen.

e) Eustat, 2013ko Osasun Kontuak, 2012, 2013ko abenduaren 17a.

f) Eustat, 2010eko Gizarte Babesaren Kontua, 2010, 2013ko urtarrilaren 30a.

g) Eustat, errenta pertsonala eta familiarra, 2006. Erretiratu eta pentsiodunen transferentzia-errenten (13.880 euro urtean) eta landunen lan-errenten (21.799 euro urtean) arteko ratioaz ari da. Transferentzia motaren arabera batez besteko errentaren (4.441 euro) eta lan mota guztien batez besteko errentaren (12.290 euro) arteko ratioa % 36,1ekoa da.


“El envejecimiento de la población vasca. Sus consecuencias sociales y económicas”⁷ izeneko txostenak azpimarratzen zuen langileak erretiratzeko unea atzeratzen ari direla, beren borondatez, zerbitzu-sektorean batik bat; izan ere, lan-merkatuan jarraitzeko joera zabaldu da langileen artean, egoera fisiko eta psikologiko ona duten bitartean. 2020. urterako, adinekoen egoerari buruzko aurreikuspena –alegia, pronostikorik probableena– ondorengo taulan laburbiltzen zen. Pronostiko gehienak bete egin dira 2014an, baina jaiotza-tasari eta enpleguari buruzko erreferenteak ez dira bete eta zaila dirudi epe laburrean betetzeak. Hortaz, aipatutako belaunaldien arteko ekonomiaren lau alderdi horiek nola aldatuko diren pentsatu beharra dago.

I.2.2. Bizitza-zikloaren defizitaren finantziazioa.

Defizitak –gastuak laneko diru-sarrerak baino handiagoak diren garaiak– bizitza-zikloaren hasierako eta amaierako etapetan dira nabarmenagoak. Erdiko etapetan, berriz, pilaketa da ezaugarri nagusia. Ekonomia garatuetan, hala nola Euskadikoan, eskolatzea luzatu egiten da. Horren ondorioz, pertsonak gero eta beranduago hasten dira lanean. Aldi berean, lan-arloko legediaren ondorioz, langileak gero eta azkarrago ateratzen dira lan-merkatutik. Erdiko faseetan, handiena da langileen jardueraren balio erantsia, eta horren ondorioz, handia da pilaketa. Aitzitik, garapen-bidean dauden herrialdeetan, pertsonak lehenago hasten dira lanean, eta beranduago erretiratzen dira; hala ere, pilaketa txikiagoa da.

I.2.2-1 grafikoa

Bizitza-zikloaren defizitaren finantziazioa.



Iturria: M.A. Duránek egina, CISen 2013ko ikerlanean oinarrituta, 2014ko otsaila. Euskadiko sarrera maila finkatzeko, % 20 handitu da adin-tarte guztietan. Laginaren % 22k ez du erantzun bere sarrerei buruz. Gastu pertsonalen grafikoa M.A. Duránen estimazioa da; izan ere, ez dago adinaren arabeko gastu pertsonalizatua ematen duen iturririk, baizik eta biztanleko gastua edo etxeen kontsumo-unitateko gastua, etxeko arduradunaren adinaren arabera.

⁷ I. Beristain Etxabek zuzendua, Eusko Jaurlaritzak, 2005.

Bizitza-zikloan zehar, defizita finantzatzeko lau modu daude bereziki: transferentziak, publikoak eta pribatuak, eta aktibo pribatuen eta publikoen (aurretiko aurrezkiak) berresleipenak. Zenbaitetan –adibidez, pentsioen kasuan–, transferentziak alberresleipenak direneztabaida daiteke. Sistemaren beraren finantziario-sistemaren (kapitalizazioa edo zerga bidezko osagarria) arabera da.

Belaunaldien arteko ekonomiak ekarpen handia egiten du zahartzearen ekonomia zer den uler dadin. Baina, oraingoz, oso mugatuta dago, moneta-trukeei soilik lotzen baitzaie, eta alde batera uzten baitu monetarizatu gabeko baliabideak adinekoen ekonomian zer garrantzitsuak diren.


I.2.3. Epe motzeko eta ertaineko proiektzioak: zazpi agertoki desberdin.

Euskadiko biztanleria adinaren arabera aztertuz gero, gizarte garatuetan bezala banatzen dela ikusiko genuke; hots, ezaugarri hauek ditu: jaiotza-tasa txikia, haur-biztanle gutxi, bizi-itxaropen luzea eta adineko kopuru gero eta handiagoa.

Atzerrian jaiotako biztanleen tasa % 8,01koa baino ez da (Espainiakoa, berriz, % 13,47koa da). Biztanleria gazte immigrantearen erdiko eraztuna txikiagoa da antzeko ahalmen ekonomikoa duten beste ingurune batzuetan baino. Euskadiko lurraldeei begira, atzerrian jaiotako biztanleriaren tasa heterogeneoa da: Arabakoa % 10,59koa da, eta beste bi lurralde historikoetan, hiru puntu txikiagoa da (% 7,62koa Bizkaian, eta % 7,46koa Gipuzkoan)⁸⁹.

Batez besteko adina 43,77 urtekoa da. Emakumeak urte gehiago bizi izaten dira; batez beste, gizonak baino 3,03 urte gehiago¹⁰.

I.2.3-1 grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hazkunderaren osagaien bilakaera eta proiektzioa. 1975-2020.




Iturria: EUSTAT. 2020rako biztanleria-proiektzioak.

⁸ INE. 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda, autonomia-erkidegoaren arabera.

⁹ Migrazioek kostu emozional handiak eragiten dituzte sarritan. 2010eko Euskadiko Gizarte Premien Inkestaren arabera, atzerrian jaiotako Euskadiko biztanleen % 64k tristura eta bakardadea sentitzen ditu. Kopuru hori gainerako biztanleena ahalako lau da.

¹⁰ Eustat. Eraitzen azterketa. 2026rako biztanleria-proiektzioak, 34. or.

I.2.3-2 grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria-piramideak. 2013 eta 2026.



Iturria: EUSTAT. 2020rako biztanleria-proiekzioak.

Biztanleria-proiekzioak egiteko, probabletzat hartzen diren hipotesiak erabiltzen dira oinarri gisa, baina ez dago ziurtasunik hipotesi horien inguruan. Erabilitako hipotesietan desberdintasun txikirik egonez gero (esaterako, jaiotza-tasan, heriotza-tasan eta migrazio-saldoetan), desberdintasun handiak sor daitezke epe luzeko proiektzioetan. Horrenbestez, hainbat hipotesiren edo agertokiren konbinazioak erabiltzen dira ikerketetan. EUSTATEk 2025erako proiektatutako agertoki guztiak bat datoz honetan: adinekoen kopuruak gora egingo du. 65 urtetik gorako pertsonak 254.000 eta 261.000 artekoak izango dira, agertoki horien arabera. Agertokien arteko desberdintasuna handiagoa izango da 85 urtetik gorako pertsonen kasuan: 74.000-107.000. 2050. urterako, proiektzioen arteko aldeak handitu egiten dira; zenbaitetan, adinekoen guztizko kopurua txikiagoa izango da 2025ekoa baino, baina, gehienen arabera, handiagoa izango da. Agertokirik txikienaren arabera, 233.000 adineko egongo dira, eta handienaren arabera, berriz, 284.000; hots, % 20ko aldea. 85 urtetik gorako biztanleriari dagokionez, asko handituko da 2025erako proiektzioarekiko; hain zuzen, agertokirik txikienaren arabera, % 32 handituko da, eta handienaren arabera, ordea, % 264.

Adineko gehienak emakumeak izango dira, eta beren ezaugarri bereziak izango dituzte: pentsioak, higigarrien eta higiezinaren jabetza, gaixotze-tasa, osasun-estaldura, zaintzaile potentzialak eskura izateko aukera, eta norberaren burua zaintzeko eta besteak zaintzeko aukera. Zenbait agertokitan kalkulatu denaren arabera, 85 urtetik gorako pertsonen taldean, gizonen eta emakumeen arteko proportzioa 3-7 izango da.

Gaur egun, lurraldearen arabera aztertuta, gizonen eta emakumeen arteko zahartze maila ez da oso desberdina, baina aipatzekoa da, hala ere. Euskadin, gizonen artean, 65 urtetik gorakoak % 17,0 dira, eta emakumeen artean, berriz, % 22,5. Araban (Gasteiz), portzentajezko lau puntuko aldea dago, eta Bizkaia eta Gipuzkoan, aldea portzentajezko bost puntukoa da.

I.2.3-1. taula
Adineko biztanleria, agertokiaren, adin-taldearen, urtearen eta sexuaren arabera. 2010-2025-2050.
Agertoki demografikoak

	2010						2025						2050					
	A		B		C		% B / A		D	E	F	% E / D	% D / A	G	H	I	% H / G	% G / A
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak			
BAT	65-74	205	93	111	45,7	260	119	141	45,9	126,8	233	108	125	46,4	113,9			
	75-84	162	65	97	40,2	178	72	106	40,4	109,9	278	89	129	32,0	171,5			
	≥85	55	16	40	28,5	75	22	53	29,5	134,7	103	31	73	30,1	186,3			
BI	65-74	204	93	111	45,8	255	116	139	45,5	124,9	255	117	138	45,9	125,0			
	75-84	164	66	98	40,4	180	73	107	40,5	109,7	223	90	132	40,4	135,7			
	≥85	62	18	44	29,1	88	27	61	30,7	141,4	116	36	80	31,0	186,5			
HIRU	65-74	200	92	109	45,7	260	122	139	46,9	129,9	284	141	143	49,6	141,8			
	75-84	156	62	94	39,8	186	78	107	42,0	119,0	282	133	149	47,2	180,6			
	≥85	55	16	39	28,6	86	27	59	31,4	157,0	188	70	118	37,2	343,4			
LAU	65-74	200	92	109	45,7	260	122	138	46,9	129,9	284	141	143	49,6	141,8			
	75-84	156	62	94	39,8	186	78	107	42,0	119,0	282	133	149	47,2	180,6			
	≥85	55	16	39	28,6	86	27	59	31,4	157,0	188	70	118	37,2	343,4			
BOST	65-74	200	92	108	45,9	254	117	137	46,1	127,1	275	134	141	48,7	137,6			
	75-84	155	63	92	40,7	178	75	103	42,1	114,9	266	122	144	45,9	171,7			
	≥85	62	18	44	29,2	108	35	73	32,4	174,8	265	100	165	37,7	428,8			
SEI	65-74	206	95	111	46,0	261	120	141	46,0	126,6	233	108	126	46,4	113,0			
	75-84	164	67	97	40,7	181	74	107	40,9	110,3	227	94	134	41,4	138,4			
	≥85	59	17	41	29,2	85	26	59	30,6	145,1	118	36	82	30,5	201,4			
ZAZPI	65-74	202	93	109	46,1	260	121	139	46,5	128,5	252	123	129	48,8	124,6			
	75-84	155	63	91	41,0	179	76	103	42,5	115,8	271	125	146	46,1	175,4			
	≥85	57	16	41	28,6	102	32	70	31,4	178,7	269	102	167	37,9	471,3			

Iturria: EUSTAT, 2050erako agertoki demografikoak.

1.2.3-2. taula
Biztanleria potentzialki aktiboa, agertokiaren, urtearen eta sexuaren arabera. 2010-2025-2050 (milatan). Agertoki demografikoak

	2010				2025				2050				Adinekoen %, biztanleria potentzialki aktiboarekiko	
	Guztira		Emakumeak		Guztira		Emakumeak		Guztira		Emakumeak			Adinekoak
	Guztira	%	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%	Gizonak	Emakumeak		
BAT	1.281	639	642	1.070	533	537	259	24,2	670	335	336	232	34,6	
BI	1.316	653	663	1.210	600	610	254	21,0	996	498	498	254	25,5	
HIRU	1.327	664	663	1.233	621	612	260	21,1	1.025	521	504	284	27,7	
LAU	1.327	664	663	1.232	620	612	260	21,1	1.102	561	541	284	25,8	
BOST	1.320	658	662	1.219	610	609	261	21,4	1.094	554	539	275	25,1	
SEI	1.287	640	647	1.063	528	536	261	24,6	501	249	252	233	46,5	
ZAZPI	1.285	639	646	1.068	532	535	260	24,3	514	259	254	252	49,0	

Iturria: M.A. Duránek egina, EUSTATen 2012ko datuetan oinarrituta. 2050erako agertoki demografikoak.

1.2.3-3. taula
Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, lurralde-eremuaren, adin-talde handien eta sexuaren arabera. 01/11/2011

	Biztanleak, guztira				65 urteko edo gehiagoko biztanleak				D1	E1	F1				
	A		B		C		D					E		F	
	Guztira	%	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%	Guztira	%				Gizonak	Emakumeak		
Guztira	2.179.815	100,0	1.063.575	100,0	1.116.240	100,0	431.460	100,0	180.850	100,0	250.610	100,0	19,8	17,0	22,5
Arabar/Álava	321.254	14,7	160.003	15,0	161.251	14,4	57.866	13,4	25.678	14,2	32.188	12,8	18,0	16,0	20,0
Bizkaia	1.153.351	52,9	557.765	52,4	595.586	53,4	234.497	54,3	96.659	53,4	137.838	55,0	20,3	17,3	23,1
Gipuzkoa	705.210	32,4	345.807	32,5	359.403	32,2	139.097	32,2	58.513	32,4	80.584	32,2	19,7	16,9	22,4

Iturria: Eustatek egina. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak. 2011

Orobat, aktiboa izan daitekeen biztanleriaren proiektzioetan (Eustat) zazpi agertoki erabiltzen dira (1.2.3.-1 taulatik 1.2.3.-3 taulara). Agertoki horietako seitan aurreikusten denaren arabera, 2025ean gizon baino emakume gehiago egongo dira adin aktiboan. Agertoki bakoitzean, adinekoen eta adin aktiboan dauden pertsonen arteko proportzioa % 21 eta % 25 artekoa da 2025erako, eta % 25 eta % 46 artekoa 2050erako. Adineko biztanleriak eragingo duen presio handi horren ondorioz, zaila izango da pentsioen eta kotizazioen arteko erlazioari eustea kotizatzaile kopurua handitu gabe. Eta kopuru hori handitzeko aukerak hauek dira: langileen denboraldi aktiboa luzatzea, emakume gehiago lan-merkatuan sartzea eta beste eskualde edo herrialde batzuetako immigranteak etortzea. Emakumeak enpleguaren merkatuan sartzea oso onartuta dago gizartean, baina emakumeak dira, gaur egun, etxean haurrak eta, batez ere, edadetuak zaintzeaz arduratzen direnak, eta ardura hori ordaindu gabea izaten da. Hortaz, emakume gehiago lanean has daitezten, behar-beharrezkoa da zama hori arintzeko neurriak hartzea. Administrazio Publikoari eta enpresei dagokie teknologia, zerbitzu eta programa berriak asmatzea eta martxan jartzea, etorkizuneko egitura demografikoarekin bat datozen bizi-estiloak bideratzeko. Beste Autonomia Erkidego batzuekin alderatuta, Euskadi ahalmen demografikoa galtzen ari da. 2006an, Espainiako biztanleen % 4,80 eta etheen % 5 zen. 2012an, biztanleen % 4,66 eta etheen % 4,90 da¹¹.

Agertokien arteko aldeak gorabehera, zahartzerako joera oso argia eta eztabaida ezina da; gehienbat, 85 urtetik gorako adinekoen proportzioaren hazkundea dela eta. Hamar urte barru, gizarte zahartua izango da Euskadikoa, eta prozesu hori hurrengo mende erdian zehar areagotuko da.

1.3. "ADINEKO" TERMINOAREN DEFINIZIO ANITZAK: ADINA, OKUPAZIOA, BIZIMODUA.

1.3.1. Zahartze-prozesuko atariak

Iritzi publikoak irudi lausoa izan ohi du adinekoari buruz, adinari, lan-egoerari, osasunari, jarrerari eta bizimoduari lotutako irizpideek bat egiten dutelako. Ohiko ekonomiako inaktibo guztiak ez dira adinekoak, nahiz eta 65 urtetik gorako gehienak inaktiboak izan.

Zahar, adineko edo edadetu hitzak anbiguoak dira, eta haien erabileraren mugak nahiko lausotuta daude. Hala ondorioztatu zuen CISEk eta IMSERSOK 2010ean adinekoen buruz 65 urtetik gorako pertsonen artean egindako inkestak. Elkarrizketatuen herenak baino gehiagok esan zuen "persona zaharra" izatea ez dagoela adinaren mendean. % 26ren ustez, 75 urtetik gorakoak dira zaharrak, eta % 4k uste zuen 60 urtetik gorakoak direla. % 16k soilik estatistiketan gehien erabiltzen den eta erretiroa hartzeko lege-irizpidetzat hartzen den definizioarekin egin zuen bat; hau da, 65 urteko adinarekin. Gehienek erantzun zuten 70 urtetik gorakoak direla zaharrak. Elkarrizketatuen adinak eta generoak ez zuen eragin handirik izan emaitzetan. Ikerlan eta txosten askotan, zahartzearen muga zenbait ataritan kokatzen da. Horrek adinekoekiko politikak baldintzatzen ditu: garraio-hobariak, borondatezko erretiroa edo lanaldi murriztua hartzeko aukera eta abar.

¹¹ INE, Familia Aurrekontuen Inkesta, 2006-2012.

Adinekoa edo erretiratu izateko bidean, jarduera-aldaketa asko gertatzen dira, baina harrigarria da gehien-gehienak naturaltasun handiz egokitzen direla aldaketa horietara. Gizonen % 47k eta emakumeen % 60k adierazi zuten ez zela beren bizitzako une bereziki garrantzitsua izan. Gizonen % 28ren ustez, erretiroa askapena izan zen, baina emakumeen % 8k soilik hartu zuen horrela; hain zuzen, gizon eta emakume horiek aurretiko harreman desberdina izan zutelako lan- eta familia-esparruekin. Batez ere, duela gutxi erretiratuek adierazi zuten sentimendu hori; zaharrenek, berriz, askoz gutxiago azaldu zuten. Galera- eta hutsune-sentimendua handiagoa zen emakumeengan gizonengan baino (% 13 eta % 10, hurrenez hurren), baina ez zen ohikoa izan, ez batzuentzat, ez besteentzat.

I.3.2. Adinekoa eta inaktiboa ez dira sinonimoak

Zalantzakoa izan daiteke zenbateraino gizarte-babeseko sistemek laguntzen duten errealitate desberdinak sortzen edo besterik gabe modu desberdinean erregistratzen. Inaktibitatearen irudia emakumeekin lotuago dago gizonekin baino, baina gizonak Euskadiko inaktibo guztien % 40 eta Espainiakoen % 41 dira.

EPAren informazioak inaktibitatea zer den eta nola banatzen den argitzen du (I.3.2-1 taula): jarduera ekonomikoari baino ez dagokio, langabeak bazter uzten ditu eta sei kategoriatan banatzen da: ikasleak, erretiratuak, etxeko langileak, ezgaituak, bestelako pentsioen jasotzaileak eta beste batzuk. Euskadin eta Espainian oso antzekoa da banaketa, baina desberdintasunak agerikoagoak dira generoa aintzat hartzen badugu. Hala, Euskadiko gizonezko inaktiboaren artean ikasleak gutxiago dira, erretiratuak gehiago eta ezgaituak gehiago. Emakumezko inaktiboei dagokienez, desberdintasunak txikiagoak dira gizonezkoen artean baino, baina bestelako pentsioen jasotzaileen (alargunak eta abar) proportzioa Espainian baino handiagoa da, eta erretiro-pentsioak jasotzen dituztenen ehunekoa txikiagoa da.

Euskadiko inaktiboaren artean, 65 urtetik gorakoaren proportzioa % 55ekoa da, eta % 72tik gorakoa da 55 urtetik gorako inaktiboak gehituz gero. Espainiakoa baino proportzio handixeagoa da.

I.3.2-1. taula

Euskadiko eta Espainiako inaktiboak, inaktibitate mota nagusiaren eta sexuaren arabera. (ehunekotan)

	Bi sexuak		Gizonak		Emakumeak	
	Espainia guztira	Euskadi guztira	Espainia guztira	Euskadi guztira	Espainia guztira	Euskadi guztira
Guztira	100	100	100	100	100	100
Ikaslea	13,3	12,6	16,1	14,7	11,4	11,1
Erretiratu edo aurretik erretiratu		37,3	60,8	64,1	21,3	18,9
Etxeko lanak	27,3	26,7	7,2	7,1	40,9	40,2
Ezgaitu iraunkorra	8,4	8,7	9,3	10,5	7,7	7,5
Erretiroko edo aurre-erretiroko pentsioa ez den beste baten jasotzailea	11,2	13,3	2,3	1,5	17,2	21,4
Bestelakoak	2,7	1,3	4,4	2	1,5	0,9

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkesta, 2013ko 3. hiruhilekoa..

I.3.2-2. taula

Inaktiboak Euskadin eta Espainian, adin-taldearen eta sexuaren arabera.

	Bi sexuak		Gizonak		Emakumeak	
	Espainia guztira	Euskadi guztira	Espainia guztira	Euskadi guztira	Espainia guztira	Euskadi guztira
Guztira	100	100	100	100	100	100
16 eta 19 urte bitartean	9	7,5	11,2	9,8	7,5	6
20 eta 24 urte bitartean	5,9	5,4	6,9	5,6	5,3	5,2
25 eta 34 urte bitartean	4,6	3,3	3,9	2,8	5	3,7
35 eta 44 urte bitartean	5,7	4	3,5	2,5	7,2	5,1
45 eta 54 urte bitartean	7,6	7,3	5,1	4,1	9,4	9,4
55 eta 64 urte bitartean	15,6	17,6	14,7	17,5	16,3	17,6
65 urtetik gora	51,5	54,9	54,7	57,6	49,4	53,1

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkesta, 2013ko 3. hiruhilekoa..

Inaktiboaren hezkuntza maila formala txikiagoa da herritarren batez bestekoa baino, horien garaian hezkuntza-sistema mugatuagoa baitzen hezkuntza maila guztietan, batik bat emakumeentzat.

EParen arabera (2013ko hirugarren hiruhilekoa) Espainiako inaktiboaren % 4 analfabetoa da, % 46k oinarrizko ikasketak ditu, % 38k ikasketa ertainak eta % 12k goi mailako ikasketak, askotarikoak. Azken bi kategoria horien artean, adinekoen proportzioa txikiagoa da aurreko bietan baino, eta ikasten jarraitzen duten ikasle gehiago daude.

Lan-merkatutik inaktibitatearako trantsizioak estaldura ekonomikoan izaten du isla. Hala, 50 eta 69 urte bitarteko inaktiboaren % 34k jasotzen du estaldura ekonomiko edo pentsio motaren bat Espainian, eta % 37k Euskadin. Desberdintasun horren arrazoi nagusia Euskadiko aurre-erretiroko pentsioak ohikoagoak izatea da. Adin-tarte horretan pentsioa jasotzen dutenen % 5,08 aurretik erretiratu da Euskadin, eta % 3,38 Espainian. Orobat, erretiro-pentsioak jasotzen dituztenen artean, aurretik erretiratuak ugariagoak dira Euskadin. Egungo erretiratuaren % 74 aurretik erretiratu zen Euskadin, eta % 60 Espainian.

Gaur egun, 55 urtetik gorako hamar milioi lagun baino gehiago inaktiboak dira Espainian. Adin horretako herritarrek inaktibo bihurtzeko arrazoiak askotarikoak dira. Arrazoi nagusia erretiroa hartzea da. Hala ere, langileak ez dituzte erretiroa ez bestelako baldintzak bere borondatez aukeratzen kasu guztietan. Euskadin, 16 urtetik gorako 813 mila inaktibo daude¹².

Ekonomia monetarizatuarekiko inaktibitatearen egiturazko arrazoiak desberdinak dira gizonen artean eta emakumeen artean. Nahiz eta familia-ereduak aldatu diren, emakume asko ez dira lan-merkatu sartzeko, beraiek nahita edo adskripzio sozialaren ondorioz, haurrak, ezgaituak, adinekoak edo bestelako familia-ardurak zaintzen jarduten dutelako. Hogeita bost urteko gazteen artean, inaktibitatearen

¹² Eustat, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, 2014ko 1. hiruhilekoa.

arrazoi nagusia ikasketak dira. Hori berdin gertatzen da gizonen zein emakumeen artean. Adin horretatik aurrera, adoregabatasuna da (lanik ez dutela aurkituko uste dute) inaktibitatearen arrazoi nagusia, hein berean gizonetan eta emakumeetan. Adin horretatik aurrera, emakumeen adoregabatasuna handituz doa eta, gizonekin alderatuta, lau halakoa izatera iristen da 45 eta 49 urte bitartekoen artean. Aldi berean, familia zaintzeak eragindako inaktibitatea ere handitu egiten da. Gizonen artean, arrazoi hori hutsala da, baina emakumeen artean arrazoi nagusia izatera heltzen da.

55 urtetik aurrera (1.3.2-3) inaktiboa izateko arrazoi nagusia erretiroa hartzea da. Norberaren gaixotasunak eragindako inaktibo kopurua berdina da gizonetan eta emakumeetan. Erretiroa hartu dutelako inaktiboak diren gizonen kopuruak bikoiztu egiten du arrazoi beragatik inaktibo diren emakumeena. Familia-ardurak direla eta lan-merkatutik kanpo dauden emakumeen kopurua, ordea, hogeitaz handiagoa da arrazoi beragatik inaktibo diren gizonena baino. Lan egin ondorengo errentek gizonak babestuko dituzte, baina ez emakumeak. Familia zaintzeko adskripzio soziala hain estua izanik, zaila izaten da bereiztea noiz den emakumeek askatasunez hartutako erabakia eta noiz onartzen duten egiturazko presioa ordezkotzeko aukerarik ez dutelako. Victoria Campsen hitzetan¹³, emakumeek ez dute ekipamendu genetiko hobe gaixoak eta adinekoak zaintzeko, baizik eta ohituago daude hori egitera eta horretarako hezita herentzia historikoagatik. EPA ez da oso tresna zorrotza horrelako egoerak antzemateko, eta doikuntza hobeak eta bestelako diseinua behar dira horretarako: 55 urtetik gorako emakumeen % 58, hain zuzen, sailkaezinetan sailkatzten da, edo lana ez bilatzeko arrazoiak "bestelako arrazoiak" direla erantzuten du.

Adineko inaktibo gehienak edo, bestela, haiekin bizi den ezkontidea euren etxeko erreferentzia-pertsonak dira. Hala ere, 70 urtetik gorako inaktiboek % 16k bestelako harremanak ditu: etxeko erreferentzia-pertsonaren gurasoak, aitagarreba-amagarreba edo anai-arreba dira. Ez da oso proportzio handia, baina bai kontuan hartu beharrekoa gizarte-babesa esleitzeko prozeduretan.

Elkarrekin bizitzeko ezkontidea izateko aukera oso desberdina da 65 urtetik gorako gizonen eta emakumeen artean. Hala, emakume inaktiboek % 42 alarguna da, eta izaera bereko gizonen % 12 soilik da alarguna¹⁴.

¹³ Camps, Victoria. Hemen: VVAA, *Libro Blanco del Envejecimiento Activo*, IMSERSO, 2011.

¹⁴ EPA, 2013, 3. hiruhilekoa, Espainiarako datuak.

I.3.2-3. taula

Inaktiboak adin-taldearen, sexuaren eta lana ez bilatzeko arrazoiaren arabera.
(Milaka pertsonatan)

	A ₁	A ₂	B ₁	B ₂	C ₁	C ₂	D	55 urtetik gora					
	Guztira	%	Gizonak	%	Emakumeak	%	C ₂ B ₂	Guztira	%	Gizonak	%	Emakumeak	%
Bi sexuak guztira	15.413,1	100,0	6.221,5	100,0	9.191,6	100,0	1,00	10.348,9	100,0	4.312,8	100,0	6.036,1	100,0
Uste du ez duela aurkituko	560,8	3,6	175,4	2,8	385,4	4,2	1,48	205,8	2,0	58,7	1,4	147,1	2,4
Enplegu-erregulazio baten eraginpean dago	17,6	0,1	10,9	0,2	6,7	0,1	0,41	10,4	0,1	6,0	0,1	4,4	0,1
Norberaren gaixotasuna edo ezgaitasuna	1.634,3	10,6	825,2	13,3	809,2	8,8	0,66	821,5	7,9	407,5	9,4	414,1	6,9
Haurrak, gaixoak, ezgaituak edo adinekoak zaintzea	565,7	3,7	24,1	0,4	541,6	5,9	15,21	87,1	0,8	6,6	0,2	80,5	1,3
Bestelako ardura pertsonalak edo familiarrak	1.442,5	9,4	119,0	1,9	1.323,4	14,4	7,52	695,0	6,7	30,8	0,7	664,2	11,0
Ikasketak egitea edo prestakuntza hartzea	1.971,1	12,8	974,2	15,7	996,9	10,8	0'69	0,4	0,0	0,4	0,0
Erretiratuta egotea	3.296,7	21,4	2.097,7	33,7	1.198,9	13,0	0'38	3.280,6	31,7	2.084,9	48,3	1.195,7	19,8
Bestelako arrazoiak	1.657,1	10,8	278,1	4,5	1.379,0	15,0	3'35	1.198,1	11,6	104,4	2,4	1.093,7	18,1
Ez daki	23,1	0,1	11,5	0,2	11,6	0,1	0'68	4,1	0,0	2,1	0,0	2,0	0,0
Sailkatzina	4.244,2	27,5	1.705,3	27,4	2.538,9	27,6	1,01	4.045,8	39,1	1.611,9	37,4	2.434,0	40,3

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkesta, 2013ko 3. hiruhilekoa..

Langile asko adin aktiboa luzatzearen aurka daude. Langile gehienek 65 urte bete baino lehen nahiko lukete erretiroa hartu, eta % 7k baino ez luke geroago hartuko. Hala ere, iritzi hori beste garai batekoa da; hain zuzen, enplegua bermatuta zirudien garai batekoa, jendeak gizarte-babeseko sistema bideraezina izen zitekeen ere uste ez zuen garai batekoa. 2014ko krisiaren testuinguru honetan, langabeziak bere horretan jarraitzen duen eta gazte asko lanik gabe dauden garai honetan, ez da egokia lan-bizitza luzatzea beharrezkoa dela adierazteko. Dena den, ez dirudi epe laburrean eta ertainean beste faktorerik sortuko denik (adibidez, beste iraultza teknologiko bat), monetarizatutako ekonomiari egitura demografikoa konpentsatzeko adinako balio erantsia emango dionik. Demografia ez da arazo bat, baina bai erronka bat, eta horri aurre egitea ez da adinekoen eginkizuna; izan ere, enpresariei dagokie balio erantsi handiko enpleguak sortzea.

“Inaktibo” terminoak adiera asko ditu, eta besteak beste, karga negatiboa du adinekoiei dagokienez; alde batetik, errealitatearekin bat datorren ikuspegitik, adinekoak ez baitira enplegua bilatzen ari, baina, beste batetik, ikuspegi psikologiko iraingarri batetik, geldotasunarekin eta utzikeriarekin erlazionatzen baititu adinekoak.

I.3.2-4. taula

Etxeak eta pertsonak, sostengatzaile nagusiaren sexuaren eta adinaren arabera (%) (ehunekotan)

	Etxeak 2012	Pertsonak 2012
Guztira	100,00	100,00
16 eta 29 urte bitarteko pertsonak	4,96	4,18
30 eta 44 urte bitarteko pertsonak	30,92	33,63
45 eta 64 urte bitarteko pertsonak	36,85	41,57
65 urtetik gorako pertsonak	27,28	20,63
Gizonak guztira	68,60	73,92
16 eta 29 urte bitarteko gizonak	2,99	2,51
30 eta 44 urte bitarteko gizonak	21,75	24,51
45 eta 64 urte bitarteko gizonak	26,95	32,19
65 urtetik gorako gizonak	16,90	14,71
Emakumeak guztira	31,40	26,08
16 eta 29 urte bitarteko emakumeak	1,97	1,67
30 eta 44 urte bitarteko emakumeak	9,17	9,11
45 eta 64 urte bitarteko emakumeak	9,89	9,38
65 urtetik gorako emakumeak	10,38	5,91

Iturria: INE, Familia Aurrekontuen Inkesta. 2006ko oinarria, 2012. urtea.

Iturri askok adin-kategoria erabiltzen dute sostengatzaile nagusiaz dihardutenean. Horrela, kategoria berria agertzen da: ez da "adinekoa", "adinekoaren etxea" baizik, eta horretan sostengatzailearekin bizi diren guztiak sartzen dira, haien adina edozein dela ere. Etxeen tamaina aldakorra denez, zahartzeaz ari garenean, pertsonak, sostengatzaile nagusiak edo adinekoek sostengatutako etxeetan bizi direnak izan ditzakegu hizpide. Horrez gain, badira adinekoak beren etxean bizi ez diren pertsonak diruz sostengatzen dituztenak, baita adinekoak ez diren pertsonak sostengatutako etxeetan bizi diren adinekoak ere.

Adinekoek nagusiki sostengatutako etxeak asko dira Espainian: guztien % 27,28 dira. Hala ere, pertsonen % 20,63 soilik bizi da horietan. Adineko gizonetako sostengatutako etxeen kasuan, ez dago alde handirik etxeen (% 16,90) eta pertsonen (% 14,71) artean, baina adineko emakumeetako sostengatutako etxeetan, askotan pertsona bakarrekoak direnetan, pertsonen ehunekoa (% 5,91) etxeen ehunekoa (% 10,38) erdia da (I.3.2-4 taula).

Helburu batzuetarako, "adinekoaren" kontzeptua bat dator erretiratuaren kontzeptuarekin. Halere, egoera desberdinak dira. Inkesta beraren arabera, ordaindutakoaren araberrako pentsioak eta laguntzako pentsioak (erretiroa, baliaezintasuna, alarguntasuna) jasotzen dituzten pertsonak sostengatutako etxeak % 32,68 ziren Espainian 2012an, eta horietan biztanleen % 25,7 bizi zen.

1.4. ZENBAIT MITO (ETA HAIN MITO EZ DIRENAK) ZAHARTZEAK EKONOMIAN DUEN ERAGINARI BURUZ

Fenomeno demografiko gisa, zahartzea gizarte-testuinguru desberdinetan gertatzen da, eta testuinguru horietan, zahartze maila berdina izan arren, emaitzak oso bestelakoak dira. Gertatuko denari buruzko ideiak gizarte-testuinguru jakin batean daude, eta testuinguru hori hertsiki lotuta dago testuinguru demografikoarekin. Biztanle gehienek eta erakundeek ideia berberak badituzte, presioa egin dezakete, “berez betetzen den profezia” gerta dadin. Zahartzeak ekonomian dituen ondorioei buruzko ideietatik, ezagunenak oinarri sendorik gabeko mitotzat hartu dituzte analistek. Besteak beste, hauek nabarmentzen dira¹⁵:

- 1) Zahartzea adinekoen kontua da.
- 2) Zahartzeak bizitza maila okertzea dakar berekin.
- 3) Edadetuen osasuna apurka-apurka makaltzen da, eta hori dela eta, lan egiteko ahalmen mugatua dute. Gainera, lan egiten duten adinekoak ez dira besteak bezain produktiboak.
- 4) Erretiroa bedeinkazioa da.
- 5) Adinekoek lanean jarraitzeak gazteen langabezia sortu eta belaunaldien arteko gatazkak egiten ditu.

Oraingoz, ezin da historikoki egiaztatu bizitza mailak behera egiten duenik; izan ere, egungo gizarte zahartuak munduko oparoenak dira. Hain zuzen ere, lehenago oparoak izan direlako dira orain zahartuak. Euskadik gizarte zahartua du, eta bizitza maila handikoa: eztabaida ez da orainari buruzkoa, etorkizunari buruzkoa baizik; alegia, zahartze-tasak handia izaten jarraitzen badu, eutsiko al diogu oparotasuneko eta pilaketako hamarkadetan zehar lortutako bizitza mailari? Zientzia esperimentaletan ez bezala, gizarte-zientzietan ez dago fenomenoak guztiz isolatzerik haien ondorioak aztertzeko, eta zaila da galdera horri erantzun kategorikoak ematea.


Jakina, zahartzea adinekoen kontua da. Hala ere, gizarteak ez dira zahartuak edadetu asko dituztelako, baizik eta adinekoen kopurua eta beste adin-talde batzuetako pertsonen kopurua proportzionalak direlako. Euskadiren kasuan, pertsona-talde bereziki handiak zahartzarora helduko direla alde batera utzita, ezinbestekoa da egitura demografikoa zahartzea; izan ere, ez da aurreikusten jaiotza-tasa handituko denik edo immigrante gazte asko etorriko direnik. Halaber, ez dirudi adineko biztanleriaren emigrazioa handituko denik; esate baterako, aurreko hamarkadetan beste Autonomia Erkidego batzuetatik etorritako langile guztiak ez dira beren jaioterrietara itzuliko, erretiroa hartu ondoren.

¹⁵ Börsch-Suppon, Axel “Myths, scientific evidence and economic policy in an aging world”. The Journal of The Economics of Aging, 1-2 (2013) 3-15. Munich Center for the Economics of Aging Max Planck, Institute for Social Law and Social Policy, Germany.

Biztanle askoren ustez, lan egin osteko garaia askapen moduko bat da, lan-giro txar batetik ateratzen direlako, edo ziurgabetasun ekonomikoaren aurkako berme moduko bat da (diru-sarrerak egonkortu egiten dira, lan egin beharrik gabe edo enpresa-porrotaren arriskurik gabe). Ikuspegi positibo horren ondorioz, erretiroak bizkortu egingo dira. Ildo horretan, biztanleriaren ikuspegi positiboak ez luke biztanleria landuna zahartzen lagunduko, baina zahartze fiskala bideratuko luke; alegia, erretiratuaren proportzioa handia izango litzateke langile landunen kopuruarekin alderatuta. IMSERSOk 2010ean egindako Adinekoei buruzko Inkestaren arabera, edadetuen %16k soilik esan zuen erretiroa askapena izan zela. Hala ere, erretiroaren hasierako momentuan izan zuten sentsazio hori, bereziki. Oso litekeena da erretiroari buruzko itxaropen oso positiboak dituztenek erretiroa hartzea. Gainera, azpimarratu behar da inkestek oso gutxitan kontuan hartzen dituztela oso osasun-egoera txarrean dauden pertsonak edo gizarte-bazterketako egoeran daudenak; horrenbestez, elkarrizketatuen batez besteko profila hobetu egiten da. Zenbait testuingurutan, ohikoa da erretiroa bedeinkapentzat hartzea; adibidez, enplegu formal eta oparoko testuinguruetan, ekonomia hedakorrek zerbitzu publikoak bermatzen dituenean, inflazio-egonkortasuna dagoenean, pentsio-sistema arriskuan ez dagoenean. Krisi ekonomikoa piztu aurretik, Euskadik baldintza horiek guztiak betetzen zituen, baina, 2014an, ezin dira segurutzat hartu. Pentsioen zenbatekoak ez dira oraindik gutxitu, eta zerbitzu publikoen edo enpleguaren beherakada ez da oso gogorra. Dena den, iritzi publikoko hainbat ahots gero eta gehiago ari dira esaten pentsio publikoak aurrezki pribatuaren eta enpresako pentsio-planen bidez osatu behar direla. Erretiroa inoiz idilikoa izan baldin bada, hemendik aurrera irudi horri eusteko zailtasun handiak egongo dira.

I.4-1 grafikoa

Urritasunari, osasun txarrari eta gaixotasun kronikoei aurre egin dietenen heriotza-tasa eta kurba teorikoak. Bizirik daudeneko lerroak.



Iturria: INE, 2002. Minusbaliotasun, urritasun eta osasun-egoerei buruzko inkesta, 1999.

Edadetuen osasunari dagokionez, okerrera egiten du; hori ez da mito bat, errealitate ukaezina baizik. Beste gauza bat da noiz, zenbat eta zertarako egiten duen okerrera. Euskadin, 65 urtetik gorakoen % 57k adierazi du ez duela inolako mendekotasun funtzionalik, ez bere burua zaintzeko, ez etxeko lanak egiteko edo mugitzeko. Adierazle hori 3,5 puntu hobea da Espainiakoa baino, gizonen

zein emakumeen kasuan. Halaber, antzeko arreta jarri behar da lan egiten duten adinekoek produktibitate txikia dutela esan aurretik. INEk argitaratutako kurbek erakusten dutenez, osasunak okerrera egiten du urteak egin ahala. Hala ere, 65 urteko pertsonen % 50etik gorako probabilitatea dute osasun ona izateko; beste modu batean esanda, litekeena da adin hori duten biztanleen erdiek lan egiteko gaixotasun-arazo handirik ez izatea. Ez badute lan egiten, beste arrazoi batzuentatik izango da, eta ez horregatik.

Osasunak okerrera zenbat egin dezakeen zehazteari dagokionez, kontzeptuzko akats bat egiten da: osasuna eta gaixotasuna bi mundu baztertzailatzat zehaztea. Egia esan, continuum bat osatzen dute, eta horretan, askotariko egoerak daude, eta intentsitate desberdineko barne-parametro asko. 75 urtetik gorakoen % 54k osasun-egoera ona edo oso ona duela esaten du¹⁶. Demografia modernoko gizarteetan, biztanle gehienak "osasuntsu samar" daudela esaten da; "pixka bat gaixo" edo "pixka bat minusbaliatuta" daudela esateko beste modu bat da.

Azkenik, zertarakoa aztertuko dugu. Osasuntsu edo gaixo egotea edo minusbaliatuta egotea edo ez egotea ez da abstraktua; izan ere, helburu jakin baterako egon daiteke gaixorik edo minusbaliatuta. Euskadiko gizartea eta ekonomia behar bezala prestatzen badira, "pixka bat gaixorik" edo "pixka bat minusbaliatuta" dauden pertsona askok aurreko bizimoduari eutsi ahal izango diote; hots, gaixotasuna edo minusbaliotasuna sortu aurrekoari. Oso adibide adierazgarria leiarren teknologian izandako aurrerapena da; horri esker, betaurrekoak erabiltzen dituztenak normaltzat hartzen ditugu gaur egun. Antzekoa gerta daiteke laneko eta eguneroko bizitzako beste esparru askotan, baldin eta baldintza demografiko berrietara moldatzen badira. Adibidez, hirigintzan (norberaren ibilgailuarekiko mendekotasunik eza, eraikinen irisgarritasuna, zirkulazio-seinaleen argitasuna eta tamaina, etab.) eta tresna egokien diseinuan egin behar dira aldaketak. Lan egiten duten adinekoen produktibitatea txikia delako ideia ere berriro aztertu behar da. Lan-arloko legeek eta kulturak (enpleguaren segurtasun maila, pizgarri motak, etab.) ere eragina dute produktibitatean; langileen adinaren araberako osaerak adinakoa edo handiagoa. Esperientzia, berez, bizkortasunaren edo indar fisikoaren galera konpentsa dezakeen elementua da. Lanean jarraitzea sustatuta badago edo borondatezkoa bada, adinekoek produktibitate handiari euts diezaiokete luzaroan, lanpostu askotan.

Belaunaldien arteko gatazka pil-pilean dago beti edozein gizartetan, baina, krisi-garaietan, areagotu egiten da. Gatazka horretan, langile mota askok egiten diote kontra elkarri (bertakoak/kanpokoak, finkoak/behin-behinekoak, gizonak/emakumeak, erakunde publikoetako/pribatuetako langileak, sindikatuta/sindikatu gabe daudenak, etab.). Hau da, gatazka ez da soilik gazteen eta adinekoen artekoa. Askotan, argudio hori belaunaldi helduaren posizioak indartzeko erabiltzen da, gazteak babesteko erabiltzen dela ematen badu ere, eta horren ondorioz, adinekoen erretiroak ez du gazteen aukerak handitzea edo lana aurkitzea eragiten.

¹⁶ INE, Osasunaren Inkesta Nazionala, 2011-2013.

II. KAPITULUA

ADINEKOAK EUSKADIKO KONTU EKONOMIKOETAN. ORAINA ETA GEROA

II.1. EUSKADIKO ESPARRU EKONOMIKOA. FAMILIEN ERRENTAK, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

Euskal ekonomiari buruzko 2013ko IV. hiruhilekoko txostenaren arabera, krisialdiaren faserik larrienaren ostean, agerikoa da susperraldia. Halere, hori ez da urte arteko tasa negatiboak atzean uzteko bezain indartsua. Daturik onena etheen azken kontsumoari buruzkoa da, batez ere igurikimenen hobekuntzari dagokionez.¹⁷

Sarrera metodologikoa genioen legez, Euskadiko ekonomia irekia da, eta horretan, irizpide mugatzaileak estatistikaren eta kontabilitatearen alorretako konbentzioei zor zaizkie. Euskadiko lurraldean bizilekua izateko irizpidea erabakigarria da ekoizleak eta kontsumitzaileak nor diren legez eta kontabilitatez zehazteko, bai herritarrei buruz ari garela, bai etxe, enpresa eta erakundeei buruz ari garela. Halere, era guztietako truke-fluxuak arinak eta biziak dira, eta areago izango dira etorkizunean. Euskadiko Kontu Ekonomikoen arabera, 2011n, oinarrizko prezioetako produkzio guztiaren % 26 Euskaditik kanpoko produktu eta zerbitzuen inportazioari zegokion, eta enpleguen % 23 (ondasunen norakoaren zentzuan) esportazioari zegokion. Ondasun eta produktuen erdia (inportazioen % 53 eta esportazioen % 47) Espainiako estatuko beste Autonomia Erkidego batzuetara bideratzen dira edo haietatik ekartzen dira¹⁸. Euskal ekonomiaren globalizazio mailara egindako lehen eta oinarrizko hurbilpena da hori, ez baitu informaziorik eskaintzen migrazio-fluxuei buruz eta ez du aztertzen lurraldez haraindiko enpresen “produkzioaren” esanahia. Labur-labur, esan liteke Euskadirako ekoizten duten langileen laurden bat Euskaditik kanpo bizi dela. Hori horrela izango da kontuan hartzen badugu langile horien lanaren prezioa eta produktibitatea Euskadiko langileen batez bestekoaren parekoa dela. Baina hemengoan erdia balitz, horrek esan nahi luke Euskadirako lan egiten duten pertsonen erdia lurraldetik kanpo bizi dela. Beste horrenbeste esan liteke esportazioari buruz. Eta proportzioak are handiagoak izango lirateke kontuan hartuko balira ekonomikoki langileen mende bizi diren ahaideak; izan ere, mendeko pertsonen kopurua langileko handiagoa da beste lurralde batzuetan, bai Espainian bai munduko gainerako herrialdeetan, Euskadin baino.

¹⁷ Eusko Jaurlaritza. Euskal ekonomiari buruzko hiru hilean behingo txostena, 2013ko IV. hiruhilekoa.

¹⁸ Eustat, 2013ko irailaren 12a, “Kontu Ekonomikoak”. Datuok 2011koak dira.

Euskadi biztanleko BPGaren eta etxeko errenta gordinaren mailarik handiena duen Autonomia Erkidegoetako bat da, Nafarroa, Madril eta Kataluniarekin batera. Etxeen errenta erabilgarriak, estatuaren, Autonomia Erkidegoen eta EZIAGE-en (etxeko unitateen zerbitzurako irabazi asmorik gabeko erakundeak) zergak eta transferentziak aintzat hartzen dituenak, hobera egiten du errenta txikiko Autonomia Erkidego guztietan, esku-hartze pribatuaren ondorioz. Halere, Euskadin, errenta handiko erkidegoa bada ere, esku-hartze publikoak ere eginkizun banatzaileagoa betetzen du beste erkidego batzuetan baino, barne-desberdintasunak txikituz¹⁹.


Enplegua elementu nagusietako bat da edozein ekonomiatan. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) arabera, 2013ko laugarren hiruhilekoan, 914.300 langile zeuden Euskadin, eta langabezia-tasa %15,3koa zen, 2013ko hirugarren hiruhilekoan baino portzentajezko puntu-erdi bat handiagoa (Eustat, 2014/01/17).

Okupazio-tasa (pertsonek landunen ehunekoa 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriarekiko) % 63,7koa da, eta gizonena ia portzentajezko hamar puntu handiagoa da emakumeena baino (hurrenez hurren, % 67,5 eta % 59,8). Emakumeen okupazio-tasa handitu egin da (6.000 emakume landun gehiago aurreko hiruhilekoan baino), eta gizonen okupazio-tasaren beherakada konpentsatzen du (5.500 gutxiago). Okupazio-tasak gora egin du Araban, behera egin du Bizkaian, eta bere horretan jarraitu du Gipuzkoan.

Biztanle guztien jarduera-tasa % 57,6koa da, aurreko hiruhilekoko baino apur bat handiagoa.

II.1-1 grafikoa

Euskadiko Autonomia Erkidegoko 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera (%).



Iturria: Eustat. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

¹⁹ CES, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, "Distribución de la renta en España: desigualdad, cambios estructurales y ciclos". Madril, 2013, 102. or.

Langilearen eta bere enpleguaren arteko harreman motaren arabera, soldatakoak dira nagusi Euskadiko ekonomian. Hala ere, soldatakoak ez diren landunen kopurua handitzen ari da; izan ere, hiruhileko horretan, 2.700 gehiago ziren, eta 191.400 langile ziren guztira.

Eustaten arabera, langabezia-tasa portzentajezko 2,5 puntu handitu da azken urtean (% 12,8tik % 15,3ra; hots, 35.400 langabe gehiago) . Lanpostuen, enplegatutako pertsonen eta lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak ez datoz bat, eta jarduera-adarraren arabera aldatzen dira; beraz, zaila da azterketa konparatiboa egitea. Bestalde, iturriak ere ez dira guztiz bat etortzen. Krisian zehar, lanpostu baliokideak gehiago gutxitu dira enplegatutako pertsonak baino (aparteko orduak eta bigarren enplegua galdu dira, besteak beste).

II.2. EUSKADIKO LANAREN PREZIOA ETA BIZITZAREN KOSTUA


II.2.1. Euskadiko lanaren prezioaren eraketa

Lanaren prezioaren eraketan oinarritzko bi elementuk parte hartzen dute: lege-arauketak eta merkatu-indarrek. Lege-arauketak (Estatuko legeak, Autonomia Erkidegoetakoak, tokiko hitzarmenak) lanaren gutxieneko prezioak ezarri ohi ditu, eta oso gutxitan, gehienekoak. Gutxieneko prezioek honako hauek finkatzen dituzte: soldatak, Gizarte Segurantzako kuotak, zergak eta lanari lotutako beste kostu osagarri batzuk. Orobat, lan-baldintza galdagarriak finkatzen dituzte (lanaldiaren iraupena, oporrak, atsedena eta eszedentziak gaixotasunak eta beste arrazoi batzuk direla eta, lanpostuaren baldintza materialak), zeharka lanaren prezio erreala eroslearentzat finkatzeko balio dutenak.

Lan-merkatuko indarrak, berriz, eskaintzan eta eskarian laburtzen dira. Lan mota bakoitzak bere eskaintza eta eskari propioak ditu; izan ere, guztiz aldagarriak ez bada ere, lan mota guztiek elkarri eragiten diote lan-merkatua eratzeko. Euskadiko lan-merkatuaren muga, itxuraz, lurraldean bizi diren herritarrek finkatzen dute. Halere, baieztapen hori ez da guztiz zehatza, oso ekonomia irekia baita eta, beraz, langileak inportatu eta esportatu ahal ditu, baita salgaiak eta zerbitzuak ere, berez langileen ahalegina erantsita dutenak. Lana salgaia denean, langileak eroslea aurkituko badu, kostatzen den baino balio handiagoa erantsi behar dio produkzio-prozesuari; horrela, gainbalio bat sorraraziko du, eta horrek konpentsatu egingo du enplegatzaileraren langilea erostean hartutako arriskuagatik. Horixe da enpresen funtzionamenduaren oinarritzko printzipioa. Enpresa batek etekinik lortzen ez badu, azkar itxiko da, merkatutik kanpoko beste diru-laguntza edo sari batzuk jasotzen ez baditu behintzat. Ondorioz, beren ahalegina saltzea lortzen ez duten lan-ekoizleak merkatuaren jokitik kanpo geratuko dira (ez dira "errentagarriak" beren lana saltzeko), baita ordaindu ahal edo nahi duten prezioan lana erostea lortzen ez duten erosleak ere.

II.2.1-1 grafikoa

Lanaren prezioaren eta lan-erosleek ordaindu beharreko prezioaren arteko aldea.



Iturria: Durán, M.A. El trabajo no remunerado en la economía global. BBVA Fundazioa, 2012.

"Lan-merkatu formalara jarduera batzuen legezko gutxieneko kostuak ordaintzeko prest ez badago, jarduera horiek desagertuko dira, lan-merkatu informalerara eramango dira edo gizarteak ordaindu gabeko langileen esku utziko ditu".

Lanaren prezio erreala merkatu egiten da produktibitatea handitzen denean, eta horixe da ikerkuntza teknologikoaren eta antolakuntzari buruzkoaren helburua. Era berean, arautu gabeko edo prezio txikiagoko merkatuetara jotzen bada, lana merkatu egingo da, berez edo salgaien prezioan. Heinean, helburu hori dute produkzioaren deslokalizazioak, migrazio-mugimenduek, esternalizazioak, lan autonomoak eta ezkutuko lanak.

II.2.2. Zaintzaren burdinazko legea. behar duten lana ordaindu ezin dutenak

Euskadiko biztanleriaren zati batek ezin du erosi bere ustez behar duena. Ikerlan honen ondorioetarako, kolektiborik interesgarriena zaintza-zerbitzuen beharrea egonda zerbitzuok ordaindu ezin dutenena da.

Hirugarren sektoreko adituen artean ohikoa da "zaintzaren burdinazko legea" deitzen zaiona. Horren arabera, premiarik handiena dutenak (oso pobreak, oso gaixoak, oso baztertuak, oso bakarrak), zaintza lortzeko zailtasunik handiena dutenak dira. Pobrezia eta aberastasun monetarioaren irizpideak erabilgarriak dira, funtsean, objektu edo salgaien premia duten herritarrak sailkatzeko, baina ez dira hain erabilgarriak hurbileko zerbitzu kopuru handia behar dutenekin aplikatzeko. Euskadiko erretiratu baten batez besteko errenta (1.416 €) zati lan egindako orduaren batez besteko prezioa egiten badugu, emaitzako ratioa erretiratu horrek eros dezakeen lanordu kopurua izango da, betiere suposatuz gainerako beharrak (ostatua, elikadura, jantzia, telefonoa, elektrizitatea, medikuntza eta abar) beste bide batez betetzen dituela. Zaintza-lanaren orduko prezioa alderantziz proportzionala da eros daitekeen ordu kopuruarekin. Prezioa 10 €-koa bada orduko eta batez besteko

pentsio baten % 50 zaintza ordaintzeko erabiltzen bada, hilean 70 zaintza-ordu eros daitezke. Orduko prezioa 20 €-koa balitz edo sarreren laurden bat soilik erabil ahal izango balitz, 3,5 zaintza-ordu eros litezke, betiere jaiegunetan edo batez besteko prezioa garesti dezaketen orduetan ez bada. Oinarrizko beharren estaldurak sarreren % 50 edo % 75 hartzen badu, aurretik adierazitako zaintza-ordu kopuruaren erdia edo laurdena erosteko soilik helduko da dirua. Mendekotasun ertainaren kasuetan, mendekoak ordu asko eman ditzake laguntzarik edo inoren esku-hartzerik gabe, baina mendekotasun larria edo oso larria bada, ez da horrela izango. Kasu horietan, zaintza-zerbitzuen hornidura ez da merkatuan egingo, baina doakoa ere ez da izango. Administrazio Publikoak zerbitzu horietaz hornitzen badu, zerbitzu horiek ordaintzeko dirua beste herritar batzuegandik eskuratu behar du, zergen bidez, Ahaideek, lagunek edo irabazi asmorik gabeko erakundeek hornitzen badute, zerbitzu horien kostua ikusezina edo aitortu gabea izan daiteke. Halere, horrek ez du esan nahi doakoa denik, baizik eta eginkizun horretarako egiturazko adskripzioa duten kolektiboetara bideratu dela, nahita edo behartuta. Bada, kolektibo horretan, bereziki ugariak dira emakumeak.

II.2.3. Beren lana legez saldu ezin dutenak

Lan-merkatuak, lan-arauek eta langileen osasun-baldintzek erabakitzen dute baztertuen kolektiboa, lana saldu nahi baina ezin dutenena.

Aurretik azaldu dugunez, merkatuak etekina eman diezaioketen salgaiak soilik erosten ditu, eta lana ez da salbuespena. Langabeak, bada, merkatuak baztertutako langileak dira. Lan-arauek bestelako bazterketak finkatzen ditu; horietatik gehienak erretiratuak, ezgaituak eta lan-baimenik gabeko etorkinak dira. Erretiroa ez da, berez, lanetik baztertzea edo lan egiteko debekua. Hala ere, erretiroaren ondorengo enpleguak arrisku handiak dakartza (pentsioa galtzea), eta gehienetan arrisku horrek eragotzi egiten du, bai lanaldi osoko soldatapeko lana, baita norberaren konturako lana eta lanaldi partzialekoa ere. Erretiroa, egia esan, adinak eragindako kaleratzea da, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Gizarte zahartu batean, soldatapeko lanaren prezioa nahikoa zurruna da, gutxieneakoak legez finkatzen direlako. Bada, horrelako gizarte baten ekonomiari begira, adinekoek egiturazko eginkizun garrantzitsua betetzen dute nahitaez: ordaindu gabeko zaintza-lana emateko lan-erreserba edo lan-hornitzaileak dira, lan hori merkatu-prezioan erosi ezin dutenentzat.

II.2.4. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanen arteko osagarritasuna eta ordezkapena

Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanen artean badira osagarritasunezko eta ordezkapenezko harremanak. Adinekoen ordaindu gabeko lanaldiaren balioa ezagutzeko bide bakarra jardunean diren langileen datuak eskuratzea da, ez baitago horren gaineko merkatu-preziorik.

Krisiaren ondorioz, Euskadiko lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak behera egin du. 2011n, 921.487 ziren, 2012an, 893.658 (hirugarren hiruhilekoa), eta 2013an, berriz, 875.413 (Eustat, Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, 2013).

Euskadin, orduko kostu osoa % 20,2 handiagoa da Espainiakoa baino. Eraikuntza-sektorean, aldeak txikiagoak dira (% 15), baina handiagoak dira industrian (% 22) eta, batez ere, zerbitzu-sektore heterogeneoan (% 24); sektore horretan, ordainsari maila txikiko lanbideak daude (merkataritza, ostalaritza), eta oso maila handikoak (finantza-zerbitzuak).

II.2-1. taula

Lan-kostua egiazko orduko Euskal AEn eta Estatuan kostu-osagaiaren arabera jardura-sektoreari jarraiki (euroak). IV-2012

	A				B				Aren % Brekiko
	Euskal AE				Estaturia				
	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	
Orduko guztizko kostua	25,22	27,97	23,62	24,38	20,22	22,87	20,46	19,63	124,7
Guztizko soldata-kostua, orduko	19,13	21,18	16,91	18,60	15,14	17,07	14,62	14,78	126,4
Soldata-kostu arrunta, orduko	15,91	16,59	14,15	15,82	12,70	13,46	11,54	12,65	130,7
Orduko bestelako kostuak	6,09	6,79	6,71	5,78	5,08	5,80	5,84	4,85	119,9


Iturria: INE. Lan-kostuaren hiruhilekoko inkesta.

Soldatakoen ordainsariak BPGaren % 51 da. Proportzio nabarmena da; izan ere, lanaldi osoko enplegu kopurua BPGarekin alderatuta, adinekoek soldatarik gabe egiten duten lanak zer balio izan dezakeen jakin daiteke. Soldatapeko lanaz gain, soldatakoak ez diren profesionalen lanak ere garrantzia du BPGan (autonomoak, profesionalak...), ustiapeneko soberakin garbiaren bitartez; hala ere, magnitude horretan, zaila da zehaztea zer proportzio dagokion lanari eta zer proportzio dagokien beste faktore batzuei. Soldatakoen ordainsariak (uneko prezioak) % 6 baino gehiago handitu ziren urtero 2000tik 2007ra bitartean, 2009an txikitu zen (% 1,4), eta 2010ean % 1,9 handitu zen (44. or.). Aitzitik, ustiapeneko soberakin garbia motelago handitu zen denboraldi horren hasieran; ondoren, soldatakoen ordainsarien hazkunde-erritmoa gainditu, 2009an behea jo (-% 11,0), eta 2010ean beherakada moteldu egin zuen (-% 2,7). Beherakada hori zein soldatakoen ordainsariarena langile kopurua txikitzearen eta soldatak eta banakako onurak jaistearen ondorio izan ziren.

2013an, ekoizpen-sektore guztietan galdu dira lanpostuak, baina, sektore hauetan, bereziki handia izan da lanaldi osoko lanpostu baliokideen galera: eraikuntzan (-% 10,8), industrian (-% 4,3) eta lehen sektorean (-% 3,7). Zerbitzu-sektorean, berriz, beherakada neurritzkoa izan da (-% 0,5). Guztira, 19.000 lanpostu garbi galdu ziren.

Behoko grafikoak erakusten du zer-nolako bilakaera izan duten merkatuko prezioetako BPGaren urte arteko hazkunde-tasek, 2010eko lehen hiruhilekotik 2013ko azken hiruhilekora bitartean. Euskadik eta Espainiako estatuak ia datu berdinak dituzte, eta Eurogunearen eta EB-28ren antzeko joera dute, nahiz eta erritmo apalago batean.

II.2-1 grafikoa BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak (%).



Iturria: Eustat. 13/02/2014.

2013. urteko egoera ekonomikoa laburtze aldera, Euskadiko Kontu Ekonomikoen (Eustat, 2014/02/13) adierazten dute BPGak % 1,2ko murrizketa izan zuela. Ekoizpenaren beherakada nabarmenagoa izan zen nekazaritzan eta arrantzan (urte arteko hazkunde-indizea $-\% 6,1$ izan zen), eraikuntzan ($-\% 5,0$), eta industrian eta energian ($-\% 1,9$). Zerbitzu-sektorean, beherakada oso txikia izan zen ($-\% 0,6$); izan ere, hazkunde positiboa izan zuen Administrazio Publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen azpisektoreetan. Hiru lurralde historikoetan gertatu da beherakada hori; hain zuzen, $-\% 1,1$ etik gorakoa izan da batez besteko beherakada.

Kontsumo pribatua (etxeetan) ere, beherakada txikia gertatu zen ($-\% 0,1$). Aurreko urtekoa baino apur bat txikiagoa izan zen, eta gainera, azken hiruhilekoan, gorakada positibo txikia gertatu zen. Kontsumo publikoan, berriz, beherakada handiagoa gertatu zen ($-\% 2,3$ koa), eta urte arteko indizea ez zen urte amaieran hobetu.

Kanpo-sektorearen datuak positiboak izan ziren; hain zuzen, ondasun eta zerbitzuen esportazioek hazkunde-erritmo biziagoa izan zuten inportazioek baino (hurrenez hurren, % 3,1 eta % 2,7).

Ez dakigu zehazki zein den ordaindutako lanaren kopurua, baina ezin da erantsitako grafikoarekin konparatu. Halere, ikerketa guztiek gauza bera erakusten dute: lanaren zati handi bat lekuz aldatzen da, baina ez bolumenez. Lan-merkatua zabaldu zenean, ordaindu gabeko lana uzkurto egin zen, baina enplegua murriztu zenean, gora egin

II.3.1-1. taula
Euskal AEko familiak, egoera ekonomiko objektiboaren eta hautemate subjektiboaren arabera eta lurralde historikoaren arabera (%). 1989-2009

	Euskal AE					Araba					Bizkaia					Gipuzkoa				
	1989	1994	1999	2004	2009	1989	1994	1999	2004	2009	1989	1994	1999	2004	2009	1989	1994	1999	2004	2009
Egoera ekonomiko objektiboa.	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Txarra	17,3	39,5	16,2	18,8	10,9	18,9	51,5	7,1	17,3	14,3	18,7	39,5	20,8	20,0	11,3	14,2	34,7	12,2	17,6	8,7
Normala	47,3	23,4	22,7	46,8	50,1	49,1	21,4	19,3	46,5	45,2	47,0	24,9	25,8	47,2	51,2	46,9	21,8	19,0	46,3	50,4
Ona	35,4	37,0	61,1	34,3	39,0	32,0	27,1	73,6	36,2	40,5	34,3	35,6	53,4	32,8	37,5	38,9	43,5	68,8	36,1	40,9
Hautemate subjektiboa	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Txarra	38,7	47,6	28,3	25,0	27,1	40,6	40,3	23,7	17,7	34,6	42,2	52,3	31,8	26,7	27,5	31,7	42,4	24,3	25,3	23,0
Normala	21,4	15,4	15,6	21,0	20,1	18,6	18,2	14,9	19,8	19,0	21,0	14,0	15,3	20,8	21,7	23,2	16,7	16,5	21,7	18,0
Ona	39,9	37,0	56,1	54,0	52,8	40,8	41,6	61,4	62,5	46,4	36,7	33,6	52,9	52,5	50,8	45,1	40,9	59,2	53,0	59,1

Iturria: EUSTAT. Bizitza Baldintzen Inkesta, 1989-2009.

zuen berriro. Gauza bera gertatzen da 65 urtetik gorako herritarrekin: Euskadin, egunean 35 minutu gehiago ematen dituzte etxeko ordaindu gabeko lanetan herritarren batez bestekoa baino (Espainian, 59 minutu gehiago batez bestekoa baino). Horren arrazoiak dira, alde batetik, denbora izatea, eta bestetik, merkatutik kanpoko baliabideak erabiliz ongizatea sortzeko beharra.

II.3. KONTU EKONOMIKO TRADIZIONALEN HELBURUA

II.3.1. Egoera ekonomikoaren hautemate subjektiboa eta kontu Ekonomikoen ikuspegia

1989-2009 hamarkadetan, Euskadiko familien egoera ekonomikoaren hautematea nabarmen hobetu zen. Hala ere, oraindik ez da daturik argitaratu krisi ekonomikoaren goreneko sasoiari buruz. Egoera ekonomiko objektiboaren adierazle ekonomikoak hobetu egin ziren epealdi horretan, batez ere egoera txarreko kasuak gutxitu egin zirelako. Hautemate subjektiboaren adierazleek hazkunde handia izan dute; hala, % 39,9tik % 52,8ra gehitu dira egoera onean daudela uste dutenak eta, aldi berean, nabarmen gutxitu dira egoera txarrean daudela uste dutenak, % 38,7tik % 27,1era hain zuzen²⁰.

2013an (laugarren hiruhilekoan), Euskadiko BPGa 64.706.35 mila eurokoa izan zen. Osagaien ikuspegitik, 1980ko hamarkadan, % 10 baino gehiago handitzen zen urtero, eta % 6tik gorako hazkundeari eutsi zion, 2008ko krisia piztu arte. Biztanleko BPGak ere hazkundera izan zuen, baita handiagoa ere, baina, 2003tik aurrera, hazkundera behera egiten hasi zen; BPG nominalaren beherapenaren antzeko beherapena izan zuen, eta izan ere, apur bat beherapen handiagoa izan zuen (II.3.1-2tik II.3.1-4ra bitarteko taulak, eranskina). Alderaketa bat egiteko, Euskadiko biztanleko BPGa % 29 handiagoa da Europar Batasuna-27koa baino; izan ere, Luxenburgoko BPG nazionala soilik da handiagoa, EB-27koaren % 263koa baita (II.3.1-5 taula).

Adinekoek ekoizpen-adar guztietako (nekazaritza, industria, eraikuntza, zerbitzuak) eskaintzarekin dute lotura; alde batetik, zenbait establezimenduren edo haien zati baten jabeak direlako (akziodunak), eta beste batetik, nahiz eta proportzio txikiagoan, aktibo jarraitzen dutelako, ekoizle, langile edo kudeatzaile gisa. Eskariaren bidez, edadetuek asko laguntzen dute sektoreek beren horretan jarrai dezaten, bai etxeen eta EZIAGE-en (etxekoen unitateen zerbitzurako irabazi asmorik gabeko erakundeak) azken kontsumoan parte hartzen dutelako, bai Administrazio Publikoen azken kontsumoaren hartzaileak direlako. Adinekoen aurrezkiek kapital-eraketa gordinari laguntzen diote. Gainera, berariazko zerbitzuak eskatzen dituzte –hala nola, arreta- eta zainketa-zerbitzuak–, eta beraz, eragina dute atzerriarekiko saldoetan, zaintzaileen bidalketak direla medio²¹. Euskadiko uneko prezioetako BPGaren osagaien bilakaeran, hazkundearen zati bat inflazioaren ondorio baino ez da.

Jakina, Kontu Ekonomiko tradizioaletan, ez dago adinekoen buruzko zuzeneko erreferentzia bat ere. Dena den, jakin beharko genuke zer eginkizun izan duten adinekoek, bai hazkunde-garaian, bai krisi-garaian, eta batik bat, jakin beharko

²⁰ Eustat. Bizitza Baldintzen Inkesta, 1989-2009.

²¹ Espainiako Bankuaren eta Immigrazioaren Euskal Begiratokia – Ikuspegiren txostenak.

genuke zer gertatuko litzatekeen haien egoera ekonomikoa goitik behera aldatuko balitz. Galdera horiei ondo erantzuteko daturik ez badugu ere, galderak egite hutsak hausnarketa estimulatzailea sorrarazten du. 2008ko krisian, familiek berehala erreazionatu eta gastua murriztu zuten, baina Administrazio Publikoek beranduago egin zuten. Adinekoen etxe gehienetan, pentsiodunak dira erreferentziazko pertsonak, eta etxe horietan gainerakoetan baino gutxiago nabaritu zuten errenten beherakada eta horren ondoriozko ziurgabetasun ekonomikoa. Adinekoak faktore egonkortzailea izan ziren familien guztizko kontsumoan. Gainera, errenta eskuragarriaren barne-birbanaketaren faktorea ere izan ziren.

II.3.2. Los mayores en los sectores tradicionales de la economía: el valor del contenido simbólico

Zer informazio eman dezakete sektore ekonomiko tradizionalen kontuek adinekoek Euskadiko ekonomian duten zereginari buruz?

Jarduera tradizionaletan eta autonomo asko dauden sektoreetan, ohikoagoa da adineko langileak egotea. Tamaina handiagoko establezimendu edo enpresetako jarduera arautuagoetan –hala nola industrian eta eraikuntzan–, adineko langile gutxiago daude. Zerbitzu-sektoreko zenbait ekoizpen-adarretan ere, adinekoak aurkituko ditugu lanean; adibidez, merkataritza txikian, ostalaritzan eta jatetxeetan, eta Administrazio Publikoko zenbait jardueratan edo mailatan, 65 urteetan erretiratzea derrigorrezkoa ez den horietan.

Nekazaritzak oso garrantzi txikia du Euskadiko egungo ekonomian, baina, hala ere, eduki sinboliko handia du.

Nekazaritzak banan-banako ondasunak ekoizten ditu, merkatura zuzenean bidaltzeko. Horrez gain, saldu ezin diren eta preziorik ez duten ondasun kolektiboak ere ekoizten ditu; besteak beste, aniztasuna, lurraldearen bizigarritasuna eta paisaiaren kapital immaterialaren kontserbazioa. Adierazi behar da jarduera batek errentagarritasun-irizpide desberdinak dituela, erabilitako parametroen arabera. Horrenbestez, kostuaren eta irabaziaren arteko lotura aztertzean zer parametro erabiltzen diren, nekazaritza-jarduera errentagarria izango da, edo ez. Merkatu-irizpideak baino erabiltzen ez badira, adinekoen nekazaritza-ustiategi askok oso errentagarritasun txikia izango dute, eta horregatik desagertzen dira jabeak hil eta gero. Hala ere, ustiategi horiek balorazio ona lortzen dute gizarteari egiten dioten ekarpena aintzat hartuz gero: lurraldearen bizigarritasuna (esate baterako, segurtasuna handitzea eta gutxieneko horniketak bermatzea), aniztasuna (erreserba biologikoa, kultura-ondasun immaterialak, etab.) eta paisaiaren kontserbazioa (balioa sortzea beste ekoizpen-sektore batzuentzat –hala nola, turismo eta aisiarentzat–, eta ingurumen-balioak). Gogoeta horiek implizituak dira diru-laguntzen politiketan, baina komenigarria izango litzateke esplizituagoak izatea eta adinekoen ustiategien zeregina aztertzea. Balio ukiezineko eta bereiztezineko ekoizpena kontu makroekonomikoetan adieraztea ez da erraza, baina badago ekoizpen hori uler dadin laguntzea: alderantziz proposatzea. Adinekoen nekazaritza-ustiategiek zenbat ekoizten duten galdetu beharrean, galdetu beharko litzateke zer kostu izango lukeen galera immaterialak edo kolektiboak konpentsatzeak, adinekoek beren jarduera txikitzean edo alde batera uztean.

II.3.2-1. taula

Euskal AEko Barne Produktu Gordina, eskaintzaren eta eskariaren osagaiaren arabera eta hiruhilekoaren arabera. Uneko prezioak (milaka eurotan). 2013

	2012		2013		2013			
		IV	I	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ARRANTZA	517.215	110.277	501.290	123.481	128.402	169.226	128.402	80.180
INDUSTRIA ETA ENERGIA	13.750.361	3.524.442	13.401.755	3.301.961	3.311.123	3.310.986	3.311.123	3.477.685
-Manufaktura-industria	11.650.870	2.975.320	11.348.696	2.822.400	2.789.740	2.805.423	2.789.740	2.931.133
ERAIKUNTZA	4.225.825	1.095.328	3.941.310	973.938	974.751	939.800	974.751	1.052.821
ZERBITZUAK	40.500.029	10.110.188	40.908.397	10.140.509	10.250.715	10.228.364	10.250.715	10.288.809
-MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA GARRAIOA	11.775.525	2.956.008	11.732.302	2.924.250	2.937.724	2.918.789	2.937.724	2.951.538
-Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	9.569.344	2.316.140	9.725.605	2.364.158	2.439.800	2.432.639	2.439.800	2.489.007
-Gainerako zerbitzuak	19.155.160	4.838.040	19.450.491	4.852.101	4.873.191	4.876.936	4.873.191	4.848.264
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	58.993.430	14.840.235	58.752.752	14.539.889	14.664.991	14.648.377	14.664.991	14.899.495
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	5.712.927	1.632.376	5.950.483	1.390.103	1.502.162	1.345.757	1.502.162	1.712.462
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezioetan	64.706.357	16.472.611	64.703.235	15.929.992	16.167.153	15.994.134	16.167.153	16.611.957
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	52.276.680	12.906.805	52.468.322	13.244.930	13.055.883	13.129.233	13.055.883	13.038.276
-Etxe eta EZIAGE-en azken kontsumoko gastua	41.106.037	10.289.803	41.244.121	10.301.713	10.301.322	10.326.781	10.301.322	10.314.306
-Administrazio Publikoen azken kontsumoko gastua	11.170.642	2.617.002	11.224.201	2.943.217	2.754.561	2.802.452	2.754.561	2.723.971
KAPITAL ERAKETA GORDINA	14.774.897	3.674.068	14.121.748	3.446.822	3.564.124	3.479.216	3.564.124	3.631.587
-Ondasun-ekipoetako kapital finkoaren eraketa gordina	4.462.497	1.111.755	4.461.499	1.086.832	1.138.174	1.118.670	1.138.174	1.117.823
-Gainerako kapital-eraketa gordina	10.312.400	2.562.313	9.660.249	2.359.990	2.425.950	2.360.546	2.425.950	2.513.764
BARNE ESKARIA	67.051.577	16.580.873	66.590.070	16.691.752	16.620.007	16.608.448	16.620.007	16.669.863
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOA	44.374.840	11.050.807	45.353.987	10.884.272	12.207.028	10.855.836	12.207.028	11.406.851
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOA	46.720.060	11.159.069	47.240.822	11.646.032	12.659.882	11.470.150	12.659.882	11.464.757

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak. (13/02/2014)

II.3.2-2. taula

Euskal AEko Barne Produktu Gordina, lurralde historikoaren eta osagaiaren arabera. Eskaintza.
Uneko prezioak (urte arteko aldaketa-tasak). 2005-2010(a)

	2006/ 2005	2007/ 2006	2008/ 2007	2009/ 2008	2010/ 2009	2011/ 2010	2012(a)/ 2011
Euskal AE							
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	-1,8	1,9	-11,1	-12,0	15,0	3,0	17,2
Industria eta energia	5,8	5,7	0,9	-19,0	4,5	1,9	-3,5
Eraikuntza	9,0	17,4	-2,2	-10,2	-6,2	-9,4	-10,7
Zerbitzuak	8,2	7,7	6,8	2,3	1,2	2,5	0,2
BAG oinarrizko prezioetan	7,5	8,1	4,0	-4,8	1,3	1,3	-1,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	11,0	3,2	-12,1	-8,4	6,6	-3,4	-2,6
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezioetan	7,9	7,5	2,3	-5,2	1,8	0,9	-1,5
ARABA							
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	-9,0	0,9	-8,5	-7,2	-3,8	-3,4	11,6
Industria eta energia	3,8	4,1	1,9	-21,6	4,4	7,2	-0,3
Eraikuntza	8,6	16,6	-1,5	-12,2	-7,9	-10,7	-11,4
Zerbitzuak	8,2	7,6	7,2	1,3	1,2	1,0	-0,3
BAG oinarrizko prezioetan	6,3	7,0	4,2	-8,0	1,3	1,9	-0,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	9,6	3,6	-9,8	16,1	-34,4	29,2	-2,7
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezioetan	6,6	6,7	2,7	-5,7	-2,8	4,0	-1,1
BIZKAIA							
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	-2,3	8,2	-10,6	-18,5	36,6	10,5	18,5
Industria eta energia	4,3	4,9	2,0	-18,1	4,5	-0,1	-6,3
Eraikuntza	5,0	19,9	-2,9	-9,9	-6,6	-9,2	-8,6
Zerbitzuak	8,1	7,9	7,0	2,4	1,2	2,6	0,3
BAG oinarrizko prezioetan	6,8	8,5	4,6	-3,5	1,2	1,1	-1,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	12,8	1,3	-13,5	-12,5	18,0	-7,8	-2,5
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezioetan	7,5	7,6	2,7	-4,3	2,6	0,2	-1,6
GIPUZKOA							
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	7,2	-5,0	-14,5	-7,7	7,8	-3,3	20,2
Industria eta energia	8,6	7,5	-0,7	-18,6	4,4	1,1	-2,2
Eraikuntza	16,1	13,7	-1,3	-9,7	-4,9	-9,1	-13,9
Zerbitzuak	8,4	7,4	6,2	2,5	1,0	3,0	0,3
BAG oinarrizko prezioetan	9,1	7,9	3,1	-5,3	1,4	1,4	-1,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	8,8	6,2	-11,2	-14,5	16,7	-9,0	-2,5
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezioetan	9,1	7,7	1,5	-6,2	2,7	0,4	-1,5

Azterketa konplexuagoa egin eta iragana ere kontuan hartuko balitz, ondorio hau aterako genuke: gaur egun erretiro-pentsioak edo errentak jasotzen dituzten edo nekazaritzakoak ez diren jabetzak dituzten adineko batzuek beste garai batean nekazaritzan egin zuten lan, edo nekazaritza-ondasunak izan eta saldu zituzten, beste ondasun mota batzuk lortzeko (esaterako, hiri-etxebizitzak, pentsio-planak edo finantza-aktiboak), eta horregatik jasotzen dituzte pentsioak eta errenta, eta horregatik dituzte beren jabetzak.

Nahiz eta erantsitako taulek horri buruzko informaziorik eman ez, jakin beharko litzateke zer eragin duen ustiategietako jabeen eta norberaren konturako langileen artean adinekoak egoteak, jabe eta langile gazteagoen jarduerarekin alderatuta; esaterako, diru-laguntzak lortzeko trebetasuna, birkapitalizatzeko joera edo berrikuntza teknologikoa kontuan hartuta.

Sektore horretan, adinekoek zeregin hauek dituzte: ustiategien jabeak dira, norberaren zein besteren konturako langileak dira, autokontsumorako ekoizleak dira eta sektoreko ekoizpenaren kontsumitzaileak dira. II.3.2-3 eta II.3.2-4 taulek adierazten dute adinekoen parte-hartzea zer esparrutan sartzen den; dena dela, datu zehatzagorik ezean, ikuspegi teorikotik aztertu beharra dago parte-hartze hori, ikuspegi enpirikoa erabiltzerik ez baitago. 1. taulan, nekazaritza-ekoizpenaren banaketa sektorearen arabera ikus daiteke, baita lurralde-banaketa ere. Besteren kontura lan egiten duten 65 urtetik gorakoek artean, eraginik handiena du erretiro-adinera igarotzeak, eta eragin txikiagoa du gainerako kategorietan: jabeak izaten jarraitzen dute, autokontsumorako ondasunak ekoizten jarraitzen dute, eta sektorearen ekoizpenari dagozkion zergak ordaintzen jarraitzen dute. Adineko nekazariak kontsumitzaile gisa zer garrantzi dute jakiteko, eta nekazaritza-produktuak nola kontsumitzen diren jakiteko, beste iturri batzuk erabili behar dira Kontu Ekonomikoen gain. Nekazaritza-sektorean, abeltzaintzak du ekoizpenik handiena, eta Araba da nekazaritza-ekoizpenik handieneko lurraldea.

EUSTATen arabera, Euskadiko azken nekazaritza-produktua 561 milioi eurokoa izan zen 2012an, eta haietatik, 65 milioi berrerrabiltzen dira. Bitarteko kontsumoaren gastuak 267 milioi eurokoak izan ziren; beraz, merkatuko oinarrizko prezioetako Balio Erantsi Gordina 312 milioi eurokoa izan zen. Tauletan, ustiategietako jardueraren ondorioz ordaindutako zergak ez dira banan-banan adierazten, ez eta jabeek eta langileek ondoren PFEZen bidez sortutakoak ere. Produktuetarako, 18 milioi euroko diru-laguntzak eman dira, eta diru-laguntza horietako batzuk, zalantzarik gabe, 65 urtetik gorako titularrak dituzten ustiategientzat izan dira, baina ez dakigu horren zenbatekoa, ezta gutxi gorabeherakoa ere. Beste diru-laguntza batzuk ere eman dira, 46 milioi euroan, eta hortaz, diru-laguntzak oinarrizko prezioetako Balio Erantsi Garbiaren % 20koak izan dira. Amortizazioak ia 57 milioi eurokoak izan direla kalkulatu da. Amortizazio horien zati bat adineko pertsonen jabetzako nekazaritza-ustiategiei dagokie (nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustiategiei). Nekazaritza-errenta 302 milioi eurokoa da, eta lehenago esan dugunez, adinekoek ere errenta hori sortzen laguntzen dute, ondasunak emanez (ustiategien jabeak), lan eginez eta diru-laguntzak jasoz.

II.3.2-3. taula

Euskal AEko nekazaritzako azken produktua, sektorearen eta lurralde historikoaren arabera (milaka eurotan). 2012

	Euskal AE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Balioa	%	Balioa	%	Balioa	%	Balioa	%
Nekazaritzako azken produktua	561.799,1	100,0	230.032,4	100,0	173.110,3	100,0	158.656,3	100,0
Nekazaritza	271.922,8	48,4	159.165,4	69,2	62.972,5	36,4	49.784,9	31,4
Abeltzaintza	226.429,7	40,3	61.216,3	26,6	79.646,6	46,0	85.566,8	53,9
Basozaintza	54.274,0	9,7	7.909,8	3,4	26.616,9	15,4	19.747,3	12,4
Beste ekoizpen batzuk	9.172,7	1,6	1.740,9	0,8	3.874,4	2,2	3.557,4	2,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.

II.3.2-4. taula

Euskal AEko nekazaritza sektoreko makromagnitudeak, lurralde historikoaren arabera (milaka eurotan). 2012

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ekoizpen gordina	561.799	230.032	173.110	158.656
Produktuetarako diru-laguntza	18.303	9.008	5.001	4.294
Ekoizpena oinarritzko prezioetan	580.102	239.040	178.112	162.950
Bitarteko kontsumoak	267.587	110.622	77.522	79.443
Balio Erantsi Gordina oinarritzko prezioetan		128.419	100.589	83.507
Amortizazioak		28.770	14.439	13.523
Balio Erantsi Garbia oinarritzko prezioetan	255.782	99.649	86.150	69.983
Zergetako ekoizpen garbirako beste diru-laguntza batzuk		22.616	9.718	13.793
Balio Erantsi Garbia faktore-kostuetan (nekazaritza-errenta)	301.909	122.265	95.868	83.777

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.

Arrantza-sektorean, nekazaritza-sektorearen antzeko egoera batzuk gertatzen dira; gehienbat, balio sinbolikoari eta identitarioari dagokionez. Pertsona edadetuei dagokienez, ekarpen txikiagoa egiten dute sektore horretan, eta halaber, balio ukiezina sortzeko ekarpen txikiagoa egiten dute. Azterketan amortizazioak kontuan hartzean, 2009ko ustiapen-soberakin garbia negatiboa izan zen; hain zuzen, 16 milioi euroko negatiboa izan zen, positiboan 2011n berreskuratu zena. 2011n, langileriaren batez besteko kostua urteko 33.527 eurokoa zen, lanean zegoen pertsona bakoitzeko; hain zuzen, 18.646 eurokoa zen itsasbazterreko flotan, 40.291 eurokoa itsas zabaleko flotan, eta 51.833 eurokoa atunketari izoztaileen flotan. Ordainsaririk handieneko jardueretan, adineko gutxi daude, bai eta erretiro aurreko azken urteetan ere.

Eraikuntza eta industria sektore modernoagoak dira nekazaritza eta arrantza baino; sektore horietan, soldatakoen proportzioa handiagoa da, eta jabe txikiena, berriz, txikiagoa da. Adinekoek sektore horietan ekoizle gisa (soldatako gisa) eta jabe eta kudeatzaile gisa duten garrantzia oso txikia da.

II.3.3. Adinekoak osasunaren ekonomian

II.3.3.1. Osasuna, gastua ala inbertsioa?

Baliorik handieneko ondasuna da osasuna, eta gizarte garatu guztiek beren baliabideen zati garrantzitsu bat erabiltzen dute osasuna mantentzeko. Askotariko baliabideak erabiltzen dituzte: arau-arlokoak, teknologikoak, ekonomikoak, sozialak... Bereizi behar ditugu esleitutako baliabideak (bolumena) eta egindako ahalegina edo baliabide erabilgarrien gaineko proportzioa, adibidez BPGaren gaineko ehunekoa.

Ohiko azterketa ekonomikoetan, osasuna gastutzat hartzen da gehienbat, inbertsioztat hartu beharrean. Horrez gain, kostuen azterketan, dirutan adieraz daitezkeen zuzeneko kostuak baino ez dira jasotzen. Zeharkako kostuei buruzko azterketak ez dira hain ohikoak, eta esku-hartze soziosanitarioek epe labur, ertain eta luzean dituzten onuradunei buruzko azterketak are ezohikoak dira.

Osasuneko gastuaren eta biztanleriaren benetako osasunaren artean, lotura estua dago, baina ez da erabakigarria: adinaren arabera egitura, aldekoa; higienari, elikadurari eta ingurumenari lotutako ohitura onak; prebentzio-programa eraginkorrak; eta kudeaketa ona. Elementu horiei esker, osasunaren arretaren kostu konparatua txikitu egin daiteke, emaitzek okerrera egin gabe. Osasun-zerbitzuen prezioak ere eragina du, bai arretaren kostuan, bai gizarte-egoera ahulean dauden taldeek zerbitzu horiek erabiltzeko aukeran. Euskadiko Osasunari buruzko Kontu Satelitea 2009an egin zen, eta ondoren besterik egin ez denez, hori da, oraindik ere, sektore horren egitura ekonomikoa ezagutzeko iturriarik onena. Osasungintza publikoa hedatuta dagoenez, sektorea oso egonkorra da.

Adinekoei dagokienez, kostuak dirutan zenbat diren aztertzean, ikusezin bihurtzen dira adinekoek osasunean duten zereginaren oinarritzko bi alderdi: ordaindu gabeko zainketa-arreten hornitzaile gisa duten zeregina, eta zainketa mota horien kontsumitzaile gisa dutena.

Kontabilitate-ikuspegiarik hedatuenaren arabera (SEC95i dagokiona), Euskadik bere BPGaren % 8,8 gastatzen du osasunean, gastu publikoa zein pribatua kontuan hartuta. II.3.3-1 taulan, herrialde garatuetako osasuneko gastuaren banaketa azaltzen da. Euskadin osasuna kontserbatzeko egiten den ahalegina, BPGaren ehunekotan neurtua, % 36 handitu da 2000tik 2009ra bitartean

II.3.3.1-1. taula
Gastu-adierazleak herrialdearen arabera. 2011

A	B	C	D	E	F
	Gastu publikoa BPGaren %-tan	Gastu publikoa Gastu osoaren %-tan	Gastu osoa BPGaren %-tan	Gastu osoa biztanleko (EAP, US\$)	BPG biztanleko (EAP \$)
Alemania	8,7	76,5	11,3	4.495	39.662
Austria	8,2	76,2	10,8	4.546	42.186
Belgika	8,0	75,9	10,5	4.061	38.629
Kanada	7,9	70,4	11,2	4.522	40.449
Danimarka	9,3	85,3	10,9	4.448	40.933
Espainia	6,8	73,0	9,3	3.072	33.045
AEB	8,5	47,8	17,7	8.508	48.113
Finlandia	6,8	75,4	9,0	3.374	37.479
Frantzia	8,9	76,8	11,6	4.118	35.395
Irlanda	6,0	67,0	8,9	3.700	41.548
Islandia	7,3	80,4	9,0	3.305	36.611
Italia	7,2	77,8	9,2	3.012	32.648
Norvegia	7,9	84,9	9,3	5.669	61.060
Erresuma Batua	7,8	82,8	9,4	3.405	36.158
Suedia	7,7	81,6	9,5	3.925	41.461
Suitza	7,1	64,9	11,0	5.643	51.227
Euskal AE	6,5	73,8	8,8	3.695	42.023

EAP: Errosteke Ahalmenaren Parekotasuna.

Iturria: EUSTAT, Osasun Kontuak, eta ECO-SALUD OCDE 2013 (2013ko urria).

F zutabeak 2009ko biztanleko BPGa adierazten du, dolarretan, behin herrialde bakoitzeko prezio mailaren arabera (erosteke ahalmena) kopuruak homogeneizatu ondoren. Urte hartan, Euskal AEko biztanleko BPGa, erosteke ahalmenak haztatua, maila ekonomikorik handieneko herrialdeetakoaren antzekoa zen, hala nola Norvegiakoaren eta Suitzakoaren antzekoa. Dena den, Euskadin osasungintzan guztira egiten den gastuak BPGan duen proportzioa (D zutabea) txikiena zen, taulan adierazitako gainerako herrialdeekin alderatuta; hain zuzen, 2,5 puntu txikiagoa Suitzako baina, eta 0,8 puntu txikiagoa Espainiakoa baina. Aurtenetxek

eta Sobremontek joera bera jarri zuten agerian²².

Aipatutako herrialde guztiak herrialde garatuak dira, eta ELGAko kideak –ez da errenta txikiko Europako herrialderik azaltzen–, eta haien artean, osasungintzako BPGaren ehunekoak oso desberdinak dira. Konparazio baterako, AEBk Euskadik ia halako bi inbertitzen du osasungintzan.

Osasungintzan egindako ahalegin ekonomikoaren tamaina eta ahalegin horrek baliabide erabilgarriekiko duen proportzioa oso bestelakoak dira. Baina, horrez

²² Aurtenetxe, Jon L., Sobremonte de Medicuti, E. "Informes Socioeconómicos", Osasuna, 3. zk., Eustat, 2012, bereziki. 91, 97 or. eta hurrengoak.

gain, gastu hori egiteko moduan ere alde handiak daude, C zutabeak argi eta garbi erakusten duenez. Aipatutako herrialde gehienetan, Administrazio Publikoak arduratzen dira osasun-arretaz, maila eta erakunde guztietan; izan ere, gastu osoaren % 70 baino gehiago horretarako da. Eskandinaviako herrialdeetan, ehuneko hori handiagoa da. Aitzitik, AEBn, Administrazio Publikoek gastuaren % 47,7 baino ez dute egiten osasungintzan, eta gastu gehiena familiek eta aseguru-etxe pribatuek egiten dute, besteak beste. Kanadak Europakoaren antzeko eredia du: arretaren gastuaren % 30 soilik egiten da Administrazio Publikoetatik kanpo. Beraz, AEBko ereditik urrun dago, AEBn osasun-arreta oso pribatizatuta baitago.

II.3.3.2. Osasunaren finantziario publikoa eta pribatua

Administrazio Publikoak osasun-arretaz arduratu arren, horrek ez du esan nahi arretarako baliabideak Administrazio Publikoek beraiek sortzen dituztenik; beste sektore ekonomiko batzuetan sortzen dira, Administrazio Publikoetara iristen dira, eta Administrazio Publikoen irizpideen arabera kudeatzen eta banatzen dira. Besteak beste, Administrazio Publikoek beren sarrera- eta gastu-lehentasunak zehaztu behar dituzte: zer programa edo arreta mota sustatu edo ahuldu, zer kolektibori lagundu eta zer kolektibo birbideratu beste erakunde batzuetara, eta zer zerbitzu diruz lagundu, eragotzi edo debekatu. Euskadin, osasungintzako gastu publikoa Administrazio Publikoen gastu osoaren % 16 da; Frantzian, Erresuma Batuan edo Austrian egindako gastuaren antzekoa, eta Espainiakoa baino apur bat handiagoa. Gastu publikoaren gainerako % 84a osasunarekin zuzeneko lotura ez duten beste helburuetarako erabiltzen da.

2012an osasungintzan egindako gastuaren % 26,8 finantziario publikoari zegokion, eta gainerakoa (% 73,2), publikoari; hamarkada bat lehenago, berriz, finantziario pribatuaren proportzioa pixka bat handiagoa zen. 2012an osasungintzan egindako gastu gehien-gehiena gastu arruntetarako zen, baliabideen % 98,0 hain zuzen: gastu osoarekiko proportzioa oso gutxi aldatu da 2000. urtetik aurrera, baina inbertsiorako gastuen proportzioa hamarren batzuk txikitu zen, eta horrek murrizketa handiak eragin ditu kapitulu horretan. Lurralde historikoaren arabera banaketa (II.3.3.2-2 eta II.3.3.2-3 taulak eranskinean) heterogeneo samarra da, eta bere aldaketa-erritmoak ditu. 2003., 2005. eta 2008. urteetako desberdintasunak oso nabarmenak dira; izan ere, zalantza sortzen dute, benetakoak edo kontabilitate-sistemen ondorio ote diren.

Osasun-gastu osoak (euro korranteetan) gora egin zuen 2005etik 2009ra bitartean, 2009tik aurrera moteldu egin zen eta 2012an behera egin zuen. Funtzioaren arabera, bolumenik handieneko arreta motek gastu-egonkortasun erlatiboari eutsi zioten, eta bolumenik txikieneko sailetan –hala nola, errehabilitazioan eta prebentzioan–, berriz, urteko aldaketak nabarmenagoak izan ziren. 2005ean eta 2012an, osasungintzako gastu osoaren % 52 sendatzeko osasun-laguntzarako izan zen. (II.3.3.2-4. taula, eranskina).

Adinekoek gainerako biztanleek baino gehiago erabiltzen dituzte osasungintza-gastuaren funtzio guztiak²³. Finantziario pribatua ez da homogenea adinekoek gehien erabiltzen dituzten funtzioetan (II.3.3.2-5 eta II.3.3.2-6 eranskina): sendatzeko laguntza barne- zein kanpo-erregimenean eta abar.

²³ Euskadiko 2007ko Osasunaren Inkestaren arabera, aurreko urtean mediku-kontsultarik egin ez zuten pertsonen proportzioa % 14,7koa izan zen; 65 urtetik gorakoen artean, % 5,4koa izan zen. Biztanleriaren % 10,5ek hamar kontsulta edo gehiago egin zituen, eta adinekoen artean, % 19,9k egin zituen hamar kontsulta edo gehiago. Bi taldeen batez besteko kontsulta kopurua 3'84 eta 5'76 izan zen, hurrenez hurren.

II.3.3.2-1. taula

Euskal AEko osasun-gastua eta horren adierazleak. 2005-2010(a)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	
OSASUN GASTU OSOA							
Milaka eurotan	2.694.952	2.910.000	3.119.750	3.419.075	3.667.363	3.994.669	
Merkatu-preziotako BPGaren %-tan		6,7	6,8	7,0	6,9	7,0	
Biztanleko eurotan	1.296	1.398	1.494	1.634	1.747	1.893	
Merkatu-preziotako BPGa milaka eurotan (2010 oinarri hartuta)	41.319.247	43.587.345	45.872.090	48.870.869	52.892.793	56.884.948	
Biztanleria (01-uztaila)	2.079.219	2.082.134	2.087.504	2.092.482	2.099.705	2.109.890	
OSASUN GASTUAREN FINANTZIAZIOA (milaka eurotan)							
OSASUN GASTU OSOA		2.910.002	3.119.748	3.419.076	3.667.365	3.994.669	
Finantziario publikoa	1.956.481	2.105.628	2.264.644	2.468.720	2.646.334	2.889.805	
Finantziario pribatua	738.473	804.374	855.105	950.357	1.021.031	1.104.864	
OSASUN GASTU ARRUNTA							
Finantziario publikoa	1.888.088	2.038.620	2.203.712	2.404.043	2.581.596	2.817.276	
Finantziario pribatua	706.236	772.028	834.343	921.071	987.251	1.072.043	
OSASUN INBERTSIOA							
Finantziario publikoa	68.392	67.007	60.932	64.677	64.738	72.528	
Finantziario pribatua	32.237	32.345	20.762	29.285	33.780	32.821	
	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012(a)
OSASUN GASTU OSOA							
Milaka eurotan	4.303.344	4.743.779	5.244.239	5.636.111	5.768.253	5.774.603	5.662.970
Merkatu-preziotako BPGaren %-tan	7,0	7,2	7,8	8,8	8,9	8,8	8,8
Biztanleko eurotan	2.027	2.217	2.433	2.602	2.656	2.652	2.578
Merkatu-preziotako BPGa milaka eurotan (2010 oinarri hartuta)	61.353.909	65.962.032	67.478.054	63.988.786	65.120.174	65.684.285	64.706.357
Biztanleria (01-uztaila)	2.123.184	2.139.370	2.155.349	2.165.991	2.171.536	2.177.812	2.196.416
OSASUN GASTUAREN FINANTZIAZIOA (milaka eurotan)							
OSASUN GASTU OSOA	4.303.344	4.743.779	5.244.239	5.636.111	5.768.253	5.774.603	5.662.970
Finantziario publikoa	3.115.888	3.475.698	3.900.495	4.230.867	4.276.976	4.258.789	4.143.089
Finantziario pribatua	1.187.456	1.268.081	1.343.744	1.405.244	1.491.277	1.515.814	1.519.881
OSASUN GASTU ARRUNTA							
Finantziario publikoa	3.040.933	3.345.680	3.752.458	4.080.774	4.162.272	4.137.827	4.058.522
Finantziario pribatua	1.151.035	1.213.783	1.301.892	1.366.115	1.449.320	1.485.476	1.485.854
OSASUN INBERTSIOA							
Finantziario publikoa	74.955	130.018	148.037	150.093	114.704	120.962	84.567
Finantziario pribatua	36.421	54.298	41.852	39.129	41.957	30.338	34.027

Iturria: Eustat. Osasun Kontua.

Familiak osasungintzako gastu arruntaren % 21 egiten dute, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek (EZIAGE), % 0,7 (II.3.3.2-7 eranskinean). Jakina, beste sektore ekonomiko batzuek ez dizkiete biztanleei osasun-zerbitzuak oparitzen (salbu eta, neurri txiki batean, EZIAGE-en kasuan). Izan ere, biztanleriak lehenago ordaindu dituzten zerbitzu horiek, edo zeharka ordaintzen dituzten, borondatez edo beste erakunde edo sektore ekonomiko batzuen bidez (aseguruak, enpresak, Gizarte Segurantza, Administrazio Publikoak, etab.), eta erakunde horiek arduratzen dira zerbitzuak kudeatzeaz. Publikoak, etab.), eta erakunde horiek arduratzen dira zerbitzuak kudeatzeaz.

Adinekoak askotariko hornitzaileek emandako zerbitzuak erabiltzen dituzte, nahiz eta, zenbait kasutan –esate baterako, laneko osasun-zerbitzuetan–, proportzioa oso txikia izan erreferentziazko urtean. Adinekoentzat baino ez den gastu bakarra hau da: osasungintzako gastu arrunta, hornitzailearen arabera, zahar-etxeetarako (HP 2.3). 2012an, gastu hori 492 milioi eurokoa izan zen (II.3.3.2-8 eta II.3.3.2-9 taulak, eranskina). Finantziario publikoak gastu horren % 56 estali zuen, eta pribatuak % 44. Barne-osaera hori gastu osoaren oso bestelakoa da; izan ere, finantziario publikoak % 73 estaltzen du, eta pribatuak, berriz, gainerako % 27a. Zahar-etxeetarako gastua finantziario publikoaren gastu arruntaren % 6,3koa da, eta finantziario pribatuaren gastuaren % 14,7koa; hain zuzen ere, erakunde pribatuek interes handia dute merkatu-nitxo horretan, batez ere hitzarmenen eta kontzertuen bidez.

II.3.3.3. Adierazleen harikortasuna: hautemandako osasuna.

Indizeak alderatzean, zenbait arazo metodologiko sortzen dira beti, joerak bereizteko zailtasunak sortzen dituzten elementuak baitaude: alderatutako unitateen osaera (15en Europa eta 27en Europa alderatzean, adibidez), adin-egitura, definizioak edo datuak biltzeko sistemak aldatzea (zerbitzuak esternalizatzea, sistema publikotik pribatura igarotzea eta alderantziz...).

2002tik 2007ra bitartean, Euskadiko biztanleriak hautemandako osasunaren indizea pixka bat okerragotu zen, beren osasuna bikaina, oso ona edo ona dela sumatzen dutenen adierazlea erabiltzen bada; izan ere, adierazle hori % 82tik % 80ra jaitsi zen. 65 urtetik gorakoen artean, indize hori askoz gehiago okerragotu zen: % 62tik % 56ra. Europan, berriz, joera orokorrak gora egin zuen (indizea 4'9 puntu handitu zen), baina, 65 urtetik gorakoen kasuan, Euskadin baino gehiago okerragotu zen: 7'6 puntu. Euskadin, emakumeek hautemandako osasuna gehiago okerragotu zen gizonena baino, eta horrek eragin zuen osasun onaren (bikaina, oso ona edo ona) indizeak behera egitea. Ezgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestaren arabera, 65 urtetik gorakoen egoera antzekoa da Euskadi eta Espainian, baina desberdintasun batzuk daude. Hala, Euskadik adin horretatik aurrera bizirik daudenen ehunekoa zertxobait handiagoa du, baina puntuazio txikiagoa du hautemandako osasun oneko bizi-itxaropenaren adierazleetan eta hainbat ezgaitasun mota gabeko bizi-itxaropenaren adierazleetan.

II.3.3.3-1. taula

Osasun onaren prebalentzia Euskal AEn, sexuaren eta adinaren arabera (%). 2002-2007-2013

	A	B	C	D	E	F	G
	2002	2007	2007ko % 2002koaren gainean	2013	2013ko % 2002koaren gainean	2013ko % 2007koaren gainean	Emakumeen % adin breko gizonen gainean 2013an
Gizonak							
15-24	82,2	94,9	115,5	96,7	117,6	101,9	
25-44	74,8	88,2	117,9	91,3	122,1	103,5	
45-64	56,1	76,7	136,7	81,4	145,1	106,1	
65-74	49,2	63,4	128,9	70,8	143,9	111,7	
>=75	41	48,5	118,3	55	134,1	113,4	
Emakumeak							
15-24	71,9	91,9	127,8	96,4	134,1	104,9	99,7
25-44	71,1	86,2	121,2	89,7	126,2	104,1	98,2
45-64	53,5	70,3	131,4	78,7	147,1	111,9	96,7
65-74	47,9	54,9	114,6	62,2	129,9	113,3	87,9
>=75	36,7	47,1	128,3	41,5	113,1	88,1	75,5

Iturria: M.A. Duránek egina, Osasun Sailaren datuetan oinarrituta. Euskadiko Osasunaren Inkesta, 2013.

Hala ere, beste adierazle batzuk erabiliz gero, emaitza positiboagoa da. 2010eko Osasun Inkestaren arabera, Euskadin hautemandako osasuna ona da, Espainiakoaren oso antzekoa, baina, eskalaren muturretan, proportzioak txikiagoak dira: jende gutxiagok esaten du “oso ondo” edo “oso gaizki” dagoela. “Osasun ona” erantzunean oinarrituz gero, Euskadiko Osasunaren Inkestek (2002-2007-2013, ikus erantsitako taula) hautemandako osasun mailak asko hobetu direla erakusten dute. 2002-2007 bosturtekoan, “osasun onaren” prebalentzia herena baino gehiago handitu zen erdiko adin-taldeko gizonen artean; talde horretako emakumeena ere antzera hobetu zen. Adin-talde guztietan, hobekuntza % 15ekoa izan zen, edo handiagoa.

2007-2013 bosturtekoan ere, hobekuntza ikusgarria izan zen, argitaratutako datuak aztertuta ondoriozta daitekeenez; dena den, kontuan hartu behar da “osasun ona” segmentuari buruzko datuak direla eta ez dela muturreko daturik ematen²⁴. Adinekoei dagokienez, 2002-2013 hamarkadan, osasun mailaren zerrenda hori nabarmen zabaldu zen, gehienbat gizonen kasuan (% 44 eta % 34, 65 eta 74 urte bitarteko taldean eta 74 urtetik gorako taldean, hurrenez hurren).

Aipatzekoa da adin-talde guztietan osasun onaren prebalentzia handiagoa izatea gizonen artean emakumeen artean baino (G zutabea); izan ere, 75 urtetik gorako taldean, gizonen eta emakumeen arteko aldea % 25ekoa da.

Osasuna dela medio mendekoak direla adierazten duten 65 urtetik gorako enhekua 2004ko % 25,8tik 2009ko % 21,18ra jaitsi da²⁵.

²⁴ Eranskin metodologikoak ez du zehazten “osasun ona” horren barruan “oso osasun ona” sartzen den ala ez. Ez badirudi ere, gerta daiteke jende gehiagok “osasun ona” erantzutea eta, aldi berean, jende gehiagok ere “osasun txarra” edo “oso osasun txarra” erantzutea; hau da, jende gutxiagok “oso osasun ona” erantzutea. Orobat, eta paradoxikoki, heriotza-tasak eragin positiboa izan dezake osasun onaren indizeetan; izan ere, gaixotasun larri batzuen edo baliaezintasun handia eragiten duten gaixotasunen prebalentzia txikitu daiteke.

²⁵ Aurtentxe, Jon L., Sobremonte de Medicuti, E. “Informes Socioeconómicos”, Osasuna, 3. zk., Eustat, 2012, bereziki. 91, 97 or. eta hurrengoak.

II.3.3.3-2. taula

Azken 12 hilabeteetan hautemandako osasun-egoeraren balorazioa, sexuaren arabera.

Unitateak: ehunekotan

	Guztira	Oso ona	Ona	Hala-holakoa	Txarra	Oso txarra
BI SEXUAK						
Espainia, guztira	100	26,50	48,77	18,01	5,40	1,32
Euskadi	100	23,08	52,25	18,07	5,38	1,21
GIZONAK						
Espainia, guztira	100	28,18	51,16	15,62	4,14	0,90
Euskadi	100	23,88	55,79	14,72	4,46	1,15
EMAKUMEAK						
Espainia, guztira	100	24,88	46,45	20,33	6,62	1,72
Euskadi	100	22,33	48,93	21,23	6,25	1,26

Iturria: M.A. Duránek egina, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuak eta INEren 2011-2012ko Osasunaren Inkesta Nazionala erabiltuta.

Biztanleriaren osasunaren egoera orokorra pixka bat okerrago hautematen da Euskadin Espainian baino; apur bat txikiagoa da “oso ona” dela uste dutenen proportzioa, eta pixka bat handiagoa, “txarra” dela uste dutenena.

Osasun txarraren adierazle gisa ospitaletako zerbitzuen erabilera aintzat hartzen badugu, Euskadin ospitaleratuta egon ondoren altajaso zutenenerdiak adinekoak dira, eta erdiak baino gehiago dira nerbio-sistemaren, zentzumen-organoen, zirkulazio-aparatuaren eta arnas aparatuaren gaixotasunen ondorioz ospitaleratuta daudenen artean.

Prebenitzea eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzea dira osasun ona sustatzeko modurik onenak. Euskadiko adinekoen artean, emakume baino gizon gehiagok dituzte osasunerako kaltegarriak diren ohiturak (2007an, adineko gizonen % 11,7 edale handiak ziren, eta adineko emakumeen % 4,8); sedentarietatea izan ezik; izan ere, adineko emakumeen % 60 eta gizonen % 43 ziren sedentarioak.

Adinekoen osasuna hobetzeko eragina izan dezakeen beste alderdi bat horien etxeetako baldintza materialak eta antolakuntzakoak hobetzea da. Mapfre Fundazioak egindako inkesta baten arabera, erreferentziako pertsona 65 urtetik gorakoa duten sei etxetik batean etxeko istripuak gertatzen dira. Ohikoenak erorikoak (istripuen % 80), erredurak eta bestelako zauriak dira. Datu horien eragileetako bat adinekoek etxean ematen duten denbora luzea da (orduetan neurtuta). Izan ere, beste leku batzuetan denbora laburra ematen dute eta, beraz, ez da erraza leku horietan istripuak izatea. Halere, adinekoek ez ezik, etxeko edozein biztanlek jasandako istripuak sartzen dira indizean. Datuok Espainiari buruzkoak dira.

Etxeko baldintza fisikoen egokitzapenak istripuen maiztasuna txikitzeko balio dezake (bainugelak egokitzea, kablerik ez izatea, azalera labankorrak, gaizki kokatutako edo mugi daitezkeen altzariak, eskailerak, argiketa eskasa eta abar).

Halaber, komunikatzeko erraztasunak istripuaren ondorioak arintzeko balio dezake, behin gertatuta²⁶.

II.3.3.3-3. taula
Ospitaleko alta jasotzen duten pazienteak, diagnostiko-talde ohikoenaren, sexuaren eta adinaren arabera.

	Guztira altak (*) %	Sexua			Adin-taldea				% 65 edo gehiago guztizkoarekiko
		Guztira	Gizonak	Emakumeak	0-14	15-44	45-84	65 y más	
Guztira	100,0	310.389	150.308	160.081	16.314	75.690	80.549	137.836	44,4
Nerbio-sistema eta zentzumen-organoak	12,3	38.191	16.358	21.833	1.310	3.134	7.943	25.804	67,6
Zirkulazio-aparatua	11,8	36.480	20.731	15.749	117	3.161	9.688	23.514	64,5
Digestio-aparatua	11,7	36.403	21.112	15.291	1.673	7.989	11.764	14.977	41,1
Tumoreak	9,5	29.399	15.797	13.602	429	3.862	10.912	14.196	48,3
Osteomuskularrak	9,2	28.697	14.245	14.452	404	6.703	11.362	10.228	35,6
Zirkulazio-aparatua	9,0	27.879	16.314	11.565	3.613	4.368	5.090	14.808	53,1
Haurdunaldia, erditzea eta erditze ostekoa	7,9	-	-	24.603	7	24.495	101	-	-

(*) % guztizko alta kopuruarekiko

Iturria: Eustatek egina. Euskal AEko Ospitaleetako Erikortasunari buruzko Inkesta.

II.3.3.4. Antsietate- eta depresio-sintomak, adinaren eta generoaren arabera

Osasun onaren prebalentzia handiak badu kontrako ondorio bat: antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia gero eta handiagoa da. 2002-2007 bosturtekoan, adin-talde guztietan, sintoma horiek zituzten gizonak gutxitu ziren, baina emakume kopurua handitu egin zen. 2007tik 2013ra bitartean, nabarmen handitu da sintoma horiek dituzten gizon eta emakumeen kopurua, adin-talde guztietan; bereziki, gizonen kasuan handitu da, 25-44 adin-taldean (% 56 handitu da), 65-74 adin-taldean (% 50eko hazkundea) eta 75 urtetik gorako taldean (% 42 handitu da). Emakumeek adierazitako antsietate- eta depresio maila handiagoa da gizonena baino, adin-talde guztietan. Hazkunde horren eragileak honako hauek dira: krisiak eragindako segurtasun-gabezia, eta norberaren lan- eta ekonomia-bizitza kontrolpean izateko zailtasuna.

²⁶ Gizarteratuz, 10. zk., 2014, 13. or.

II.3.3.4-1. taula

Antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia Euskal AEn, sexuaren eta adinaren arabera (%).
2002-2013

	A	B	C	D	E	F	G
	2002	2007	2007ko % 2002koaren gaietan	2013	2013ko % 2002koaren gaietan	2013ko % 2007koaren gaietan	Emakumeen % adin bereko gizonen gainean 2013an
Gizonak							
15-24	8,4	7,5	89,3	10,0	119,0	133,3	
25-44	10,1	8,9	88,1	13,9	137,6	156,2	
45-64	13,5	12,3	91,1	16,8	124,4	136,6	
65-74	11,7	9,9	84,6	14,9	127,4	150,5	
>=75	18,0	16,8	93,3	23,9	132,8	142,3	
Emakumeak							
15-24	14,4	15,9	110,4	18,4	127,8	115,7	184,0
25-44	15,3	16,2	105,9	21,5	140,5	132,7	154,7
45-64	18,7	21,7	116,0	23,1	123,5	106,5	137,5
65-74	20,2	23,4	115,8	29,7	147,0	126,9	199,3
>=75	22,2	27,5	123,9	32,7	147,3	118,9	136,8

Iturria: M.A. Duránek egina, Osasun Sailaren datuetan oinarrituta. Euskadiko Osasunaren Inkesta, 2013.

II.3.3.5. Osasuna, zahartzea eta gaixotasun kronikoak Euskadin

XXI. mendeko osasun-erronka ez dira gaixotasun akutuak, gaixotasun kronikoak baizik²⁷. Gaixotasun kronikoa duten pazienteek ezin dute espero beren gaixotasuna desagertzea, eta osasun-ahalegina gaixotasun hori txartzea eragozteko eta sintomak arintzeko da. Gaixotasun mota hori zahartzearekin lotzen ditugu, eta askotan, gaixoeek gaixotasun kroniko bat baino gehiago izaten dituzte aldi berean; beraz, ikuspegi orekatua eta bateratua behar da tratamendua jartzerakoan.

Euskadin Espainian baino apur bat osasun-arazo kroniko gehiago hautematen ditu biztanleriak, gehienbat gizonen artean; hain zuzen, gizonen kasuan, % 12,35 handiagoa da Espainiako batez bestekoa baino.

Aldeak ez dira oso handiak, eta ez dira gaixotasunen artean homogeenoki banatzen. Azken hamabi hilabeteetan gaixotasun kronikoak edo eboluzio luzeko gaixotasunak dituztela adierazten duten biztanleen proportzioaren arabera, Euskadin Espainian baino zertxobait ohikoagoak dira gaixotasun kroniko hauek: tentsio altua, bihotzeko beste gaixotasun batzuk, hanketako barizeak, artrosia, zerbikal eta lunbarretako min kronikoa, alergia kronikoa, asma, urdaiko edo duodenoko ultzera, kolesterol altua, azaleko arazoak, idorreri kronikoa, enboliak, garuneko infartuak eta hemorragiak, migrainak eta sarritako buruko minak, hemorroideak, tumore gaiztoak eta lesio

²⁷ Txema Odriozolak, Euskadiko eta Nafarroako Jubilatua eta Pentsiodunen Elkarteko presidentek, hau esan zuen txosten honi buruz eztabaidatzeko mintegian (Gasteiz, 2014/04/3): "osasun-sistema transatlantiko handi bat da, eta 90 graduko biraketa egin behar du".

iraunkorrak. Aitzitik, honako hauek ez dira hain ohikoak, edo horixe esaten dute²⁸: miokardioko infartuak, bronkitis kronikoa, diabetesa, begi-lausoak, zirrosia edo gibelesko disfuntzioak, depresio eta antsietate kronikoa, buruko beste arazo batzuk, osteoporosia eta tiroideko arazoak.

II.3.3.4-2. taula

Hautemandako gaixotasun edo osasun-arazo kronikoren bat duten biztanleak, sexuaren eta Autonomia Erkidegoaren arabera. 15 urteko edo gehiagoko biztanleria. Euskadi eta Espainia.

Unitateak: ehunekotan

	Guztira	Bai	Ez
BI SEXUAK			
Espainia, guztira	100	42,5	57,6
Euskadi	100	45,8	54,2
Euskadiko % Espainiako guztizkoarekiko		107,8	94,2
GIZONAK			
Espainia, guztira	100	37,8	62,2
Euskadi	100	42,5	57,5
Euskadiko % Espainiako guztizkoarekiko		112,3	92,5
EMAKUMEAK			
Espainia, guztira	100	46,9	53,1
Euskadi	100	48,8	51,2
Euskadiko % Espainiako guztizkoarekiko		104,1	96,3

Iturria: M.A. Duránek egina, INEren 2011-2012ko Osasunaren Inkesta Nazionala erabiltuta. Osasun-egoera Kopuru erlatiboak.

II.3.4. Adinekoek lekuri al dute hezkuntzaren ekonomian? Bizi-ikasketan ulertzeko beste modu batzuk

Estatistika-iturriek eta, bereziki, hezkuntzaren kontu sateliteak Euskadiko hezkuntza-sistemari buruz ematen duten ikuspegiaren arabera, sistema horrek sistema ekonomikoak lortutako baliabideak gastatzen ditu, biztanleei hezkuntza-eta prestakuntza-zerbitzuak emateko. Beraz, gastutzat hartzen da hezkuntza, eta ez inbertsioztat. Merkatuko prezioa duen hezkuntza soilik aztertzen da; hau da, salgaitzat hartutako hezkuntza, bai hartzailak ordaintzen badu, bai Administrazio Publikotik doan jasotzen badu. Azterketak ez die lekuri uzten monetarizatzen ez diren hezkuntza-prozesuko alderdiei, ez eta hezkuntza-sisteman erabiltzen diren monetarizatutako baliabideen epe laburreko eta ertaineko inbertsio-alderdiari ere.

Adinekoek hezkuntza-prozesuan duten parte-hartzeak ez du estatistika-islarik Hezkuntzaren Kontu Satelitean. II.3.4-1taulan erakustendenez, helduen irakaskuntzan egindako gastua (41.485 euro) kuantifikatzeko kategoria bat dago; zenbateko hori hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuetan guztira egindako gastuaren zati txiki bat da (% 1,4). Ez da merkatu erakargarria sektore pribatuarentzat; izan ere, 2009tik 2011ra bitartean, sektore pribatuak hezkuntza-sektorean zuen presentziaren

²⁸ Lehenago esan denez, inkestak gaixotasunei eta abarri aurre egiten dietenei soilik egiten zaizkie, eta askotan, instituzionalizatu gabeko pertsonen baina ez. Zenbaitetan, interpretazio okerrak egiten dira hori dela eta.

proportzioa txikitu egin da. Sektore pribatuaren gastua hezkuntza-sisteman guztira egindako gastuaren % 13 izan zen, eta pertsona helduen irakaskuntzari dagokionez, gastua % 0,9koa izan zen. Irakaskuntza orokorrean, gastuaren % 87 publikoa da, eta helduen irakaskuntzan, ia gastu osoa da publikoa.

Badago beste kategoria garrantzitsu bat, adinekoek Euskadiko hezkuntza-sisteman duten posizioa eta izan dezaketena aztertzeko: hezkuntzako gastu arruntak (arruntak ez diren gastuak esparrutik kanpo geratzen dira) ordaintzen edo finantzatzen dituen erakunde-sektorea, alde batera utzita zer sektorek eskaintzen dituen hezkuntza-zerbitzuak (II.3.4-2. taula, eranskina).

Adinekoen hezkuntzan egindako gastu publikoa oso txikia bada ere, hamaika aldiz handiagoa da sektore pribatuak egindakoa baino. Jakina, helduen irakaskuntza ez da edadetuentzat soilik; tarteko adinetako helduentzat ere bada. Gainerako hezkuntza mailetan ere, zerbitzuak jasotzen dituzten adinekoak daude, baina presentzia hori ia hutsala da.

Irabazi-asmorik gabeko sozietateek eta erakundeek arautu gabeko irakaskuntza soilik finantzatzen dute zuzenean, eta Administrazio Publikoek irakaskuntza arautua finantzatzen dute; hain zuzen, Administrazio Publikoek finantziario horren % 75 ipintzen dute. Etxeek ere irakaskuntza arautua finantzatzeko erabiltzen dituzte beren baliabide gehienak, baina hezkuntzan egiten duten finantziarioaren % 25 arautu gabeko irakaskuntzetarako jartzen dute. Gaur egun, hezkuntza-sistemak diru gutxi gastatzen du adinekoen hezkuntzan, eta hori kontuan hartuta, oso interesgarria da bi kontu aipatzea. Lehenengo eta behin, gaur egun erabiltzen diren datuek ondo adierazten al dute hezkuntzan benetan egiten den inbertsioa? Eta bigarrenik, egungo gastuaren egiturak (Hezkuntzaren Kontuak adierazten duena) bere horretan jarraituko al du etorkizunean? Eta bere horretan jarraitu ezean, zer aldaketa egin daitezke edota egin behar dira?

Baldin eta irakaskuntzat ikaslearen eta irakaslearen arteko harreman egonkorrean oinarritutako irakaskuntza formalizatua hartzen badugu, eta hezkuntza/salgaia soilik kontuan hartuz gero, datuak zuzenak izango dira, seguru asko. Kasu horretan, ikasleek ikasten emandako denbora ez da kontuan hartzen; izan ere, ziur asko, hezkuntza-sistemako soldatapeko langileek baino denbora-inbertsio handiagoa egiten dute ikasleek. Giza kapitala aztertzeko, ez du zentzurik ikasleek egindako ahaleginaren balioa aintzat ez hartzeak. Edonola ere, horrek eragin handiagoa du haur-irakaskuntzan, irakaskuntza ertainean eta goi mailako irakaskuntzan, adinekoen irakaskuntzan baino.

Irakaskuntza salgaitzat hartzen duen ikuspegiak beste elementu bat ere uzten du albo batera: ikasleen gurasoek eta senideek hezkuntza-sistemari egiten dioten ekarpena (ikasleei ikasten laguntzen baitiete, zuzenean edo zeharka), bai eta boluntarioek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek egiten dutena ere. Gurasoen ekarpenarekin alderatzerik egon ez arren, adinekoek –oro har, aitona-amonek– ere beren ekarpena egiten diote hezkuntza-sistemari, laguntza eman edo lan osagarriak egiten baitituzte. II.3.4-3 taularen arabera, garraioari, jantokiari eta egoitzari lotutako jarduera monetarizatueta, baliabide kopuru handia kontsumitzen da; hain zuzen, hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuetarako zuzendutako baliabideen erdia baino gehiago. Aitona-amona askok laguntzen dute, ordainsaririk jaso gabe; besteak beste, bilobak eskolara eraman, noizean behin otorduak eman (bazkaria, askaria...),

II.3.4-3. taula
Euskal AEko hezkuntza-gastu osoa, funtzioaren arabera (milaka eurotan).
2001-2009

	2001	2003	2005	2007	2009	gasto
HEZKUNTZA GASTUA GUZTIRA	2.145.456	2.386.655	2.660.981	3.087.414	3.597.393	100,0
HEZKUNTZA GASTU ARRUNTA GUZTIRA	2.002.875	2.238.574	2.474.334	2.915.333	3.305.322	91,9
EF.1. Hezkuntza eta Prestakuntza Zerbitzuak	1.839.804	2.033.528	2.243.305	2.599.413	2.935.148	81,6
EF.2. Jarduera osagarriak	93.833	123.160	146.679	189.932	246.432	6,9
EF.2.1. Garraioa	26.455	31.315	36.909	41.090	46.186	1,3
EF.2.2. Jantokia	44.061	64.642	77.060	105.171	146.090	4,1
EF.2.3. Egoitza	1.260	1.417	1.542	1.297	1.354	0,0
EF.2.4. Beste batzuk	22.057	25.786	31.168	42.374	52.802	1,5
EF.3. Liburuak eta eskolako materiala, etxeek erositakoak	25.618	28.322	28.232	49.643	52.267	1,5
EF.4. Hezkuntza Sistemaren Administrazio Orokorra	27.785	35.051	36.943	49.405	38.487	1,1
EF.5. Hezkuntzako ikerketa eta berrikuntza	15.835	18.513	19.175	26.940	32.988	0,9
KEG. KAPITAL ERAKETA GORDINA IRAKASKUNTZA ERAKUNDEETAN	142.581	148.081	186.647	172.081	292.071	8,1

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzaren Kontua.

ostatua eman, eta liburuak erosteko eta eskolako aparteko gastuak ordaintzeko dirua ematen dute. Dena den, ordaindu gabeko jarduera horretan duten parte-hartzearen maiztasunari buruzko estatistika onik ez dugu. Aldi baterako laguntza ematea aldi behin laguntzea bezain garrantzitsua da. Askotan, gaixotasunengatik edo beste arrazoiren batzuegatik (haurren edo gurasoen gaixotasuna, grebak, oporrak, etab.), arreta-beharrak sortzen dira ustekabeen familietan. Eta kasu horietan, ordaindu gabeko senideek laguntzeko prest egoteak hezkuntza-sistemaren jarraitutasuna eta eraginkortasuna bermatzen du.

Zahartze aktiboa sustatzeko politikak diseinatzerakoan, Hezkuntzaren Kontu Satelitea bereziki interesgarria da. Bizitza-luzera handitu denez, lan osteko aldia luzatu egiten da, eta beharrezkoa da birziklatzea eta ikasteko ahalmenari eustea, adinekoak aldaketa teknologikoetara molda daitezen.

II.3.4-4 taulak (eranskina) erakusten du zer bilakaera izan duen hezkuntza-gastu osoak Euskadin 2001tik 2009ra bitartean. Aldi horretan, BPGak gora egin zuen, bai eta biztanleko hezkuntza publikoko zein pribatuko gastuak ere (1.443 euro 2007an). Hala ere, BPGarekiko ehunekoa txikitu egin zen, % 4,9tik % 4,6ra. Esan nahi al du horrek hezkuntza-arloan ahalegin txikiagoa egiteko joera dagoela? Eta BPGarekiko hezkuntza-arloko ahalegina txikitzen bada, zer gertatuko da adin potentzialki aktiboan ez dauden biztanleentzako arautu gabeko irakaskuntzarekin?

Prestakuntza eta hezkuntza oso tresna baliagarriak dira zahartze aktiboan, baina, baliabide materialen gutxieneko kopururik gabe, ez dago haiek garatzerik. Ikusi dugunez, adinekoen hezkuntza ez da oraingoz erakargarria sektore pribatuarentzat; izan ere, errenta maila txikiko kolektiboa da, eta ikasten jarraitzeko ohiturarik gabea. Merkatuan, hezkuntza- eta kultura-produktuak sor daitezke, baina, seguru asko, Administrazio Publikoak eta EZIAGEak (irabazi-asmorik gabeko erakundeak) izango dira proiektu horien zuzeneko finantzatzaileak. Gastuaren banaketa da lehentasun politiko inplizituak esplizitu bihurtzeko modurik onena. Euskadiko adineko biztanleen proportzioa handitzen ari dela kontuan hartuta, zer proportziotan handitu beharko litzateke pertsona helduen irakaskuntzako gastua, gastu osoarekiko, hazkunde horretara egokitzeko? Aldaketa demografikora egokitzeaz gain biztanleko zerbitzu-eskaintza hobetu nahi bada, aurrekontua askoz gehiago handitu beharko da; izan ere, aurrekontua handitu ezean, hezkuntzako eta beste atal batzuetako aurrekontu-sailak txikitu beharko lirateke.

Espainiarekin alderatuta, Euskadiko ikasleko urteko gastua handiagoa da; hain zuzen, % 14 handiagoa da lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta hirugarren hezkuntza ez den bigarren hezkuntzaren ondokoan (7.319 euro urtean ikasleko, eta Espainian, 6.411 euro). Hirugarren hezkuntzari dagokionez, % 8ko aldea dago (10.882 euro eta 10.089 euro, hurrenez hurren). Gasturik handiena duen herrialdearekin alderatuta, hots, Suitzarekin, Euskadik % 33 gutxiago gastatzen du lehen hezkuntzan, eta % 50 gutxiago hirugarren hezkuntzan.

Hezkuntza-ekoizleen ikuspegia erabili beharrean, hezkuntza-kontsumitzailearena erabiltzen badugu, konklusioak oso antzekoak izango dira. Adinekoen etxeek oso gutxi gastatzen dute hezkuntzan, eta atal horretako gastuaren zati bat familiako kide gazteagoen kontsumoari dagokio. "Hezkuntza-sistemarekin zerikusirik ez duten irakaskuntzako" gastua 0,85 eurokoa da urteko eta familiako 60 urtetakoek sostengatutako etxeetan, eta adin-talde horretako etheen % 9k soilik kontsumitzen

du horrelako zerbitzuren bat urtero. Kontsumitzen dutenek, batez beste 9 euro gastatzen dute urtean²⁹.

Kopuruek kontrakoa egiaztatzen dutela badirudi ere, adinekoen hezkuntzan inbertitzea ez da kapritxo bat, ezta beste aisia-jarduera bat ere. Adinekoak gizartean ez alboratzeko, egunean izan behar dituzte beren ezagutzak, eta ezagutza eta teknika berriak ikasi ere bai; ez dituzte ekoizpenerako erabiliko, beren eguneroko bizitzaren kalitatea bermatzeko baizik (besteak beste, herritar, kontsumitzaile eta beren osasunaren arduradun aktibo gisa), erretiroa hartu osteko denboraldi luzean.

Askotariko programa publikoek eta nazioarteko kanpainen “hezkuntza denontzat”, “etengabeko ikasketa” eta “bizitza osorako ikasketa” proposamenak egiten dituzte, eta ia gobernu eta erakunde publiko eta pribatu guztiek babesten dituzte proposamen horiek. Alabaina, gaur egun, oso adineko gutxik parte hartzen dute hezkuntzaren ekonomian, eta hori ez dator bat proposamen horiekin. Kanpaina horiek eslogan hutsak baino gehiago izango badira, apurka-apurka islatu beharko dute aurrekontuetan eta kontu-emateetan, kontu nazionalen eta tokiko kontuen bitartez.

II.3.5. Adinekoak hotel-, ostalaritza- eta turismo-ekonomian. Eguneroko ostatuaren balio ikusezina

Turismo-sektorean, adineko gutxi dira enpresen jabeak, eta adineko gutxik egiten dute lan jarduera horietan. Aitzitik, adinekoak kontsumitzaileak dira: ostalaritza-zerbitzuak eta antzekoak, ostalua eta garraioa. IMSERSOk bidaiak zabaldu ditu hirugarren adinekoen artean; izan ere, edadetu askoren kasuan, horrekin hasi dira turismo-aisian, edo erretiratu ondoren egin dituzten jardueretako bat izan da. IMSERSOk 2010ean egindako Adinekoen Inkestaren arabera, adinekoen % 83k ezagutzen du zerbitzu hori, eta % 16k erabiltzen du. Aisia antolatua eta asoziatiboa elementu egonkortzailea da turismo-zerbitzuen eskarian; bereziki, behe-denboraldietan eskarian gertatzen den beherakada orekatzeko. Gainera, jatetxeetan baina, bereziki, neurrizko prezioak dituzten taberna eta kafetegietan kontsumitzean, adinekoek negozio horiek aurrera egiten laguntzen dute.

Euskadiko Turismoaren Kontu Satelitean, ez dago adineko pertsonei buruzko zuzeneko informaziorik, eta horren ondorioz, pentsa liteke informazio hori ez dela baliagarria Euskadiko adinekoen posizio ekonomikoa aztertzeko. Eustaten arabera, turismo-gastua BPGaren % 5,6koa da, eta proportzio horrek bere horretan jarraitzen du. Turismoa erabat nazioartekotuta dagoen sektorea da. Turismo igorlea (jendea bere lurraldetik ateratzen da zerbitzuak kontsumitzera) hartzaileari nagusitzen zaio. Hain zuzen ere, turismo igorlea hiru aldiz handiagoa da hartzailea baino, eta proportzio hori egonkorra izan da 2005-2010 aldian, geroagoko daturik ezean. Lurralde historikoen artean, aldeak daude: sektore horrek Gipuzkoan egiten dio ekarpen handiena BPGari (BPGaren % 7,4), eta Araban eta Bizkaian, txikiena (% 4,8) (II.3.5-1. eta II.3.5-2 taulak, eranskina).

Hala ere, Turismoaren Kontuek ematen duten informaziorik interesgarriena hau da: adinekoek beren etxean beraientzat eta besteentzat egiten eta kontsumitzen dituztenen antzeko zerbitzuak aipatzen dituztela. Turismo-establezimendu gehienetan (% 76,8), hiru pertsonak baino gutxiagok egiten dute lan, eta horrek

²⁹ EUSTAT, Familia Gastuen Kontuak, 2012.

nabarmen mugatzen du zer zerbitzu eman ditzaketen; hortaz, zenbait alderditan, etxeen antzekoak dira establezimendu horiek. Jakina, ikuspegi ekonomikotik, desberdinak dira, turismo-sektoreko ostatu- eta jatetxe-zerbitzuak diru truke ematen baitira, eta etxeetakoak, berriz, ez. Euskadin, gehienetan, etxean kontsumitzen dira elikagaiak, eta etxean ematen dira gauak.

Kontu Satelitearen arabera, hotelek eta antzekoek 2009an emandako ostatu-zerbitzuen balioa 633 milioi eurokoa izan zen (datuak 2012an argitaratu ziren). Beraz, zer balio izango luke etxean gau emateak, merkatuko prezioan baloratuko balitz? Eta etxean emandako gau horietatik guztietatik, zenbat emango lirateke 65 urtetik gorako etxeetan? Duncan Ironmonger australiar ekonomialariaren aburuz, ordaindu gabeko gau horiek BPG Hedatuan sartu beharko lirateke. 2011. urterako, Duncanek estimatzen duenez, AEBn etxean egindako ostatu-egun bakoitzaren balioa 40 dolarrekoa da, merkatuko prezioan neurtuta eta etxeetan eskaintzen diren zerbitzuen heterogeneotasuna aintzat hartuta (acomodation). Ostatu-zerbitzuari balorazio bat aplikatuko balitz, zerbitzua emateko inbertitutako ordezkapen-kostuen irizpidea (alegia, zenbat kostatuko litzatekeen merkatuan) edo baliabide-irizpidea (denbora, kapital finkoa eta abar) jarrai liteke. Ohiko kontabilitateak inbertsioa horren zati bat hartzen du barne, alokairuaren eta egotzitzako alokairuaren bidez. Baina ez ditu barne hartzen, ordea, ostatu-zerbitzua eraginkortasunez mantentzeko egin beharreko garbiketa, gestioa eta mantenimendua. Era berean, ez du barne hartzen ekipamenduaren (altzariak, instalazioak eta abar) errentagarritasuna, ohiko kontabilitateak kontsumituztat hartzen baititu horiek erosi eta berehala³⁰.

Turismoaren Kontu Satelitearen arabera, ostatu-zerbitzuen balioari 295 milioi euro kendu behar zaizkio, bitarteko kontsumorako (ekoizpenaren balioaren % 47), eta hortaz, balio erantsia 338 milioi eurokoa izango da. Jatetxeetan, kalkuluen arabera, ekoizpenak 4.764 milioi euroko balioa du (ekoizpenaren balioaren % 57), eta horren ondorioz, balio erantsi gordina 2.068 milioi eurokoa da.

II.4. ADINEKOEN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ARTEKO ZEHARKAKO HARREMANA EUSKADIN

II.4.1. Adinekoak eta Administrazio Publikoak

Enpresen kasuan ez bezala, Administrazio Publikoek ekoizten duten gehiena ez da merkatuan saltzen; hortaz, alde horretatik, etxeen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen parekoa da. Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoek ekoizpen-baliabide gehienak (lana, ondasunak, kapitala, etab.) erosi behar dituzte, merkatuko prezioan erosi ere; hori dela eta, etxeen desberdinak dira. Bereziki zerbitzuak ekoizten dituztenez, ezin dituzte stock batean pilatu; hain zuzen, etxeek bezala. Merkatutako ekoizten duten enpresen jarduera eta Administrazio Publikoen jarduera azterketa-esparru berean sartzeko, Administrazio Publikoek ekoizten

³⁰ Ironmonger, D. eta Soupourmas, F. "Output-Based Estimates of the Gross Household Product of the United States 2003-2010: And some Interactions of GHP with Gross Market Product during the Great Financial Crisis (2008-2009)". Paper prepared for the 32nd General Conference of The International Association for Research in Income and Wealth, Boston, USA, August, 5-11, 2012.

dutenaren balioaren ekoizpen-kostua hartu behar da kontuan, merkatuko prezioen orde. II.4.1-1 taulak adinekoek etheen bidez egiten duten ekarpenaren balorazioa adieraz lezake; izan ere, adinekoek zenbait ondasun eta zerbitzu ekoizten dituzte merkaturako (batik bat, erretiratu gabe daudenek), norberaren erabilerarako ere ekoizten dute (gehienbat, zerbitzuak), eta merkatura joaten ez diren beste ondasun eta zerbitzu batzuk ekoizten dituzte (bereziki, beste etxe batzuetako senideentzat eta boluntario gisa). Kontsumoari dagokionez, bitarteko kontsumoak egiten dituzte (nahiz eta, kontabilitatearen arabera, etxeetan egiten den kontsumoa azken kontsumoa izan), eta orobat, kapital finkoa kontsumitzen dute.

Euskadiko Administrazio Publikoen Kontu Ekonomikoetan, ez dago adineko pertsonak zuzenean aipatzen dituen magnituderik; dena den, esparru ekonomiko hori funtsezkoa da kolektibo horrekin lotutako edozein politika publiko egiteko. Adinekoak pentsioen jasotzaile nagusiak dira eta, orobat, desberdintasunaren eta pobreziaren aurkako politika publiko batzuen onuradunak dira; izan ere, Euskal Administrazio Publikoa bereziki aktiboa da horrelako politikak aurrera eramaten (Antón, eta al., 2013).

Euskadiko Administrazio Publikoaren azterketa-unitate nagusiak honako hauek dira: Euskadiko Administrazio Publiko guztiak, Euskadiko administrazioak, Eusko Jaurlaritza, foru- eta udal-administrazioak, eta erakunde autonomoak. Eurostat 2008 erreforma metodologikoa egin aurretik, zenbait erakunde ez ziren Administrazio Publikoaren zatitzat hartzen (hala nola, autofinantzatzen ez diren

enpresa publiko batzuk), baina erreformaz geroztik, Administrazioaren barruan sartzen dira. Halaber, zenbait zerga zenbatzeko modua ere aldatu da. Horrek zenbait aldaketa eragin ditu agregatueta, zer metodologia erabili den; hau da, aldaketaren aurrekoa edo ondorengoa erabili den. Gainera, beharrezkoa da denbora-segiden arteko alderaketak homogeneousak izatea.

II.4.1.-2. taula

Administrazio Publikoen espezietako errentaren birbanaketa-kontua (milaka eurotan), 2011

Erabilerak			Kodea	Kontabilitateko eragiketak eta saldoak	Baliabideak		
Administrazio Publikoak, guztira	EAEn kokatutako Estatuko Administrazioa eta Gizarte Segurantza	Euskal administrazioak			Euskal administrazioak	EAEn kokatutako Estatuko Administrazioa eta Gizarte Segurantza	Administrazio Publikoak, guztira
			B.6b	Errenta erabilgarri gordina	10.988.705	626.038	11.614.743
			B.6n	Errenta erabilgarri garbia	10.528.860	583.241	11.112.100
7.297.571	229.549	7.068.022	D.63	Espezietako gizarte-transferentziak			
4.249.094	223.928	4.025.166	D.631	Espezietako gizarte-prestazioak			
3.048.477	5.621	3.042.856	D.632	Banako merkatukoak ez diren ondasun eta zerbitzuen transferentziak			
4.317.172	396.488	3.920.683	B.7b	Errenta erabilgarri doitu eta gordina			
3.814.529	353.691	3.460.838	B.7n	Errenta erabilgarri doitu eta gabia			
1.923.020	64.068	1.858.952		Merkatuko ekoizleen ekoizpena			

Oharra: Erakunde-multzako bakoitzean sartutako erakundeak, ikus ohar metodologikoa.

Iturria: EUSTAT. Euskal Administrazioen Kontu Ekonomikoak.

2010ean, Euskadiko Administrazio Publiko guztiek espezietako errenta birbanatzeko erabilitako baliabideak 11.493 milioi eurokoak izan ziren (II.4.1-2 taula). Zenbateko horretatik, 10.853 milioi euro Euskadiko Administrazioei zegozkien (% 94,4), eta gainerakoa (% 5,6), EAEn kokatutako Estatuko Administrazioari eta Gizarte Segurantzari³¹.

Eskudirutan	7.082.222	7.528.836	7.972.419	8.528.041	9.209.689	10.373.255	10.854.059
Espezietan	2.826.933	3.233.425	3.481.076	3.847.593	4.289.668	4.692.660	4.799.525
Administrazio-gastuak	221.077	225.213	245.854	271.714	298.819	333.376	317.018
Beste gastu batzuk	598	130	128	181	227	108	0

Iturria: EUSTAT, Gizarte Babesaren Kontua.

2010ean, 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko zahartzaroko gastua 14.304 eurokoa zen urtean, 1.021 euroko hamalau hilekoren baliokidea, baina babes hori ez zen homogeneouski banatu. Zenbait kolektibori, zenbateko hori bikoizten duten prestazioak ematen zaizkie, eta beste kolektibo batzuek –batik bat, emakumeek– ez dute prestaziorik jasotzen, edo batez bestekoa baino askoz prestazio txikiagoa. Prestazioak bi motatakoak dira: eskudirutan eta espezietan. Eskudirutako prestazioak onuradunak berak kudeatzen ditu, baina ez espezietako prestazioak. Gizarte-babeseko gastu osoan (II.4.4-4 taula), % 98 prestazioei zegokien, eta gainerako % 2a, administrazio-gastuei. Gastuaren kudeaketa korapilatzen bada (esate baterako, mendekotasun mailaren etengabeko kudeaketa), aurrekontua administratzeko baliabideak gehitu egiten dira, eta prestazioetatik kendu beharra dago.

Biztanleria guztiarentzako gizarte-prestazioen guztiko gastuari dagokionez, % 69 eskudirutako prestazioak ordaintzeko da, eta gainerakoa (% 31), espezietako prestazioak ordaintzeko, batik bat, osasun-arretan. Beste modu batean esanda, eskudirutan biztanleko jasotako 100 euroko, beste 45 jasotzen dira espezietan. Adineko pertsonen kolektiboak askoz osasun-kontsumo handiagoa dute gainerako biztanleek baino; beraz, esan daiteke, zahartzaroari dagokion eskudirutako prestazioaz gain, pertsona edadetu bakoitzak beste prestazio bat jasotzen duela, espezietakoa (batez ere, osasun-arlokoa), eskudirutan jasotzen duenaren erdia baino handiagoa.

Zahartzaroko prestazioen gastuaren banaketa ez da homogeneouskoa Euskadiko lurralde historikoen artean. Termino absolutuetan, lurralde bakoitzeko bolumen demografiko desberdinaren ondorio da nagusiki. Termino erlatiboetan, lurralde bakoitzeko ekoizpen-egitura eta zahartze maila desberdinen ondorio da, nagusiki. Erretiro-prestazioak kotizatutako urte kopuruari eta kotizazio motari lotuta daudenez, aldaketa txikiak gertatzen dira hiru lurraldeen artean; 'zahartzaro' funtzioaren

gasturik handiena Gipuzkoak egiten du 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko, eta gasturik txikiena, Bizkaiak (II.4.4-5 taula). Gipuzkoan, gizarte-prestazioen gastuaren % 40 erabiltzen da 'zahartzaro' funtzioan, eta Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren, % 37,8 eta % 28,4.

Gizarte-babes horretan baliabide gehien erabiltzen direnez, partida horretan edozein igoera edo jaitsiera gertatuz gero –nahiz eta txiki-txikiak izan–, eragin handiak gertatzen dira gainerako funtzioetan. Esate baterako, zahartzaroak ia lau aldiz baliabide gehiago jasotzen ditu langabeziak baino; zahartzaroko gastua handitzeko langabeziakoa txikitzea erabakiko balitz, zahartzaroko gastua % 5 handi dadin, langabeziako gastua %18 txikitu beharko litzateke. Erretiro-pentsioak eta langabezia-pentsioak ezin dira aurrekontu-erabakien bidez erraz aldatu; izan ere, bi funtzioak legez babestutako eskubideei dagozkie.

II.4.4-5. taula

Euskal AEko gizarte-prestazioetako gastua, funtzioaren, sistemaren eta lurralde historikoaren arabera (milaka euro eta adierazleak). 2010

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
GIZARTE PRESTAZIOETAKO GASTUA, FUNTZIOAREN ARABERA (milaka eurotan)	15.653.584	2.211.365	8.231.868	5.210.352
Gaixotasuna/Osasun-arreta	4.443.016	654.482	2.334.301	1.454.233
Baliaezintasuna	1.051.786	141.781	539.508	370.497
Zahartzaroa	6.004.237	836.743	3.083.042	2.084.452
Umezurtz/alargunak	1.472.755	164.674	819.659	488.422
Familia/semi-alabak	475.034	70.492	240.149	164.393
Langabezia	1.680.598	260.097	879.928	540.574
Etxebizitza	118.378	22.873	58.157	37.348
Gizarte-bazterketa	407.780	60.223	277.124	70.433
GIZARTE PRESTAZIOETAKO GASTUA, SISTEMA TALDEAREN ARABERA (milaka eurotan)	15.653.584	2.211.364	8.231.868	5.210.352
Gizarte Segurantzako Sistema	7.611.394	1.006.097	4.104.583	2.500.714
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa	1.379.008	211.088	700.969	466.951
Funtzionario publikoen erregimenak	327.515	57.883	175.587	94.045
Gizarte-babeseko beste sistema batzuk	6.335.667	936.296	3.250.729	2.148.642
ADIERAZLEAK (euroak)				
Gizarte-prestazioetako gastua biztanleko	7.209	6.957	7.145	7.426
Gizarte-prestazioetako gastua biztanleko EAPan (1)	7.732	7.462	7.664	7.965
Gizarte-prestazioetako gastua BPGaren ehunekotan	24,04	21,70	24,48	24,45
"Gaixotasun/Osasun-arreta" funtziorako gastua biztanleko	2.046	2.059	2.026	2.073
"Zahartzaro" funtziorako gastua 65 urteko edo gehiagoko biztanleko	14.304	15.050	13.433	15.480
"Langabezia" funtziorako gastua erregistratutako langabeziaren arabera	12.693	12.940	12.104	13.651
Gizarte Segurantzako Sistemaren gastua alta emanda dagoen afiliatuko	8.221	6.610	8.780	8.170

Iturria: EUSTAT, Gizarte Babesaren Kontua.

III. KAPITULUA

ADINEKOEN ETXEEEN ONDAREA. EUROPAKO IKUSPEGIA

III.1. ADINEKO BIZTANLERIAREN POBREZIA ETA ABERASTASUNA

Pobrezia subjektiboa beti izaten da erlatiboa, beste gizarte-talde batzuekin edo beste garai batzuetako gizarte-talde berarekin alderatzen baita. Krisialdi batean, Euskadiko ekonomia jasaten ari den krisialdi moderatua izan arren, sarrera finko bermatuak dituzten taldeek segurtasun-plus bat dute, eta, horri esker, arrisku-sentsazioa duten beste talde batzuek baino posizio hobea dute. Gaur egun, pentsio publiko eta pribatuen onuradunek segurtasun-sentsazio hori dute. Horri esker eta gastuen urritasunari eta igurikimenen murrizketari esker, adinekoek pobrezia maila subjektiboa apala dute. Askotan, adinekoek laguntza materiala eta segurtasuna eramaten dituzte euren familiako beste kide batzuen etxeetara, horiek langabeziaren ondorioz edo diru-sarrerak murriztearen ondorioz egoera eskasean badaude. Hala ere, gizarte-talde batzuetan, batez ere oso kualifikazio handiko profesionalen artean, Erretiroa hartu ondorengo diru-sarrerak erdira jaisten dira (adibidez, Administrazio Publikoetako goi mailako funtzionarioen artean). Gizarte-talde horietan ohikoa da pobrezia erlatiboaren sentimendua, bizitzako aurreko garaietako egoerarekin alderatuta. Hala ere, horiek adineko erretiratuen artean duten pisu espezifiko oso txikia da eta ia ez dira nabarmentzen.

Pobrezia absolutuaren eta erlatiboaren atalaseak aspalditik neurtzen dira (García Díaz, M.A. 2008)³⁹, eta adierazle asko aztertzen dira. Hauek dira ohikoenak: pobrezia batez besteko errentarekiko zehazten dutenak (% 60, % 50 edo % 40, zenbait adierazleren arabera), oinarrizko ondasunen jabetza edo izateko aukera zehazten dutenak (etxebizitza, iturriko ura, elektrizitatea, saneamendua...), autopertzepzioa neurtzen dutenak (norberaren burua pobretzat hartzea edo ez) eta etxearen tamaina "heldu baliokideen" eskala erabiliz adieraztekoak (oro har, Oxforden eskala edo ELGaren eskala esaten zaio). Errenta neurtzeko, askotariko prozedurak eta adierazleak erabiltzen dira. Adibidez, batzuk deklarazio hutsak dira (inkesten bidez, nork bere burua guztizko diru-sarrerei buruzko eskala errazetan kokatzea), beste batzuk erregistroetan oinarrituta daude (fiskalak, Gizarte Segurantzarenak...), etab. Hala ere, azterketa mota horrek muga bat du: monetarizatutako ondasunen jabetza baino ez dute kontuan hartzen (autopertzepzioa neurtzen dutenek izan ezik), eta alde batera uzten dute monetarizatu gabeko baliabideen –edo baliabiderik ezaren– eragina (bereziki, zainketak behar izatea eta eskura izatea). Biztanleria helduarentzat,

³⁹ García Díaz, M.A.: "Mejora de la estimación del umbral de pobreza relativa e los ciudadanos españoles, con especial atención al colectivo de jubilados y pensionistas". Gizarte Babesari buruzko Ikerketarako Funtzarantz (FIPROS) egindako ikerketa, 2008. Bereziki, 99-133. or.

baldintza hori ez da garrantzitsuegia, eta haurren kasuan, garrantzitsua da, eta homogeneotasun handiz banatzen da adin-taldean. Alabaina, adinekoei dagokienez, oso garrantzitsua da, eta gainera, heterogeneoki banatzen da, osasun mailaren eta etxe motaren arabera. Pentsio eta ondare jakin bat duen pentsiodun bat, gaixotasun kroniko bat harrapatzen duen unean bertan, pobre bilakatzen da, gaixotasun horren ondorioz kanpoko laguntzaren mende geratzen bada. Eta alderantziz, errenta txikiko pentsiodun bat baliabide-sortzaile handia izan daiteke berarentzat eta beste batzuentzat, ordaindu gabeko zainketa-hornitzailea izatea erabakitzen badu, eta osasun ona badu.

Pobreziari buruzko azterketa guztietan, pertsona edadetuak protagonistak dira; izan ere, eskuarki, lan egin osteko errentak askoz txikiagoak dira denboraldi aktiboko errentak baino. Hala ere, enpleguaren krisi-garaietan, diru-sarreraren arteko aldeak txikitu egiten dira, langabeen eraginez. Etxeen errentari buruzko adierazleen ordez biztanleko errenta-adierazleak erabiltzen badira, adinekoen biztanleko errenta handi samarra da, haien etxeak tamaina txikikoak baitira, eta pertsona gutxi baitituzte kargura.

Euskadiko Gizarte Premien Inkestaren arabera, etxeetako sarrera eta gastuen arteko desoreka ez zen arazo larria ez 2006an ez 2010ean. Elkarrizketatutako etxeen % 5,8k eta % 4,5ek besterik ez zuten arazo horren berri eman.

Adinekoen esanetan, ia ez dute gabeziarik jasaten (oinarrizko gabeziaren eragina % 5,5koa izan zen 2010ean 65-74 urte bitartekoaren artean eta % 4,4koa 75 urtetik gorakoaren artean), eta 35 urtez beherakoak baino gutxiago dira pobre sentitzen direnak (2006an, % 1 eta % 4,5, eta 2010ean, % 0,3 eta % 4,8, hurrenez hurren). Pobreziaren sentimendu bizia adierazten duen gizarte-talde bakarria atzerritar egoiliarrena da. Horien artean, pobrezia subjektiboaren indizea bost aldiz handiagoa da bertokoena baino⁴⁰. Talde hori, hein handi batean, bitarteko adineko gazteek osatzen dute.

Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (2008-2012) arabera, adin-talde guztietan pobrezia errearen maila txikiena dutenak adinekoak dira (% 1,7koa 2012an, batez besteko % 5,3koaren aldean). Euskadiko biztanleko ondarea 106.546 eurokoa da. % 8,7 egin du behera 2008koaren aldean, etxebizitza nagusiaren balioak % 14 behera egin izanaren ondorioz. Aurrezkien batez besteko balioak, ordea, % 69 egin du gora⁴¹.

II.2. ADINEKOEN ETXEEN ONDAREA EUROPAN

Etxeen ondare-egoera zehazteko, ondasun higiezinak (real assets), finantza-ondasunak (financial assets), eta zorrak eta kredituak aztertzen dira.

Familien ondasun ez-finantzario nagusiak honako hauek dira:

- a) Etxebizitza nagusia.
- b) Beste ondasun higiezin batzuk.
- c) Ibilgailuak.
- d) Beste balio-ondasun batzuk (bitxiak, etab.).
- e) Jabetzako negozioak.

⁴⁰ Gizarte Premien Inkestaren Txosten Orokorra, 2010, 102. or.

⁴¹ Eusko Jaurlaritza. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2012, 51. or. Eta 30. or.

Europar, aberastasun horiek bizitza-zikloan zehar eskuratzen dira, eta 55 eta 64 urte bitarteko adin-taldean pilatzen dira gehienak. Adin horretatik aurrera, berriz, biztanleriak askoz negozio, bigarren etxe, jabetzako higiezin eta ibilgailu gutxiago ditu.

Europako Banku Zentralaren arabera, etxebizitza nagusia da familien aberastasun ez-finantzarioaren % 60,1. Gainerako higiezinak % 26,4 dira; ibilgailuak % 2,9; bitxiak eta ondasun baliotsuak % 0,5; eta jabetzako negozioak, % 10.

Europako etxeen ondare-egitura nolakoa den jakiteko, *Households Finance and Consumption Survey* delakoa iturri garrantzitsua da. EBZk haren txostena argitaratu zuen 2012an. Ez du eskualdeen edo autonomia-erkidegoen arteko aldeei buruzko informaziorik ematen, baina iturririk onena da Europako familien ondareari eta zorrei buruz nazioarteko azterketa alderatua egiteko. Herrialde gehienei buruzko datuak 2010ekoak dira, baina Espainiakoari buruzkoak 2008koak dira. Herrialde guztietan, krisi ekonomikoak nolabaiteko kaltea egin dio familien ondareari, bai higiezinaren balioak behera egin duelako, bai finantza-aktiboak jaitsi direlako. Hala ere, ziurgabetasun-uneetan, aurrezteko joera handitu egiten da, eta epe ertain eta luzerako zorpetzea behar duten proiektuak alde batera uzten dira; horrek aktiboaren eta pasiboaren arteko saldoa orekatzen du.

Europako etxeen egitura ekonomikoa heterogeneoa da, bai diru-sarreraren bolumenaren aldetik, bai ondarearen aldetik. Etxeen ondare-egiturak lotura handia du kultura- eta legegintza-faktoreekin, batik bat, zerga-faktoreekin; izan ere, aurreztearen lehentasunak faktore horien arabera dira. Ildo horretan, Euskadiko adinekoren etxeen ondare-egitura eta Espainiako oso antzekoak dira, baina, Euskadin, ondarearen balioa apur bat handiagoa da. Ia familien % 86 etxebizitza nagusiaren jabea da.

Orokorrean, biztanleriaren adin-egitura bat dator etxeetako erreferentziazko pertsonen egiturarekin, baina ez zehatz-mehatz: alde batetik, pertsona edadetuak zaharren egoitzetan edo etxe kolektiboetan sartzen dira, eta beste batetik, etxebizitzan bertan mantentzeko tasak desberdinak dira, edo seme-alabak etxetik joaten dira, eta horren ondorioz, aldeak daude gizarte mailen eta herrialdeen artean.

Erreferentziazko pertsona 65 eta 74 urte bitartekoa duten etxeen ehunekoa % 14,5koa da Europar, eta Espainiar, % 13,4koa. 75 urtetik gorakoa dutenen ehunekoa % 13,2koa da Europar, eta % 12,6koa Espainiar. Aurreikus daitekeenez, ehuneko horrek gora jarraituko du Euskadin, Espainiar eta Europar.

Etxeetako erreferentzia-pertsonen artean, erretiratuen proportzioa heren bat handiagoa da Europar (batez bestekoa) Espainiar baino; alegia, Europar, familiek eredu indibidualistagoak dituzte, bai eta independentziaz bizitzeko ekonomia- eta antolaketa-ahalmen handiagoa ere. Aitzitik, erreferentziazko pertsona langabea duten etxeen kopurua ia Europakoaren bikoitza da Espainiar.

2007an hasitako krisi ekonomikoaren ondorioz, eta ondasun higiezinaren balioa txikiagotuenez, etxebizitzak familien ekonomian duen garrantzia aldatu egin da. Krisia hasi aurreko hamarkadan, belaunaldi gazteek zailtasunak zituzten etxebizitza erosteko, oso prezio handia zutelako; gaur egun, berriz, enpleguaren gabeziak eta ezegonkortasunak eta kredituaren murrizketak eragozten dute etxebizitza erostea. Hori dela eta, belaunaldi horren interesa alokairu-merkatu bideratu da, neurri batean. Tarteko adineko belaunaldien kasuan, langabezia eta diru-sarreraren beherakada direla medio, etxeek baliabide-proportzio handiagoa erabili behar dute hipoteka-zorra ordaintzeko⁴². Adinekoei dagokienez, etxeen diru-sarrerak beren

⁴² Prentsan emandako erreferentziak.

horretan jarraitu dute. Gainera, krisiaren hasieran, adinekoen etxe gehienek ez zuten hipoteka-zorrik, ez eta etxebizitza erostearekin lotutako bestelako mailegurik ere. Etxebizitza –nagusia zein bigarrena– belaunaldi horren aktibo nagusia da, eta aurreko urteekiko batez besteko balioak behera egin arren, bere zereginari eutsi dio, biziraupen ekonomikoa egonkortzen eta bermatzen duen ondare gisa.

Hala ere, familien belaunaldien artean lotura ekonomiko handiak daudenez, belaunaldi gazteei eta tarteko adineko belaunaldiei gertatzen zaienak adinekoen belaunaldiari ere eragiten dio. Krisi ekonomikoak eta higiezinaren krisiak ez diote eragin handirik egiten adinekoen belaunaldi osoari, baina, zenbait sektore txikitik, hurrengo belaunaldiaren egoera ekonomiko txarrak eraginak ditu. Bi aldetatik eragiten du: alde batetik, etxebizitzaren bermearen truke likidezia lortzeko presioa dago (maileguak, salmentak), eta beste batetik, adinekoen etxebizitzaren erabilera handitu egiten da (seme-alabak etxera itzultzea).

Euskadin eta Espainian etxebizitza erosteko ohitura askoz zabalduago dago Europan baino; hori dela eta, ohikoagoa da Euskadin eta Espainian familiek ordaindu gabeko hipoteka-kuotak izatea (III.2-1 taula). Egitura demografikoa hain desberdina ez bada ere, pertsona bakarreko etxeak Europako erdiak dira; gehienbat, gazteen eta adinekoen ohiturengatik. Krisiaren aurretik, Euskadiko etxeen errenta maila Europako aberatsenen parekoa zen, baina, krisi ekonomikoa piztu ostean, etxeen batez besteko errentak gutxitu egin dira.

Euskadiko biztanleen % 8k bizi den etxetik kanpo bizi nahi luke, baina arrazoi ekonomikoak direla eta ezin du hori egin⁴³. Kopuru hori % 37ra iristen da 25 eta 34 urte bitarteko artean, eta % 10ekoa da 34 eta 44 urte bitarteko artean. Etxetik alde egiteko gogoia handiagoa da gizonetan emakumeetan baino, eta adinekoen artean ia ez dago halakorik. Aitzitik, adinekoak edo tarteko adineko pertsonak dira euren etxean beste adin batzuetakoak hartzen dituztenak, horiek hainbat arrazoi direla eta (langabezia, dibortzioa, noizbehinkako lekualdaketak, familia-arazoak eta abar) bizitzeko independentziari eutsi ezin badiote.

Erretiroak eta zahartzeak etxeen ondarearen egituran eta bolumenean dute eragina. Gorago azaldu dugunez, erretiro aurreko eta ondorengo egoera oso heterogeneoa da Europako herrialdeetan, baina batez bestekoak erakusten du 64 urteko atalasea mugarri ekonomiko garrantzitsua dela. Adin horrek ondare-metaketak gehieneko puntua adierazten du; hots, horretatik aurrera, ondarea txikitzen hasten da. Beherakadarik handiena norberaren konturako negozioen jabetzan (self employment business) gertatzen da; izan ere, 65 eta 74 urte bitarteko taldean, aurreko hamarkadakoaren herena da (% 14,4tik % 5,4ra jaisten da), eta 74 urtetik gorako artean, ia osorik desagertzen da. Bigarren etxebizitzaren, higiezinaren eta ibilgailuen jabetza neurri txikiago batean txikitzen da; kasu horretan, beherakada handia ez da 65 urtetik aurrera gertatzen, 75 urtetik aurrera baizik. Etxebizitza nagusiari dagokionez, erretiratu ondorengo hamarkadan, jabe kopuruak egonkor jarraitzen du. 75 urtetik aurrera, berriz, jabe-proporzioak behera egiten duela hautematen da, baina proportzio handia da oraindik ere. Labur esanda, ondare-aldaketaren atalasea 65 urteetan dago autonomo eta jabeen etxeen kasuan; orduan, seme-alabei uzten diete negozioen jabetza, edo saldu egiten dituzte. Gainerako etxeetan, ondasun higiezinaren ondare-egitura oso gutxi aldatzen da bizitza-ziklo osoan zehar. Etxebizitza nagusiaren jabetza –etxebizitza dutenen artean– oso gutxi aldatzen da bizitza-zikloaren azken zatian. Aitzitik, bigarren etxebizitzaren edo beste ondasun higiezin batzuen kopurua bigarren zahartze-atalasetik aurrera (75 urtetik aurrera) txikitzen da, eta gauza bera gertatzen da automobilekin.

⁴³ EOB. op. cit. 103.

III.2-1. taula
Household structure by country
(fraction of households, %)

	ALL	BE	DE	GR	ES	FR	IT	CY	LU	MT	NL	AT	PT	SI	SK	FI
Euro area	100,0	3,4	28,7	3,0	12,3	20,2	17,2	0,2	0,1	0,1	5,3	2,7	2,8	0,6	1,4	1,8
Household size																
1	31,6	33,8	39,6	20,1	18,4	35,3	24,9	20,8	30,0	18,8	35,8	38,7	17,7	27,0	23,1	39,6
2	32,1	31,7	34,5	28,3	29,5	32,5	30,4	30,9	28,0	25,7	33,4	34,7	30,6	26,5	23,8	34,7
3	16,6	15,1	12,8	24,2	25,3	13,8	19,5	18,2	17,0	22,3	12,8	11,3	25,9	18,7	20,4	11,0
4	14,1	12,6	9,4	23,3	21,4	12,0	18,7	17,5	16,0	22,1	11,2	8,9	18,6	20,5	21,5	9,6
5 an More	5,6	6,8	3,8	4,1	5,4	6,4	6,5	12,6	9,0	11,1	6,9	6,5	7,3	7,4	11,2	5,1
Housing status																
Owner-Outright	40,7	41,2	26,2	58,5	55,9	38,3	59,1	41,7	34,3	65,7	13,2	31,1	47,0	69,3	80,6	36,4
Owner-with Mortgage	19,4	28,5	18,0	13,9	26,8	17,0	9,6	35,0	32,8	12,1	43,9	16,7	24,5	12,5	9,3	32,8
Renter or Other	39,9	30,4	55,8	27,6	17,3	44,7	31,3	23,3	32,9	22,3	42,9	52,3	28,5	18,2	10,1	30,8
Age of Reference Person																
16-34	15,7	17,1	18,0	15,2	14,9	19,4	8,6	18,1	16,8	8,7	13,8	17,2	11,6	13,0	16,1	22,2
35-44	19,6	19,6	18,1	20,7	22,5	19,1	20,4	18,2	22,6	22,5	21,0	18,4	21,2	16,7	19,7	15,6
45-54	19,9	20,3	20,3	17,7	20,8	16,9	21,1	23,8	22,7	21,5	21,9	20,6	19,5	27,5	24,7	18,8
55-64	17,1	16,8	14,9	18,6	16,0	18,4	17,5	16,6	15,8	21,9	20,8	19,4	18,4	19,3	19,1	19,2
65-74	14,5	12,3	16,1	15,5	13,4	11,7	16,2	13,9	13,8	13,7	14,6	14,4	15,5	12,8	16,4	12,2
75+	13,2	14,2	12,7	12,4	12,6	14,5	16,2	9,4	8,3	11,7	7,8	9,9	13,8	10,7	4,1	12,0
Work Status of Reference Person																
Employee	47,9	46,8	51,3	39,7	47,2	47,3	38,7	56,9	59,0	46,6	47,2	47,9	46,0	46,3	58,0	49,3
Self-Employed	9,0	5,1	7,4	18,9	10,7	7,4	13,1	11,0	5,8	11,7	3,7	9,4	10,1	6,6	10,6	6,4
Retired	31,7	32,4	30,6	34,7	23,8	34,5	32,0	24,5	27,2	29,2	20,9	36,4	34,3	38,3	26,4	27,4
Other Not Working	10,7	14,0	10,8	6,6	18,2	11,0	3,9	6,7	8,0	12,6	16,0	6,3	9,4	8,7	4,9	17,0
Education of Reference Person																
Primary or No Education	34,3	25,4	12,7	45,7	54,0	37,8	53,3	21,2	35,6	63,6	27,9	15,5	75,8	21,2	5,9	26,4
Secondary	41,3	36,1	56,1	33,4	19,7	38,6	35,0	25,6	38,2	21,1	38,8	70,5	13,4	57,1	78,4	41,0
Tertiary	24,4	38,5	31,2	20,8	26,3	23,6	11,7	29,7	26,3	15,3	33,3	14,0	10,8	21,7	15,7	31,4

Iturria: Europako Banku Zentrala, Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila.

Euskadin bezala, Europako etheen ondare ekonomiko nagusia higiezin da. Europako familien % 60 bere etxebizitza nagusiaren jabea da, eta ia laurdenak beste etxebizitza edo aktibo higiezin batzuk ditu.

Euskadin, norberaren etxebizitzarekiko gogobetetasun maila handia da: etheen % 64,5ek ez omen du batere arazorik, % 1,6k esan du oso arazo larriak dituela eta % 9,0k arazo larriak dituela⁴⁴.

Adinekoen edo erretiratuen etxeek, oro har, arazo gutxiago izaten dituzte etxebizitzarekin, baina etxebizitzaren kalitatearen inguruko arazoak daudenean (hezetasuna, argia, zerbitzurik ez eta abar), arazo horiek larriagoak izaten dira, hain zuzen ere etxebizitzaren antzintasunagatik.

Etheen hiru laurdenek ibilgailu pribatua dute, baina ondasun horren balioa txikia da, jabetza higiezinaren balioarekin alderatuz gero. Adinekoen etxeek automobila izateak ez du esan nahi adinekoak automobil horren jabeak, gidariak edo erabiltzaileak direnik; izan ere, etxeke kide gazteagoena izan daiteke. Edonola ere, Europako 74 urtetik gorako pertsonen etheen % 45ek baino ez du ibilgailua. Garraio pribatua erabiltzeko aukeraren adierazle garrantzitsua da hori, eta gainera, zerbitzu publiko, merkataritza-zerbitzu eta gizarte-harremaneko sare asko erabiltzea baldintzatzen du.

Diru-sarreraren kasuan ez bezala, ondareari begira, Espainiako etxeak aberatsagoak dira Europakoak baino, batik bat, higiezinarekin lotutako aberastasuna dela eta. Europako Banku Zentralak ez du Euskadiri buruzko datu bereizirik ematen, baina Eustatek ematen dituen datuak ildo berekoak dira. Eslovakiak soilik du etxebizitza nagusiaren jabe diren etheen proportzio handiagoa, eta Greziak soilik du bigarren etxebizitzaren eta beste ondasun higiezin batzuen proportzio handiagoa. Errenta handiko eta diru-sarrera askoko herrialdeetan –Alemanian, Frantzia, Herbehereetan edo Luxenburgon–, familia-ondare gutxiago inbertitzen dute ondasun higiezinetan. Askotariko kausak daude, legegintza- eta zerga-arlokoak zein kultura-arlokoak. Besteak beste, horrek erakusten du etxeek inbertsio-erakundeetan (bankuak, burtsa, inbertsio pribatua, etab.) eta Estatuan konfiantza handia dutela, aurrezkiaren aukerazko edo derrigorrezko kudeatzaile gisa.

III.3. ONDASUN HIGIEZINEN JABETZA

Ia Europako etxe guztiek (% 91) ondasun higiezinaren bat dute (real assets). Ohikoenak ibilgailua (% 76) eta etxebizitza nagusia (% 60) dira. Espainian horrelako ondasunak dituzten etheen batez bestekoa handiagoa da Europakoa baino, bitxiak eta prezio handiko beste objektu batzuk (baliorik galtzen ez dutenak) alde batera utzita (III.3-1 taula).

Europako erretiratuen etxeak gainerakoak baino proportzio handiagoan dira beren etxebizitzaren jabeak, eta gainera, beste higiezin batzuk eta balio handiko objektuak ere badituzte. Dena den, horrek ez du esan nahi ondarearen aldetik askoz aberatsagoak direnik; izan ere, haien ondasunek apur bat gutxiago balio dute langile, enpresari edo autonomoen ondasunek baino, eta lanik ez dutenenak soilik gaintzen dituzte (III.3-2 taula). Espainiako etxeei dagokienez, ondasunen balioa (ondasunak dituzten medianaren bidez neurtua) ia % 40 handiagoa da Europako etxeena baino. Neurri handi batean, ekoizpen-egituraren ondorio da hori; hau da, enpresa txiki eta ertain asko daude Espainian, eta etxeak izaten dira negozio horietako gehien jabeak. Beste ekoizpen-eredu batzuetan, berriz, jabetza finantza-partaidetzetan desegiten da. Etxe gutxiago dira ibilgailuen eta balio handiko objektuen jabeak, baina askoz gehiago dira negozioak eta etxebizitza nagusia ez diren higiezinaren jabeak (hurrenez hurren, Europako batez bestekoa baino % 69 eta % 116 gehiago). Etxebizitza nagusiaren balioa bat dator Europako batez bestekoarekin.

⁴⁴ EOB. op. cit.

III.3-1. taula
Participation in real assets by demographic and country characteristics.
(in percent)

	(any) Real Assets	%	Household Main Residence (HMR)	%	Other Real Estate Property	%	Vehicles	%	Valuables	%	Self- Employment Business Wealth	%
Euro Area	91,1	100,0	60,1	100,0	23,1	100,0	75,7	100,0	44,4	100,0	11,1	100,0
Age of Reference Person												
16-34	84,3	92,5	31,9	53,1	9,9	42,9	71,4	94,3	39,7	89,4	8,6	77,5
35-44	93,2	102,3	57,1	95,0	19,0	82,3	85,5	112,9	42,4	95,5	15,1	136,0
45-54	94,0	103,2	64,3	107,0	27,3	118,2	85,3	112,7	43,0	96,8	16,4	147,7
55-64	93,7	102,9	71,3	118,6	32,4	140,3	83,2	109,9	48,8	109,9	14,4	129,7
65-74	92,2	101,2	71,0	118,1	29,3	126,8	71,9	95,0	44,9	101,1	5,4	48,6
75+	87,5	96,0	65,2	108,5	19,5	84,4	45,1	59,6	48,6	109,5	1,8	16,2
Work Status of Reference Person												
Employee	93,5	102,6	56,9	94,7	20,3	87,9	85,7	113,2	42,4	95,5	5,6	50,5
Self-Employed	98,5	108,1	71,1	118,3	43,9	190,0	89,8	118,6	51,3	115,5	79,9	719,8
Retired	90,9	99,8	69,5	115,6	25,9	112,1	64,4	85,1	49,7	111,9	3,1	27,9
Other Not Working	74,9	82,2	37,3	62,1	10,8	46,8	50,1	66,2	33,5	75,5	1,7	15,3
Spain	95,3	104,6	82,7	137,6	36,2	156,7	77,3	102,1	17,2	38,7	14,2	127,9

Iturria: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabiltuta: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave". Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 27-28. or.

III.3-2. taula
Median value of real assets conditional on participation
(in percent)

	(any) Real Assets	%	Household Main Residence (HMR)	%	Other Real Estate Property	%	Vehicles	%	Valuables	%	Self-Employment Business Wealth	%
Euro Area	144,8	100,0	180,3	100,0	103,4	100,0	7,0	100,0	3,4	100,0	30,0	100,0
Age of Reference Person												
16-34	15,0	10,4	167,5	92,9	99,4	96,1	6,0	85,7	2,5	73,5	14,8	49,3
35-44	143,1	98,8	193,8	107,5	106,4	102,9	7,4	105,7	3,1	91,2	30,1	100,3
45-54	173,3	119,7	200,0	110,9	111,2	107,5	8,0	114,3	3,8	111,8	32,9	109,7
55-64	189,2	130,7	199,0	110,4	119,7	115,8	8,0	114,3	4,5	132,4	33,2	110,7
65-74	162,3	112,1	168,0	93,2	101,3	98,0	6,0	85,7	4,0	117,6	15,3	51,0
75+	126,0	87,0	150,1	83,3	86,6	83,8	3,5	50,0	3,0	88,2	9,6	32,0
Work Status of Reference Person												
Employee	134,6	93,0	187,8	104,2	100,0	96,7	7,5	107,1	3,3	97,1	20,0	66,7
Self-Employed	276,4	190,9	203,0	112,6	149,4	144,5	10,0	142,9	5,1	150,0	38,7	129,0
Retired	152,5	105,3	166,6	92,4	99,6	96,3	5,2	74,3	3,5	102,9	15,2	50,7
Other Not Working	39,9	27,6	150,1	83,3	88,8	85,9	4,0	57,1	1,5	44,1	20,0	66,7
Spain	201,7	139,3	180,3	100,0	120,2	116,2	6,1	87,1	3,0	88,2	50,8	169,3

Iturria: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabilita: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave", Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 61.-62. or.

III.3-3. taula

Europako eta Espainiako etxeen ondarea. Adinekoen eta erretiratuen egoera.

	%	Bizileku nagusia	Beste higiezin batzuk	Ibilgailuak	Objektu baliotsuak	Negozio propioak
Guztira	100,0	60,8	22,7	2,9	2,0	11,5
65-74	100,0	61,5	28,2	2,3	2,4	5,7
75 eta +	100,0	73,1	20,7	1,3	2,8	2,2
Erretiratuak	100,0	68,3	24,7	2,1	2,7	2,2
Espainia, guztira	100,0	60,1	26,4	2,9	0,5	10,0

Iturria: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabilita. Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 32.-33. or.

Europako eta Espainiako etxeen ondasun higiezinaren ondarea oso antzera dago osatuta (III.3.-3 taula); zerbait esatearren, aipa daiteke Europako etxeek balio handiko objektu gehiago dituztela Espainiakoek baino, baina aldeak oso txikiak dira (% 2,0 eta % 0,5). Beste hitz batzuetan esanda, balio handiko objektuak elementu sinbolikoak dira; alegia, ez dira eguneroko biziraupenerako tresna ekonomikoak. Etxebizitza nagusia erretiratuen ondarearen % 68 da; beste higiezin edo lursail batzuk % 25 dira, eta gainerakoa ibilgailu, balio handiko objektu eta jabetzako negozioei dagokie, zati berdinetan (III.3-4 taula).

Batez beste, Europako etxeen aberastasun garbia 230 mila eurokoa da, eta Espainiako etxeena, berriz, 291 mila eurokoa; hots, % 25 handiagoa. Europako erretiratuen etxeen aberastasun garbia handiagoa da Europako etxeen batez bestekoa baino; hain zuzen, ia %10 handiagoa (II.3-5 taula). Europako etxeen batez besteko aberastasun garbia askoz handiagoa da mediana (109 mila euro) baino, halako bi baino handiagoa, alegia. Espainian, ordea, aldea ez da hain handia (291 mila euro eta 183 mila euro).

III.3-4. taula
Share of real assets components in Guztira real assets
by demographic and country characteristics (%)

	(any) Real Assets	Household Main Residence (HMR)	%	Other Real Estate Property	%	Vehicles		Valuables		Self- Employment Business Wealth	%
							%		%		
Euro Area	100,0	60,8	100,0	22,7	100,0	2,9	100,0	2,0	100,0	11,5	100,0
Age of Reference Person											
16-34	100,0	65,9	108,4	17,3	76,2	5,1	175,9	2,6	130,0	9,0	78,3
35-44	100,0	61,2	100,7	16,7	73,6	3,5	120,7	1,6	80,0	17,0	147,8
45-54	100,0	59,0	97,0	22,7	100,0	3,4	117,2	1,7	85,0	13,2	114,8
55-64	100,0	54,9	90,3	26,0	114,5	2,7	93,1	2,0	100,0	14,4	125,2
65-74	100,0	61,5	101,2	28,2	124,2	2,3	79,3	2,4	120,0	5,7	49,6
75+	100,0	73,1	120,2	20,7	91,2	1,3	44,8	2,8	140,0	2,2	19,1
Work Status of Reference Person											
Employee	100,0	68,4	112,5	19,1	84,1	4,0	137,9	1,9	95,0	6,6	57,4
Self-Employed	100,0	35,1	57,7	27,1	119,4	2,3	79,3	1,4	70,0	34,1	296,5
Retired	100,0	68,3	112,3	24,7	108,8	2,1	72,4	2,7	135,0	2,2	19,1
Other Not Working	100,0	72,6	119,4	20,2	89,0	3,0	103,4	2,1	105,0	2,2	19,1
Spain	100,0	60,1	98,8	26,4	116,3	2,9	100,0	0,5	25,0	10,0	87,0

Iturria: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabiltuta: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave." Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 32.-33. or.

III.3-5. taula
Net wealth by demographic and country characteristics

	Median Net Wealth (€ 1,000)	%	Mean Net Wealth (€ 1,000)	%	Share of Guztira Net Wealth %	%	Share of Households %	%
Euro Area	109,2	100,0	230,8	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Age of Reference Person								
16-34	16,1	14,7	71,3	30,9	4,9	4,9	15,7	15,7
35-44	94,5	86,5	191,3	82,9	16,2	16,2	19,6	19,6
45-54	148,3	135,8	266,6	115,5	22,9	22,9	19,9	19,9
55-64	186,6	170,9	344,4	149,2	25,5	25,5	17,1	17,1
65-74	163,9	150,1	283,6	122,9	17,8	17,8	14,5	14,5
75+	126,1	115,5	220,9	95,7	12,7	12,7	13,2	13,2
Work Status of Reference Person								
Employee	90,7	83,1	180,2	78,1	37,4	37,4	47,9	47,9
Self-Employed	269,1	246,4	585,8	253,8	22,8	22,8	9,0	9,0
Retired	152,3	139,5	252,7	109,5	34,8	34,8	31,7	31,7
Other Not Working	11,1	10,2	98,5	42,7	4,6	4,6	10,7	10,7
Spain	182,7	167,3	291,4	126,3	15,6	15,6	12,3	12,3

Iturria: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabilia: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave", Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 75.-76. or.

Erreferentziazko pertsona 65 urtetik gorakoa duten etxeak Europako etheen % 27,7 dira, eta aberastasunaren % 30,5 pilotzen dute. Ia batez bestekoa daude: jabetzarik pilatu ez duten baina kredituak zor dituzten gazteek baino gehiago dute, eta ondarrerik handienak dituzten helduen belaunaldiak baino gutxiago. Espainiako etxeak Europakoen % 12,3 dira, eta % 15,6ko ondarea dute; beraz, % 26ko ondare-soberakina dute baliokidetasun demografikoaren gainean.

III.4. ADINEKOEN ETXEEN FINANTZA-ONDAREA

Etheen finantza-ondarearen osagai nagusiak hauek dira: gordailuak, funts mutualistak (mutual funds), partaidetzak, pentsio-plan pribatuak, etxebizitzarekin lotutako zorrak eta beste finantza-ondasun batzuk.

Aktibo higiezinekin alderatuta, Europako etheen finantza-aktiboak txikiak dira. Finantza-aktiboak dituztenen kasuan, Europako batez bestekoa 11'4 mila eurokoa da, eta Espainiako, berriz, erdia. Hauek dira baliorik handienekoak: bonoak (18'3 mila euro), pentsio-plan pribatuak (11'9 mila euro), funts mutualistak (10 mila euro) eta akzioak (7 mila euro). Gordailuak (ageriko kontuak, aurrezki-kontuak, gordailuak, etab.) oso ohikoak dira, baina bolumen txikia izaten dute (6'1 mila euro, batez beste). Bonuen, funts mutualisten, etxebizitzarekin lotutako diruaren eta beste finantza-ondasun batzuen kasuan, Espainiako batez bestekoa handiagoa da Europakoa baino.

la etxe guztiek dute finantza-aberastasunen bat (Europako etheen % 96,8 eta Espainiako % 98,3), eta adinekoak eta erretiratuak ez dira salbuespena (III.4-1 taula). la etxe guztiek dute gordailuren bat (ageriko kontuak, aurrezki-kontuak, gordailuak, etab.), eta herenek pentsio-plan pribatuak dituzte. Espainiako pentsio pribatuen ehunekoa txikiagoa da Europan baino; izan ere, etxeek aktibo higiezinetan inbertitu ohi dituzte aurrezkiak, seguruagotzat hartzen baitituzte, eta inflazioari aurre egiteko hobetzat. Halaber, familia-aurrezkien proportzio txikia sartzen da funts mutualistetan eta bonuetan, baina, bestalde, akzioen edo partizipazioen jabeen eta diru-mailegatzailen kopurua antzekoa da.

Adinak eta erretiratu-izaerak eragin handia dute finantza-ondarean; batez ere, erretiratu ondoren funtsak eta pentsio-planak berreskuratzen direlako. Bonuei eusten zaie, baina akzioak eta partizipazioak saldu egiten dira.

Oso ohikoak direnez, gordailuak Europako etheen finantza-aberastasunaren % 42,9 eta Espainiakoen % 51,4 dira. Pentsio-plan pribatuei dagokienez, % 26 eta % 15 dira, hurrenez hurren. Orobat, alde handia dago bonuei dagokien proportzioan (Europan da handiagoa) eta etxebizitzagatik zor diren zenbatekoetan; ziur asko, Espainian –eta Euskadin ere bai– familiarteko maileguen bolumena handiagoa delako (III.4-2 eta III.4-3. taulak).

III.4-1. taula
Participation in financial assets by demographic and country characteristics
by demographic and country characteristics (%)

	Financial Assets	%	Deposits	%	Mutual Funds	%	Bonds	%	Shares (Publicly Traded)	%	Money Owed to Household	%	Voluntary Private Pensions/ Whole Life Insurance	%	Other Financial Assets	%
Euro Area	96,8	100,0	96,4	100,0	11,4	100,0	5,3	100,0	10,1	100,0	7,6	100,0	33,0	100,0	6,0	100,0
Age of Reference Person																
16-34	97,4	100,6	97,1	100,7	9,7	85,1	1,7	32,1	6,7	66,3	10,3	135,5	33,7	102,1	4,8	80,0
35-44	97,5	100,7	97,0	100,6	12,9	113,2	3,4	64,2	10,1	100,0	9,0	118,4	41,1	124,5	6,3	105,0
45-54	97,0	100,2	96,7	100,3	13,0	114,0	5,0	94,3	11,2	110,9	8,0	105,3	43,7	132,4	5,4	90,0
55-64	97,2	100,4	96,4	100,0	13,1	114,9	7,6	143,4	13,3	131,7	7,5	98,7	37,7	114,2	7,4	123,3
65-74	96,4	99,6	96,1	99,7	10,9	95,6	8,1	152,8	10,4	103,0	5,8	76,3	19,4	58,8	7,3	121,7
75+	95,0	98,1	94,7	98,2	6,9	60,5	6,6	124,5	7,6	75,2	4,2	55,3	12,8	38,8	4,9	81,7
Work Status of Reference Person																
Employee	97,9	101,1	97,6	101,2	13,3	116,7	4,2	79,2	11,4	112,9	7,9	103,9	42,3	128,2	5,7	95,0
Self-Employed	96,9	100,1	96,6	100,2	12,7	111,4	7,9	149,1	12,5	123,8	12,6	165,8	44,7	135,5	10,4	173,3
Retired	95,9	99,1	95,6	99,2	9,4	82,5	7,5	141,5	9,3	92,1	5,5	72,4	19,0	57,6	6,4	106,7
Other Not Working	94,9	98,0	94,1	97,6	6,8	59,6	1,5	28,3	3,8	37,6	8,6	113,2	21,9	66,4	3,0	50,0
Spain	98,3	101,5	98,1	101,8	5,6	49,1	1,4	26,4	10,4	103,0	6,3	82,9	23,6	71,5	1,9	31,7

Iturria: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabilita: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave". Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 36.-37. or.

III.4-2. taula
Median value of financial assets conditional on participation
(EUR thousands)

	Financial Assets	%	Deposits	%	Mutual Funds	%	Bonds	%	Shares (Publicly Traded)	%	Money Owed to Household	%	Voluntary Private Pensions/ Whole Life Insurance	%	Other Financial Assets	%
Euro Area	11,4	100,0	6,1	100,0	10,0	100,0	18,3	100,0	7,0	100,0	3,0	100,0	11,9	100,0	4,1	100,0
Age of Reference Person																
16-34	5,0	43,9	3,1	50,8	3,5	35,0	4,4	24,0	2,9	41,4	1,0	33,3	4,0	33,6	1,3	31,7
35-44	10,3	90,4	5,0	82,0	6,2	62,0	11,5	62,8	5,0	71,4	3,0	100,0	9,8	82,4	4,8	117,1
45-54	14,0	122,8	6,3	103,3	11,0	110,0	16,1	88,0	6,0	85,7	3,8	126,7	15,0	126,1	6,0	146,3
55-64	18,6	163,2	8,2	134,4	14,8	148,0	20,0	109,3	10,0	142,9	3,9	130,0	20,0	168,1	5,1	124,4
65-74	13,9	121,9	8,1	132,8	20,0	200,0	20,4	111,5	12,7	181,4	6,5	216,7	15,1	126,9	3,1	75,6
75+	12,0	105,3	8,3	136,1	24,0	240,0	25,0	136,6	10,0	142,9	3,8	126,7	23,4	196,6	5,6	136,6
Work Status of Reference Person																
Employee	11,5	100,9	6,0	98,4	7,1	71,0	11,0	60,1	5,0	71,4	2,2	73,3	10,0	84,0	3,5	85,4
Self-Employed	22,6	198,2	9,5	155,7	15,5	155,0	20,0	109,3	12,2	174,3	4,3	143,3	17,8	149,6	9,7	236,6
Retired	14,0	122,8	8,5	139,3	19,8	198,0	21,1	115,3	11,9	170,0	5,0	166,7	18,1	152,1	4,3	104,9
Other Not Working	2,0	17,5	1,1	18,0	6,5	65,0	16,6	90,7	5,2	74,3	1,2	40,0	6,1	51,3	1,4	34,1
Spain	6,0	52,6	3,5	57,4	13,9	139,0	19,2	104,9	6,1	87,1	6,0	200,0	7,4	62,2	12,0	292,7

Iturria: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabiltuta: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave"; Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 39.-40. or.

III.4-3. taula
Share of financial assets components in Guztira financial assets
by demographic and country characteristics (%)

	Financial Assets	Deposits	%	Mutual Funds	%	Bonds	%	Shares (Publicly Traded)	%	Money Owed to Household	%	Voluntary Private Pensions/ Whole Life Insurance	%	Other Financial Assets	%
Euro Area	100,0	42,9	100,0	8,7	100,0	6,6	100,0	7,9	100,0	2,2	100,0	26,3	100,0	5,3	100,0
Age of Reference Person															
16-34	100,0	56,6	131,9	5,1	58,6	1,1	16,7	4,6	58,2	1,7	77,3	26,3	100,0	4,3	81,1
35-44	100,0	43,3	100,9	6,8	78,2	3,5	53,0	7,0	88,6	2,9	131,8	30,0	114,1	6,4	120,8
45-54	100,0	40,4	94,2	8,8	101,1	3,9	59,1	6,7	84,8	2,8	127,3	32,7	124,3	4,7	88,7
55-64	100,0	39,0	90,9	9,9	113,8	7,1	107,6	7,7	97,5	2,0	90,9	27,9	106,1	6,3	118,9
65-74	100,0	44,0	102,6	10,7	123,0	10,0	151,5	10,4	131,6	2,2	100,0	18,3	69,6	4,4	83,0
75+	100,0	46,0	107,2	7,6	87,4	10,6	160,6	9,4	119,0	1,3	59,1	20,2	76,8	4,8	90,6
Work Status of Reference Person															
Employee	100,0	44,4	103,5	8,2	94,3	3,8	57,6	7,1	89,9	1,7	77,3	30,3	115,2	4,4	83,0
Self-Employed	100,0	34,0	79,3	8,3	95,4	6,6	100,0	8,8	111,4	3,8	172,7	27,4	104,2	11,2	211,3
Retired	100,0	45,2	105,4	9,4	108,0	9,8	148,5	9,0	113,9	2,0	90,9	20,5	77,9	4,2	79,2
Other Not Working	100,0	46,4	108,2	11,0	126,4	4,3	65,2	4,9	62,0	3,5	159,1	27,6	104,9	2,4	45,3
Spain	100,0	51,4	119,8	7,7	88,5	1,9	28,8	9,1	115,2	6,4	290,9	15,1	57,4	8,4	158,5

Iturria: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabiltuta: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave". Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 46.-47. or.

III.5. ADINEKOEN ETXEEN ZORRAK

Zorpetze-zikloak hiru fase ditu:

- 1) Lehen etapan (45 urte arte), zorpetzearen helburua oinarrizko ondasunak erostea da; batik bat, etxebizitza.
- 2) Bigarren etapan, oinarrizko ondasunak osorik edo partzialki ordainduta daude, eta diru-sarrerak nahiko onak dira. Orduan, oinarrizkoak ez diren ondasunak erosten dira, bai eta onura edo segurtasun ekonomikoa lortzen lagunduko duten ekoizpen-baliabideak ere; eta horretarako, etxeek zorrak egiten dituzte.
- 3) Hirugarren etapa erretiroarekin batera hasten da (pertsonek 65 urte betetzen dituztenean, gutxi gorabehera). Orduan, pertsonak beren negozioak saltzen dituzte, bai eta, pixkanaka-pixkanaka, oinarrizko ondasunak ere, eta pentsio-planekin eta antzekoekin lotutako aktiboak ixten dituzte.

Ia Europako eta Espainiako etheen erdiek zorren bat dute (III.5-1. taula). Hala ere, etxe guztiek ez dituzte zor mota berberak, eta zenbait etxek zor bat baino gehiago dituzte. Hipotekazkoak ez diren zorrak dira ohikoenak (etxeen % 29), baina haien balioa txiki samarra da. Adinekoen etxeek zor gutxi dituzte; hain zuzen, gainerako etheen herenek baino gutxiagok. Europan zorrak dituzten etheen batez bestekoa % 43,7koa da, eta erretiratuen etheen kasuan, berriz, % 19,5koa. Etxebizitzaren beraren gaineko hipotekei dagokienez, batez bestekoa baino heren bat txikiagoa da ehunekoa (erretiratuen etxeen % 6,3k hipoteka du, eta etxe guztien % 19k); antzekoa gertatzen da gainerako zor motekin.

Ohikoak ez badira ere, hipoteka-zorrak dituzten etxeetan, hipoteka da zorraren osagai nagusia, bai eta, oro har, etxe guztien zorrarena ere. Etxebizitzen beraien gaineko hipotekak etxeen zorra guztien % 63 dira. Gainerakoa beste ondasun higiezin batzuen gaineko hipotekei, hipotekazkoak ez diren mailegari eta beste zor txikiago batzuei dagokie. Lehenago adierazi denez, erretiratuen eta edadetuen artean, hipotekadunen ehunekoa txikia da, baina hipotekak haien zorraren % 82 dira: alde batetik, etxebizitza nagusiaren gaineko hipoteka (zorraren % 48) eta beste ondasun higiezin batzuen gainekoa (zorraren % 33) (III.5-2. taula).

Etxebizitza nagusiaren gainean hipoteka duten etxeen kasuan, hipoteken medianaren balioa 65'2 mila eurokoa da. Eta beste ondasun higiezin batzuen gaineko hipotekak dituztenen artean (normalean, ez dute etxebizitza nagusiaren gaineko hipotekarik), medianaren balioa 56'8 mila eurokoa da. Etxebizitza nagusiaren gainean hipoteka duten erretiratuen etxeen kasuan, hipoteken medianaren balioa 35'0 mila eurokoa da, ia etxeen batez bestekoaren erdia. Espainian, zorrak dituzten etxeen zorren balioa handiagoa da Europako batez bestekoa baino (hurrenez hurren, 36 mila euro eta 21,5 mila euro); hain zuzen ere, ondasun higiezin gehiago dituztelako Espainian (III.5-3 taula). Etxebizitza nagusiaren gaineko hipotekaren mediana ia % 20 baxuagoa da Espainian (54,3 mila euro), baina beste ondasun batzuen gainekoa, % 40 handiagoa.

Espainiako etxeen zorraren egitura eta Europakoa antzekoak dira, baina hipotekek zorra horretan duten eragina apur bat handiagoa da Espainian, higiezin jabeen proportzioa handiagoa baita Europako batez bestekoa baino. Espainiako etxeen aldeko datu bat dago: etxebizitza nagusiaren hipoteka-zorra zertxobait txikiagoa da Europakoa baino, eta beste hiri- eta landa-jabetza batzuen (lokalak, lursailak, etab.), pixka bat handiagoa. Ondasun higieziari ez dagozkien zorrak proportzionalki txikiagoak dira Espainian (Espainiako etxeen zorraren % 13,7 da, eta Europan, % 17,2); izan ere, kreditu-lineen eta beste mailegu mota batzuen zorra txikiagoa da (kreditu-txartelak alde batera utzita).

Eurogunean, adinekoen hipoteka-zorra etxe guztienaren antzekoa da, baina hipoteka horiek ez dira etxebizitza nagusienak, hain ezinbestekoak ez diren beste ondasun batzuenak baizik. Etxebizitza nagusiaren hipotekaren eragin gero eta txikiagoa argi ikusten da erantsitako taulan; mediana ia hiru aldiz handiagoa da etxerik gazteenetan 65 eta 74 urte bitartekoan etxeetan baino (97'1 mila euro eta 35'6 mila euro, hurrenez hurren).

1.5-1. taula
Participation in debts components (7)

	Guztira Debt	%	Mortgage Debt	%	HMR Mortgage	%	Other Property Mortgage	%	Non- Mortgage Debt	%	Credit Line/ Overdraft Debt	%	Credit Card Value	%	Non- Mortgage Loans	%
Euro Area	43,7	100,0	23,1	100,0	19,4	100,0	5,6	100,0	29,3	100,0	10,2	100,0	4,3	100,0	22,4	100,0
Age of Reference Person																
16-34	55,3	126,5	22,3	96,5	20,1	103,6	3,6	64,3	41,8	142,7	13,5	132,4	5,1	118,6	34,5	154,0
35-44	61,8	141,4	37,2	161,0	33,6	173,2	6,7	119,6	40,1	136,9	13,1	128,4	6,6	153,5	31,3	139,7
45-54	55,8	127,7	32,4	140,3	26,5	136,6	8,7	155,4	36,8	125,6	13,2	129,4	5,4	125,6	27,7	123,7
55-64	43,1	98,6	22,5	97,4	16,8	86,6	7,5	133,9	27,3	93,2	10,0	98,0	4,2	97,7	20,1	89,7
65-74	23,7	54,2	11,7	50,6	8,7	44,8	4,2	75,0	15,3	52,2	6,2	60,8	1,9	44,2	9,9	44,2
75+	7,7	17,6	2,7	11,7	1,9	9,8	1,0	17,9	5,5	18,8	2,4	23,5	1,0	23,3	3,1	13,8
Work Status of Reference Person																
Employee	57,9	132,5	32,6	141,1	28,3	145,9	6,7	119,6	38,3	130,7	13,2	129,4	5,7	132,6	29,9	133,5
Self-Employed	56,8	130,0	35,2	152,4	27,1	139,7	12,8	228,6	35,1	119,8	11,7	114,7	7,0	162,8	26,2	117,0
Retired	19,5	44,6	8,9	38,5	6,3	32,5	3,2	57,1	12,9	44,0	4,9	48,0	1,7	39,5	8,8	39,3
Other Not Working	39,5	90,4	11,5	49,8	10,1	52,1	1,9	33,9	31,8	108,5	10,6	103,9	2,7	62,8	25,4	113,4
Spain	50,0	114,4	32,5	140,7	26,8	138,1	7,3	130,4	30,7	104,8	0,6	5,9	7,3	169,8	27,2	121,4

Iturría: M.A. Duranek egina, Europako Banku Zentralaren datuak erabiltuta. "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave". Statistics Paper Series, 2. z.k., 2013ko apirila.

III.5-2. taula
Share of debt components in Guztira debt (8).
by demographic and country characteristics (%)

	Guztira Debt	Mortgage Debt	%	HMR Mortgage	%	Other Property Mortgage	%	Non-Mortgage Debt	%	Credit Line/Overdraft Debt	%	Credit Card Value	%	Non-Mortgage Loans	%
Euro Area	100,0	82,8	100,0	63,2	100,0	19,7	100,0	17,2	100,0	1,4	100,0	0,2	100,0	15,5	100,0
Age of Reference Person															
16-34	100,0	81,0	97,8	67,0	106,0	14,0	71,1	19,0	110,5	1,0	71,4	0,2	100,0	17,7	114,2
35-44	100,0	85,7	103,5	71,1	112,5	14,6	74,1	14,3	83,1	0,9	64,3	0,2	100,0	13,3	85,8
45-54	100,0	81,8	98,8	60,2	95,3	21,6	109,6	18,2	105,8	1,6	114,3	0,2	100,0	16,4	105,8
55-64	100,0	80,6	97,3	53,1	84,0	27,5	139,6	19,4	112,8	2,4	171,4	0,2	100,0	16,7	107,7
65-74	100,0	82,6	99,8	46,9	74,2	35,7	181,2	17,4	101,2	2,4	171,4	0,2	100,0	14,8	95,5
75+	100,0	85,4	103,1	43,4	68,7	42,0	213,2	14,6	84,9	2,5	178,6	0,4	200,0	11,7	75,5
Work Status of Reference Person															
Employee	100,0	84,4	101,9	68,2	107,9	16,2	82,2	15,6	90,7	1,1	78,6	0,2	100,0	14,3	92,3
Self-Employed	100,0	80,3	97,0	50,6	80,1	29,8	151,3	19,7	114,5	2,0	142,9	0,3	150,0	17,4	112,3
Retired	100,0	81,7	98,7	48,3	76,4	33,5	170,1	18,3	106,4	2,4	171,4	0,3	150,0	15,5	100,0
Other Not Working	100,0	72,9	88,0	60,1	95,1	12,8	65,0	27,1	157,6	1,6	114,3	0,3	150,0	25,2	162,6
Spain	100,0	86,3	104,2	60,6	95,9	25,7	130,5	13,7	79,7	0,6	42,9	0,4	200,0	12,8	82,6

Iturria: M.A. Duranek egina. Europako Banku Zentralaren datuak erabiltuta: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave"; Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 61.-62. or.

III.5-3. taula
Median values of debt components conditional on participation (9)
by demographic and country characteristics (EUR thousands)

	Guztira Debt		Mortgage Debt		HMR Mortgage		Other Property Mortgage		Non-Mortgage Debt		Credit Line/Overdraft Debt		Credit Card Value		Non-Mortgage Loans	
	%		%		%		%		%		%		%		%	
Euro Area	21,5	100,0	68,4	100,0	65,2	100,0	56,8	100,0	5,0	100,0	1,5	100,0	0,9	100,0	6,1	100,0
Age of Reference Person																
16-34	14,7	68,4	99,4	145,3	97,1	148,9	76,5	134,7	5,0	100,0	1,0	111,1	1,0	66,7	6,1	100,0
35-44	39,6	184,2	75,7	110,7	74,7	114,6	62,2	109,5	4,5	90,0	1,7	88,9	0,8	113,3	5,6	91,8
45-54	28,0	130,2	60,0	87,7	54,5	83,6	58,3	102,6	5,9	118,0	2,0	111,1	1,0	133,3	7,8	127,9
55-64	15,4	71,6	45,8	67,0	47,5	72,9	40,0	70,4	5,0	100,0	2,0	77,8	0,7	133,3	6,2	101,6
65-74	11,2	52,1	37,3	54,5	35,6	54,6	52,4	92,3	3,1	62,0	1,4	100,0	0,9	93,3	5,6	91,8
75+	4,3	20,0	40,0	58,5	38,4	58,9	40,0	70,4	1,7	34,0	0,8	100,0	0,9	53,3	3,6	59,0
Work Status of Reference Person																
Employee	27,7	128,8	71,0	103,8	70,1	107,5	57,2	100,7	5,0	100,0	1,8	88,9	0,8	120,0	6,2	101,6
Self-Employed	48,2	224,2	80,8	118,1	67,6	103,7	70,0	123,2	8,0	160,0	3,0	133,3	1,2	200,0	10,1	165,6
Retired	9,0	41,9	34,3	50,1	35,0	53,7	33,3	58,6	3,3	66,0	1,4	88,9	0,8	93,3	4,8	78,7
Other Not Working	6,9	32,1	56,4	82,5	55,0	84,4	52,0	91,5	3,5	70,0	0,7	88,9	0,8	46,7	4,8	78,7
Spain	36,0	167,4	60,0	87,7	54,3	83,3	80,0	140,8	7,2	144,0	12,0	88,9	0,8	800,0	8,0	131,1

Iturria: M.A. Duranek egina. Europako Banku Zentralaren datuak erabiltuta: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave". Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 55.-56. or.

III.6. ADINEKOEN ONDAREAREKIN LOTUTAKO ARRISKUA ETA EGOINKORTASUNA

Lehenago adierazi dugunez, adinekoen eta erretiratuen etxeen finantza-aberastasuna handiagoa da langileena eta beste adin-talde batzuen baino; hain zuzen ere, lan-merkatutik ateratzearen eta sarrera-murrizketaren ondorioak gutxitzeko tresna bat delako. Adinekoek likidezia eta ondarea dute, eta zor gutxi; hala ere, egoera ekonomiko ahula dute, hiru arrisku hauen aurrean: ekonomikoa, politikoa eta osasun-galerak eragin dezakeena. Arrisku ekonomikoa nagusia inflazioa da; izan ere, inflazioak eragin handia izan lezake ordura arte metatutako ondarean, eta adinekoek ondare hori behar dute, bizitza-zikloan zehar diru-sarrerak osatzeko eta edozein osasun-arazori aurre egiteko. Arrisku politikoa nagusia da (pentsioak jaisteaz gainera) ondare hori oso erakargarria izatea Administrazio Publikoarentzat, edo Administrazio Publikoak lehen doan ematen zituen zerbitzuak murriztea. Hirugarren arriskuak, osasun-galerak eragindakoak, bi osagai ditu, monetarioa eta ez-monetarioa. Esternalizatu eta monetarizatu behar diren zainketen ondorioz, metatutako ondarea azkar txikituko da. Ildo horretan, etxerik aberatsenak ez dira zainketak ordaintzeko monetarizatutako ondarea dutenak, baizik eta laguntza-sareetan doako laguntza dutenak, edo familia-laguntza dutenak eta zerbitzu publikoen edo borondatezko erakundeen doako laguntza izan dezaketenak. Gaur egun, hori ez da Europako herrialde guztietan gertatzen, eta gainera, zenbait herrialdeetako Administrazio Publikoak zerbitzuak murrizten ari dira.

III.6-1. taula
Indicators of debt burden and financial fragility
(medians in %)

	Debt-Asset Ratio	%	Debt-Income Ratio	%	Debt Service-Income Ratio	%	Mortgage Debt Service Income Ratio	%	Loan-Value Ratio of HMR	%	Net Liquid Assets-Income Ratio	%
Euro Area	21,8	100,0	62,0	100,0	13,9	100,0	15,9	100,0	37,3	100,0	18,6	100,0
Age of Reference Person												
16-34	46,4	212,8	64,3	103,7	15,4	110,8	20,5	128,9	56,5	151,5	7,7	41,4
35-44	29,4	134,9	96,4	155,5	16,1	115,8	17,1	107,5	40,4	108,3	10,9	58,6
45-54	17,6	80,7	66,5	107,3	13,0	93,5	13,7	86,2	29,1	78,0	12,4	66,7
55-64	10,9	50,0	39,8	64,2	11,7	84,2	12,7	79,9	24,9	66,8	24,2	130,1
65-74	8,4	38,5	37,1	59,8	12,2	87,8	15,1	95,0	20,0	53,6	37,3	200,5
75+	6,3	28,9	15,8	25,5	8,4	60,4	11,0	69,2	19,1	51,2	49,6	266,7
Work Status of Reference Person												
Employee	26,6	122,0	68,7	110,8	13,9	100,0	15,7	98,7	40,0	107,2	13,0	69,9
Self-Employed	13,6	62,4	91,0	146,8	16,7	120,1	16,8	105,7	33,7	90,3	19,0	102,2
Retired	7,9	36,2	30,7	49,5	11,3	81,3	13,3	83,6	19,9	53,4	41,0	220,4
Other Not Working	42,8	196,3	43,5	70,2	15,1	108,6	20,0	125,8	34,4	92,2	4,2	22,6
Spain	17,9	82,1	113,5	183,1	19,9	143,2	20,5	128,9	31,0	83,1	12,3	66,1

Iturria: M.A. Duranek egiña, Europako Banku Zentralaren datuak erabilia: "The eurosystem households finance and consumption survey. Results form the first wave", Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila, 65-66. or.

Monetarizatutako ondarearen indarra edo ahulezia soilik kontuan hartuz gero, etxe gehienek egoera saneatua dute; izan ere, batez besteko zorra ondarearen % 21,8 baino ez da (bi magnitudeen mediana erabiliz) (III.6-1 taula). Erretiratuen etxeen egoera hobe samarra da batez bestekoa baino, haien zorrak ondarearen % 7,9 baino ez dira eta. Etxearen zorren eta diru-sarreraren arteko ratioari erreparatuta, berriz, egoerak nabarmen egiten du okerrera; izan ere, etxe guztiei dagokienez, ratio hori % 62koa da. Erretiratuen kasuan, etxeen batez bestekoaren erdia da ratio hori (% 31). Espainiako etxeen zorraren eta ondarearen arteko erlazioa hobea da Europako batez bestekoa baino (% 17,9 eta % 21,8, hurrenez hurren). Hala ere, zorraren eta diru-sarreraren ratioa askoz txarragoa da (% 113,5 eta % 62,0, hurrenez hurren), bai eta zorrak ordaintzeko hilean aurreikusitako ordainketen eta hileko diru-sarreraren arteko ratioa ere. Guztiz ordaindu gabeko maileguen eta hipoteka ordaintzen ari diren etxeen etxebizitzaren balioaren arteko erlazioa hobea da Espainian Europako batez bestekoa baino. Dena den, adierazle hori okerragotu egin da azken aldi honetan, higiezinen balioak behera egin duelako. Bilakaera hori aurreikusi egin zitekeen, zenbait arrazoiengatik. Alde batetik, Espainiako etxeen diru-sarrerak txikiagoak direlako Europakoak baino. Eta beste batetik, ondarea ez delakoa diru-sarrera handien ondorioz metatu, baizik eta aurrezte-tasa oso handia izan delako eta urte askoan kontsumoa murriztu delako. Baina badaude beste arrazoi batzuk ere: egitura demografikoa (zenbait belaunaldiren elkarbizitza etxe berean) eta ekoizpen-egitura (etxe asko enpresa txikien jabeak dira, eta higiezinen jabetza legez eta zergaz lagunduta egon da).

III.7. ETXEBIZITZA ETA ONDAREA EUSKADIN. ADINEKOEN EGOERA

Etxebizitza berebizikoa da pertsona edadetuen ekonomian, haien ondare nagusia baita. Bizitzan zehar, urte askoan, ahalegin ekonomiko handia egin izan dute etxebizitza erosteko, eta gehienek erretiro-garairako daukate ordainduta; beraz, hipoteka ordaintzeko zen gastua aurrezteko aukera dute. Etxebizitza jabetzan izateak segurtasuna eta egonkortasuna ematen ditu. Baina, bestalde, aldaketetara egokitzea galaraz dezake; esaterako, familiaren tamaina aldatzen bada, biztanleen baldintza fisikoak aldatzen badira edo konponketak egin behar badira. Espainiako Bankuaren arabera (Familien Finantza Inkesta), familien aberastasunaren % 80 ondasun higiezinetan inbertituta dago. Adinekoen kasuan, proportzio hori askoz handiagoa da, etxe berean pertsona gutxiago bizi baitira. Eskuarki, edadetuak etxebizitza handiegietan bizi dira, pertsona bakoitzeko metro karratu asko dituzten etxebizitzetan; hortaz, espazio horren zati handi bat gutxiegi erabiltzen da. Ingurune ezagun batean (hiria, auzoa...) jarraitzeak balio handia du, baina, horrez gain, etxebizitza zabalak beste funtzio bat betetzen du: anfitrioi izatea, alegia. Hori oso gutxitan erabiltzen bada ere, aberastasun- eta segurtasun-sentsazioa ematen die jabeei. Gainera, etorkizunerako saria izan daiteke: orain jasotako mesede eta zainketen ordaina (Ingema Fundazioa, 2011)⁴⁵.

Familien Aurrekontuen Etengabeko Inkestak (2005) eta 2010eko Bizitza Baldintzen Inkestak bat datoz honetan: jendeak pixkanaka eskuratzen du etxebizitza bere bizitza-zikloan zehar. Erreferentziazko pertsona 65 urtetik gorakoa duten etxe jabeak etxe jabe guztien % 29 dira.

⁴⁵ Ingema Fundazioa, "Envejecimiento, vivienda y entorno". Zuzendaritza teknikoa: Mayte Sancho eta J. Yanguar. Ikerketa kualitatiboari buruzko txostena. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2012, 389. or.

2001ean, Euskadiko lurralde historiko guztietan, etxebizitzaren kopuruak eta kalitateak nabarmen egin zuten gora. 2001ean hutsik zeuden etxebizitzak etxebizitza-parkearen % 10 ziren, eta haien erdiak bigarren etxebizitzarako erabiltzen ziren⁴⁶. Euskadin, biztanle bateko etxebizitzaren proportzioa handitu egin zen, 2001eko erroldak adierazten duenez; hain zuzen, % 12 ziren 1991n, eta % 20, 2001ean. Bere horretan jarraituko al du joera horrek? Eta etxe jabeen kopuruak eta etxebizitza-parkeak handitzen jarraituko al dute? Ez dago argi erabaki ekonomikorik onena denik, baina ez dago zalantzarik horrek eragina izango duela pertsona edadetuen etorkizuneko ondarean, bolumenari zein egiturari dagokienez.

Bost urte geroago, 2006an, etxebizitza-parkea % 11,7 handiagoa zen; hain zuzen, 461 etxebizitza zeuden 1.000 biztanleko. Hala ere, tasa hori bat dator Europako batez bestekoarekin, eta txikiagoa da Espainiako (526), Portugalgo (523) eta Frantziako (509) batez bestekoak baino. Etxebizitzaren % 82 etxebizitza nagusia zen, gainerako Autonomia Erkidegoetan baino gehiago, Ceutan eta Melillan izan ezik. Bigarren etxebizitzaren proportzioa (% 2,2) txikiena zen Autonomia Erkidego guztien artean; dena den, datu hori Euskadiko parkeari zegokion, eta ez zituen etxeen jabetzak kontuan hartzen. Etxebizitzaren % 12,4 saldu gabe zegoen, eta horrek nolabaiteko eragina zuen etxeen ondarean; izan ere, jabetza hori etxeen, higiezin enpresen eta beste enpresa batzuen artean banatuta zegoen. 2006an, eraikinen batez besteko antzinasuna 37,3 urtekoa zen, eta bizitegi-eredua familiarra zen bereziki, Madrilgo Autonomia Erkidegokoaren antzekoa⁴⁷. Etxebizitza gehienek 60 eta 90 m² bitarteko azalera zuten, eta batez besteko azalera erabilgarria 86 m²-koa zen. Urte hartan, Espainiako batez bestekoa 96 m²-koa zen. Aurreko bosturtekoan, apur bat gehitu ziren etxebizitza txikiak (hiru logelatik beherakoak) eta etxebizitza handiak (sei logelatik gorakoak).

Edukitzaren erregimenari dagokionez, 2001eko erroldaren arabera, Euskadiko etxebizitza nagusien % 52,1 osorik ordainduta zegoen, % 25,2 ez zegoen guztiz ordainduta, % 10,5 jaraunspenez jasotakoa zen, % 7,7 alokairuan zegoen, eta % 3,5 doako lagapenean zegoen. Beste Autonomia Erkidego batzuetan, edukitzaren erregimena antzekoa zen: jabetza-indize altuak eta alokairu-indize baxuak. Euskadin, osorik ordaindu gabeko etxebizitzaren batez bestekoa % 25,2 zen; Valentziak eta Melillak soilik zituzten datu handiagoak. 2011n, osorik ordaindu gabeko etxebizitzaren kopuruak, % 31,9k, higiezin "boom-a" islatzen zuen hein batean (III.7-1 taula).

Euskadiko Etxebizitza Sailaren arabera, 2011n, 54.641 etxe baino ez zeuden alokairuko etxebizitzetan; alegia, Euskadiko 884.896 etxeen % 6 baino ez. Alokaturako etxebizitzetan dauden etxeek 2'47 kide dituzte batez beste, eta etxebizitza berean, 5'53 urtez daude batez beste. Ohikoagoak dira erreferentziazko pertsona gaztea den etxeetan.

2012an, alokairuaren batez besteko gastua 354 eurokoa zen, urteko eta pertsonako. Zenbateko hori oso txikia zen, biztanle gehienak ez direlako alokairu-erregimenean bizi, beren jabetzako etxebizitzan baizik (Eustat, 2012)⁴⁸. 2012an, jabeek beren etxebizitzak erabiltzeagatik beren buruari ordaintzen dioten alokairuaren balio teorikoa 3.469 eurokoa zen, urteko eta pertsonako. Kontabilitate-hitzarmenez, itxurazko balio edo diru-sarrera hori BPGa eta beste hainbat makromagnitute

⁴⁶ Ingema Fundazioa, "Envejecimiento, vivienda y entorno". Zuzendaritza tekniko: Mayte Sancho eta J. Yanguar. Ikerketa kualitatiboari buruzko txostena. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2012, 389. or.

⁴⁷ Altuzarra Artola, Amaia: "Txosten Sozioekonomikoa. Etxebizitza", Eustat, Txosten Sozioekonomikoak, 15. zk., 2013, 547. or., Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikan (2006, 558. or.) oinarrituta.

⁴⁸ EUSTAT, Familia Gastuen Estatistikak, 2014.

kalkulatzeko erabiltzen da. Hala ere, diru-sarrerei buruzko zenbait informazio estatistikok kalkulua bereizten dute, jabetzako etxebizitzaren beraren alokairuagatik itxurazko errenta sartzen den ala ez.

III.7-1. taula

Euskal AEko familia-etxebizitza nagusiak, lurraldearen eta edukitza-erregimenaren arabera. 2011

	GUZTIRA		Jabetzan					Alokairuan	Doan lagata	Beste modu batera
		%	Guztira	%	Ordainduta	Guztiz ordaindu gabe	Jaraunspena edo dohaintza			
Euskal AE	860.522	100,0	739.227	85,9	47,8	31,9	6,2	8,2	1,6	4,3
Araba	130.170	100,0	111.994	86,0	44,1	36,1	5,8	8,5	1,4	4,1
Gipuzkoa	276.407	100,0	238.762	86,4	48,2	32,0	6,1	7,7	1,5	4,4
Bizkaia	453.945	100,0	388.471	85,6	48,6	30,6	6,3	8,5	2,7	4,3

Iturria: M.A. Duránek egina, Eustaten datuetan oinarrituta. 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak.

2012an, Euskadin salgai zeuden etxebizitzaren metro karratuko batez besteko prezioa 1.585 eurokoa zen, babes ofizialeko etxebizitzaren eta etxebizitza sozialen kasuan. Etxebizitza libreen kasuan, halako bi izan zen: 3.564 eurokoa bigarren eskuko etxebizitzetan, eta 3.742 eurokoa etxebizitza berrietan. Urte hartan, pixka bat jaitsi zen, aurreko bi hamarkadetan igo ondoren (hain zuzen, prezioa bi aldiz baino gehiago handitu zen). Salgai zeuden etxebizitza berrien batez besteko prezioa 114'5 mila eurokoa zen babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, eta 302'2 mila eurokoa, etxebizitza libreen kasuan. Alokairuan, batez besteko errenta 856 eurokoa zen etxebizitza libreei dagokienez.

Espanian, gizonen % 86 eta emakumeen % 80 beren jabetzako etxebizitzetan bizi ziren. Etxebizitzaren jabeak diren adinekoen proportzioa handiagoa da gainerako biztanleena baino. Adin-talde honetan, oso pertsona gutxi bizi dira alokairuan (% 2,7), eta beren etxebizitzan bizi ez direnak seme-alaba baten etxean bizi dira (gizonen % 8,5 eta emakumeen % 13,5, batez bestekoa % 11,4 izanik). Alargundu eta gero edo osasunak okerrera egin ondoren, ohikoa da seme-alaben etxebizitzara joatea, zainketa-beharrei edo baliabide ekonomikorik ezari aurre egiteko. Zenbait kasutan, kontrako arrazoiengatik ere gertatzen da; hau da, adinekoak –batez ere, emakumeak– seme-alaben etxebizitzara joaten dira, haiek zaintzera eta laguntza ekonomikoa ematera.

III.7-2. taula

Ondare higiezinaren kudeaketa

	2000	2005	2010	2011	2012(a)
A Kapital finkoaren eraketa gordina	162.806	267.444	232.481	216.695	197.495
B Aktibo finko materialak	156.384	256.583	217.151	200.186	180.298
C Etxebizitzak	56.596	108.341	76.145	62.867	53.798
D Cren % Arekiko	34,8	40,5	32,8	29,0	27,2
E Cren % Brekiko	36,2	42,2	35,1	31,4	29,8

Iturria: Duránek eta beste batzuek egina. INE, Espainiako Kontabilitate Nazionala. 2008ko oinarria. 2000-2012 kontabilitate koadroak.

III.7-3. taula

Etxebizitzaren jabetzaren sarbidea, jabetzako etxe kopuruaren arabera (milioitan).

Erreferentzia- pentsonaren adina	Etxe kopurua (milioitan)	Jabeen %	Jabetzako etxeen kopurua (milioitan)
Guztira	16,9	82	13,86
16-29	1,0	50	0,5
30-44	5,5	78	4,29
45-64	6,0	86	5,16
65 y +	4,5	88	3,96

Iturria: INE, Bizitza Baldintzen Inkesta, 2010.

IV. KAPITULUA

BALIABIDE MONETARIZATUEN EGUNEROKO GESTIOA

IV.1. ADINEKOEN ERRENTA EUSKADIN: JATORRIA ETA ZENBATEKOA


IV.1.1. Zahartzearen ziklo ekonomikoa

Biztanleriaren gehiengoarentzat, lana da errenta-iturri nagusia. 65 urtetik gorakoentzat, berriz, transferentziak (pentsioak nagusiki) eta higigarrien kapitalaren errentak (pentsio-plan pribatuak eta gordailuak nagusiki) dira diru-sarrereren iturri nagusiak. Errenten zenbatekoa gero eta txikiagoa da zahartze-zikloan aurrera egin ahala. Zikloaren hasieran (65-69 urterekin), guztizko batez besteko errenta biztanleriaren batez bestekoa baino % 3 handiagoa da; 95 urtetik gorakoan kasuan, berriz, biztanleriaren batez bestekoaren % 61 baino ez da. Erretiroaren ondoren, alde txiki bat agertzen da Euskadiko hiru lurralde historikoen artean batez besteko errentei dagokienez. Gipuzkoako erretiratuen batez besteko errenta Euskadi osoko batez bestekoa baino % 4 handiagoa da, eta Bizkaiko erretiratuena, berriz, Euskadiko batez bestekoa baino % 3 txikiagoa.

Adinekoengan, gainerako adin-taldeetan bezalaxe, errenta-alde handiak daude. CISen arabera (IV.1.1-2 taula), zergen ondorengo diru-sarrereren tarterik ohikoena 600-900 euro da, eta batez bestekoa 556 eurora iristen da, ehuneko handi batek gai honi erantzun ez badio ere.


Lan-bizitzaren azken tarteko diru-sarrerak handiak dira aurreko adinen aldean, bai soldata-sarrereri (erantsitako ... grafikoa), bai guztizko batez besteko diru-sarrereri (... grafikoa) dagokienez. 2012. urtean, talde horrek izan zituen soldatarik handienak.

IV.1.1-1 grafikoa
Batez besteko diru-sarrera errealak, adin-taldearen arabera. 1996-2012.
(2008ko eurotan)



Iturria: Antón et al.-ek egina, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako datuetan oinarrituta (2013, 56. or.).

IV.1.1-2 grafikoa
Euskadiko batez besteko diru-sarrera errealak, adinaren arabera, 2012.



Iturria: M.A. Duránek egina, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako (2012) eta Antón et al.-en (2013) datuetan oinarrituta.

Euskadin bizi diren hemezortzi urtetik gorako pertsonen batez besteko errenta pertsonala urteko 19.715 euro izan zen 2011. urtean (Eustat), eta lanaren errentek, higigarrien eta higiezinaren kapitalaren errentek, jarduera-errentek eta jasotako transferentziek osatu zuten. Kotizazioak eta errentaren gaineko zergak ordaindu ondorengo errenta erabilgarria 16.711 euro izan zen. Nolanahi ere, errenta erabilgarria guztizko errentaren % 85 izan zen, baina proportzio hori desberdina izan zen diru-sarriaren tarte bakoitzean. Diru-sarrerarik handienak zituztenen tartean (55-59 urtekoen taldean), % 82 izan zen. 2012. urtean, krisiaren ondorioz, adinekoen batez besteko errentak adin ertainekoaren errenten antzekoak izan ziren.

IV.1.1-1 taula
Batez besteko errenta pertsonala sexuaren, bost urteko adin-taldean eta errenta motaren arabera (euroak), 2011

	Guztizko errenta	Guztizkoaren %	Lanaren errenta	Guztizkoaren %	Higigarrien kapitalaren errenta	Guztizkoaren %	Higiezinen kapitalaren errenta	Guztizkoaren %	Jardueraren errenta	Guztizkoaren %	Transferentziak	Guztizkoaren %	Errenta erabiltgarria	Guztizkoaren %
Guztira	19.715	100,0	12.358	100,0	1.443	100,0	362	100,0	875	100,0	4.677	100,0	16.711	100,0
65-69 urte	20.416	103,6	1.521	12,3	3.362	233,0	782	216,0	482	55,1	14.269	305,1	17.773	106,4
70-74 urte	17.363	88,1	353	2,9	2.775	192,3	752	207,7	185	21,1	13.299	284,3	15.599	93,3
75-79 urte	15.754	79,9	141	1,1	2.388	165,5	679	187,6	108	12,3	12.437	265,9	14.476	86,6
80-84 urte	15.401	78,1	90	0,7	2.330	161,5	594	164,1	92	10,5	12.295	262,9	14.292	85,5
85-89 urte	14.492	73,5	30	0,2	2.121	147,0	544	150,3	40	4,6	11.758	251,4	13.610	81,4
90-94 urte	13.689	69,4	62	0,5	2.080	144,1	537	148,3	53	6,1	10.958	234,3	12.919	77,3
95 urte eta gehiago	11.997	60,9	34	0,3	2.165	150,0	407	112,4	42	4,8	9.348	199,9	11.336	67,8
Gizonak	25.258	100,0	15.994	100,0	1.689	100,0	324	100,0	1.224	100,0	6.027	100,0	21.155	100,0
65-69 urte	30.021	118,9	2.554	16,0	4.354	257,8	691	213,3	707	57,8	21.714	360,3	25.795	121,9
70-74 urte	25.287	100,1	641	4,0	3.451	204,3	708	218,5	244	19,9	20.243	335,9	22.469	106,2
75-79 urte	22.607	89,5	284	1,8	2.892	171,2	644	198,8	151	12,3	18.635	309,2	20.570	97,2
80-84 urte	21.294	84,3	172	1,1	2.790	165,2	559	172,5	142	11,6	17.632	292,6	19.526	92,3
85-89 urte	19.294	76,4	49	0,3	2.447	144,9	532	164,2	45	3,7	16.221	269,1	17.905	84,6
90-94 urte	18.442	73,0	186	1,2	2.772	164,1	712	219,8	103	8,4	14.670	243,4	17.032	80,5
95 urte eta gehiago	18.276	72,4	115	0,7	4.998	295,9	397	122,5	57	4,7	12.710	210,9	16.841	79,6
Emakumeak	14.534	100,0	8.959	100,0	1.214	100,0	397	100,0	549	100,0	3.416	100,0	12.557	100,0
65-69 urte	11.798	81,2	594	6,6	2.471	203,5	864	217,6	281	51,2	7.588	222,1	10.575	84,2
70-74 urte	10.694	73,6	110	1,2	2.205	181,6	788	198,5	136	24,8	7.455	218,2	9.817	78,2
75-79 urte	10.651	73,3	35	0,4	2.012	165,7	706	177,8	76	13,8	7.822	229,0	9.938	79,1
80-84 urte	11.659	80,2	38	0,4	2.038	167,9	616	155,2	61	11,1	8.906	260,7	10.969	87,4
85-89 urte	12.228	84,1	21	0,2	1.967	162,0	550	138,5	37	6,7	9.653	282,6	11.584	92,3
90-94 urte	12.169	83,7	22	0,2	1.859	153,1	481	121,2	36	6,6	9.770	286,0	11.603	92,4
95 urte eta gehiago	10.535	72,5	15	0,2	1.505	124,0	410	103,3	39	7,1	8.566	250,8	10.054	80,1

Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiararen estatistika.

Zerga Agentziak emandako informazioak PFEZaren aitortpena (baterakoa edo indibiduala) aurkezten duten pertsonak adierazten ditu. Aitortpena egiteko modu desberdinen ondorioz (inprimaki desberdinak eta Zerga Agentziak erabilitako sistema desberdinak), aldaketa txiki batzuk agertu dira emaitzetan. 2012. urtean, aitortpenen kopurua 19.467.730 izan zen Espainian. 18 urtetik gorako biztanleak 38.291.427 ziren, eta % 51k egin zuen PFEZaren aitortpena⁴⁹. Aitortpena egin ez zuten gehienek diru-sarrera txikiak izan zituzten eta ez zeuden egitera behartuta, baina izan ziren diru-sarrera txikiak izanik aitortpena egin zutenak ere (baterakoa batez ere), Ogasunak diru-sarrera errealetatik kobratutako atxikipenen gehiegizko zenbatekoa berreskuratzeke.

CISen inkestek diru-sarrera familiarrei eta pertsonalei buruz emandako informazioaren kalitatea zerga-arlokoarena baino txikiagoa da, erantzun ez dutenen proportzioa oso handia izan baitzen. Hala ere, diru-sarreraren esparru osoa hartzen du (aitortpena egin zutenen datuetara mugatu gabe), eta etxeko diru-sarreraren eta diru-sarrera indibidualen arteko konparazioa egiteko aukera ematen du.

IV.1.1-2 taula


Diru-sarrera pertsonalak, adinaren arabera, zergen ondoren, 2014. urtea.

	Interesdunaren adina, 3011.zk. ikerlana						3017. ikerlana
	18-24	25-34	35-44	45-54	55-64	65 eta gehiago	65 eta gehiago
Ez du inolako diru-sarrerarik	55,1	21,5	15,6	15,3	14,2	10,7	13,3
300 euro edo gutxiago	4,0	4,9	2,5	2,8	2,6	1,0	1,8
301-600 euro	7,6	10,8	9,9	14,9	13,3	17,5	17,0
601-900 euro	7,1	14,6	11,9	9,8	11,8	23,4	20,7
901-1.200 euro	3,6	15,7	17,5	14,2	12,1	11,1	11,4
1.201-1.800 euro	2,7	12,2	15,8	12,1	10,4	7,0	7,0
1.801-2.400 euro	0,9	4,2	4,3	6,0	4,9	3,5	2,9
2.401-3.000 euro	0,0	0,4	1,6	1,6	2,3	0,8	0,2
3.001-4.500 euro	0,0	0,0	0,8	1,2	0,6	0,2	0,0
4.501-6.000 euro	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0
6.000 euro baino gehiago	0,4	0,0	0,0	0,0	0,3	0,0	0,2
EE	18,7	15,7	20,0	22,1	27,5	24,8	25,4
(K)	225,0	452,0	514,0	430,0	346,0	513,0	511,0
BATEZ BESTEKO HAZTATUA	202,0	604,0	716,1	671,7	617,2	556,6	514,8

Iturria: M.A. Duránek egina, CISen, 3011. zk. ikerlanaren (2014ko urtarrila) eta 3017. zk. ikerlanaren (2014ko martxoa) datuetan oinarrituta.

⁴⁹ INE, Biztanleriaren zifrak (2013/06/01)

IV.1.1-3 grafikoa
65 urtetik gorakoen diru-sarrera pertsonalak, zergen ondoren. 2014.



Iturria: M.A. Duranek egina, CISen eta 3011. zk. ikerlanaren (2014ko urtarrila) datuetan oinarrituta.


IV.1.2. Adineko gizonezkoen eta emakumezkoen arteko errenta-desberdintasuna

Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko errenta-desberdintasunak handiak dira bizitzako etapa guztietan, baina adin-tarte batzuetan are handiagoak dira. Batez beste, Euskadiko emakumeen errenta gizonen errentaren % 57 da, eta hirurogeita bost urtetik hirurogeita bederatzira bitartekoan taldean, % 39 baino ez. Lan-merkatuan erabat parte hartu ez izanaren ondorioak gogor nabaritzen dira lan egin ondorengo garaia hasten denetik aurrera (hirurogeita bost urte betetzen direnetik), orduan nabarmena baita gizonek ordaindutakoaren arabera pentsioen babesaren dutela (21.714 euro batez beste, transferentzia gisa), eta emakumeek, berriz, askoz neurri txikiagoan (7.558 euro batez beste). Higigarriaren kapitalaren errentek (plan eta funts pribatuak, gordailuek) gizonei ematen dieten babesaren emakumeei ematen dietenaren bikoitza da ia (4.354 eta 2.471 euro urtean, hurrenez hurren). Higiezinaren kapitalaren errenten kasuan, itxuraz emakumeen aldekoa da proportzioa, baina zenbatzeko moduak eragindako okerreko efektua da hori, okupatutako etxebizitzaren balioaren eta titularren kopuruaren arabera lortutako fikziozko errentak baitira. Emakumeak beren ezkontideak baino luzeago bizi izan ohi direnez gero, lehen ezkontidearekin batera zuten fikziozko errenta osoa esleitzen zaie emakumeei, etekin errealean erantsirik ematen ez badie ere.

Gizonen errenta emakumeena baino handiagoa da adin-talde guztietan. Gizonen errentak beti behera egiten du lan egin ondorengo garaian gora egin ahala. Emakumeenak, berriz, gora egiten du zertxobait hirurogeita bost urteko adinetik aurrera, baina ez da datu erreala, estatistikoa baizik, alargunen ehuneko handiaren ondoriozkoa.

IV.1.2-1 grafikoa

Adinekoen batez besteko errenta pertsonala



Iturria: M.A. Duránek egina, EUSTATen datuetan oinarrituta. Errenta pertsonalaren eta familiarren estatistika, 2011.

IV.1.2-1 taula

Familiak, errenta familiarren estratuaren eta hartzaile nagusiaren sexuaren arabera (%). 2011

	Euskal Autonomia Erkidegoa		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	100,00	100,00	100,00
21.000 baino gutxiago	28,64	20,22	43,18
21.000-102.000	66,26	73,84	53,16
102.000 baino gehiago	5,11	5,93	3,69

Iturria: M.A. Duránek egina, EUSTATen datuetan oinarrituta. Errenta pertsonalaren eta familiarren estatistika.

Euskadin, okupazio-talderik ugariena erretiratuena da adinekoen artean. Hala ere, adineko guztiak ez dira erretiratuak, eta erretiratu guztiak ez dira adinekoak. Erretiratuta dauden emakumeen errenta txikien ondorioz, erretiratu guztizko batez besteko errenta batez besteko orokorra baino % 4 txikiagoa da. Gizon erretiratuaren errenta (24.333 euro, hots, 1.738 euroko hamalau ordainsari) beste talde batzuetako gizonena baino handiagoa da (langabeena baino handiagoa, adibidez). Emakume erretiratuaren errenta, berriz, gizon erretiratuaren erdia baino gehixeago da (% 55): 13.296 euro urtean, hau da, 950 euroko hamalau ordainsari. Desberdintasun-egoera hori Europako batez bestekoa baino handiagoa da, Europan % 39 txikiagoak baitira emakumeen errentak (Bettio, 2013)⁵⁰. Hala ere, emakume erretiratuaren errenta etxeko lanak egiten dituzten emakumeena (hau da, adineko emakume askorena) baino askoz handiagoa da. Etxeko lanetan diharduten emakumeen batez besteko errenta 5.230 euro da urtean (hau da, 373 euroko hamalau ordainsari). Errenta maila horrekin, pobrezia eta gizarte-bazterkeria bermatuta dago beste senide batzuk adineko horien oinarrizko gastuen kargu egiten ez badira. Enplegurik ez izatearen eta bizitza-zikloan kotizatu ez izanaren ondorioz, adinekoa izatean ez da baliabide nahikorik izaten (transferentzia txikiak, izatekotan). Jabetza partekatua eta pentsio-funts edo pentsio-plan pribatuek arindu egiten

⁵⁰ Bettio, F. et. al. *The gender gap in pensions in the EU*. Luxenburgo, Publications Office of the European Union, 2013.

dituzte, neurri batean, lan egin ondorengo errenten desberdintasunak, baina ez dira nahikoak horiek konpentsatzeko. Horren ondorioz, beren urte aktiboak familia zaintzen eman zituzten emakumeetako asko pobrezia-egoera ertain edo larrian geratzen dira adinekoak izatean.

IV.1.2-2 taula

Batez besteko errenta pertsonala sexuaren, jarduerarekiko erlazioaren eta errenta motaren arabera (eurotan). 2009

	Guztizko errenta	Lanaren errenta	Higigarrien kapitalaren errenta	Higiezinen kapitalaren errenta	Jarduera-errenta	Transferentziak	Errenta erabilgarria
Guztira	19.631	12.290	1.679	320	901	4.441	16.808
Erretiratuak eta pentsiodunak	18.924	1.097	3.134	588	218	13.888	17.328
Etxeko lanak	1.711	811	278	45	52	526	1.594
	11.565	587	2.023	355	70	8.529	10.718
Gizonak							
Erretiratuak eta pentsiodunak	15.075	10.602	765	111	460	3.137	13.186
Etxeko lanak	1.732	783	293	34	51	571	1.613
	14.820	760	2.189	298	85	11.489	13.703
Emakumeak							
Erretiratuak eta pentsiodunak	9.749	6.653	679	151	321	1.945	8.680
Ikasleak	13.296	414	2.685	626	139	9.431	12.398
Etxeko lanak	1.692	835	264	55	53	485	1.577

Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiarren estatistika.

Adinekoen diru-sarreraren jatorria pentsioak dira funtsean. IMSERSOren Adinekoei buruzko Inkestaren arabera, gizonen % 98ren eta emakumeen % 66ren diru-sarrera nagusiak pentsio propioak dira. Ezkontidearen pentsioa ez da baztergarria gizonentzat (% 20k azpimarratu du), eta oso garrantzitsua da emakumeentzat (% 48k azpimarratu du). Gizonek eta emakumeek antzeko proportzioan azpimarratu dute aurrezkiek diru-sarreretan duten garrantzia (% 10ek eta % 12k, hurrenez hurren). Edonola ere, adinekoen ia ehuneko hogeita hamarrek inkestan kontuan hartu gabeko beste diru-sarrera batzuk aipatu ditu. Seguruenik, gehienak aurrezki gisa identifikatzen ez dituzten pentsio-planak dira. Hala ere, zenbait kasutan askotariko diru-sarrera aldakorrak dira, diruz ez ezik beste era batzuetan ere jasotzen direnak (etxebizitzaren doako lagapena, adibidez). Bestalde, laguntza edo diru-laguntza publikoak eta familia-jatorriko diru-laguntzak ez dira askotan aipatzen diru-sarrera nagusien artean, eta deigarri samarra dela esan daiteke. Beste era batean esanda, jenerotan edo espezetan jasotako familia-laguntzak ez dira diru-sarreratzat hartzen, familia-kontsumo partekatua bidez jasotzen direnean batez ere. Era berean, pentsioak alde aurreko ekarpen pertsonalen itzulketa baino zerbait gehiago dira, baina asko ez dira horretaz jabetzen.

IV.1.2-3 taula

Adinekoen hileko diru-sarrerak (Zer tartetan kokatuko zenuke gaur egun dituzun hileko guztizko diru-sarrera garbien maila?)

	SEXUA		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
300 euro (50.000 pta.) baino gutxiako	%0,7	%0,1	%0,3
300-600 euro (50.000 - 100.000 pta.)	%31,2	%34,2	%32,9
600- 900 euro (100.000 - 150.000 pta.)	%33,8	%11,9	%21,2
900- 1.200 euro (150.000 - 200.000 pta.)	%11,6	%6,0	%8,3
Más de 1.200 euro (200.000 pta.) baino gehiago	%11,0	%4,8	%7,4
Ez du diru-sarrerarik*	%0,1	%30,0	%17,4
ED/EE	%11,7	%13,0	%12,4
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Iturria: Adinekoen buruzko Inkesta, IMSERSO 2010.

Inkesta horretan gehien aipatu zen tartea 300 eurotik 600era bitartekoa izan zen (% 33), eta, ondoren, 600 eurotik 900era bitartekoa (% 21). Tarterik baxuenean izan ezik, diru-sarreraren inguruko egoera guztiz desberdina da gizonentzat eta emakumeentzat (IV.1.2-3 taula). Bereziki garrantzitsua da diru-sarrera propiorik ez duten emakumeen proportzioa (% 30; gizonena, berriz, % 0,1). Hori dela eta, emakume horiek familiako beste kide batzuen edo laguntza-zerbitzu publikoen mende geratzen dira erabat. Gizonek ahalmen handiagoa dute familiako beste kide batzuei ekonomikoki laguntzeko. Zehazki, gizonen % 25ek eta emakumeen % 15ek laguntzen diete familiako beste kide batzuei (seme-alabei, ia beti).

Erretiroa hartzeko adinera iristean, adineko askori murriztu egiten zaizkie diru-sarrerak, eta aurrekontua egokitu behar dute. Laurdenek baino gehiagok lehen zailtasunik gabe eskuratzen zituzten ondasun edo zerbitzu batzuei uko egin behar diete, eta gauza bera gertatzen da arropa-gastuetan (emakumeen kasuan batez ere). Gainera, % 15ek elikadura-gastuak murriztu behar izan dituzte. Hala ere, oso adineko gutxi atzeratu behar izan dituzte ordainketa-letrak edo hartutako beste konpromiso batzuk (% 3k), konpromiso gutxi hartu izanagatik edota horiek betetzeko diziplinagatik. Era berean, oso gutxi (% 2k) eskatu diete dirua senideei, eta harro daude horretaz.

Jabetzako etxebizitza nagusi bada ere, ordaintzeko ahalegin ekonomikoa bizitza-zikloaren zatirik handienean egin behar da askotan. 2006. urtean, familien % 37'5ek diru-sarreraren % 30 baino gehiago erabiltzen zuen etxebizitza ordaintzeko, eta 2010. urtean, berriz, proportzioa % 41era iritsi zen (Gizarte Premien Inkesta, 2006 eta 2010). Proportzio hori askoz handiagoa izan zen alokairuan bizi zirenen (% 79 2010. urtean) eta zati batean ordainduta zuten jabetzako etxebizitza batean bizi zirenen kasuan (% 64) etxebizitza guztiz ordainduta zutenen kasuan baino (% 22). Nolanahi ere, azken zifra hori deigarria da, "beste gastu batzuk" (jabetzaren administrazioa, zergak, zerbitzu komunak eta abar) garrantzitsuak direla adierazten baitu horrek (baita etxebizitza ordaintzen amaitu ondoren ere). Etxebizitzaren jabetzaren aldeko joera Euskadin bezain nabarmena ez den gizarteetan, diru-sarreretatik alokairua ordaintzeko erabiltzen den proportzioa askoz txikiagoa da, Euskadin ez bezala diru-sarrera "normalak" dituen biztanleria-sektore bat baita. Gabezia-egoeran zeuden etxeen kasuan, etxebizitzari lotutako gastuak ordaintzeko diru-sarreraren % 30 baino gehiago erabiltzen zutenak (edukitza mota edozein izanik ere) % 85 baino gehiago izan ziren 2010. urtean.

IV.1.3. Sarrera estatistikoaren fikziozko eragin aberasgarria

Etxebizitzaren jabetza, aurrezpen erreala ez ezik, Barne Produktu Gordinerako kontabilitate-ekarpena ere bada. Izan ere, nazioarteko akordioei jarraiki, jabetzako etxebizitzek errenta ikusezinak sortzen dituzte, eta halakotzat egotzi eta BPGan islatu behar dira. Eustaten arabera (Familia Gastuaren Estatistika, 2012), egotzitako alokairuak alokairu errealak baino hamar aldiz handiagoak dira (3.460'7 eta 353,1 euro urtean pertsona bakoitzeko, hurrenez hurren)⁵¹.

Egotzitako alokairuek estatistika-aberastasuneko fikziozko eragina dute biztanleria osoan, eta adinekoengan bereziki. Egotzitako alokairua duen pertsona bakoitzeko batez besteko errenta % 17 handiagoa da adinekoengan biztanleria osoan baino. (INE, Bizi Baldintzen Inkesta, 2012).

IV.1.3-1 taula

Urteko batez besteko errenta garbia (elkarrizketaren aurreko urtean) pertsona eta kontsumo-unitate bakoitzeko, adinaren eta sexuaren arabera, egotzitako alokairua barnean hartzen den ala ez kontuan hartuta. (eurotan)

	Pertsonako batez besteko errenta	Kontsumo-unitateko batez besteko errenta	Pertsonako batez besteko errenta (egotzitako alokairuarekin)	Kontsumo-unitateko batez besteko errenta (egotzitako alokairuarekin)
Bi sexuak				
Guztira	9.326	13.885	10.860	16.036
16 urte baino gutxiago	6.984	12.651	7.857	14.220
16-29 urte	8.430	12.855	9.546	14.522
30-44 urte	9.858	14.745	11.124	16.577
45-64 urte	10.278	14.834	12.038	17.258
65 urte eta gehiago	10.127	13.259	12.730	16.473
Guztizkoaren % 65 eta +	108,6	95,5	117,2	102,7
Gizonak				
Guztira	9.391	14.005	10.865	16.094
16 urte baino gutxiago	6.981	12.674	7.842	14.224
16-29 urte	8.532	12.946	9.673	14.635
30-44 urte	10.160	14.891	11.471	16.733
45-64 urte	10.133	14.694	11.834	17.048
65 urte eta gehiago	10.403	13.896	12.831	17.005
Guztizkoaren % 65 eta +	110,8	99,2	118,1	105,7
Emakumeak				
Guztira	9.264	13.768	10.854	15.980
16 urte baino gutxiago	6.987	12.627	7.873	14.217
16-29 urte	8.321	12.760	9.413	14.403
30-44 urte	9.547	14.595	10.767	16.415
45-64 urte	10.420	14.971	12.237	17.464
65 urte eta gehiago	9.917	12.774	12.654	16.069
Guztizkoaren % 65 eta +	107,0	92,8	116,6	100,6

Iturria: INE, Bizi Baldintzen Inkesta, 2012

⁵¹ Behin-behineko datuak, Eustat, 2014ko apirila.

IV.2. ADINEKOEN KONTSUMOA. HANDITZEN ARI DEN MERKATU-SEGMENTU AHALTSUA.

IV.2.1 Adinekoen gastu-bolumena

Gastuari eta kontsumoari buruzko informazio estatistikoaren iturri nagusiek zuzeneko kontsumoa aipatzen dute, eta gehienek ez dituzte bereizten etxeetako kontsumoa eta etxeke kideen kontsumo indibidualizatua. Autonomia Erkidegoak bereizten dituen Familia Aurrekontuen Inkestan, adinaren aldagaia sostengatzaile nagusiari dagokio. Euskadiko Kontu Ekonomikoei dagokienez, ez dute adin-aldagaia sartu. INEren Familia Aurrekontuen Inkestaren arabera, 2012. urtean Euskadiko etxe guztiek egindako gastua 29.416.240 mila euro izan zen. Eta Euskadiko Kontu Ekonomikoen arabera, urte horretan bertan gastua 41.106.037 mila euro izan zen, baina zifra horretan irabazi-asmorik gabeko erakundeek egindako gastuak zeuden sartuta, eta ezin dira besterik gabe konparatu.

IV.2-1 taula

Gastu osoa, batez besteko gastuak eta pertsona bakoitzeko batez besteko gastuaren batez bestekoarekiko indizea, sostengatzaile nagusiaren adinaren eta sexuaren arabera. 2011ko errolda

Unitateak: Gastu osoa: milaka eurotan. Batez besteko gastuak: eurotan.

	Gastu osoa	Etxe bakoitzeko batez besteko gastua	Pertsona bakoitzeko batez besteko gastua	Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuaren batez bestekoarekiko indizea	Kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko gastua
Guztira	509.153.698,45	28.142,73	10.991,02	100,00	16.460,40
16-29 urteko pertsonak	18.784.314,26	20.938,95	9.702,90	88,28	13.784,33
30-44 urteko pertsonak	155.846.079,34	27.858,93	10.005,00	91,03	16.060,31
45-64 urteko pertsonak	217.253.851,89	32.590,98	11.282,20	102,65	17.178,37
65 urteko eta gehiagoko pertsonak	117.269.452,96	23.764,97	12.272,54	111,66	16.245,53
Gizonak, guztira	370.112.342,24	29.821,31	10.808,24	98,34	16.562,40
16-29 urteko gizonak	11.604.016,16	21.428,25	9.997,38	90,96	14.155,34
30-44 urteko gizonak	112.602.747,57	28.612,56	9.915,61	90,22	16.141,35
45-64 urteko gizonak	165.318.188,38	33.900,68	11.086,90	100,87	17.162,79
65 urteko eta gehiagoko gizonak	80.587.390,13	26.357,30	11.824,01	107,58	16.384,96
Emakumeak, guztira	139.041.356,21	24.475,51	11.509,09	104,71	16.194,91
16-29 urteko emakumeak	7.180.298,10	20.193,74	9.262,00	84,27	13.224,18
30-44 urteko emakumeak	43.243.331,76	26.070,86	10.245,52	93,22	15.853,06
45-64 urteko emakumeak	51.935.663,51	29.021,99	11.952,43	108,75	17.228,15
65 urteko eta gehiagoko emakumeak	36.682.062,83	19.542,38	13.388,29	121,81	15.947,40

Iturria: INE, Familia Aurrekontuen Inkesta, 2012. 2006ko oinarria.

Adinekoen zuzeneko kontsumoa adinekoek sostengatutako etxeetan egiten da nagusiki, baina adineko batzuek gazteagoen etxeetan kontsumitzen dute, eta gazte batzuek, halaber, adinekoen etxeetan.

Adinekoen etheen zuzeneko kontsumoa zenbatekoa izan den zehaztasun handiz jakin daiteke INEren Familia Aurrekontuen Inkestaren eta Eustaten Familia Gastuaren Kontu Ekonomikoen bitartez, baina iturri horiek ez dute ematen adinekoen premiei erantzuteko zerbitzu publiko soziosanitario edo asistentziales egindako gastuaren berri, eta, beraz, gastu erreala adierazitakoa baino handiagoa izan da.

Gastuaren zenbatekoa diru-sarreraren zenbatekoarekin paralelo doa, eta gastu osoaren adierazleak ez dira etxearen zirkunstantziak edo sostengatzaile nagusiaren generoa haztatzen dituzten adierazleak bezain argigarriak. Adinekoen etxeetan gainerakoetan baino pertsona gutxiago bizi ohi direnez gero, etxe bakoitzeko gastua batez bestekoa baino txikiagoa da, baina pertsona bakoitzeko gastua talde guztien arteko handiena da (batez bestekoa baino % 11 handiagoa). Emakumeek sostengatutako etxeetan, adierazleen arteko aldea oso handia da, etxe horietako asko pertsona bakarrekoak baitira: 65 urtetik gorako emakumeek sostengatutako etxe bakoitzeko gastua gizarte-talde guztien arteko txikiena bada ere (19.524 euro urtean), pertsona bakoitzeko batez besteko gastua handiena da (batez bestekoa baino % 21 handiagoa). Etxe horien itxurazko aberastasuna fikziozko samarra da. Izan ere, etxea mantentzeko gastu finkoak egonkorrak izan ohi dira sostengatzaile nagusia (gizonezkoa) hiltzen denean, eta, gainera, talde horren batez besteko adin altua dela eta, askotan hirugarrenen kontura utzi behar dituzte bizitzeko beharrezkoak diren eguneroko jardueretako batzuk.

IV.2.2. Banaketa funtzionala

Adinekoen eta erretiratuen kontsumoaren banaketa funtzionala ez da beste gizarte-talde batzuenaren guztiz desberdina. Nolanahi ere, landunak baino gutxiago eta langabeak eta beste inaktibo batzuk baino gehiago dira. Proporzionalki, etheen batez bestekoa baino gutxiago gastatzen dute adinekoek honako aurrekontu-atal hauetan: irakaskuntza, garraioa, hotelak eta jatetxeak, jantziak, edari alkoholduak eta tabakoa. Etxebizitza-ekipamenduan, berriz, gehiago gastatzen dute diru-sarrerekiko proportzioan, baina, neurri batean, etxeko lanei lotutako zerbitzuen ondorioz gertatu da hori, eta agian egokiagoa izango litzateke zerbitzu horiek zerbitzu pertsonal gisa sailkatzea, etxeko mantentzeari eta kontserbazioari lotutako zerbitzu gisa sailkatu ordez (Familia Aurrekontuen Inkesta, 2011). Halaber, gehiago gastatzen dute etxebizitzan, urean, elektrizitatean, elikagaietan eta osasunean. Nolanahi ere, azken kasu horretan, osasun-zerbitzu gehienak Gizarte Segurantzatik eta Administrazio Publikoaren beste erakunde batzuetatik lortzen dituzte, eta ez dute zuzeneko ordainketarik egin behar horregatik.

IV.2.2-1 taula

Gastu osoaren egitura, gastu-taldearen arabera eta sostengatzailer nagusiaren jardueraren egoera kontuan hartuta.

Unitateak: ehunekotan

Guztira	1.taldea. Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	2.taldea. Edari alkoholdunak tabakoa eta narkotikoak	3.taldea. Jantziak eta oinetakoak	4.taldea. Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregal batzuk	5.taldea. Altzariak, etxeko ekipamendua eta etxea kontserbatzeko gastu arruntak	7.taldea. Garratxoak	8.taldea. Komunikazioak	9.taldea. Aisia, ikusgizunak eta kultura	10.taldea. Irakaskuntza	11.taldea. Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	12.taldea. Beste ondasun eta zerbitzu batzuk
Guztira	14,71	2,06	4,99	32,30	4,41	11,80	3,06	5,94	1,18	8,74	7,64
Landunak	13,50	2,09	5,54	29,05	4,22	13,51	3,20	6,58	1,65	10,21	7,62
Langabeak	16,63	3,03	4,41	35,46	3,21	12,34	3,61	4,67	0,74	6,63	6,59
Erretiratuak	16,89	1,76	3,88	37,78	4,98	8,39	2,58	5,08	0,26	6,34	7,83
Beste inaktibo batzuk (ikaskoleak, etxeko lanetan dihardutenak eta abar)	16,80	1,75	4,20	42,44	5,63	5,97	2,98	3,64	0,33	4,64	8,40
Ez dago daturik

Iturria: Familia Aurrekontuen Inkesta, 2011. 2006ko oinarria.

IV.2.2-2 taula

Etheen gastu osoaren egitura, gastu-taldearen arabera. Euskadi eta Espainia, 2011ko errolda.

Unitateak: ehunekotan

	Guztira	1. taldea. Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	2. taldea. Edari alkoholdunak tabakoa eta narkotikoak	3. taldea. jantziak eta oinetakoak	4. taldea. Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk	5. taldea. altzariak, etxeko ekipamendua eta etxea kontserbatzeko gastu arruntak
Espainia, guztira	100,00	14,71	2,06	4,99	32,30	4,41
Euskadi	100,00	13,69	1,80	4,90	34,79	4,53
Euskadi (Espainiarekiko %)	100,00	93,07	87,38	98,20	107,71	102,72

	6. taldea. Osasuna	7. taldea. Garraioak	8. taldea. Komunikazioak	9. taldea. Aisia, ikuskizunak eta kultura	10. taldea. Irakaskuntza	11. taldea. Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	12. taldea. Beste ondasun eta zerbitzu batzuk
Espainia, guztira	3,19	11,80	3,06	5,94	1,18	8,74	7,64
Euskadi	2,85	9,96	2,81	5,95	1,39	10,01	7,32
Euskadi (Espainiarekiko %)	89,34	84,41	91,83	100,17	117,80	114,53	95,81

Iturria: M.A. Duránek egina, INEren datuetan oinarrituta. Familia Aurrekontuen Inkesta, 2011. 2006ko oinarria.

Etheen kontsumoaren egitura oso antzekoa da Euskadin eta Espainian, 2011ko Familia Aurrekontuen Inkestak agerian utzi duenez. Agertzen diren desberdintasun txikiak Euskadiko etxeek hotel eta jatetxeetan, etxebizitzan eta ur- eta elektrizitate-zerbitzuetan gehiago gastatzen dutelako gertatzen dira. Aldiz, gutxiago gastatzen dute garraioan (portzentajezko ia bi puntu gutxiago) eta familiak zuzenean ordaindutako osasun-arretan.

IV.2.2-3 taula

Adinekoen gastua (batez beste), sexuaren eta adinaren arabera (eurotan)

	Erantzuna %	SEXUA			ADINA				Guztira
		Guztira	Gizonak	Emakumeak	65 - 69 urte	70 - 74 urte	75 - 79 urte	80 urte eta gehiago	
Etxebizitza	%65,7	105,09	104,36	105,66	108,38	100,79	102,05	109,18	105,09
Elikagaiak, jantziak eta oinetakoak	%65,7	234,79	248,34	224,23	256,50	240,86	228,23	213,81	234,79
Sendagaiak	%65,5	20,18	20,72	19,75	20,67	21,95	19,66	18,41	20,18
Aisia, aisialdia eta kultura-jarduerak	%65,5	16,02	14,17	17,47	18,99	12,71	12,37	20,07	16,02
Senideentzako laguntza ekonomikoa	%65,5	27,56	32,67	23,55	31,79	25,91	31,16	21,68	27,56
Telefonoa	%65,5	38,45	39,22	37,84	38,63	37,73	39,19	38,28	38,45
Etxeko lanetarako eta/edo zainketarako kanpoko laguntza	%65,8	58,88	44,96	69,77	8,40	16,22	64,49	144,04	58,88

Iturria: IMSERSO, Adinekoen buruzko Inkesta, 2010.

Gastu nagusia elikagaiei, jantziei eta oinetakoei lotutakoa da. Horren atzetik, etxebizitzari lotutako gastua dago. Sendagaiei lotutako gastua egonkorra baina fikziozkoa da, adinekoek zuzenean ordaindutakoari baino ez baitagokio. Kontuan hartu behar da adinekoen ia farmazia-gastu osoa Gizarte Segurantzari transferituta dagoela, eta areagotu egiten dela lan egin ondorengo etapan, adinekoek patologiak jasaten dituzten eta sendagaiak hartzen dituzten heinean.

Beste senide batzuei laguntza ekonomikoa ematea ohikoa da adinekoengan, seme-alabei batez ere (% 25ek ematen du laguntza). Hala ere, era desberdinean banatuta dago laguntza, eta zenbaitetan zaila izaten da errenta-transferentziak (hileko laguntzak edo noizbehinkako laguntzak), jenerotan edo espezetan emandako laguntzak (ostatua, bazkariak eta abar), fakturen edo oparien ordainketa bakanak eta bizitzan egindako ondare-transferentziak bereiztea. Jenerotan jasotako transferentzia mota batzuek ez dakarte jabetzaren galerarik, ondasunaren erabilera partekatua eta erabileraren areagotzea baizik (etxebizitza, automobila eta abar). IMSERSOren inkestak ez ditu ondare-transferentziak aipatzen, eta, seguruenik, elkarrizketa egin dutenek ez dituzte kontuan hartu jenerotako laguntzak. Hala ere, kontzeptu horri lotutako gastuaren zenbatekoa aisiari eta sendagaiei lotutako gastuena baino handiagoa da, eta etxeko zereginak egiteko edo zainketetarako kanpoko laguntzari lotutako gastuaren ia erdia. Bizitzan egindako transferentziak areagotu egin dira krisi ekonomikoarekin, eta, zenbait kasutan, pentsio-funtsak garaia baino lehen atera izanaren edo adinekoen jabetzak saldu izanaren ondorioz egin dira.

IMSERSOk (2010) egindako Adinekoei buruzko Inkestaren arabera, zazpi partida nagusitan egindako gastuak hileko 500 euroko gastua dakar batez beste hirurogeita bost urtetik gorako pertsonentzat. Erantzun maila % 65 baino ez da izan, zenbait kasutan adineko askok gastu hori zenbatekoa den ez zekitelako (pertsonalki egiten ez dutelako), eta beste batzuetan informazioa eman nahi ez zutelako (hori ohikoa izaten da diru-sarrerei eta gastuei buruzko azterlanetan eta inkesta guztietan, eta beste adin-talde batzuetan ere gertatzen da). Gainera, heterogeneotasun handia dago, eta ohiko desbideratzeak ugariak direnez gero, interesa kentzen diete batez besteko zifrei. Nolanahi ere, inkestaren emaitzarik garrantzitsuenak erantsitako taulan jasota daude.

65 urtetik 80ra bitarteko pertsonen gastu maila % 20 handiagoa izan da, ordaindutako laguntza-proporzio handiagoa behar baitute. Etxebizitzari, aisiari eta telefonoari lotutako gastua oso egonkorra da. Aisiari eta kultura-jarduerei lotutako kontsumoa oso txikia izan da (14 euro hilean), eta ia jarduera guztiak doakoak izan direla esan daiteke. Telefono-kontsumoa handia izan da proportzioan (aisiari edo kultura-jarduerei lotutako kontsumoaren bikoitza baino handiagoa), harremanen eta zainketen familia-sarea aktibo edukitzeko tresna baita. Elikagaien kontsumoa % 17 txikiagoa izan da, etxeko kideen kopurua ere txikiagoa baita. Nabarmen handiagoa izan den gastua kanpoko laguntzari lotutakoa izan da (8 euro batez beste, eta 144 euro adinekoen kasuan). Kontzeptu horri dagokionez, heterogeneotasuna oso handia izan da. Izan ere, adineko gehienek ez dute ordaindutako kanpoko laguntzarik izan, baina nahikoa da lanaldi osoko enplegatuen proportzio txiki bat gastuaren batez bestekoan eragin handia izateko. Sarritan gertatzen da, halaber, adinekoek gastu hori ez zenbatzea beste senide batzuek (seme-alabek, nagusiki) ordaintzen dutenean.

Adinekoek gutxiago gastatzen dute hezkuntzan, garraioan eta lotutako aseguruetan, interneten eta mugikorretan, erkidego-gastuetan (gehienak jabeak dira), etxebizitzaren mantentzean eta alokairuetan. Telefono finkoan, etxearen mantentzean, gaixotasun-aseguruetan eta ehorzketa-aseguruetan, berriz, gehiago gastatzen dute.

IV.2.3-1 taula

Gastu osoa, batez besteko gastuak eta pertsona bakoitzeko batez besteko gastuaren batez bestekoarekiko indizea, sostengatzaile nagusiaren adinaren eta Autonomia Erkidegoaren arabera.

Unitateak: Gastu osoa: milaka eurotan. Batez besteko gastuak: eurotan

	Gastu osoa	Portzentajezko banaketa	Etxe batez besteko gastua	Euskadi (%), Espainiarekiko	Pertsonako batez besteko gastua
Euskadi					
Guztira	29.416.240,19	100,00	33.161,55	117,83	13.627,38
16 - 44 urte	8.808.661,92	29,94	31.019,67	115,30	12.243,25
45 - 64 urte	12.941.188,73	43,99	38.033,24	116,70	13.897,20
65 urte edo gehiago	7.666.389,55	26,06	29.168,78	122,74	15.093,30
Espainia osoa					
Guztira	509.153.698,45	100,00	28.142,73		10.991,02
16 - 44 urte	174.630.393,60	34,30	26.902,58		9.971,60
45 - 64 urte	217.253.851,89	42,67	32.590,98		11.282,20
65 urte edo gehiago	117.269.452,96	23,03	23.764,97		12.272,54

Iturria: M.A. Duránek egina, INEren datuetan oinarrituta (Familia Aurrekontuen Inkesta). 2006ko oinarria, 2012.

IV.2.3. Adinekoak potentzia kontsumitzailea eta handitzen ari den merkatu-segmentua dira Euskadin

2012. urtean, adinekoak buru zituzten etxeen urteko gastu agregatua 766.389'55 mila euro izan zen Euskadin, hots, etxeen gastu osoaren % 26'6. Etxe horien kontsumo-ahalmena sostengatzaile nagusi gisa 45 urtetik beherako pertsona bat duten etxeen ahalmenaren antzekoa da, eta, beraz, zalantzarik gabe esan daiteke potentzia kontsumitzailea direla merkatu pribatuan. Lehen mailako bezeroak direnez gero, produktoreek eta merkaturatzaileek hurbiletik aztertu behar dituzte adinekoen gastuak eta horien bilakaera. Eragile ekonomiko gisa, ongi antolatu gabeko taldea osatzen dute oraindik, eta, seguruenik, denborarekin neurri handiagoan jabetuko dira duten indarrak eta negoziatzeko ahalmenak. Merkatu-segmentu gisa, eta hain zahartuta ez dagoen biztanleria duten beste Autonomia Erkidego batzuetan gertatuko denaren aitzindari gisa, Euskadi Espainia osoaren aurretik dago (Espainian, kontsumo-segmentu hori etxeen gastu osoaren % 23 da oraindik). Etxe bakoitzeko batez besteko gastua % 17 handiagoa da Euskadin Espainian baino, eta alderik handiena, hain zuzen ere, adinekoen etxeetan agertzen da. Izan ere, batez besteko gastua Espainiako etxeen batez bestekoa baino % 22 handiagoa da (IV.2.3-1 taula).

Adinekoen etxeen sektore horrek Euskadiko ekonomian duen garrantzi ekonomikoaz konturatzeko, azpimarratu beharra dago sektore horren urteko kontsumo-ahalmena Erkidegoko BPGaren % 12 dela (Eustat, Kontu Ekonomikoak, 2012), eta kontsumitzen dutenaren bolumena nekazaritzak eta eraikuntzak batera BPGari egiten dioten ekarpena baino handiagoa eta industria eta energiaren sektore indartsuak BPGari egiten dion ekarpenaren erdia baino gehiago dela.

IV.3. ERRENTA ONDARE BIHURTZEA, ETA GERO LANAREN ONDORENGO ERRENTA. PENTSION-PLANAK ETA ADINEKOEEN FISKALITATEA

Immersoren 2010eko Adinekoei buruzko Inkestaren arabera, adinekoeen % 90en diru-sarreraren iturri nagusia pentsioa da, pribatua zein publikoa.

Pentsio-planak adinekoei bereziki lotutako ondareak dira. Plan indibidualetan zein enpresek edo lantokiek beren langileentzat sustatzen dituztenetan, titularrak 65 urte bete baino lehen egin ohi dira ekarpenak, eta lanaren ondorengo garaian familiaren diru-sarrerak hobetzeko erabiltzen dira. Plan horietan parte hartzen dutenen batez besteko profila honako hau da: gizonezkoa, landuna, 40 urtetik 60ra bitartekoa, eta planean bost mila euroko ondare pilatua duena. Parte-hartzaileen batez besteko ondare pilatua 10.800 euro da⁵². 65 urteko adinera iristeak ez dakar pentsio-planaren erreskate automatikoa. Kobratzeko unea titularrak aukeratzen du, eta, nahi izanez gero, erretiratu ondoren ere pentsio-planerako ekarpenak egiten jarrai dezake, edota kobratzeari uko egin diezaioke, jaraunsleek kobra dezaten.

Erreskatea mota askotakoa izan daiteke, metatutako kapitaletik aldi batean erreskatatu nahi den zenbatekoaren arabera, eta gainerako zatia zer epetan erreskatatu nahi den kontuan hartuta.

Pentsio-planek zeregin ekonomiko garrantzitsua bete dute, bai familian, bai enpresa mailan, bai Administrazio Publikoan. Finantza-sektoreko enpresentzat, oso merkatu erakargarria da, gordailuzaintzako eta urteko kudeaketako komisiogatik. Komisio horiek, aurrezpen-ziklo osoan pilatuta, aurreztutako kapitalaren zati baten baliokideak dira. Erakunde edo plan batzuek, gutxi badira ere, plana harpidetzeagatik eta zenbatekoa itzultzeagatik ere kobratzen dute. Gordailu-komisioak eta kudeaketa-komisioak⁵³ independenteak dira, baina erakunde edo plan batzuek planaren errendimenduari lotutako beste komisio batzuk ere kobratzen dituzte.

Oro har, pentsio-planetan parte hartzen dutenek neurri txikian mugitzen dute kapitala, baina batzuetan beste plan batzuetara aldatzen dira aurrezpen-zikloaren barruan, onura fiskalak galdu gabe. Finantza-erakundeentzat (kudeatzaile eta gordailuzaintzat), planek likidezia merkea eta egonkorra dakarte, eta Estatuko eta nazioarteko ekonomiako beste sektore batzuk finantzatzeko erabil daiteke.

Espanian, Invercoren 2012ko datuen arabera⁵⁴, pentsio-planen kopurua % 4'1 igo zen, eta 86.536 milioi eurora iritsi ziren (zifrarik handiena aktibo horien historian). Urtean pilatutako prestazioen (3.870 milioi euro) eta ekarpenen (3.928 milioi euro) arteko proportzioa % 98'5 izan zen, eta, beraz, 58 milioi euroko ekarpen garbia utzi du horrek (ekarpenen % 1,5). Partaideak zortzi milioi inguru izanik ere, horien kontuen kopurua 10.360.490 da, batzuek plan indibidual edo enplegu-plan bat baino gehiago baitituzte. 2012. urtean, partaideen kopuruak behera egin zuen aurreko urtearekin

⁵² R. Pascual Cortés-ek landutako txostena, "Cinco Días" egunkarian argitaratua (2013/04/29).

⁵³ Ekonomia Ministerioa proiektu bat prestatzen ari da gehieneko kudeaketa-komisioak % 30 murrizteko (% 2tik % 1,5era) eta gordailuzaintza-komisioak antzeko proportziora murrizteko (% 0,5etik % 0,25era), eta 2014ko ekainean onartzea espero da. ING Direct-ek egindako kalkulu batzuen arabera, 30 urteko aldi batean hilean 125 euro pentsio-plan baterako erabiltzen dituen aurreztaile batentzat, % 2,5eko komisio baten eta % 1,25eko komisio baten artean dagoen aldea 21.000 euro izan daiteke aldia amaitzean (urteko batez besteko errentagarritasuna % 6,4 izanik). Mendieta eta Pérez, 2013/11/28, Moreno Mendieta, 2014/03/10.

⁵⁴ Funds People, 2013 urtarrilaren 28a.

alderatuta, baina onuradunen kopuruak gora egin zuen (216.500). Analisten arabera, egoera ekonomikoak eragin du hori. Gaur egun, onuradunen eta kontuen arteko proportzioa % 2,1 da. Pentsio-planak kudeatzen dituzten finantza-talde handien artean, BBVA dugu lehen tokian, kontzeptu horri lotutako 16.834 milioi euroko ondarearekin eta % 6,7ko urteko hedapen-indizearekin, 2012an. Kutxabank hamaseigarrena da pentsio-planari lotutako ondarearik handiena dutenen artean (743 milioi euro), eta % 16'9ko hedapen-indizea izan zuen urte berean.

IV.3-1 taula

PFEZaren aitortpena egin dutenen diru-sarrerak, sexuaren eta pentsioetara egindako ekarpenaren ehunekoaren arabera, 2012.

	Sexua (*)		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Aitorpenen kopurua	19.467.730	11.089.370	8.378.360
Aitortutako seme-alaben kopuru osoa	11.848.387	6.763.204	5.085.183
Seme-alabak sartuta egindako aitorpenen kopurua	7.479.837	4.203.036	3.276.801
Aitorpen bakoitzeko seme-alaben batez besteko kopurua	1,58	1,61	1,55
Aitorpenaren titularren kopurua	23.160.483	14.307.155	8.853.328
Lanaren batez besteko errendimendua	19.262	21.757	15.928
Higikorren kapitalaren batez besteko errendimendua	1.417	1.466	1.353
Jarduera ekonomikoei lotu gabeko ondasun higiezinak	4.498	4.218	4.813
Jarduera ekonomikoen batez besteko errendimendua	7.733	8.416	6.422
Errenten errendimendu eta egozpenen batez besteko saldo garbia	19.249	21.730	15.927
Gutxieneko pertsonalaren batez bestekoa (1)	5.466	5.502	5.419
Ondorengo bakoitzeko gutxienekoaren batez bestekoa	2.498	2.668	2.279
Gutxieneko pertsonalaren eta familiarraren batez bestekoa	6.844	6.979	6.665
Lan-zirkunstantzien, pertsonalen eta familiarren ondoriozko murrizketaren batez bestekoa	274	311	225
Ohiko etxebizitzagatiko batez besteko kenkaria	732	736	725
Pentsio-planetarako batez besteko ekarpena	1.402	1.493	1.259
Pentsioetarako ekarpena batez besteko saldo garbiarekiko		6,9	7,5

Iturria: M.A. Duránek egina, Zerga Agentziaren datuetan oinarrituta. Aitortzaileen Estatistika, 2013.

Zerga Agentziaren arabera, PFEZaren aitortpena egiten dutenek beren errendimendu garbien % 7,3ko ekarpena egiten dute pentsio-planetarako (gizonek % 6'9, eta emakumeek % 7'5)⁵⁵.

Familiarentzat, pentsio-planak garrantzitsuak dira, pilatzeko garaian zein gastatzeko garaian. Pilatzeko garaian, pentsio-plan indibidualak erabaki pertsonalen ondorioak dira, eta, erretiro-garairako aurreikuspenez gain, honako hauek hartzen dira kontuan: beste kontingentzia batzuen arriskua (lan-ezintasun osoa eta iraunkorra lanbidean jarduteko, partaidearen edo onuradunaren heriotza, mendetasun larria edo mendetasun handia), eta salbuespen gisa planaren likidezia lortzeko kasu batzuk (iraupen luzeko langabezia, gaixotasun larria eta abar). Gizarte Segurantzian kotizatzen duten bi pertsonatik batek pentsio-plan pribatu bat ordaintzen du aldi berean (Pascual, R, 2013).

⁵⁵ Zerga Agentzia. PFZaren Aitortzaileen Estatistika, 2013.

Erakunde enplegatzaileek egindako ekarpenak epe luzean sortzeko ordainsaritzat hartzen dira. Normalean, langileek ez dituzte pertsonalki negoziatzen, ordezkarien bitartez baizik, eta ez dituzte diru-sarreraren partetzat hartzen.

Gastuaren edo desaurrezkiaren garaian (normalean erretiroaren ondorengo etapan izaten da), pentsio-planek pentsiodunen diru-sarrerak hobetzen dituzte, eta, krisialdian batez ere, larrialdi ekonomikoko familia-egoerei aurre egiteko edo egoera horiek arintzeko aukera ematen dute (egoera horiek pentsiodunarenak zein hurbileko senide batenak izan daitezke). Hala ere, eta mundu osoan, adinekoek ez dute joera handirik aurreztutakoa gastatzeko; aitzitik, gastuak diru-sarreraren murrizketara egokitu ohi dituzte. IMSERSOren 2010eko Adinekoei buruzko Inkestaren arabera, adinekoen % 10ek baino ez ditu aurrezkiak aipatzen diru-sarreraren ohiko iturri gisa. Dena dela, aurrezkiak higiezin baten alokairua edo gordailu baten interesak bezalako diru-sarreraren ohiko iturri ez izateak ez du esan nahi adinekoek aurreztutako ondarea kontsumitzen ez dutenik, aurreko epigrafeetan ikusi dugunez. Aurreztutakoa erabiltzeko zeharkako modu bat aktibo higiezinak eta ibilgailuak deskapitalizatzea da (mantentze baxua, ez berritzea).

Pentsio-planen fiskalitateak funtsezko bi garai ditu: planera egokitzeko garaia eta erreskatearen garaia. Pentsio-planak bultzatzeko, Administrazio Publikoak onura fiskal handiak eman zituen, 2006. urtera arte, ekarpenaren unean. Zehazki, ekarpena zerga-oinarritik kendu zuen, betiere gehieneko muga jakin batzuen barruan. Hau da, irabazi ez balira bezala tratatu zituen ekarpen gisa emandako zenbatekoak.

2007. urtetik aurrera, abantaila fiskal txikiagoak dira, baina oraindik ere akargarriak dira biztanle-sektore handientzat, aurrezpen fiskalari lotutako arrazoiengatik eta, batez ere, baliabideak etorkizunerako gordetzeko autodiziplina errazten dutelako. Errentarik handieneko tartean (PFEZe an % 40 eta hortik gora ordaintzen den tartean), aurrezpen fiskala nabarmena da. Egia esan, ez dira ordaintzen ez diren zenbatekoak, ordainketa-atzerapenak baizik, eta planaren titularrari hain marjinal handiak ez dagozkion garaietara arte gerora daitezke. Onura fiskalaren funtzioa aurrekontu-autodiziplina da; aurreztaileak bere gastua pentsio-planari egiten dion ekarpenaren proportzioan murriztera behartzen du bere burua. Normalean, uko egiten dio lan egin ondorengo garaian luxu handiagorekin kontsumitzeko eta, era horretan, oinarrizko ondasunen kontsumoaren estaldura hobetzeko aukera emango liokeen ezohiko diru-sarreraren bati. Likideziaren galeraren eta aurreztutakoaren gaineko kontrolaren truk, diru-sarrera jaso zuenean ordaindu beharko zuen tasa marjinalaren eta erreskatatzean ordaindu beharko duenaren arteko diferentzia irabazten du pentsiodunak.

Finantza-erakundeek behin eta berriz erabili dute, beren publizitatean, "aurrezpen" edo "onura" fiskal kontzeptua, baina aurrezpen hori, egia esan, ez da hain handia. Partaideak bere pentsio-plana oso era zatikatu eta geroratuan erreskatatzen badu ere (biziarteko errenta moduan, adibidez), errenta hori beste kontzeptu batengatik (hala nola Gizarte Segurantzaren erretiro-pentsio gisa) lortzen dituen diru-sarrerei gehituko zaie.

Edozein arrazoiengatik partaideak pentsio-planean pilatutako kapitala berreskuratu nahi badu, baliteke ekarpena egin zuen urtean zegokiona baino tasa handiago batean ordaindu behar izatea zergak. 2006. urtera arte, eta hain zuzen ere arrisku hori saihesteko, % 40ko hobaria jasotzen zen kapitala erreskatatzean, hau da, berreskuratutakoaren % 60 baino ez zen kontuan hartzen urteko PFEZe an ordaintzeko. Urte horretan, desgrabazio hori kentzeko hainbat lege-proiektu garatu ziren, baita bere garaian indarren zeuden legeen aurreko ondorioekin kentzeko ere. Lege-proiektu horiek luze eztabaidatu ziren komunikabideetan, eta agerian utzi zuten aurreztaileen ahultasuna Administrazio Publikoaren aurrean. Izan ere, etorkizuneko erretiratu eta pentsiodunentzat oso garrantzitsuak diren epe luzerako

proiektu ekonomikoetarako itundutako baldintzak alda ditzake Administrazioak. Azkenik, Euskadin eta Nafarroan desgrabazioak bere horretan jarraitu zuen, eta Espainiako gainerakoan, berriz, kendu egin zen 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako ekarpenekiko. 2012an eta 2013an PFEZaren tasan izandako igoerarekin (eta 2014an berdintsu jarraituko du), kapitala berreskuratzea oso garesti ateratzen zaio erretiratuari. Heriotzaren kasuan, pentsio-planaren onuradunek ez dute oinordetza gisa ordaintzen, PFEZaren barruan baizik, beren diru-sarrerak ertainak badira. Gerta daiteke, halaber, marjinal handi baten arabera ordaintzea, pentsio-planetik jarauntsitakoa beren diru-sarrerei gehitzean.

IV.4. INFLAZIOAK ADINEKOEN EKONOMIAREN GAINEAN DUEN ERAGIN KALTEGARRIA.

Inflazioak ez du aberastasunik sortzen eta desagerrarazten. Aitzitik, birbanatu egiten du (talde ekonomiko batzuetatik beste batzuetara eramaten du). Pentsiodunak eta aurreztaileak dira inflazioarengaltzaile nagusiak, diru gisa edukitako aurrezkien balioa jaitsi egiten baita errebalorizazio automatikoko klausularik izan ezean. Ohikoa izaten da aurreztaileak zikloaren amaieran jasotzen duen kapitala, euro konstanteetan, gordailututakoa baino txikiagoa izatea. Adibidez, 1985etik 2012ra bitarte, pilatutako inflazioa % 175 izan zen. Partaide batek 1985ean pentsio-plan batean 10.000 euro gordailutu eta 2012an atera baditu, bere kapitalaren erosteko hasierako ahalmen bera izateko 27.500 euro kobratu beharko lituzke, eta kopuru horretatik behera jasotzen duena galera da, termino errealean. Sociedad de Tasación SAren arabera,aldi horretan bertan, eta inflazioa gorabehera, aurrezkien gaineko komisioak eta zergak pentsiodunen arerio bihurtu ziren.

Gobernuak eta finantza-erakundeek adinekoen aktiboak erabiltzeko gehien gomendatzen dutena biziarteko errenta da, pertsona batentzat edo birentzat (titularrarentzat eta ezkontidearentzat gehienetan), eta kapitala banku-erakundeari lagatzen ala ez kontuan hartuta. 2013. urtean, banku-erakundeek adinekoei egiten zieten eskaintza normal bat honako hau zen: erakundeak urtean 3.592 euroko errenta bat bermatzen zuen bizitza osorako, biziarteko errentaren aseguruan gordailututako 100.000 euroko. Adinekoa hiltzean, gordailututako kapitala oinordekoek berreskuratzen zuten. Lanbide arteko gutxieneko soldataren pareko errenta bat bermatzeko (645 euro hamalau ordainsaritan 2013an), 70 urteko gizonezko batek 251.392 euro gordailutu beharko lituzke banku-erakundearen 2013an.

Zenbateko hori errentadunari geratzen zaion bizi-ziklo osorako ezartzen da; % 2ko inflazioaren kasuan, hamar urteko epean erosteko ahalmena % 21 txikiagoa izango litzateke. Eustaten arabera, 1996an 6.000 euroko errenta bat jasotzen bazen, 2014an 8.416 euroko errenta jaso beharko litzateke erosteko ahalmenari eusteko (% 59,8 handiagoa)⁵⁶.

Euskalekonomiari buruzko hiruhilekoko txostenaren arabera (2013ko IV. hiruhilekoa), inflazioa % 0,6ra iritsi zen 2013an, eta, beraz, urte baten amaierako tasarik txikiena izan da estatistika hori egiten hasi zenetik. Hortaz, gaur egun inflazioak ez dakar galera handirik adinekoen ondare likidoan eta biziarteko errentetan⁵⁷.

⁵⁶ Eustat, Euskadiko KPIa, 2014ko martxoaren 17a. 2007an krisia hasi zenetik 2014ra arte, kontsumoko prezioen indizeak % 15'5eko igoera izan du, hau da, Espainiako igoera baino handixeagoa (% 15'1).

⁵⁷ Eusko Jaurlaritzak. Euskal ekonomiari buruzko hiruhilekoko txostena, 2014ko IV. hiruhilekoa, 16. or.

V. KAPITULUA

EUSKADIKO MONETARIZATU GABEKO EKONOMIA ETA ADINEKOEN ZEREGINA

V.1. ETXEAK ETA IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK

V.1.1. Familiak eta etxeak Euskadin. Goranzko eta beheranzko filialtasuna

Familia bat ahaidetasun-harremanen sare bat da, eta etxe bat, berriz, bizileku berean elkarrekin bizi diren eta normalean ahaidetasun-loturak dituzten pertsonen talde bat. Sarritan bi termino horiek bereizten ez badira ere, kontzeptu desberdinak dira. Izan ere, etxeek izaera espaziala dute, eta familiek, berriz, izaera afektiboa.

Bi kontzeptu horien tratamendu estatistikorako, oro har ahaidetasun-loturak (odol-ahaidetasuneko zein ahaidetasun politikoko loturak, maila edozein izanik ere) dituzten, elkarrekin bizi diren eta normalean etxebizitza oso bat okupatzen duten pertsonen taldea da familia, Eustaten arabera. Familiaren barruan, etxebizitzan lo egiten duten etxeko zerbitzuko pertsonak eta familia-erregimenean dauden ostalariak sartzen dira. Definizioan, halaber, bakarrik bizi diren pertsonak sartzen dira, pertsona bakarreko familia gisa.

Azken hamarkadetan, etxe bakoitzeko pertsona kopuruak behera egin du, baina familia kopuruarekin ez da gauza bera gertatu. Familien *bertikalizazioa* deitzen zaio horri. Aldi berean baina etxe desberdinetan bizi diren belaunaldien kopuru handiagoak konpentsatu egiten du, neurri batean, etxe berean bizi diren belaunaldi bakoitzeko kideen kopuruaren murrizketa.

Biztanleriaren zahartzea etxeen egituraren aldaketan islatzen da. Eustaten tipologiaren arabera, ahaidetasun-loturarik estuena nukleoa da (guraso-harremanak eta seme-alabak). Lau nukleo mota daude: bikoteak; seme-alabak dituzten baina nukleo propiorik eratu ez duten bikoteak; aita bakarrik, seme-alabekin eta eraturako nukleu propiorik gabe; ama bakarrik, seme-alabekin eta eraturako nukleu propiorik gabe. Bikoteko bi kideek osatzen duten nukleoari nukleu oso deitzen zaio (seme-alabak dituen ala ez kontuan hartu gabe). Euskadiko Inkesta Demografikoak zazpi etxe mota bereizten ditu. Horien artean, nukleoa eta seme-alabak dituen familia da ohikoena, eta, horren atzetik, nukleoa bai, baina seme-alabarik ez duen familia.

Adierazitako Inkesta Demografikoaren arabera (2006), hirurogeita bost urtetik gorako erreferentziazko pertsona bat duten etxeak Euskadiko etxe guztien % 32 dira.

V.1.1-1 taula
Familiak, motaren eta erreferentziazko pertsonaren adinaren arabera (milakotan). 2006

	Guztira	%	#24	%	25-34	%	35-44	%	45-54	%	55-64	%	#65	%
Euskal AE	787,0	100,0	3,4	100,0	80,2	100,0	146,3	100,0	158,0	100,0	144,0	100,0	255,1	100,0
Pertsona bakarrekoa	169,7	21,6	1,1	32,4	21,1	26,3	25,3	17,3	19,3	12,2	20,9	14,5	81,9	32,1
Konposatua	21,3	2,7	1,1	32,4	3,1	3,9	3,2	2,2	2,6	1,6	2,4	1,7	8,8	3,4
Nuklearra seme-alabarik gabe	164,7	20,9	0,6	17,6	30,6	38,2	22,1	15,1	12,7	8,0	27,6	19,2	71,2	27,9
Nuklearra seme-alabekin	299,3	38,0	0,2	5,9	18,1	22,6	78,9	53,9	93,7	59,3	65,6	45,6	42,8	16,8
Guraso bakarrekoa	65,5	8,3	0,1	2,9	1,9	2,4	8,0	5,5	13,1	8,3	12,6	8,8	29,9	11,7
Handitua	38,1	4,8	0,3	8,8	4,0	5,0	7,1	4,9	11,3	7,2	9,1	6,3	6,3	2,5
Polinuklearra	28,5	3,6	0,0	0,0	1,5	1,9	1,6	1,1	5,4	3,4	5,8	4,0	14,2	5,6

Iturria: M.A. Duránek egina, EUSTATEN datuetan oinarrituta. Inkesta Demografikoa, 2006.

Hirurogeita bost urtetik gorakoen artean, etxe motarik ohikoena pertsona bakarrekoa da (% 32), eta, horren atzetik, seme-alabarik gabeko nuklearra (% 28). Pertsona bakarreko etxeen proportzioak berehala egiten du gora adin horietan (55-64 urtekoen adin-taldearen proportzioaren bikoitza da). Arrazoien artean, honako hauek aipa daitezke: bizi-itxaropenaren luzatzea, adinekoen baldintza ekonomikoen hobekuntza, seme-alaben kopuru txikiagoa eta independentziaren eta autonomiaren balioen hedapena, adinekoengan zein horien ondorengoengan.

Ikuspegi ekonomiko batetik, pertsona bakarreko etxeetan bizitzeak esan nahi du adinekoek etxebizitzaren eta horren mantentzearen gastuei aurre egin diezaieketela, edota horretarako familiaren laguntza nahikoa dutela. Adinekoen pertsona bakarreko etxeetan bizi diren emakumeak gizonak baino gehiago dira, bizitza luzeagoa dutelako eta, batez beste, 4,46 urte gazteagoak direlako lehen aldiz ezkontzean (2011. urtean), eta ez da ohikoa heriotzagatik edo dibortzioagatik harremana amaitzen denean berriz ezkontzea edo beste bikote bat osatzea⁵⁸.

65 urtetik gorako erreferentziazko pertsona bat duten etxeen % 45 familia nuklearrez osatuta dago (seme-alabekin edo gabe). Ezkontza-harremanaren batez besteko iraupena 23'17 urte da, eta ezkontide baten heriotzagatik, dibortzioagatik edo banantzeagatik desegiten da. Banantzeagatik edo dibortzioagatik desegiten diren ezkontzen batez besteko iraupena hamahiru urte da, eta heriotzagatik desegiten direnena, berriz, horren ia hirukoitza (hogeita hamahiru urte). Adinekoek beren familia sortu zuten garaian, dibortzioak eta izatezko edo legezko banantzeak ez ziren gaur egun bezain ohikoak, eta luzaragoan iraun dute ezkontuta. Esparru ekonomikoan, ezkontza iraunkorrei zein desegiteko aukera handiagoak dituzten ezkontzei lotutako ikuspegiak ondorioak ditu bikotearen jokabide ekonomikoan eta helduero berantiarri eta zahartzaroari aurre egiteko moduan. Errenta propiorik ez duen ezkontidearen arriskua areagotu egiten da ezkontza-harremana hausteko aukera handiagoa den heinean.

Zahartzearen ondorioz, etxe polinuklearren eta guraso bakarrekoen proportzioak gora egin du. Polinuklearren proportzioak gora egin du, beren nukleoa osatu duten

⁵⁸ Eustat. Inkesta Demografikoa, 2011.

eta gurasoekin horien etxebizitzan bizi diren seme-alaben proportzioak gora egin duelako. Hain zuzen ere, adinekoen etxe polinuklearrak etxe polinuklear guztien erdiak dira. Guraso bakarreko etxeei dagokienez, askok interpretatzen dute, eta oker daude, seme-alabekin bizi diren aiten edo amen kasua dela. Guraso bakarreko etxeen ia erdietan, ordea, erreferentziazko pertsona 65 urtetik gorakoa da. Filialtasuna beheranzkoa (bikotekiderik gabeko aita/ama, beren familia-nukleoa osatu duten seme-alabei laguntzen diena edo horiek zaintzen dituen) edo goranzkoa (beren nukleoa osatu ez duten eta aita edo ama zaintzen duten seme-alabak) izan daiteke. Azken kasu horretan, aitatasun edo amatasun soziala biologikoa baino indartsuagoa da, eta oraindik ez da terminorik adostu “filioparentalitate” horretarako. Etxe horietan, seme-alaba zaintzaileek gizarte-bazterkeriako egoerarik larrietako batzuk jasaten dituzte, zailtasun handiak baitituzte epe labur, ertain eta luzerako proiektu pertsonalak garatzeko.

1989-2009 aldian, sozialtasunak gora egin zuen Euskadin, Bizi Baldintzen Inkestan aztertutako mota guztietan, auzokoeekin izan ezik. Harremanak “intentsitate handikoak” direla diotenen kopuruak nabarmen egin du gora hamarkada honetan hurbileko senideei, beste senide batzuei eta lagunei dagokienez, eta ohiko joera da lurralde historiko guztietan⁵⁹. (V.1.1-2 taula, eranskina).

V.1.2. Adinekoen etxeen tipologia eta banaketa Euskadin

Euskadin, erreferentziazko pertsona 65 urtetik gorakoa denean, pertsona bakarreko etxe batean bizi da kasuen % 32tan. % 28 seme-alabarik gabeko etxe nuklear batean bizi da, eta % 17, berriz, seme-alabak dituen etxe nuklear batean. Pertsona bakarreko etxe batean bizitzeak esan nahi du bakarrik bizi direla, senideak bisitan etortzen badira edo etxeke enplegatuen zerbitzuak kontratatzen badituzte ere (V.1.2-1 taula).

Gero eta adineko gehiagok dute nahiago beren etxean bizi, baita bakarrik bada ere (elkarrizketa egin dutenen % 87k, IMSERSOren 2010eko Adinekoen buruzko Inkestaren arabera). Halaber, biztanleria osoaren gehiengoak nahiago duen ostatu-aukera da hori, neurri txikiagoan bada ere (% 65). Pertsona bakarreko etxeetan bizi diren adinekoen proportzioa gero eta handiagoa da, beren egoera ekonomikoa duela hamarkada batzuk baino hobea delako, neurri batean. Familiako beste kide batzuekin bizitzeak ez du elkarbizitza ona bermatzen beti. Era berean, ez da antidoto guztiz eraginkorra bakardade- edo tristura-sentimenduei aurre egiteko. 2010eko Gizarte Premien Inkestaren arabera, Euskadiko 65-74 urteko pertsonen % 27k eta 75 urtetik gorakoen % 61ek bakardade- edo tristura-arazoak dituela adierazi du, eta proportzio horiek biztanleriaren batez bestekoa baino askoz handiagoak dira (% 15 biztanleria osoa kontuan hartuta)⁶⁰. Adinekoengan handiagoa da, proportzio txikian bada ere, familiaren bazterketa, tratu txarrak edo indarkeria jasatearen sentimendua (% 6,6 74 urtetik gorakoen kasuan)⁶¹, baita harreman pertsonal, familiar eta sozialetan arazo larriak jasatearen sentimendua ere (75 urtetik gorakoen % 75ek adierazi du horrelako arazoren bat duela 2010. urtean⁶²). Generoari, arrazari eta abarri lotutako faktoreek eragindako gizarte-bazterketaren sentimendua, berriz, askoz txikiagoa da.

⁵⁹ Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta, 2010/11/5.

⁶⁰ Gizarte Premien Inkesta, 2010, 67. or.

⁶¹ Op.cit., 72 or.

⁶² Op.cit., 80. or.

V.1.2-1 taula

Familiak, motaren eta erreferentziazko pertsonaren adinaren arabera (milakotan). 2006

	Guztira	%	≥ 65	%
Euskal AE	787,0	100,0	255,1	100,0
Pertsona bakarrekoa	169,7	21,6	81,9	32,1
Konposatua	21,3	2,7	8,8	3,4
Nuklearra, seme-alabarik gabe	164,7	20,9	71,2	27,9
Nuklearra, seme-alabekin	299,3	38,0	42,8	16,8
Guraso bakarrekoa	65,5	8,3	29,9	11,7
Handitua	38,1	4,8	6,3	2,5
Polinuklearra	28,5	3,6	14,2	5,6
Araba	111,3	100,0	28,5	100,0
Pertsona bakarrekoa	24,7	22,2	8,6	30,2
Konposatua	3,4	3,1	1,3	4,6
Nuklearra, seme-alabarik gabe	23,8	21,4	8,9	31,2
Nuklearra, seme-alabekin	43,4	39,0	5,0	17,5
Guraso bakarrekoa	8,0	7,2	2,8	9,8
Handitua	4,6	4,1	0,6	2,1
Polinuklearra	3,3	3,0	1,3	4,6
Bizkaia	423,6	100,0	143,7	100,0
Pertsona bakarrekoa	89,7	21,2	46,2	32,2
Konposatua	11,3	2,7	4,7	3,3
Nuklearra, seme-alabarik gabe	87,5	20,7	39,6	27,6
Nuklearra, seme-alabekin	161,3	38,1	24,7	17,2
Guraso bakarrekoa	37,5	8,9	17,9	12,5
Handitua	21,4	5,1	3,3	2,3
Polinuklearra	14,7	3,5	7,3	5,1
Gipuzkoa	252,1	100,0	82,9	100,0
Pertsona bakarrekoa	55,2	21,9	27,0	32,6
Konposatua	6,6	2,6	2,8	3,4
Nuklearra, seme-alabarik gabe	53,4	21,2	22,6	27,3
Nuklearra, seme-alabekin	94,5	37,5	13,1	15,8
Guraso bakarrekoa	20,0	7,9	9,2	11,1
Handitua	12,0	4,8	2,5	3,0
Polinuklearra	10,4	4,1	5,6	6,8

Iturria: M.A. Duránek egina, EUSTATen datuetan oinarrituta. Inkesta Demografikoa, 2006.

V.1.3. Etxeetan bizi ez diren adinekoak

Oro har, Euskadin establezimendu kolektiboetan bizi diren biztanleen proportzioa oso txikia da (guztizkoaren % 1 baino ez). Establezimendu heterogeneoak dira (komentuak, establezimendu militarrek, ikasleen egoitzak, ospitaleak). Gazte ezkongabeen proportzioa handixeagoa da, baina bizitzaren erdialdean ia inor ez da establezimendu kolektiboetan bizi (40 urtekoen % 0,3). 65 urteko adinetik aurrera, instituzionalizatzeko joera areagotu egiten da. Hala, 65 urterekin, adin potentzialki aktiboaren muga igaro berritan, Euskadiko biztanleen % 0,07 baino ez da establezimendu kolektiboetan bizi. 80 urtekoen kasuan, proportzioa % 5era iristen da, eta 100 urtekoen kasuan, berriz, % 24ra. Establezimendu kolektiboetan bizi diren pertsona guztiak ez dira osasun-arrazoiengatik edo ingurune babestuagoak bilatzeagatik bizi leku horietan, baina, adin horretan, horixe da gehienen arrazoa. Bizitzaren amaierako tartean, instituzionalizatzeko probabilitatea erretiroaldiaren hasieran baino hogeita hamalau aldiz handiagoa da. Hala ere, ezaugarri estrukturalak direla eta (hala nola ezkontzeko adin desberdina, bikote berria osatzeko aukera, batez besteko bizi-itzaropen desberdina eta rol sozial eta ekonomikoen eduki desberdina), instituzionalizatzeko probabilitatea desberdina da gizonen eta emakumeen kasuan. Instituzionalizazio-prozesua bizkorragoa da emakumeentzat. Izan ere, adinekoen adinaren lehen bosturtekoan, gizonak baino neurri txikixeagoan daude instituzionalizatuta (% 0,6), baina 80 urteko adinera iristean, instituzionalizazio maila askoz handiagoa da (% 5,7 emakumeak eta % 3,8 gizonak), eta ehun urterekin proportzioa bikoitza da (% 26,3 emakumeak eta % 11,6 gizonak). Bestalde, gizonek aukera handiagoa dute emazte edo bikotekide gazteagoa (eta kulturalki zahartzaroan gizona zaintzeko prestasun handiagokoa) izateko. Instituzionalizazioaren joera eta intentsitatea ia berdina da Euskadin eta Espainian⁶³.

Ezkontza babes-oztopo bat da, eta familia-etxebizitzaz bestelako egoitza mota batean bizitzea eragozten du. Gizonentzat, oztopo/eragozpen hori ez da emakumeentzat bezain handia, ez baitaude hain lotuta familia-rolari. Euskadin egoitza kolektiboetan bizi diren pertsonen % 14k baino ez du ezkontiderik. Gizonen artean, ezkontuta daudenen % 18 bizi da establezimendu kolektiboetan, eta, emakumeen kasuan, berriz, ezkontuta daudenen % 9'5 baino ez.

⁶³ INE, 2011ko Biztanleriaren Errolda. Autonomia Erkidegoen eta Autonomia Hirien araberrako emaitzak.

V1.3-1 taula
Adinekoen instituzionalizazioa.

	Guztira						Ekongabeak		Banandua		Alargunak		Ekondua		Dibortziatuak	
	Guztira	Euskadi	Guztira	Euskadi	Guztira	Euskadi	Guztira	Euskadi	Guztira	Euskadi	Guztira	Euskadi	Guztira	Euskadi	Guztira	Euskadi
Bi sexuak																
Guztira	444101	21798	196060	9633	15258	675	156696	8111	62701	2886	13385	495				
0-4 urteko biztanleak	534	24	534	24				
5-14 urteko biztanleak	1973	77	1973	77	0	0	0	0	0	0	0	0				
15-64 urteko biztanleak	151574	5923	108176	4548	7798	285	2674	97	24032	778	8891	214				
65-80 urteko biztanleak	79742	4251	36734	2080	4607	256	22649	1111	12755	633	2997	170				
80 urteko eta gehiagoko biztanleak	210277	11524	48645	2904	2852	136	131372	6900	25913	1473	1496	111				
Gizonak																
Guztira	204435	8988	112116	5216	11382	472	31436	1329	39440	1659	10062	312				
0-4 urteko biztanleak	291	10	291	10				
5-14 urteko biztanleak	1073	43	1073	43	0	0	0	0	0	0	0	0				
15-64 urteko biztanleak	113940	4301	79187	3323	6483	200	1466	42	19542	585	7260	148				
65-80 urteko biztanleak	34994	1922	18162	1036	3251	203	5449	251	6184	313	1947	120				
80 urteko eta gehiagoko biztanleak	54138	2713	13404	805	1646	68	24521	1035	13713	762	853	43				
Emakumeak																
Guztira	239666	12810	83945	4417	3877	202	125260	6782	23261	1227	3324	183				
0-4 urteko biztanleak	243	14	243	14				
5-14 urteko biztanleak	901	33	901	33	0	0	0	0	0	0	0	0				
15-64 urteko biztanleak	37633	1624	28988	1228	1314	82	1207	55	4490	195	1631	65				
65-80 urteko biztanleak	44748	2328	18572	1044	1356	53	17200	860	6570	321	1051	50				
80 urteko eta gehiagoko biztanleak	156140	8811	35239	2100	1206	68	106851	5867	12201	711	642	68				

Iturria: INE. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak. 2011

V.2. EMAILEAK ETA HARTZAILEAK. ADINEKOEN ETA IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK

Beste pertsona edo erakunde batzuei helburu altruistekin, kontraprestazio ekonomikorik jaso gabe ematen zaien laguntza da boluntarioria. Asoziazionismoa, boluntarioria eta gizarte-ekintza oso lotuta dauden jarduerak dira, baina ez dira berdinak. Adinekoak eragileak zein hartzaileak dira boluntariorian (horren adierazpen guztietan), eta beren zeregina garrantzitsuagoa da bizi-itxaropena handiagoa den heinean. Gurutze Gorriak duela zenbait hamarkadaz geroztik azpimarratu duenez, adinekoak boluntariorian aritzeak onura handiak dakartza sektore guztietan, erakundeentzat, gizartearentzat eta adinekoentzat. Enplegu-arloko krisi-egoeretan, zerbitzu publikoetan aurrekontu-murrizketak daudenean, lehenago baliabide monetarizatuen bidez betetzen ziren premiak betetzeko ezintasunak zalantza bat sortzen du etengabe: premia horiek bete gabe utzi behar diren, ala monetarizatu gabeko baliabideen bidez (hala nola boluntarioria bidez) bete behar diren. Horrela, beraz, boluntarioria ez da baliabide osagarritzat hartzen, oinarrizko baliabidetzat baizik (zenbaitetan, dagoen bakarra izaten da).

Euskadiko boluntarioria buruz eskuragarri dagoen informazioa urria da, definizioak eta datuak bildu eta antolatzeak oso heterogeneoak baitira. Erakunde edo elkarte formalen bitartez egiten den boluntarioriaz gain, boluntarioria informal mota asko eta elkarren arteko laguntza eta auzotasun, adiskidetasun eta ahaidetasuneko harremanak gauzatzeko era asko daude. Nolanahi ere, jarduera motak (pertsonarekin egotea, bidaietan laguntzea, etxeko jarduerak, hezkuntza, kirola eta abar), dedikazio maila, aldizkakotasuna, kalifikazioa eta bere gain hartutako erantzukizun maila desberdinak dira. Boluntarioen batez besteko profila honako hau da: berrogei urte inguruko emakumea, unibertsitate-ikasketak dituen. Hala ere, jarduera mota desberdinei lotutako profil mota asko daude.

Boluntarioria-jardueren hartzaile diren adinekoei dagokienez, ez dago zalantza handirik, esparru hori oso zabala baita. Arreta eta zainketen eskari potentzialaren barruan, alderdi ugari sartzen dira: afektibitatea, ekonomia, hezkuntza, osasuna, etxea eta aisia.

Emaila gisa diharduten adinekoei dagokienez, berriz, aukerak hartzaileen kasuan bezain ugariak dira ia. Adinekoek erabilera alternatiboetarako astia, esparru askotan jasotako esperientzia, eta, askotan, balio solidarioak edo komunitarioak dituzte. Adinekoek boluntarioria-jardueren bitartez gizarteari egiten dioten ekarpena ez da kontuan hartzen (edo oso neurri txikian) erregistroetan oinarritutako txostenetan, jarduera formalizatzeko joera ("bartzide egitea") beste gizarte-talde batzuetan baino txikiagoa baita, bai kultura-arrazoiengatik, bai horrek eragin ditzakeen gastu finkoen beldurragatik (kuotak, desplazamenduak eta abar). Hona hemen jarduera horren oztopo batzuk⁶⁴:

1. Boluntarioak erakartzea zailtzen duten estereotipoak.
2. Mugikortasun-zailtasunak (garraio-gastuak handiak dira).
3. Borondatezko aseguru progresiboen kostua, aseguratuaren adinaren arabera.

⁶⁴ Bizkaiaren kasuan, boluntarioria buruzko azterlan baten arabera, boluntarioen batez besteko dedikazioa asteko sei ordukoa da. "Bizkaiko Boluntarioria buruzko Azterlana". Bizkaiko Foru Aldundia. 2008.

4. Adineko askok beren senideen familia-bizitza eta lanbide-bizitza uztartzeko ahaleginean dituzten ardura handiak.
5. Topaketa kolektiboetan eta jardueren aurkezpenean gune seguruak antolatzearen kostua.
6. Elkarrekin beren antolamendua adinekoen gaitasunetara egokitzeko ezintasuna.
7. Boluntariotzak norberaren trebakuntzarako eta ikaskuntzarako prozesu gisa edo lanbide-esperientzia gisa duen zereginari emandako gehiegizko garrantzia.
8. Ordaindutako profesionalek jarritako erresistentzia, beren lanpostuak arriskuan geratzen omen direlakoan.

Beste zailtasun batzuk, oztopotzat hartu ezin badira ere, boluntariotzaren hartzaileen eta emaileen artean sortzen den inplikazio afektibo handiari lotutakoak dira. Bietako edozeinen heriotzak dolua eta desmotibazioa sorrarazten du bizirik geratzen denarengan. Zenbait kasutan, egoera konplexuak (zaintzailearen aldeko legatuak, adibidez) edo abusuzkoak (gehiegizko eragin autoritarioa, tratu txarrak eta abar) sortzen dira, inplikaturik gain familiek eta erakunde bitartekariak konpondu behar dituztenak.

Oro har, ordaindu gabeko boluntariotza-jarduerak zeregin garrantzitsua betetzen dute adinekoen bizitzan, bai jasotzen dituztenean, bai besteei eskaintzen dizkietenean, eta, aurreikusitakoaren arabera, gero eta garrantzitsuagoak izango dira etorkizunean.

CISen Barometroak (2011ko martxoa) boluntariotzari buruz emandako datuen arabera⁶⁵, adinekoen % 91k egin zituen boluntariotza-jarduerak. Inkesta egin aurreko astean, adinekoen % 8'3k egin zituen, eta, horien artean, % 0'4k egunero. Proporzioa lau aldiz handiagoa izan zen emakumeengan gizonengan baino (% 11'6 eta % 2'9, hurrenez hurren).

⁶⁵ 2864. azterlana. CIS. 2011ko martxoko barometroa.

VI. KAPITULUA

ORDAINDU GABEKO LANA ETA HORREN INTEGRAZIOA ANALISI EKONOMIKOAREN ESPARRU OROKORREAN

VI.1 EKONOMIAREN IKUSPEGI BERRITZAILEA, NAZIO BATUEK BULTZATUA

Nazio Batuen Erakundeak sortu zenetik egiaztatu duenez, oso sistema ekonomiko desberdinak daude, munduko toki desberdinetan ez ezik, espazio politiko bereko eremuen barruan ere bai. Esparru askori (elikadura, osasuna, lana, berdintasuna, giza eskubideen aitortzea eta abar) lotutako nazioarteko politiken sustatzailea da Nazio Batuen Erakundea, eta harremanak izan ditu gizarte-talde berritzaileekin. Talde horien aldaketa- edo integrazio-asmoak betetzea oso zaila zen, ekonomiaren ikuspegi tradizionalak jarritako oztupoak zirela-eta. Emakumeen zein adinekoen aldeko jarduerak egiteko, egungo gizarteetan emakumeek eta gizonek bete behar duten zereginaren inguruko berrikuntza kontzeptual batzuk egin behar izan dira ekintza-proposamenak egin aurretik. Lan kontzeptual akademikoak ez bezala, diskurtso politikoaren exekutiboa da, eta, askotan, prozesu logikoei jarraiki zein itun eta adostasunen bidez garatzen da. Itun eta adostasun horiek, nolahi ere, gizarte-babesa ematen diote, aldi berean nolabaiteko barne-kontraesana eta barne-zehaztugabetasuna sortzen bada ere.

Adinekoen bizitza ekonomikoa nagusiki etxeetan eta lan-merkatutik kanpo egiten denez gero, Nazio Batuek emakumeen ordaindu gabeko lana benetako lantzat hartzeko proposatutako aurrerapenak berehalako aplikazioa dute erretiratuen merkatuaz kanpoko lanean. 1979. urtean, emakumeen aurkako diskriminazio mota oro desagerrarazteko Konbentzioa onartu zen, eta, 14. artikuluan, emakumeek "ekonomiaren monetarizatu gabeko sektoreetan egindako lanaren" bitartez familien biziraupen ekonomikoari egindako ekarpena aipatzen da. Pekinen 1995ean onartutako Ekintza Plataforman, egitura politiko eta ekonomikoetan dagoen desberdintasun-erlazioa azpimarratu zen.

Dokumentuaren arabera, emakumeek "etxean, komunitatean eta lantokian egiten duten ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren bidez, ekarpen handia egiten diote ekonomiari eta pobrezia-aurkako borrokari" (49. puntua). Etxeak ere desberdintasun-eremuak izan ohi dira, eta hori ez dator bat gizarte-politika ugariarekin, erreferentziazko unitate homogeneotzat hartzen baitituzte etxeak: "Pobreziak etxeak oro har eraginpean hartzen baditu ere, lanaren banaketa generoan eta familia-ongizateari lotutako arduetan oinarrituta dagoenez gero, emakumeek neurri kanpoko karga hartzen dute etxe kontsumoa eta produktzioa gero eta urritasun handiagoko baldintzetan administratzeko ahaleginetan. Pobreziak era

bereziki larrian hartzen ditu eraginpean landa-etxeetan bizi diren emakumeak” (50. puntua). Aurrerago, etxeko elikagaien banaketa ez-ekitatiboa aipatzen du dokumentuak esplizituki (58.f puntua). Enpleguan oinarritutako gizarte-babeseko sistemekiko kritika inplizitua ere egiten da: *“pobrezian geratzeko arriskua handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino, zahartzaroan batez ere, gizarte-segurantzako sistemak ordaindutako enplegu iraunkorraren printzipioan oinarrituta baitaude. Zenbait kasutan, ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren banaketa desberdinak eragindako lan-etendurak direla-eta, emakumeek ez dute baldintza hori betetzen. Gainera, adinik handieneko emakumeek oztopo gehiago dituzte lan-merkatuan berriz sartzeko*” (52. puntua). Askotan, gastu publikoak eta politika makroekonomikoek ondorio desberdinak dituzte emakumeengan eta gizonengan, eta, horregatik, ondorio horiek sistematikoki ebaluatzeko eta kontuan hartzeko eskatzen du Plataformak.

Artikulu horietan islatzen den ekonomiaren irudia kurtso akademiko askotan ekonomiatzat edo jarduera ekonomikotzat hartzen dena baino askoz ere irekiagoa, dinamikoagoa, konplexuagoa eta politikoagoa da. Artikulu horien arabera, ekonomia gizarte-prozesu bat da, kausa eta efektua aldi berean. Halaber, emakumeen eskubideak giza eskubidetzat hartzeko, emakumeek aurrera egitea ahalbidetuko duten erakunde-mekanismoak ezartzeko, nesken premia espezifikoak kontuan hartzeko eta ingurumen-alderdiek emakumeen bizitzan (eta alderantziz) dituzten ondorioak kontuan hartzeko premia aipatzen da bereziki. Gai horiez gain, *“emakumeei eta ekonomiari”* buruzko hogeita hamaika puntu daude (150.-180. puntuak). Artikulu horietan islatzen den ekonomiaren irudia kurtso akademiko askotan ekonomiatzat edo jarduera ekonomikotzat hartzen dena baino askoz ere irekiagoa, dinamikoagoa, konplexuagoa eta politikoagoa da. Artikulu horien arabera, ekonomia gizarte-prozesu bat da, kausa eta efektua aldi berean. Bertan adierazten denez, emakumeek *“oraindik ere etxeko lan eta ordaindu gabeko lan komunitario gehienak egiten dituzte (hala nola haurren eta adinekoen zaintza, familiarentzako janariaren prestaketa, ingurumenaren babesa eta pertsona eta talde ahul eta kalteberentzako borondatezko laguntza). Lan hori ez da kuantitatiboki neurtzen, eta ez da kontu nazionaletan balioesten. Emakumeek garapenari egiten dioten ekarpena gutxietsita dago nabarmen, eta, beraz, gizarte-aintzatespen urria du”* (156. puntua).

Krisi ekonomikoen kostuak eta zerbitzu publikoen murrizketak zuzeneko eragina du emakumeengan, ordaindu gabeko lanaren gainkarga jasaten baitute. *“Era horretan, familiaren diru-sarreraren murrizketa konpentsatu egiten da, zerbitzu publikorik ez dagoenean batez ere”* (160. puntua).

Ekintza Plataforman bildutako proposamenak bereziki interesgarriak dira adinekoen posizio ekonomikoa aztertzeko, antzekotasun handia baitu emakumeen posizio ekonomikoarekin. Proposamen horietan, konpromisoa hartzen da sektore informalarri edo egituratu gabeari buruzko ezagutza hobetzeko (206.e puntua) eta, era berean, lan eta enplegu mota guztiei buruzko ezagutza hobetzeko (206.f eta g), honako datu eta metodo hauen hobekuntzaren bidez:

- 1) Nazio Batuen Kontu Nazionalen Sistemari sartuta dagoen ordaindu gabeko lanari buruzko datuak, hala nola nekazaritzari (eta, bereziki, bizirauteko nekazaritzari) eta merkatuaz kanpoko beste produkzio-jarduera batzuei buruzkoak.
- 2) Langabeziari eta enplegu urriari buruzko datuak.
- 3) Foro egokietan, kontu nazionaletan sartzen ez den ordaindu gabeko lanaren (hala nola kargura dauden senideen zaintzaren eta elikagaien prestaketaren) balioa kuantitatiboki ebaluatzeko metodoak lantzea, lan hori kontu berezietan edo oinarritzko kontu nazionaletatik bereiz baina horiekin bat etorritik prestatuko diren beste kontu ofizial batzuetan sartzeko aukera aztertzeko, era horretan emakumearen ekarpen ekonomikoa aintzatets dadin, eta emakumeen

eta gizonen artean ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren banaketari dagokionez dagoen desberdintasuna agerian gera dadin.

- 4) Jardueren nazioarteko sailkapen bat egitea (ordaindutako eta ordaindu gabeko lanari dagokionez emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak agerian utziko dituzten denboraren erabilerari buruzko estatistikak lantzeko), eta sexuaren arabera xehatutako datuak biltzea.
- 5) Denboraren erabilerari buruzko aldizkako azterlanak egitea, ordaindu gabeko lana kuantitatiboki neurtzeko. Bereziki, ordaindutako jardueraz edo ordaindu gabeko beste jardueraz gain egiten diren jarduerak erregistratuko dira.
- 6) Kontu nazionaletan sartzen ez den ordaindu gabeko lana kuantifikatzea, eta lan horren balioa aztertzeko eta kontu sateliteetan edo oinarritzko kontu nazionaletatik bereiz baina horiekin bat etorri prestatuko diren beste kontu ofizial batzuetan zehatz-mehatz adierazteko metodoak hobetzen saiatzea.
- 7) Pobreziaren neurketetan, baliabideak lortzeko aukera kontuan hartzea.
- 8) Argitalpen eta ikerketetan genero-analisia txertatzea, eta bizitza-estatistiken sistemak sendotzea.

1995eko Ekintza Plataforma gobernu guztiek onartu zuten, eta Plataforma horren proposamenak ondorengo konbentzio ugaritan sendotu eta garatu dira. Plataformaren emaitzak iristen ari dira, baina sustatzaileek duela ia hogeitaz urte nahi zutena baino erritmo motelagoan.

VI.2. GAITASUNEN TEORIA ZAHARTZE AKTIBOAN APLIKATZEA

Aurrekontu-analisan egindako berrikuntza bat analisi hori “gaitasunen teoria” deitutakoarekin lotzea da. Teoria hori Ekonomiako Nobel Saria jaso zuen Amartya Sen-ek proposatu zuen, eta, horren arabera, garapena eta aurrerabidea pertsonen gaitasunak betetzeko egindako ekarpenaren arabera neurtu beharko liriteke, per capita errentaren igoeraren arabera neurtu ordez. Sen-en proposamenak eragin handia izan du, analisi ekonomiko tradizionalak ia kontuan hartu ez dituen gai askotan ikuspegi ekonomikoa eta sozioekonomikoa txertatu edo aplikatu baitu (Nussbaum, 2002)⁶⁶, (Ericsson, 2008)⁶⁷. Gaiak honako hauek dira:

1. Osasuna eta herritarrek osasun-zerbitzuak lortzeko duten aukera.
2. Enplegua eta lan-baldintzak (zentzu zabalean).
3. Baliabide ekonomikoak (zentzu zabalean).
4. Hezkuntza eta trebetasunak.
5. Familia eta gizarteratzea.
6. Etxebizitza.
7. Bizitzaren eta jabetzaren segurtasuna.

⁶⁶ Nussbaum, M. “Las mujeres y el desarrollo humano. El enfoque de las capacidades”. Herder, Bartzelona, 2002.

⁶⁷ Ericsson, R. “Descripciones de la desigualdad: El Enfoque Sueco de la Investigación sobre el Bienestar”, in *La Calidad de Vida*. Marta C. Nussbaum eta Amartya K. Sen (elkarrekin). Fondo de Cultura Económica. Mexiko, 2002, 101.-125. or.

8. Astialdia eta kultura.
9. Baliabide politikoak.

Orain arte, ikuspegi hori emakumeen gizarte-mugimenduei lotutako erakundeek aplikatu dute nagusiki, baina baliagarria eta aplikagarria da, halaber, adinekoen egoeraren analisi ekonomikoan eta zahartze aktiboan, beste zenbait berritasunen artean ordaindu gabeko etxeko lanarekiko eta denboraren erabilerarekiko interes kontzeptuala indartzen baitu. Gaitasunen teoria aurrekontu orokorretan aplikatzen bada, partida bakoitzaren analisisan gaitasun jakin bat sustatzeko kostuak eta onurak aztertzen dira, eta, adinekoen kasuan, arestian aipatutako alderdietako edozeini lotuta egon daiteke gaitasuna (Villota, 2009)⁶⁸.

Proposamen hori bat dator zahartze aktiboaren aldeko mugimenduarekin. Mugimendu horrek 2012an egin zuen eztanda ekitaldi ugariaren bidez, eta zahartze aktiboa hasierako urteetatik bizitza amaitu arte kokatzen du bizi-zikloan. Halaber, urteen joate hutsarekin zerikusirik ez duen sakontasun batekin definitzen du zahartze aktiboa.

European Centre for Social Welfare Policy and Research erakundeak Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoak (UNECE) proposatuta 2003. urtean landutako zahartze aktiboaren indizea laneratzeari, parte-hartze sozialari eta bizitza independentea, duina eta segurua izateko aukerari lotutako hainbat adierazleaz osatuta dago. Ez dago 100 puntutik 50 baino gehiago dituen herrialderik. Suedia, puntu gehien izanik ere, 44 puntura baino ez da iritsi, eta, beraz, oraindik bide luzea geratzen dela ikus daiteke⁶⁹.

VI.3. EUSTATEK EUSKADIKO ORDAINDU GABEKO LANAREN EZAGUTZARI EGINDAKO EKARPEN AITZINDARIA

Hainbat bide daude adinekoen jarduera ekonomikoa Kontabilitate Nazionalaren edo Kontu Ekonomikoen esparruan txertatzeko. Ordaindu gabeko lanaren kontu sateliterik sinpleena produktutako lana kontuan hartzera mugatzen da, bitarteko kontsumoak eta etxearen barruan zerbitzuak produktutzean egin litekeen kapital finkoaren kontsumoa aztertu gabe. Ondoren, Kontabilitate Nazionalaren makromagnitudeekin konparatzen, ordaindutako lanarekiko bolumen-proportzionaltasunari dagokionez. Zenbait kontu etxeen barruan produktutako ordaindu gabeko lana baino ez dute kontuan hartzen. Beste kontu handiago batzuek lan komunitarioa ere kontuan hartzen dute, nekazaritza-komunitate indigenetan eta boluntarioritza-erakundeetan egiten dena bereziki. Ordaindu gabeko kontu satelite horien helburua bikoitza da. Alde batetik, iritzi publikoa sentsibilizatzea, hain zuzen ere borondatez erabakita, alternatibarik ezagatik edo gizarte-presioagatik zeregin horiek betetzen dituzten talde sozialek jasaten duten lan-kargaren inguruan. Bestetik, ordaindu gabeko lanaren kontu sateliteek erreferentziako esparru handiak finkatzen dituzte etxeetako ekonomiaren eta Administrazio Publikoen arteko funtzio-eskualdaketen ondorioak aurreratzeko (eskualdaketa etxeetatik Administrazioa egiten denean zein alderantziz). Ikerketa-ildo berritzaile horiei lotutako erronkak ugariak dira. Iturri gutxik ematen dute aukera ordaindu gabeko lanaren kantitatea, kalitatea, intentsitatea eta aplikatzeko modua ezagutzeko. Alternatiba sorta handia dago, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- a) kontratatutako edo benetan lan egindako orduko prezio baliokidetasunerako erabiltzen den;

⁶⁸ Villota, P.; Jubeto, Y.; eta Ferrari, I. *DEstrategias para la integración de la perspectiva de género en los presupuestos públicos*. Emakumearen Erakunde, Madril, 2009.

⁶⁹ *Gizarteratuz*, 39. zk., 2013, 13. or.

- b) erreferentzia gisa soldatakoak soilik edo autonomoak ere hartzen diren;
- c) Gizarte Segurantzarako kotizazio eta zerga hipotetikoak barnean hartzen diren;
- d) prezioa sexuaren arabera haztatzen den, sektore bakoitzeko soldata-desberdintasunetara egokitzeko;
- e) zereginen pilaketa (dentsifikazioa) edo eguneko ordutegietatik kanpo edo jaiegunetan egiten den lana kontuan hartzen den.

Halaber, zeregina neurri handian zailtzen duten, eta zenbaitetan behar bezala bereizi gabeko informazio-iturririk ez dagoelako ezinezko egiten duten beste alderdi asko daude.

Beste zailtasun bat, desberdina, ordaindu gabeko lana zer funtziotan aplikatzen den jakitea da. Azpian dagoen argudioa zera da: langile batek produzitutakoaren balioak zerikusi handiagoa du langilearen jarduerarekin kualifikazio pertsonalarekin baino. Janaria prestatzeko, garbitzeko, arropaz arduratzeko, erosketak egiteko eta beste pertsona batzuk zaintzeko erabilitako denborari buruzko inkestetan lortutako datuak daudenez gero, normalean orduko prezio desberdin bat aplikatzen zaie jarduera horiei, eta prezio hori merkatu-ekonomiako sektore okupazionalik antzekoenetako langileek (garbitzaile, sukaldari, etxeko enplegatu, jostun, haurtzain eta abarrek) lortzen duten batez bestekoaren parekoa da. Kontabilitate konbentzionalan, etxeak ekonomiaren sektore instituzionalizat hartuta daude dagoeneko, baina Kontu Nazionalen Sistemak (SEC95) ez du aintzat hartzen etxeko autokontsumorako zerbitzuen produkzioari lotutako ordaindu gabeko lanaren balio ekonomikoa.

Ordaindu gabeko lanean oinarritutako kontu satellite konplexuago batzuek Kontu Nazionalenaz bestelako prozedura bati jarraitzen diote. Adibidez, Eurostatek proposatutakoa eta Eustatek Euskadiko etxeko produkzioari buruzko kontu satellite guztietan erabilitakoa aipa daiteke⁷⁰. 2008. urterako, etxeetan eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetan produzitutako ordaindu gabeko lanaren balioa 19.313 milioi euro zela kalkulatu zuen Eustatek. Halaber, funtzio handien eta funtzio bereizien araberrako banaketa, lurraldeen araberrako banaketa eta gizonek eta emakumeek egindako ekarpenaren araberrako banaketa kalkulatu zuen. Prozedura horretan, produkzioaren balioa eta faktoreen kostua kalkulatu da, jarduera mota bakoitzean egindako lanaren (ordaindutakoaren zein ordaindu gabekoaren) balioa hartzen da, eta produkzioan erabilitako elementuen kostua (bitarteko kontsumoak) eta lokalaren eta ekipamenduaren higadura (kapital-kontsumoa) gehitzen dira. Halaber, zergen ondoriozko kostuak gehitu eta jasotako diru-laguntzak kendu behar dira. Zeregin neketsua da, eta akordio eta negoziazio asko behar dira datu fidagarrien gabezia ordezteko eta etxeen sektorearen eta gainerako sektoreen arteko zenbaketan bikoizketarik ez izateko. Eragozpenik handiena, kapital finkoaren higadura eta jarduera bakoitzaren prezioa kalkulatzeko zailtasunaz gain, honako hau da: lan-merkatuaren balioespenak aplikatzen badira, kontu satelliteek indargabetu nahi duten etxeko lanaren balioespen urri hori ezartzeko arriskua dago.

Etxeko produkzioaren kontu satelliteak Kontu Nazionalen Sistemak etxeen sektorean eskaintzen duen tratamendua hobetzen duten berritasunak direla esan daiteke. Etxeen sektorea agertzen da kontabilitate tradizionalan, baina ez da kontuan hartzen zerbitzuen barne-kontsumora bideratutako ordaindu gabeko lana. Eustatek egindako kontu satelliteen arabera (eta berritasuna dela esan daiteke), etxeek lau zerbitzu mota nagusi produzitzen dituzte: ostatua, janaria, hezkuntza eta arroparen ardura (VI.3-1 taula). Hori lortzeko, etxeek ordaindutako eta ordaindu gabeko lana

⁷⁰ Eustat. "Etxeko Lanaren Kontu Satellitea, 2008"; 2010/06/29an argitaratua.

sortzen dute, ondasun eta zerbitzuen bitarteko kontsumoa egiten dute, eta, halaber, etxeko kapital finkoaren (etxebizitza eta ekipamenduaren) zati bat kontsumitzen dute. Izan ere, kapital hori narriatu egiten da edo balioa galtzen du adierazitako zerbitzuak produzitzeko erabiltzen denean. Adinekoek zerbitzuak produzitzeko egiten duten jarduera ez da enpresetan eta administrazio publikoetan egiten, etheen barruan baizik. Hori dela-eta, etheen kontu sateliteak esparru analitiko logikoa dira adinekoek edozein gizartetako ekonomiari egiten dioten ekarpenaren analisia integratzeko.

Euskadin, etxeko produkzioaren balioak etengabe egin du behera azken hamarkadetan. 1993. urtean, BPGaren % 49 izan zen. 1998. urtean, % 38. 2003. urtean, berriz, % 33. Eta 2008an, % 29⁷¹. Etxeko produkzioaren balioa proportzioan handiagoa da gutxien garatuta dauden ekonomietan, eta txikiagoa ekonomia erreala eta ekonomia monetarizatua hedatuago dauden lekuetan. Emakumeak enplegura iristean, etxeko produkzioaren balio erlatiboak behera egiten du, ordaindu gabeko lanean egindako ekarpena ere txikiagoa baita.

Oraindik ez dago krisi ekonomikoaren hasieraren denboraren erabilerari buruz egindako inkestarik. Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia beste autonomia-erkidego batzuetan bezain larria ez bada ere, etxeko produkzioak BPGan duen balio erlatiboak gora egingo zuen seguruenik 2013an, 2008. urtearekin alderatuta. Adinekoen etxeko produkzioaren balioari dagokionez, ez da ezin kontu satelitetan aztertu, baina 2013an 2008an baino handiagoa izan dela pentsa daiteke, adinekoen kopuruak gora egin duelako eta BPGa ez gora ez behera gelditu delako.

Etxeek produzitutakoaren balioaren kalkulua konplexua eta berria da, eta oso ekonomia gutxitan egin da metodologia berarekin lau aldiz, Euskadin egin den bezala (2008an, 2003an, 1998an eta 1993an). Ebaluazioaren zailtasunak hiru motakoak dira:

- a) Etxeek produzitzen dituzten produktu eta zerbitzuei eta horien kantitate eta kalitateari buruzko informazio xehaturik eza.
- b) Etxean jarduera bakoitzari eskaintzen zaion denborari eta jarduera egiten duenari buruzko informazio xehaturik eza.
- c) Eskaintako denborari aplikatu behar zaion balioaren edo prezioaren inguruko adostasunik eza.

a) puntuari buruzko informazioa izanez gero, produkzioa merkatu-prezioetan balioets liteke, enpresek produzitutakoarekin egiten den bezala. Hala ere, gaur egun ez dago ikuspegi horri lotutako daturik ematen duen zuzeneko informazio-iturririk Euskadin, eta gaira bide horretatik hurbiltzeko oso ikerketa gutxi egin dira munduan.

1993. urtera arte, etxeko jardueretan emandako denborari buruzko informaziorik ez zegoen ia, baina egoerak hobera egin du, Eustatek denboraren erabilerari buruz egindako inkestei esker, nagusiki. 2013. urteko edizio berri bat badago, baina oraindik ez da argitaratu. Iturri bikaina da, zainketa-jardueren kasuan izan ezik, hainbat arazo metodologikoren ondorioz (kontzeptua, neurtzeko teknikak) ez baita kalkulurik egiten. Arazo hori zainketei buruzko inkesta ez-monografiko guztietan gertatzen da, inkesta horiek egin diren herrialde guztietako ikertzaileek adierazi dutenez. Arazo horrek eragin handiagoa du haurrak, gaixoak edo mendeko adinekoak zaintzen denbora gehien ematen duten gizarte-taldeen produzitutakoaren balioespenean. Azken jarduera hori ohikoagoa da hirurogeita bost urtetik gorako artean gainerako biztanle taldeen artean baino.

⁷¹ Eustat. 2004/06/29ko eta 2010/06/29ko prentsa-oharrak.

VI.4. DENBORAREN ERABILERARI BURUZKO INKESTEN MUNDU MAILAKO HEDAPENA ETA GARAPEN EKONOMIKOA ETA AURRERAPEN SOZIALA NEURTZEKO BATZORDEAREN TXOSTENA (STIGLITZ-SEN-FITOUSSI)

ELGEk 2007an politika publikoetarako oinarri izan litezkeen aurrekontuaren neurketa berri eta inklusiboagoak proposatzeko babestutako “Measuring the Progress of Societies” nazioarteko konferentziaren ondoren, Europar Batasun osorako ongizate-adierazle bat bilatzen hasi zen Eurostat. Europako Batzordeko presidentek esanbidez eskatu zuen BPGaren adierazlea egokituko zuen edo egungo premietara hobeto bideratutako adierazle berriekin osatuko zuen adierazle berri bat (Brusela, 2007ko azaroaren 19a). Aberastasunaren eta hazkundearen adierazle gisa BPGa baino ez erabiltzeak kritika ugari sortu ditu. Produkzio materiala islatzeko mugen inguruko kritikez gain, aberastasuna baino alderdi garrantzitsuagoak ahaztuta geratzen direla adierazi dute Ongizatearen Kontu Nazional izenekoen defendatzaileek. Adinekoak produkzio monetarizatutik, eta, beraz, BPGan sartzen diren ondasunetatik urrun daudenez gero, planteamendu-aldaketa horrek eragina du adinekoek gizartean betetzen duten zeregina interpretatzeko moduan.

2008ko otsailean, garai hartako Frantziako Errepublikako presidente Nicolas Sarkozy-k “*Ekonomia eta Gizarte Aurrerabidea Neurtzeko Batzordea*” (CMEPSP, ingelesezko siglen arabera) sortu zuen. Batzordea gidatzeko, proiektio mediatiko handiko ekonomialari bat (Joseph Stiglitz) eta gizarte-aldaketen eta garapen-bidean dauden herrialdeen egoeraren inguruan sentsibilitate handia erakutsi duen beste ekonomialari bat (Amartya Sen) aukeratu zituen (biek Ekonomiako Nobel Saria lortua zuten ordurako). Koordinazioaz Jean Paul Fitoussi arduratu zen. Batzorde horretara, hainbat nazionalitatetako hogeita bi akademiko (Indiakoak, Frantziakoak eta anglosaxoiak) eta zenbait estatistika-erakunde gonbidatu ziren, eta ELGEk eta INSEEk (Frantziako estatistika-erakundeak) emandako informazioa erabili zuten nagusiki. Nolanahi ere, era zorrotzean eta, aldi berean, era kritiko, libre eta sortzailean erabili zuten. Hurrengo urtean, Batzordeak txosten bat aurkeztu zuen lanen emaitza gisa. Txostena interneten argitaratu zen (www.stiglitz-sen-fitoussi.fr), eta oihartzun handia izan zuen nazioartean.

Txosten ekonomikoa denez gero, hezkuntza-alderdiak, lege-alderdiak, osasun-alderdiak edo parte-hartze politikoari lotutakoak bigarren maila batean baino ez dira agertzen. Dena dela, irekia da ekonomiaren definizioan, eta ingurumen-gaiak eta etxeetako ordaindu gabeko lana kontuan hartzen ditu. Ikuspegi ekonomiko gisa, txostena mugarrria izan dela esan daiteke.

Orrialde hauetan dagoen tokia txikiegia da Stiglitz-Sen-Fitoussi txostenaren alderdi interesgarri guztiak aipatzeko. Izan ere, politika publikoez edo erakunde handiez arduratutako edozein ekonomialarik nahitaez bete beharreko eskuliburua dela esan daiteke. *El trabajo no remunerado en la economía global* liburuan (Durán, 2012, BBVA Fundazioa) eta BBVA Fundazioak argitaratu zituen eta ikerketa-proiektu beraren parte izan ziren Lan Dokumentuen sortan (Díaz-Fernández, M. eta Llorente-Marrón, M.M., BBVA Fundazioa, 2012), konbentzionalaz bestelako ikuspegi batetik aztertzen da ekonomia, adierazitako txostenaren haritik.

Laburbilduz, Stiglitz-Sen-Fitoussi Txostenaren punturik azpimarragarrienak –eta adinekoek ekonomian betetzen duten zereginaren ikuspegiaren eraginik handiena dutenak– honako hauek dira:

- Produkzioari buruzko estatistika ofizialetan erabiltzen diren zifren eta jendeak produkzio erreala duen pertzepzioaren artean dagoen alde handia onartzen da. Frantzian eta Erresuma Batuan, jendearen herenak baino ez du konfiantzarik

estatistika ofizialetan, eta horrek baldintzatu egiten du hartu beharreko neurri sozial eta ekonomikoei buruzko diskurtso publikoaren harrera.

- BPGak gaizki neurtzen du ondasun eta zerbitzuen kalitatea, preziora eta kantitatera mugatzen baita. Administrazio publikoek erabilera kolektiborako produzitzen dituzten ondasunak ez dira produzitutako outputen arabera neurtzen, gastatutako inputen arabera baizik.
- Txostenak, bestalde, ikerketa produkzioa bideratu ordez ongizatera bideratzeko premiaz ohartarazten du.
- Lehenetasuna diru-sarreraren eta aberastasunaren banaketaren dimentsioei eta kontsumoari emango dieten adierazleen sistema konplexu bat proposatzen du.
- Halaber, merkatutik kanpoko jardueren neurketa denboraren erabileraren patroietan aldaketa sartuta izango duten etheen kontu sateliteen bidez txertatzea gomendatzen da, jarduerak etheen sektoretik merkatura eramate hutsak oparotasun-irudirik sor ez dezan.

Ikuspegi berri hori praktikan jartzeko ia ezinbestekoa den baldintza bat denboraren erabilerari buruzko inkesta sistematikoak eskuragarri izatea da. 1995. urtera arte, horrelako inkestak oso urriak ziren, baina Pekingo Nazio Batuen Konferentzian sortutako Ekintza Plataformatik aurrera, mundu osoan ezarri dira pixkanaka (Durán eta Milosavljevic, 2012)⁷².

VI.5. ORDAINDU GABEKO LANAREN BALIOA: KANTITATEA, KALITATEA, INTENTSITATEA ETA FUNTZIOA

Ordaindu gabeko lanari aplikatu behar zaion balioaren inguruko akordiorik ezaren arazoa konpontzeko, kontuan hartu behar dira, lanaren kantitateaz edo lanean emandako denboraz gain, lanaren intentsitatea, kalitatea eta kualifikazioa, eta funtzio edo jarduera mota. Ekonomialari gehienek diotenez, lanposturako eta lanaren produkzioarako kualifikazio-irizpideak hartu behar dira kontuan. Halaber, zeregin bakoitza betetzen duenaren enplegarritasun alternatiboa kontuan hartzeko eskatzen dute, lanaren balioak denbora etxean eman ordez lan-merkatuan emateko aukerari lotuta egon beharko bailuke. Eurostaten gomendioen arabera, garbiketa-zereginak etxeko enplegatuen merkatu-prezioan balioetsi behar dira, zeregin espezifiko batzuk profesional baliokideek lan-merkatuan jasotzen duten prezioan balioesteko aukera onartzen bada ere. Oro har, hirugarren bloke horretako arazoak politikoak dira, teknikoak baino neurri handiagoan, lanaren balioa lana egiten duenaren ahalmen erlatiboaren mailaren arabera baita nagusiki. Ordaindu gabeko lana etxeko enplegatuen lanaren prezio berean balioesteko irizpideak kritika gogorak sorrarazi ditu sektore askotan, etxeko enplegatuen kolektiboarena baino batez besteko ordainsari handiagoa duten langileei eragindako aukera-kostua ahaztuta geratzen baita. Gainera, ez da baliagarria politika publiko askoren ondorioetarako, Administrazioak zailtasun handiak baititu zerbitzuak etxeko enplegatuenen antzeko lan-baldintzak dituzten langileen bitartez emateko⁷³. Eta etxeko enplegatuen lanaren prezioan balioetsita ere, etxean kobratu gabe egiten den lanaren (batez ere zainketa-lanaren) ordutegi-baldintzak eta soldatako langileen lanarenak oso desberdinak dira, jaiegunetako eta gaueko lanari dagokionez bereziki.

⁷² Durán, M.A. eta Milosavljevic, V. (2012) *¿El trabajo no remunerado y las encuestas de uso del tiempo en América Latina?*, BBVA Fundazioa, *Colección Documentos de Trabajo*. Bi testuak honako webgune honetan kontsulta daitezke: www.fbbva.es

⁷³ INGEMAKo M. Sanchoren arabera, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako programen barruan adinekoei etxeko zerbitzuak eskaintzen dizkieten langileen orduko kostua 28 euro da 2014. urtean, eta zenbait herrian 30 eurora iristen da.

Zenbateko kostua izango luke adinekoen lana ordezteak edo haien eskari berriei erantzuteak?

Lan hori ordezteko edo eskari berriei erantzuteko ordaindutako langileak erabiliko balira, bi adierazle nagusi erabili beharko lirateke: langile bakoitzeko hileko batez besteko kostua, eta lan egindako ordu bakoitzeko guztizko lan-kostua. 2011. urtean, langile bakoitzeko hileko batez besteko guztizko kostua 3.113 euro izan zen Euskadin, eta, horietatik, 669 milioi Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioenak izan ziren. Zifrak Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkestaren bidez lortzen dira. Nolanahi ere, inkesta horretan ez dago gaizkien ordaindutako langileen kolektiboari buruzko daturik (langile horien proportzioa txikiagoa da Euskadin beste autonomia-erkidego batzuetan baino. Kostua handia izan zen industrian, ertaina eraikuntzan, eta txikiena, berriz, zerbitzuetan (2.948). Batez bestekoa Espainian baino % 16 handiagoa izan zen.

Lan egindako orduko guztizko lan-kostua 24'75 euro izan zen (23'93 zerbitzuetan, 24'08 eraikuntzan eta 27'20 industrian). Espainiako batez bestekoa baino % 20 handiagoa da (20'68 euro guztira Espainian: 22'46 industrian, 20'25 eraikuntzan eta 20'33 zerbitzuetan).

Magnitude horiek tresnarik egokienak dira adinekoen jarduerak ordeztearen balioa edo kostua kalkulatzeko. Kostu handiak dirudite, eta iritzi-inkestetan inkesta egin dutenek adierazi dutenez, beren soldatak askoz txikiagoak dira. Izan ere, askotan nahasi egiten dira langileak zergak eta gizarte-segurantza deskontatu ondoren jasotzen duen soldata garbia, eta lanak enplegu-emailearentzat dakarren guztizko kostua (lan egindako denborarekin haztatu ondoren). Kostuak joan-etorrietan emandako denbora biltzen du zeharka, eta, beraz, etxeko arreta behar duten prestazio laburrak lantokietako prestazioak baino garestiagoak dira (lana edozein izanik ere).

Adinekoen lanean ebaluatzen zailena den puntua lanaren produktibitatea da, zainketa-jardueretan bereziki. Zerbitzuen sektore osoan agertzen den zailtasuna da. Osasun-, egoitza- edo hezkuntza-establezimenduetan, langileak hainbat ikasle, gaixo edo egoiliarri ematen dizkie arreta-zerbitzuak aldi berean, eta etxeetan hori ez da ohikoa izaten. Produktibitatearen irizpidea oso eztabaidagarria da, langile bakoitzeko produktibitate-adierazle gehienek lanean erabilitako kapitalarekin batera neurtzen baitute produktibitatea. Hurbiltasuneko edo zuzeneko arretako lan gehienetan, eskulan asko (intentsiboak) eta kapital gutxi erabiltzen da, eta, beraz, ez dira batere produktiboak izaten. Zerbitzuen hurbiltasun-izaerak berak zaildu egiten du berrikuntza teknologikoen zerbitzuen produkzioa neurri handian merkatzeko aukera. Zerbitzu batzuetan oso onuragarriak izan daitezke komunikazio-arloko aurrerapen teknikoak (alertak, bideokamerak eta abar), baina gehienetan, giza hurbiltasuna ordezkazina da. Gaur egun, telelaguntza-zerbitzua ezagunenetakoa bat da Euskadin. Adinekoen % 7'23 euskal telelaguntza-zerbitzu publikoaren onuraduna da. 2013. urtean, erabiltzaileak 30.393 izan ziren, hau da, aurreko urtean baino % 11 gehiago⁷⁴.

Medikuntzan eta farmakologian egindako aurrerapenek ere zainketaren kostua murriz dezakete. Ildo horretan, zainketa errazagoa izango da, eta ez da hain beharrezkoa edo ohikoa izango. Adinekoen erronka teknologikoa ez datza kostu handiko teknologia konplexuei buruzko ikerketa-programetan (adinekoen kopuru txiki baten arretan soilik aplikatu baitaitezke), herritar gehienentzat arrazoizko kostua duten (iraunkortasuna) eta bizitza luzatzera bideratuta egon ordez bizi-kalitatea hobetzera bideratuta egongo diren berrikuntzetan baizik. Era berean, adinekoek eta, beharrezkoa den kasuetan, bizikide eta zaintzailerik hurbilenei eguneroko bizitza errazteko antolamendu- eta gizarte-berrikuntzak behar dira.

⁷⁴ Gizarteratuz, 10. zk., 2014, 12. or.

VII. KAPITULUA

ADINEKOEN ORDAINDU GABEKO LANA

VII.1. DENBORAREN ERABILERA ETA JARDUEREN BANAKETA BATEZ BESTEKO EGUN BATEAN, EUSKADIN ETA ESPAINIAN

Eustaten eta INEren Denboraren Erabilera buruzko inkestei esker, Euskadiko batez besteko egun bateko jardueren banaketa eta eboluzioa ezagutu daitezke. CISEk ere hainbat azterlanetan eskaintzen du gai horri buruzko informazioa. Metodologia, erreferentziazko unibertsoa eta adin-taldearen arabera sailkapena ez dira berdinak iturri guztietan, eta horrek zailago egiten ditu konparazioak. INEren inkestek aukera ematen dute Autonomia Erkidegoen arteko konparazioak egiteko, Eustatenak, aldiz, Euskadiri buruzkoak dira. Eustaten laginean 16 urtetik gorakoak sartzen dira eta INEren laginean 10etik gorakoak. INEk "etxea eta familia" kategorian sartzen du zaintza eta Eustatek bi kategoriatan bereizten ditu etxeko lana eta zaintza.

INEren Denboraren Erabilera buruzko 2009-2010 Inkestaren arabera, adinekoek denbora gehiago eskaintzen diote etxeko lanari gazteek baino. Euskadin lan horiek egiten dituzten herritarrek etxeko lanei eta familiari eskaintzen dieten denboraren batez bestekoa 3 ordu eta 14 minutukoa da, Espainiakoa baino zerbait gehiago. Hirurogeita bost urtetik gorakoek batez bestekoa 36 minutu gehiagokoa da Euskadin herritar guztien artean baino. Espainiarako ia ordu bete (59 minutu) gehitzen da. Euskadin, etxeko lanei eskaintzen dieten denboraren aldea ia bi ordukoa da gizon eta emakumezkoen artean (2 ordu eta 16 minutu gizonen artean eta 4 ordu eta 14 minutu emakumeen artean). Espainian aldea are handiagoa da, emakumezkoak gizonen artean baino bi ordu eta hamahiru minutu gehiago aritzen baitira etxeko lanetan. Gizon eta emakumezkoen arteko aldea txikiagoa da Euskal Herrian gizonen artean baino gutxiago eskaintzen dietelako jarduerari, ez emakumezkoek denbora gutxiago eskaintzen dietelako. Izan ere, emakumeek denbora gehiago eskaintzen diete etxeko jarduerari Euskal Herrian (egunean zazpi minutu gehiago) Espainian baino.

Herritar guztien multzoak etxeko lanari eskaintzeko batez besteko denboraren eta ordaindutako lanari eskaintzeko arteko konparazioak aukera ematen du ordaindu gabeko lanak kuantitatiboki duen garrantzia neurtzeko. Herritarrek denbora gehiago eskaintzen dio etxeko lanari ordaindutako lanari baino, bai Euskadin eta bai Espainian. Euskadiren kasuan, ordaindu gabeko lanari eskaintzeko batez besteko denbora soziala ordaindutako lanari eskaintzeko baino % 50 gehiago da (3 ordu eta 14 minutu eta 2 ordu eta 9 minutu, hurrenez hurren). Espainiakoa ere antzeko proportzioa da, Euskadikoa baino zertxobait txikiagoa bada ere (3 ordu eta 2 minutu batean eta 2 ordu eta 28 minutu bestean). 65 urtetik gorakoentzat konparazioak

ez du zentzurik, gehienak lan-merkatutik kanpo daudelako, baina etxeke lanari eskaintzen dioten denbora 25 eta 65 urte bitarteko herritarrek eskaintzen diotenaren batez bestekoa baino handiagoa da, bai Euskadin eta bai Espainian.

Euskadiko Denboraren Aurrekontuaren 2003ko Inkestan García Sainz-ek aztertu du etxeke lana⁷⁵. Azterketaren arabera, Euskadiko 16 urtetik gorako pertsonak 2 ordu eta 23 minutu (denbora soziala) eskaintzen dizkiete etxeke lanei. Jarduera hori egiten dutenek 3 ordu eta 2 minutu eskaintzen dizkiote. Adin nagusikoek denbora gehiago eskaintzen diote jarduera egiten dutenean, baina adin txikiagokoen artean dagoena baino proportzio txikiagoa dago. 60 urtetik gorakoek eskaintzen dioten batez besteko denbora 3 ordu eta 54 minutukoa da. Etxeko lanetan parte hartzen duten emakume erretiratuek 4 ordu eta 31 minutu eskaintzen dizkiete, gizonezko erretiratuek eskaintzen dizkieten 2 ordu eta 30 minutuen ia bikoitza. Eustaten etxeke lanaren definizioan ez da sartzen umeen edo laguntza behar duten beste pertsona batzuen zaintza zuzena. 60 urte baino gehiagokoen artean, pertsonak zaintzen dituztenen tasa % 18 da emakumeen kasuan eta % 11 gizonezkoenean. 16 urtetik gorako herritarren batez besteko denbora soziala eguneko 21 minutukoa da baina parte-hartzaileena 1 ordu eta 46 minutukoa. Emakumeen artean gehiago da gizonezkoen artean baino.

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera (Denboraren Aurrekontuen Inkesta, 2008), umeak zaintzeko egun bateko tasa % 17,5ekoa da eta helduak zaintzeko % 3,9koa. Batez besteko denbora soziala eguneko 18 eta 5 minutukoa da hurrenez hurren. Parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora 1 ordu eta 43 minutukoa da umeen zaintzarako eta 9 minutukoa helduen zaintzarako (VII.1-3 taula). Etxeko lana osatzen duten jardueri eskainitako denboraren banaketa VII.1-4 taulan ikus daiteke. Janari-prestaketa eta garbiketeta dira denbora gehien hartzen dutenak.

VII.1-1 taula

Batez besteko egun batean jardueri eskainitako batez besteko denbora soziala

	10 urtetik gorakoak guztira						65 urtetik gorakoak	
	Etxean		Lan boluntarioa eta bilerak		Ordaindutako lana		Etxean	
	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Euskadi	Espainia	España
Guztira	3.14	3.02	0.16	0.14	2.09	2.28	3.50	4.01
Gizonak	2.16	1.54	0.14	0.12	2.44	3.04	-	-
Emakumeak	4.14	4.07	0.18	0.16	1.33	1.54	-	-

Iturri: M.A. Durán et al.-ek egina INEren datuetan oinarrituta, Denboraren Erabilerrari buruzko Inkesta 2009-2010.

⁷⁵ García Sainz, C. "Tiempo de trabajo no remunerado en la C.A. de Euskadi" Eustat-en, Denboraren Aurrekontuen Inkestarik buruzko txostena, 2003. [Monografikoak](#), 3. kapitulu.

VII.1-2 taula
Adinekoen ordaindu gabeko lana etxean

	EUSKADI				ESPAINIA			
	Guztira		> 65 Urte		Guztira		> 65 Urte	
	%	Batez besteko denbora parte-hartzaileko o. eta m.	%	Batez besteko denbora parte-hartzaileko o. eta m.	%	Batez besteko denbora parte-hartzaileko o. eta m.	%	Batez besteko denbora parte-hartzaileko o. eta m.
BI SEXUAK								
0 Zaintza pertsonalak	100,0	11:27	100,0	12:23	100,0	11:30	100,0	12:32
1 Ordaindutako lana	30,1	7:08	-2,9	-	33,3	7:24	1,2	7:49
2 Ikasketak	10,0	5:56	-6,7	-1:-50	12,6	5:09	1,5	1:46
3 Etxea eta familia	90,3	3:35	71,6	3:50	83,4	3:38	86,6	4:01
4 Lan boluntarioa eta bilerak	15,3	1:45	27,6	1:16	12,1	1:58	21,1	1:41
5 Bizitza soziala eta dibertsioa	52,7	2:01	70,4	1:46	57,7	1:49	61,8	1:56
6 Aire zabaleko kirolak eta jarduerak	46,4	2:06	-25,1	2:13	39,8	1:52	52,4	2:00
7 Zaletasunak eta informatika	23,5	1:34	-17,9	1:53	29,7	1:54	16,2	2:08
8 Komunikabideak	92,9	2:48	94,4	4:08	88,3	2:57	95,6	4:23
9 Joan-etorriak eta denboraren zehaztu gabeko erabilera	87,9	1:27	71,5	1:01	84,2	1:23	66,7	1:01
GIZONAK								
0 Zaintza pertsonalak	100,0	11:32			100,0	11:33		
1 Ordaindutako lana	36,2	7:33			38,7	7:55		
2 Ikasketak	-9,4	5:-33			12,5	5:13		
3 Etxea eta familia	86,9	2:37			74,7	2:32		
4 Lan boluntarioa eta bilerak	13,4	1:45			9,4	2:10		
5 Bizitza soziala eta dibertsioa	51,3	2:14			56,0	1:54		
6 Aire zabaleko kirolak eta jarduerak	49,8	2:20			42,7	2:03		
7 Zaletasunak eta informatika	25,9	1:32			35,6	2:05		
8 Komunikabideak	93,4	1:51			88,0	3:06		
9 Joan-etorriak eta denboraren zehaztu gabeko erabilera	88,3	1:31			86,8	1:25		
EMAKUMEAK								
0 Zaintza pertsonalak	100,0	11:22			100,0	11:26		
1 Ordaindutako lana	23,8	6:30			28,2	6:43		
2 Ikasketak	-10,7	-6:-21			12,7	5:05		
3 Etxea eta familia	93,9	4:30			91,9	4:29		
4 Lan boluntarioa eta bilerak	17,4	1:45			14,8	1:51		
5 Bizitza soziala eta dibertsioa	54,1	1:48			59,3	1:43		
6 Aire zabaleko kirolak eta jarduerak	43,0	1:50			36,9	1:40		
7 Zaletasunak eta informatika	21,0	1:37			23,9	1:38		
8 Komunikabideak	92,3	2:46			88,7	2:49		
9 Joan-etorriak eta denboraren zehaztu gabeko erabilera	87,3	1:23			81,6	1:21		

Iturria: M.A. Durán et al.-ek egina INEren datuetan oinarrituta, "Denboraren Erabilerrari buruzko Inkesta 2009-2010".
 "-:" zeinuak esan nahi du kasu kopurua ez dela nahikoa. Guztirakoak 10 urtetik gorako pertsonen buruzkoak dira.

VII.1-3 taula

Batez besteko denbora soziala, parte-hartzailearen eta tasaren arabera, etzekoen zaintza motaren, asteko egunaren eta lurralde historikoaren arabera (orduak:minutuak). 2008

	Euskal AE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	bds (1)	pds (2)	tasa (3)	bds (1)	pds (2)	tasa (3)	bds (1)	pds (2)	tasa (3)	bds (1)	pds (2)	tasa (3)
Umeen zaintza	0:18	1:43	17,5	0:11	1:22	13,4	0:20	1:59	16,8	0:16	1:25	18,8
Lanegunak	0:18	1:37	18,6	0:13	1:19	16,5	0:22	1:54	19,3	0:16	1:17	20,8
Ostiralak	0:16	1:39	16,2	0:11	1:25	12,9	0:16	1:49	14,7	0:18	1:30	20,0
Larunbatak	0:18	2:10	13,8	0:06	1:42	5,9	0:23	2:24	16,0	0:16	1:51	14,4
Igandeak	0:15	1:56	12,9	0:09	1:23	10,8	0:17	2:18	12,3	0:16	1:39	16,2
Jokoak eta irakaskuntza	0:06	1:06	9,1	0:11	1:42	10,8	0:04	1:00	6,7	0:05	0:55	9,1
Lanegunak	0:06	1:03	9,5	0:13	1:48	12,0	0:05	0:55	9,1	0:06	0:51	11,8
Ostiralak	0:05	1:07	7,5	0:08	1:30	8,9	0:04	1:08	5,9	0:04	0:53	7,5
Larunbatak	0:05	1:12	6,9	0:08	1:32	8,7	0:04	1:11	5,6	0:03	1:01	4,9
Igandeak	0:05	1:20	6,3	0:09	1:34	9,6	0:03	1:15	4,0	0:05	1:16	6,6
Adinekoen zaintza	0:05	2:09	3,9	0:04	2:07	3,1	0:04	2:07	3,1	0:06	2:12	4,5
Lanegunak	0:05	2:10	3,8	0:03	2:09	2,3	0:05	2:10	3,8	0:06	2:11	4,6
Ostiralak	0:06	2:12	4,5	0:06	2:08	4,7	0:06	2:35	3,9	0:05	1:43	4,9
Larunbatak	0:04	2:23	2,8	0:03	2:18	2,2	0:04	2:05	3,2	0:06	2:49	3,6
Igandeak	0:04	1:52	3,6	0:05	1:57	4,3	0:02	1:15	2,7	0:08	2:19	5,8

(1) Batez besteko denbora soziala: >=16 urteko herritarrek jarduera bati eskaintzen dioten batez besteko denbora.

(1) Parte-hartzaileko batez besteko denbora: >=16 urteko herritarrek jarduera bati eskaintzen dioten batez besteko denbora.

(3) Partaidetza-tasa: jarduera egiten duten pertsonen ehunekoa.

Iturria: EUSTAT. Denboraren Aurrekontuen Inkesta.

VII.1-4 taula

Batez besteko denbora soziala, parte-hartzaile eta tasaren arabera, etxeko lan motaren, asteko egunaren eta lurralde historikoaren arabera (orduak:minutuak). 2008

	Euskal AE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	bds (1)	pds (2)	tasa (3)	bds (1)	pds (2)	tasa (3)	bds (1)	pds (2)	tasa (3)	bds (1)	pds (2)	tasa (3)
Janaria prestatzea	0:55	1:07	82,1	0:53	1:06	80,3	0:53	1:06	80,3	0:60	1:10	85,7
Lanegunak	0:55	1:07	82,1	0:53	1:05	81,5	0:52	1:04	81,3	1:01	1:11	85,9
Ostiralak	0:52	1:03	82,5	0:44	0:56	78,6	0:52	1:04	81,3	0:55	1:04	85,9
Larunbatak	0:54	1:09	78,3	0:54	1:10	77,1	0:50	1:06	75,8	0:60	1:12	83,3
Igandeak	0:59	1:13	80,8	1:02	1:15	82,7	0:58	1:15	77,3	0:59	1:10	84,3
Garbiketa	0:30	1:05	46,2	0:28	1:02	45,2	0:33	1:11	46,5	0:27	0:56	48,2
Lanegunak	0:30	1:06	45,5	0:28	1:04	43,8	0:32	1:12	44,4	0:28	0:58	48,3
Ostiralak	0:27	1:03	42,9	0:22	0:58	37,9	0:31	1:12	43,1	0:23	0:51	45,1
Larunbatak	0:34	1:04	53,1	0:33	1:01	54,1	0:37	1:12	51,4	0:29	0:54	53,7
Igandeak	0:33	1:03	52,4	0:32	0:60	53,3	0:38	1:10	54,3	0:26	0:54	48,1
Arropa	0:13	0:48	27,1	0:09	0:51	17,6	0:13	0:51	25,5	0:14	0:43	32,6
Lanegunak	0:14	0:49	28,6	0:10	0:53	18,9	0:14	0:51	27,5	0:14	0:45	31,1
Ostiralak	0:13	0:46	28,3	0:09	0:52	17,3	0:13	0:49	26,5	0:13	0:40	32,5
Larunbatak	0:10	0:43	23,3	0:08	0:45	17,8	0:10	0:47	21,3	0:12	0:38	31,6
Igandeak	0:13	0:49	26,5	0:09	0:47	19,1	0:14	0:53	26,4	0:14	0:44	31,8
Beste konponketa batzuk	0:05	0:18	27,8	0:03	0:19	15,8	0:05	0:20	25,0	0:05	0:17	29,4
Lanegunak	0:05	0:18	27,8	0:03	0:17	17,6	0:05	0:19	26,3	0:05	0:16	31,3
Ostiralak	0:05	0:18	27,8	0:02	0:16	12,5	0:06	0:19	31,6	0:06	0:16	37,5
Larunbatak	0:06	0:19	31,6	0:05	0:28	17,9	0:05	0:17	29,4	0:07	0:20	35,0
Igandeak	0:03	0:24	12,5	0:01	0:23	4,3	0:03	0:31	9,7	0:04	0:19	21,1
Erosketak	0:18	0:49	36,7	0:15	0:44	34,1	0:17	0:49	34,7	0:20	0:49	40,8
Lanegunak	0:18	0:48	37,5	0:16	0:44	36,4	0:17	0:48	35,4	0:21	0:49	42,9
Ostiralak	0:21	0:53	39,6	0:17	0:48	35,4	0:21	0:54	38,9	0:23	0:53	43,4
Larunbatak	0:26	1:03	41,3	0:22	0:57	38,6	0:26	1:04	40,6	0:28	1:05	43,1
Igandeak	0:03	0:17	17,6	0:02	0:12	16,7	0:04	0:21	19,0	0:03	0:14	21,4
Gestioak	0:01	0:50	2,0	0:01	0:55	1,8	0:01	1:03	1,6	0:02	0:40	5,0
Lanegunak	0:02	0:49	4,1	0:02	0:57	3,5	0:01	0:58	1,7	0:02	0:42	4,8
Ostiralak	0:02	0:58	3,4	0:02	0:51	3,9	0:02	1:21	2,5	0:01	0:37	2,7
Larunbatak	0:00	0:46	0,0	0:00	0:20	0,0	0:01	1:24	1,2	0:00	0:20	0,0
Igandeak	0:00	0:30	0,5	0:00	0:00	0,0	0:00	0:24	0,0	0:00	0:34	0,0
Erdi-aisiak	0:15	1:48	13,9	0:12	1:53	10,6	0:14	1:47	13,1	0:18	1:49	16,5
Lanegunak	0:14	1:46	13,2	0:09	1:51	8,1	0:13	1:42	12,7	0:19	1:49	17,4
Ostiralak	0:17	2:00	14,2	0:13	1:56	11,2	0:16	2:03	13,0	0:19	1:58	16,1
Larunbatak	0:14	1:48	13,0	0:14	1:55	12,2	0:12	1:47	11,2	0:18	1:47	16,8
Igandeak	0:15	1:45	14,3	0:18	1:53	15,9	0:14	1:47	13,1	0:14	1:39	14,1

(1) Batez besteko denbora soziala: >=16 urteko herritarrek jarduera bati eskaintzen dioten batez besteko denbora.

(1) Parte-hartzaileko batez besteko denbora: >=16 urteko herritarrek jarduera bati eskaintzen dioten batez besteko denbora.

(3) Partaidetza-tasa: jarduera egiten duten pertsonen ehunekoa.

Iturria: EUSTAT. Denboraren Aurrekontuen Inkesta.

VII.2. JANARIA PRESTATZEA ETA JANARI-GASTUETAN AURREZTEA

Produkzioa neurtzeko zeharkako modu bat aztertzen den jarduerak eragindako gastua murriztea da. Elikaduraren kasuan, etxeko janari-produkzioaren balioa neurtzeko gehien erabilitako irizpidea janarien (merkatuko prezioan erositakoak) balioari horiek prestatzen erabilitako denboraren balioa gehitzea da. Hala ere, badira beste hurbilketa posible batzuk. Euskadin, Eustaten arabera⁷⁶, pertsona bakoitzak janaritan eta edaritan egindako batez besteko gastua urteko 1.852 eurokoa izan zen 2006an eta 1.947 eurokoa 2012an. Etxetik kanpo kontsumitutako janariak etxean kontsumitutakoen % 64 kostatu ziren 2012an, baina proportzio horren askoz zati txikiagoa izan ziren herritar guztiek egindako otorduekin alderatuta. Lau otorduko batez bestekoa ezartzen bada egunean (gosaria, bazkaria, askaria eta afaria): Zer proportzio zen etxean egindakoena eta zein etxetik kanpo egindakoena? Etxetik kanpoko janari- eta edari-kontsumizioen kostuak janariak erosteari eta haiek erosteko eta prestatzeko lanari dagozkien gastuak ez ezik, lokalaren kostuak ere hartzen ditu, baina antzeko zerbait gertatzen da etxeetan. Luxuzko establezimenduek etxeko batez bestekoak baino kalitate handiagoak eskaintzen dituzte, baina ez da gauza bera gertatzen etxetik kanpoko kontsumizio gehienak egiteko erabiltzen diren establezimendu masiboekin (eskoletako jangelak, enpresakoak, eguneko menua, etab.)⁷⁷.

Euskadiko Denboraren Aurrekontuen 2008ko Inkestaren arabera, 16 urtetik gorako herritarrek etxeko otorduak egiteko erabilitako eguneko batez besteko denbora ordubete eta hamabi minutukoa (egunean 72 minutu) izan zen eta etxetik kanpo egindako otorduei eskainitako denbora berrogeita bi (42 minutu) minutukoa. Otordu horietan sartzen dira otordu nagusiak eta baita gosariak, askariak eta aperitiboak ere. Hamasei urtetik beherako herritarrei dagokienez, Denboraren Aurrekontuen Inkestak horri buruzko informaziorik ematen ez duen arren, sukaldaritza-zerbitzuetan egiten duten erabilera helduek egiten dutena baino txikiagoa da. Etxetik kanpo egindako zenbait otordu etxean prestatuta eramandakoak izan daitezke eta, gutxiagotan bada ere, alderantziz ere gertatzen da. Adibidez, eguerdiko otorduak denbora gehiago behar izaten du gosariak edo askariak baino. Etxetik kanpo egindako otorduen artean sozialesun-osagai garrantzitsua dago, batzuetan aisiatik bereiztea zaila egiten duena. Oro har, adierazle horrek hamasei urtetik gorako herritarren elikadura-funtzioa etxeetan gauzatzearen edo zerbitzu-merkatura transferitzearen arteko proportzionaltasunaren ideia bat ematen du. Proportzioa da: "elikadura-ekintzen" % 64'3 etxean eta % 35'7 etxetik kanpo. Beste iturri batzuek, ordea, askoz zifra txikiagoak ematen dituzte⁷⁸.

⁷⁶ Eustat, "Batez besteko gastua (eurotan) gastu-talde bakoitzeko pertsonako (COICOP 3 digitukoa). 2006-2012 (p.)

⁷⁷ Eustat, Familiako Gastuaren Estatistika, 2012, behin-behineko datuak, 2014ko apirilean argitaratutakoak. Etxetik kanpoko janari eta edaritan 1.249 euro erabili ziren persona eta urteko; etxe barruan kontsumitutako janari eta edaritan, berriz, 1994 euro pertsonako.

⁷⁸ Eustatek informazioa ematen du 6 urtetik gorako biztanleak asteburuetan kanpoan bazkaltzera edo afaltzera joaten diren maiztasunari buruz (1989-2009). Nahiz eta 1989 eta 2009 bitartean ohitura hori askoz ohikoagoa izan, hamar lagunetik hiru ia inoiz ez dira irteten eta % 9 soilik irteten da astero (bazkari edo afari bat gutxienez), % 25 hilean nozbait irteten da eta % 36 urtean nozbait. Asteburuan etxetik kanpo 14 bazkari edo afari egitearen baliokidea da gutxi gorabehera. Asteburutzat hartzen bada ostiral gaua, larunbata eta igandea bost bazkari edo afari posible dira asteburuko, 260 urtean. Inkestan adierazitako bazkari edo afarien proportzioan (urtean 14 egitea posibleen % 5 da).

VII.2-1 taula

Euskal Aeko 6 urte edo gehiagoko herritarrak, asteburuetan etxetik kanpo bazkaltzera edo afaltzera joaten diren maiztasunaren arabera, eta lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (%). 1989-2009

	Euskal AE					
	1989	1994	1999	2004	2009	
Guztira	100	100	100	100	100	
Astero	4,1	4,2	7,5	8,9	9,1	700,7
Hilean bakarren batean	9,9	10,8	18,6	22,7	24,7	444,6
Urtean bakarren batean	22,7	28,5	31,0	39,1	36,2	217,2
la inoiz ez	63,3	56,5	42,9	29,3	30,0	90,0
Batez besteko haztatua						14,5
Gizonak	48,2	49,2	48,6	48,6	48,9	
Astero	4,6	4,8	8,8	10,3	10,5	808,5
Hilean bakarren batean	10,5	10,6	18,7	24,3	24,5	441,0
Urtean bakarren batean	23,1	29,3	30,5	38,6	35,8	214,8
la inoiz ez	61,9	55,2	41,9	26,9	29,2	87,6
Batez besteko haztatua						15,5
Emakumeak	51,8	50,8	51,4	51,4	51,1	
Astero	3,7	3,7	6,3	7,7	7,7	592,9
Hilean bakarren batean	9,3	11,0	18,4	21,3	24,9	448,2
Urtean bakarren batean	22,3	27,7	31,5	39,2	36,6	219,6
la inoiz ez	64,7	57,6	43,8	31,8	30,7	92,1
Batez besteko haztatua						13,5

Iturria: M.A. Duránek egina Eustat-en datuetan oinarrituta, Bizi Baldintzei buruzko inkesta, 2010eko azaroak 5. Haztapan-eskala: astero=77; hilean bakarren batean=18; urtean bakarren batean=6; ia inoiz ez=3.

Adinekoek herritar helduen batez bestekoak baino janari eta edari gutxiago kontsumitzen dituzte etxetik kanpo, janariaren % 35,7 kalkulatu da, eta ekoizten dutenaren balioa gastatzeari uzten diotenaren arabera neurtu daiteke. Edo beste modu batean esanda, etxeko ordaindu gabeko lanaren bitartez gogobetetzen dituzten janari-premiak gogobetetzea merkatura eramanda gastatuko luketenaren arabera. Adinekoen elikadurak egokitzapenak behar ditu beste adin batzuenarekiko, elikagaiak digeritzeko eta metabolizatzeko ahalmena aldatzen duten patologiak prebenitzeko. Eroskiren azterketa baten arabera⁷⁹, Euskal Autonomia Erkidegoan lau adinekotatik batek (% 25) produktu bereziekin osatzen du bere dieta, batez ere esnekiekin. Autonomia Erkidego guztien batez besteko indizea % 19 da. Adineko askok, batez ere emakumeek, egunero prestatzen dituzte beste adineko batzuen janariak, zenbait kasutan horiek oso adin handikoak edo gaixoak baitira. Kasurik larrietan, elikadura osasun-zaintza bihurtzen da, eta likido moduan edo enteral moduan (zunda bidez) egiten da.

⁷⁹ Eroski Consumer 12/10/9. 900 etxetan, horietatik 100 Euskal Autonomia Erkidegokoak, egindako azterketa batean oinarrituta dago.

VII.3. NORK BERE BURUA ZAINITZA ETA BESTEAK ZAINITZA: ANBIGUOTASUN SEMANTIKOAK

“*Cuidado*” (zaintza) terminoa pentsamendua esan nahi duen latineko cogitus-etik dator. Europako hizkuntzetan itxura batean trukagarriak diren hitz batzuek, esaterako *cuidado*, *care*, *soins* eta *cura* hitzek gauza desberdinak adierazten dituzte eta ez daude termino berdinak, hizkuntza batzuetatik beste batzuetara zehaztasunez itzultzeko aukera ematen dutenak. Eta hori, elkarren artean kultura-hurbiltasun handia duten lau hizkuntza soilik aipatzearen, espainiera, ingelesa, frantsesa eta italiera, hain zuzen. Euskaraz, *kontu* eta *ardura*. DRAEren arabera, zaintza ekintza mentala da fisikoa baino gehiago. Horrek, *soins* frantsesetik bereizten du, gehienetan pluralean erabiltzen denetik, non, zaintzen aplikazioaren ondoren gertatutako eraldaketaren alderdi fisikoa gehiago nabarmentzen baita. María Molinerren Erabilera Hiztegiak (Moliner 2007) zerbait gerta dadin arreta eta interesa jartzeari buruzko adierak ez ezik, haien faltagatik aurkako gertakari bat izatea saihestekoak ere jasotzen ditu. “Zaintza” hitzak esan nahi duenari buruz adostasunik ez izateak eta jarduera horren inguruko hiztegi-eskasiak adierazten dute gaiak ez duela ezarpen handirik lortu oraindik, Mendekotasun Legeak erreferentziazko esparru gisa hartzen badu ere. Kontzeptuaren elaborazio eskasak zaintzari buruzko estatistiken erabilgarritasuna eta konparagarritasuna ahultzen ditu, eta arazoa larritu egiten da alderaketa nazioarteko datuen artean egiten denean. Gizarte-talde guztiak uztartzen dituen Kontratu Sozialaren edukiaren baitan dago zaintza: gizon eta emakume, zahar eta gazte. Horregatik, zaintzari buruzko ikerketa, eskubide eta betebeharren banaketa-mekanismoei buruzkoa da hein handi batean, legeek (Konstituziotik hasi eta maila apalenera arautaraino) eta gizarte-usadioek berresten duten bezala. Zaintzari buruzko inkesta monografikoetan, ordea, zaila izaten jarraitzen du lanaren, betekizunaren, betebeharraren, bizitza afektiboaren, gizarte-harremanen eta aisiaren arteko gainjartzeak eta nahasteak argitzea.

Euskadiko Gizarte Premiei buruzko Inkestan (2010)⁸⁰, zaintzaileen % 84'8k adierazi zuen ez zuela “inoiz” uko egin bere hezkuntza- edo lan-bizitzan zaintzaile gisa egindako jardueraren ondorioz, 2006an adierazitako % 86ren antzeko zifra dena (VII.3-1 taula); beste iturri batzuekin alderatuta oso zifra baxuak dira. Zaintzak ez du eraginik ikasketetan, gazteek eta nerabeek gutxi zaintzen dutelako. Eta ez du eraginik enpleguan ere, zaintzaren parte handi bat pertsona ez-aktiboek egiten dutelako, erretiratuak edo etxekoandreak. Dena den, familiako arreta-eskaerei aurre egiteko enplegua uztea maiz gertatzen da emakumeen artean eta Biztanleria Aktiboaren Hiruhileko Inkestako denbora-saio luzeen bitartez ondo dokumentutako fenomeno da. Beste herrialde batzuetan egindako azterlan ugari ere hori berresten dute.

Adierazle horrek hedapeneko denbora (denbora kantitatea) soilik neurtzen du eta ez aldibereko jarduerak gainjartzeagatik lan-erritmoaren dentsitatea handitzea edo areagotzea, horrek nabarmen areagotzen baitizkio estresa eta nekea egiten duen pertsonari. Dedicazio-denbora gehitzeak zaintzaileari eskatzen dion esfortzu erlatiboa ere ez du neurtzen, oso aintzat hartu beharreko kontua dena eta teoria ekonomikoan kostu marjinal gorakorren ikuspegitik aztertzen dena; ez du eragin bera zaintzari ordubete eskaintzeak denbora libre asko dagoenean eta denbora hori justua edo urria denean. Denbora-kontsumoaren adierazle hedakorrek ez dituzte neurtzen ordutegien bateragarritasunak edo bateraezintasunak, nahiz eta horiek ohikoak izan, enplegua eta familia-bizitza uztartzeari buruzko INEren moduluak eta hainbat herrialdeetako beste inkesta askok erakutsi dutenaren arabera.

Aipaturiko inkestak adierazten du zaintzak eragin txikia duela zaintzaileen ikasketetan eta lan-bizitzan baina bizitza sozialean eragin handia duela eta familian

⁸⁰ EOB, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. “Emitzen Txosten Orokorra”. 2011.

tentsioak sortzen dituela ere adierazten du (taulako VII.3-2, eranskina, eta VII.3-3, eranskina).

VII.3-1 taula

15 urteko edo gehiagoko zaintzaileak artatutako pertsona motaren eta hezkuntza- edo lan-bizitzan egindako ukoaren arabera. 2010. urtea.

(% horizontalak)

	Hezkuntza- edo lan-bizitzan egindako ukoak						
	Ikasketei uko egitea	Lanari uko egitea	Ikasteko denbora gutxiago	Lanerako denbora gutxiago	Ukoren bat	Ukorik ez	Guztira
Gutxienez mendekotasun moderatua duten bi edo gehiago	0,0	13,5	0,0	7,3	20,8	79,2	100,0
Mendekotasun berezia duten bi edo gehiago, beste kasu batzuk	0,0	4,3	0,0	5,7	10,0	90,0	100,0
Gutxienez mendekotasun moderatua duen bat	1,5	8,1	1,4	8,0	18,9	81,1	100,0
Beste kasu batzuk	0,0	2,4	0,5	6,5	9,4	90,6	100,0
Guztira	0,8	6,1	0,9	7,3	15,2	84,8	100,0

Iturria: Gizarte Premien Inkesta 2010. Emaizten Txosten Orokorra. EOB. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila, 2011. 59. o

VII.4. ZAINTZAREN BELAUNALDI ARTEKO BALANTZEA

Zahartzea pixkanaka-pixkanaka osasuna galtzarekin eta besteren zaintzak hartzeko premiarekin uztartzen da. Hala ere, adineko pertsonen % 60k ontzat edo oso ontzat jotzen du bere osasuna, % 3k soilik jotzen du oso txartzat eta % 15ek txartzat. Argi dago beraien adinaren testuinguruan egindako balorazioak direla eta adinekoek ez dutela konparatzen beraien osasuna gazteenarekin; baina osotasuna positiboa da (Adinekoegi egindako Inkesta, Imserso, 2010). Gizonezkoek emakumezkoek baino osasun hobea dutela adierazten dute, heriotza-tasek, nolabait, kontrakoa esaten badute ere. Hein batean, norberaren gaixotasuna aitortzarekin batera joaten den mendekotasun- eta hauskortasun-sentimenduaren tolerantzia eskasagoatik gertatzen da hori. Nolanahi ere, autopertzepzioak norbere buruaren ikuspen subjektiboa islatzen du eta norberak osasun ona duela pentsatzeak beste ondorio positibo batzuk ditu.

Denboraren Erabilerari buruzko Inkestaren arabera⁸¹, etxean hamar urtetik beherako umeak izateak ehuneko bost handitzen du etxeko jardueretako dedikazio-maiztasuna herritar guztientzat, eta jarduera horiek egiten dituztenek eskaintzen duten batez besteko denbora 3 ordu eta 21 minutukoa izatetik 4 ordu eta 25 minutukoa izatera pasatzen da. Egunean ordubete eta lau minutu gehiago dira, etxeko kide guztien artean berdin banatzen ez direnak. Etxean mendekotasuna duten adinekoak izatea eta ume txikiak izatea oso modu desberdinean islatzen dira denboraren erabileran. Gisa horretako etxeetan –ohikoagoak adineko pertsonak daudenean– bizi diren pertsonak etxeko lanetan aritzeko maiztasuna txikiagoa da mendeko pertsonarik ez dagoen etxeetan baino (% 73,7 eta % 84,1 hurrenez hurren). Adin nagusiko gizonezkoek gazteekin alderatuta askoz parte-hartze txikiagoa dutelako da hori. Dena den, mendeko pertsonak dauden etxeetan etxeko lanak egiten dituztenek egunean ordubete gehiago egiten dute (4 ordu eta 7 minutu eta 3 ordu eta 36 minutu, hurrenez hurren).

⁸¹ INE, Denboraren Erabilerari buruzko Inkesta 2009-2010.

Erretiratu edo pentsiodunen artean etxeko lanetarako dedikazioaren maiztasuna biztanleria osoarena baino zertxobait handiagoa da (% 84'8 eta % 83'4 hurrenez hurren) eta egunean bost minutu gehiago eskaintzen dizkiote, baina etxekoandreen artean askoz dedikazio handiagoa dago (% 99'2). Okupazio-multzo horretan adineko emakume asko daude. Ordaindutako lana dutenek euren enpleguari eskaintzen dioten ia denbora bera (7 ordu eta 24 minutu) eskaintzen diote etxekoandreek etxeko lanari batez beste (6 ordu eta 19 minutu).


Erretiratu eta pentsiodun guztiak ez dira adinekoak, jakina, ezta etxekoandre guztiak ere. Oso ohikoa da 65 urtetik gorakoek etxeko lanak egitea (% 86,6). Egia esan, beste edozein talde sozialek baino denbora gehiago eskaintzen diote. Enplegua dutenek ordaindutako lanari eskaintzen diotenaren erdia baino gehiago eskaintzen diote: egunean lau ordu eta minutu bat. Nolabait esatearren, lanaldi erdia baino gehiagoko dedikazioa dute ordaindu gabeko lanean.

Etxeko lanak egiteko ordaindutako enplegatuak etxe gutxi batzuetan soilik erabiltzen dira; euren baliabideen zati bat aurrekontu-partida horretarako erabiltzen duten etxeetan ere etxeko lanen zati txiki bat betetzeko soilik erabiltzen dute. Etxeko lanen dedikazio-maiztasuna ehuneko bat eta erdi soilik murrizten da etxeko langileak kontratatzen dituzten etxeetan (% 83,6tik % 82,2ra jaisten da), eta pertsonako batez besteko dedikazio-denbora eguneko 39 minutu soilik murrizten da. Kanpoko zerbitzuak kontratatzen dituztenek etxeko lan-karga gehien dutenak direlako da hori.

VII.5. MENDEKOTASUNA ETA MENDEKOAK ZAINTZA

Eguneroko jarduerak egiteko besteren laguntza izateko premia da mendekotasuna, eta bere larritasun maila mendekotasun oso arinetik mendekotasun oso larrira doa. Mendekotasuna adierazteko gehien erabiltzen diren adierazleak ezgaitasunik gabeko bizi-itxaropenekoak dira, eta ezgaitasun motaren arabera barietate handia dago (hamahiru mota, grafiko erantsian). Mendekotasuna adinarekin lotzen den arren, adinekoak dira mendekotasun egoeran dauden beste adineko pertsona batzuei zaintza-zerbitzu gehien ematen dizkien kolektibo soziala, eta ordaindu gabe egiten dute.

VII.5-1 grafikoa
Jaiotzako bizi-itxaropena eta osasun-itxaropena.



Iturria: INE, Minusbaliotasun, Urritasun eta Osasun Egoerei buruzko Inkesta, 1999.

IMSERSOK hiru multzo handitan sailkatzen du mendekoek hartzen duten zaintza: informala (ez dago ordainsaririk trukean, senitartekoak eta lagunak hartzen ditu), pribatua (etxeko langileak, enpresak eta GKE ez-publikoak hartzen ditu) eta Administrazio Publikoena. Ez dator bat azterlan honetan nagusiki erabiltzen ari diren “ordaindutakoa” eta “ordaindu gabea” kategoriekin. GKE-en barruko nahiz kanpoko boluntarioek egindako ordaindu gabeko lana, edo Administrazio Publikoekin lankidetzan egindakoa, informal kategorian, nahiz pribatuan edo publikoan sar daiteke.

IMSERSOK aintzat hartutako hiru mendekotasun motetatik, zaintza pertsonalerakoa, etxeko lanetarako edo mugikortasunerakoa jasaten duten adineko guztien batez bestekoa oso antzekoa da, heren bat baino zerbait gehiago. Hiru alderdi nagusietakoren baten mendekotasun funtzionala, ordea, 75 urtetik aurrera du gehiengoak: 75 eta 79 urte bitartean dituztenen % 50,26k mendekotasun motaren bat du. Deigarria da emakumeek adierazitako mendekotasun maila erreferentziako alderdi guztietan gizonezkoena baino handiagoa izatea. Halaber, deigarria da emakumeen artean etxeko lanak egiteko mendekotasuna, hau da, emakumeei esleitutako lan tradizionala egiteko mendekotasuna, laurogei urtetik aurrera soilik izatea gehiengoduna, eta ordaindutako langileentzako araua, bai etxetik kanpoko lanean nahiz etxeko lanean, ia derrigorrez 65 urterekin erretiratzekoa izatea. 15 urteko luzapena da aldea, hau da, etxetik kanpoko 47 urteko (18 eta 65 urte bitartean) lan-zikloaren ia herena (% 32) egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko mendekotasun-tasa orokorra % 4'3koa da (2008an). Beste Autonomia Erkidego batzuekin alderatuta baxua da. Mendekotasun-tasa estandarizatua (mendekotasun-tasa orokorra erkidegoko adin-egituraren arabera haztatzen duen tasa) % 3'95koa da, Madril eta Errioxa alde batera utzita Autonomia Erkidego guztien artean baxuena (Minusbaliotasun, Autonomia Pertsonal eta Mendekotasun Egoerei buruzko inkesta, EDAD, 2008)⁸².

⁸² INGEMA. “Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen desgaitasuna eta mendekotasuna”. M. Sancho Castielloren koordinazio teknikoa. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren eta INGEMA Fundazioaren arteko hitzarmena, 2008, ikus 55, 62, 63 eta 72 or.

VII.5-1 taula

Mendekotasun funtzionala (zaintza pertsonalerako, etxeko lanetarako eta mugikortasunerako) sexuaren eta adin-taldearen arabera. 65 urte eta gehiagokoak

	Guztira	Ez	Bai, zaintza pertsonalerako	Bai, etxeko lanetarako	Bai, mugikortasunerako
BI SEXUAK					
Guztira	100	53,53	34,21	37,45	36,72
65 eta 69 urte	100	75,48	14,06	17,22	16,19
70 eta 74 urte	100	64,40	24,91	27,25	25,46
75 eta 79 urte	100	50,26	35,23	38,27	38,24
80 eta 84 urte	100	34,62	51,23	54,07	54,07
85 urtetik gora	100	15,05	72,18	78,05	77,82
GIZONAK					
Guztira	100	61,32	26,88	30,59	27,47
65 eta 69 urte	100	76,76	12,05	16,66	13,80
70 eta 74 urte	100	71,90	18,36	20,98	15,59
75 eta 79 urte	100	60,03	27,42	30,35	27,75
80 eta 84 urte	100	41,97	43,88	45,75	45,16
85 urtetik gora	100	21,97	64,78	72,63	68,87
EMAKUMEAK					
Guztira	100	47,66	39,74	42,61	43,70
65 eta 69 urte	100	74,27	15,95	17,75	18,45
70 eta 74 urte	100	58,54	30,03	32,14	33,17
75 eta 79 urte	100	43,67	40,5	43,61	45,32
80 eta 84 urte	100	29,32	56,52	60,06	60,49
85 urtetik gora	100	11,35	76,15	80,96	82,62

Iturria: M.A. Duránek egina, INEren 2011-2012ko Osasunaren Inkesta Nazionalaren datuetan oinarrituta. Espainiako datuak.

Etxeetan adineko mendekoak zaintzeko lanak konplexuak dira, baina gutxitan egiten zaie azterketa xehatua. Zaintzaileek maiz aurre egin behar izaten dien egoeren artean honako hauek daude: adimen-egaitasunak, gaixotasun mentalak, depresioa eta antsietatea, ikusmen-ekasua, ezagutza-ekasua, demenziak eta Alzheimer gaixotasuna, Parkinson gaixotasuna, nahaste osteomuskularrak, nahaste endokrinoak, istripu zerebrobaskularrak (IZB) eta pertsonenganako tratua bizitzaren amaieran. Adinekoak egoitzetan edo eguneko zentroetan sartzen direnean, ordea, azterketa mota hori egiten da, hain zuzen ere profesional soziosanitarioen lana orientatzeko. Kasu horietan, senitartekoei zaintza-lanak egiten jarraitzen dute, partzialki instituzioen esku uzten dituzten arren. Adibide gisa, mendekotasuna duten adinekoen zaintzaileen prestakuntza-saioetan sartutako gai batzuk Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Arreta Gerontologikoko gidan jaso dira⁸³.

⁸³ Martínez Rodríguez, Teresa. "Pertsonarengan oinarritutako arreta gerontologikoa. Hauskortasun- edo mendekotasun-egoeran dauden adinekoen arreta eskaintzeko zentro eta zerbitzuetako esku-hartze profesionaletarako gida". Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila, Argitalpen Zerbitzu Zentrala, Gasteiz, 2011, 169-170 or.

- 1) Oinarrizko kontzeptuak (zahartzea, ezgaitasuna, mendekotasuna, zaintzen hornidura-sistema, arretaren oinarrizko printzipioak).
- 2) Zaintzek familian duten eragina (pertsonek zaindarearen zaintza, nork bere burua zaintzeko premia, alarma-arrastoak estrespean, nola zaindu nork bere burua).
- 3) Zaintza pertsonalak etxean (bainatzea eta garbitzea, elikadura eta nutrizioa, janzea eta txukuntzea, mugikortasuna, loa, esfinterrak kontrolatzea).
- 4) Pertsonek ardatz duen zaintza (burujabetzaren eta autonomiaren sustapena, zaintzak autoestimuan duen eragina, komunikazioa, nola aurre egin jokabide zailei).
- 5) Ingurunearen egokitzapena (ingurunearen eragina jokabidean, irisgarritasuna eta oztopoak, etxearen egokitzapena, laguntzako produktuen erabilera).
- 6) Etxeko zaintza sanitarioak (osasun-ohiturak, erizaintzako oinarrizko zaintzak, botiken erabilera egokia).
- 7) Baliabide sozial eta sanitarioak (eskura dauden baliabide sozialen sarea eta horien erabilera, baliabide sanitarioak eta horien erabilera).
- 8) Alderdi etikoak eta legezkoak mendeko pertsonen zaintzan (dilema nagusiak, ezgaitzea).
- 9) Bizitzaren amaiera (heriotza duina, agurra, dolua).
- 10) Etxetik kanpoko ostatuaren baliabidearen aukera (noiz komeni den, nola hartu erabakia, zentro egokienaren hautaketa, pertsona zaintzen testuinguru berrira egokitzeko laguntzea eta erraztea).

2010ean, 15 urtetik gorako biztanleen % 5 beste pertsona batzuen nolabaiteko zaintzaz arduratzen zen Euskadin (Gizarte Premien Inkesta, 55. or.). Jarraian horren eragina 55-64 urteko adin-tartean da handiena (% 8'4), baina 75 urtetik gora ere handia izaten jarraitzen du. 65 urtetik gorakoek zaindarearen % 30 osatzen dute; ordu kopurua eta zaintza-intentsitatea modu homogeneoan banatuko balira zaintzaren karga globalaren heren bat euren gain hartzen dutela ondoriozta liteke, baina seguruenik gehiago hartzen dute arreta- eta zaintza-ordu asko behar dituzten mendeko pertsonen arduratzen direlako.

VII.5.-2 taula

15 urte edo gehiagoko zaintzaileak, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2010. urtea. Euskadi.

(Datu absolutuak, % bertikalak eta eraginaren %).

		2010		Eragina
		Datu orokorrak		
		Abs.	% ber.	
Sexua	Gizona	40.669	41,8	4,6
	Emakumea	56.558	58,2	5,9
Adina	15-24 urte	2.771	2,9	1,4
	25-34 urte	7.266	7,5	2,6
	35-44 urte	15.004	15,4	4,0
	45-54 urte	22.459	23,1	6,7
	55-64 urte	21.554	22,2	8,4
	65-74 urte	12.512	12,9	6,6
	> 75 urte	15.661	16,1	7,4
Nazionalitatea	Estatua	95.485	98,2	5,5
	Best bat	1.742	1,8	1,7
Guztira		97.227	100,0	5,3

Iturria: Gizarte Premien Inkesta 2010. Eraitzen Txosten Orokorra. EOB. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila, 2011. 56. or.

VII.5-3 taula

15 urte edo gehiagoko zaintzaileak artatutako pertsona motaren eta zaintzei lotutako lan-kargaren arabera. 2010. urtea. Euskadi.

(% horizontalak)

	Lan-karga				
	Berezirik ez	< 1 ordu gehigarri	1-2 ordu gehigarri	2 ordu gehigarri edo gehiago	Guztira
Gutxienez mendekotasun moderatua duten bi edo gehiago	0,0	11,3	10,0	78,7	100,0
Mendekotasun berezia duten bi edo gehiago, beste kasu batzuk	7,6	26,4	12,6	53,5	100,0
Gutxienez mendekotasun moderatua duen bat	6,7	10,2	13,1	70,0	100,0
Beste kasu batzuk	36,2	29,7	15,5	18,6	100,0
Guztira	15,9	17,9	13,7	52,5	100,0

Iturria: Gizarte Premien Inkesta 2010. Eraitzen Txosten Orokorra. EOB. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila, 2011. 58. or.

VII.5-4 taula

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak adin-tartearen arabera, eta hartzen duten zaintza motaren arabera.

	Euskadi					Espainia				
	50 urteik beherakoak	50 eta 64 urte	65 eta 79 urte	80tik gora	65etik gora	50 urteik beherakoak	50 eta 64 urte	65 eta 79 urte	80tik gora	65etik gora
Pertsona kopurua										
Zaintza informala	9.759	8.032	16.780	22.337	39.117	247.801	176.447	390.502	478.473	868.315
Zaintza pribatua	734	548	1.578	3.132	4.710	3.192	8.774	24.881	53.412	78.290
Administrazio Publikoaren zaintza	0	189	903	984	1.584	1.790	2.590	9.008	17.429	26.447
Zaintza informala eta pribatua	969	738	2.265	8.266	11.051	17.775	11.443	38.789	65.885	124.673
Zaintza informala eta Admin. Publik.	584	52	527	2.163	2.690	7.140	2.907	15.813	30.520	46.330
Zaintza pribatua eta Admin. Publik.	0	0	0	0	0	718	0	189	1.113	1.283
Zaintza infor. pribat.eta Admin. Publik.	514	0	0	332	332	1.899	555	2.764	6.582	9.346
Zaintzailearen daturik gabe	1.330	1.480	1.669	1.101	2.769	89.527	115.299	161.453	83.491	244.344
GUZTIRA	13.863	11.019	23.438	38.815	62.254	369.863	317.984	643.379	756.914	1.400.293
Portzentaje bertikalak										
Zaintza informala	70,2	72,9	71,6	57,5	62,8	67,0	55,5	60,7	63,2	62,1
Zaintza pribatua	5,3	5,0	6,7	8,1	7,6	0,9	2,8	3,9	7,1	5,6
Administrazio Publikoaren zaintza	0,0	1,8	2,6	2,5	2,5	0,5	0,8	1,4	2,3	1,9
Zaintza informala eta pribatua	7,0	6,7	9,8	22,6	17,8	4,8	3,5	6,0	11,3	8,9
Zaintza informala eta Admin. Publik.	4,2	0,5	2,2	5,6	4,3	1,9	0,9	2,5	4,0	3,3
Zaintza pribatua eta Admin. Publik.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,1	0,1
Zaintza infor. pribat.eta Admin. Publik.	3,7	0,0	0,0	0,9	0,5	0,5	0,2	0,4	0,9	0,7
Zaintzailearen daturik gabe	9,6	13,2	7,1	2,8	4,4	24,2	36,3	25,1	11,0	17,5

Iturria: INGEMA. (M. Sancho Castiello, Koord.) "Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen ezgaitasuna eta mendekotasuna". 2008, 56. or.

Euskal Autonomia Erkidegoan, EDAD 2008 inkestaren arabera⁸⁴, mendekoak zaintzeko kasuen % 85'4ean zaintza informala erabiltzen da, eta kasuen % 62'8an erabiltzen den zaintza mota bakarra da. Zaintzaileen prestakuntza maila Espainian baino altuagoa da, emakumeen proportzio handiagoa dago eta hirurogei urte baino gehiagoko zaintzaileen proportzioa handiagoa da (% 23 eta % 19 hurrenez hurren). Asteko egun kopuruaren arabera, ordu kopuruaren arabera edo zaintzen daramatzaten urteen arabera neurtzen bada, zaintzaileek mendeko adinekoak zaintzeko intentsitatea txikiagoa da Euskadin Espainian baino eta zaintzaile-jardueraren ondorioz osasunean izaten dituzten kalte edo arazoaren maiztasuna ere txikiagoa da (VII.6.-5 taula).

Zaintzaileek laguntza pribatu gehiago jasotzen dituzte Administrazio Publikoetatik eta baita informal eta pribatuen laguntza misto gehiago ere Espainian baino, eta hori bat dator dedikazio maila baxuagoa izatearekin. Zaintzan aritzeagatik kalte eta ondorio negatibo gutxiago ere izaten dituzte, baina konparazioa ez da oso zehatza zaintzaileari buruzko datu gutxi dagoelako (% 4 Euskal Herrian, % 17 Espainian). Nolanahi ere, (VII.5-6 taulako eranskina), gehiengo dira zaintza-jardueraren ondorioz osasunean edo egoera orokorrean narriaduraren bat izan dutela adierazten duten zaintzaileak (% 58 Euskal Herrian, % 68 Espainian). Azken hamabi hilabeteetan eta azken hamalau egunetan zerbitzuak jaso dituzten maiztasunaren arabera, mendekotasuna duten adinekoek Euskal Herrian zerbitzu gutxiago (zaintza medikoak edo erizaintzakoak, probak, diagnostikoak, errehabilitazio funtzionala) jaso dituztela adierazten dute. (VII.5-7 taula).

⁸⁴ Desgaitasunei, Autonomia Pertsonalari eta Mendekotasunari buruzko inkesta. IMSERSO, 2008.

VII.5-5 taula
Mendekotasuna duten adinekoen zaintzaren intentsitatea Euskal Herrian eta Espainian

EUSKADI		ESPAINIA	
(N)	62.254	(N)	1.400.293
Zaintzaile nagusia zaintza pertsonalak ematen aritzen den asteko egun kopurua		Zaintzaile nagusia zaintza pertsonalak ematen aritzen den asteko egun kopurua	
Egun bat edo gutxiago	4,1	Egun bat edo gutxiago	1,7
2 eta 3 egun bitartean	2,4	2 eta 3 egun bitartean	2,4
4 eta 5 egun bitartean	4,0	4 eta 5 egun bitartean	3,5
6 eta 7 egun bitartean	51,7	6 eta 7 egun bitartean	65,7
EE/ED	27,8	EE/ED	26,7
Zaintzaile nagusia zaintzak ematen aritzen den asteko ordu kopurua		Zaintzaile nagusia zaintzak ematen aritzen den asteko ordu kopurua	
Bi ordu edo gutxiago	21,6	Bi ordu edo gutxiago	11,9
3-5 ordu	13,8	3-5 ordu	13,3
6-8 ordu	8,1	6-8 ordu	8,7
8 ordu baino gehiago	27,3	8 ordu baino gehiago	39,0
EE/ED	29,1	EE/ED	27,1
Zaintza pertsonalak ematen daraman denbora		Zaintza pertsonalak ematen daraman denbora	
Urte bat baino gutxiago	5,7	Urte bat baino gutxiago	7,9
1-2 urte	7,7	1-2 urte	9,1
2-4 urte	19,2	2-4 urte	14,8
4-8 urte	16,6	4-8 urte	16,5
8 urte baino gehiago	23,0	8 urte baino gehiago	25,3
EE/ED	27,8	EE/ED	26,4

OHARRA: portzentaje bertikalak

Iturria: INGEMA. (M. Sancho Castiello, Koord.) "Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen ezgaitasuna eta mendekotasuna". 2008, 62. or.

Mendekoeak adierazten dute Espainian baino maiztasun txikiagoarekin jaso dituztela zerbitzu sanitarioak eta sozialak. EDAD 2008 inkestaren datuek ez dute aukerarik ematen gogobetetasun mailan sakontzeko mendekoeak beraiek hautematen duten premien estaldurarekin, ez eta Euskadirako bereizita ezartzeko ere. Arazo larria da hori. Zaintzak ematea bi ikuspegietatik ikusi behar da: zaintzak ematen dituenaren eta jasotzen dituenaren ikuspegitik. Jasotzen duenarentzat aberastasuna izan daitekeenak arazoak, pobrezia eta osasun-galera eragin ditzake ematen dituenarengan, baldin eta baldintza egokietan egiten ez badu. Mendekotasuna duten bost pertsonatatik batek, gutxi gorabehera, bere premiak behar bezala estalita ez daudela uste du. Pertzepzio hori handiagoa da mendeko larrien artean, diru-sarrera gutxiagokoen artean, emakumeen artean, adinekoen artean, pertsona bakarreko etxeetan bizi direnen artean eta zaintzaile nagusia gizonezkoa, lanean ari dena edo etxea beraiekin partekatzen ez duena dutenen artean. Zaintza informalak jasotzen dituztenak ere kritikoagoak dira, baina egoera horrek beste zaintza mota batzuen gabezia estaltzen du.

VII.6. MENDEKOTASUN EKONOMIKOA, AFEKTIBOA ETA FISIKOA. LANDUNEN MENDE DAUDEN MENDEKOEN ZAINZA EUSKADIN

Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Bateratzeari buruzko Inkestak (Eustat, 2012) bi mendekotasun mota bereizten ditu: hamabost urtetik beherako umeena eta gainerako herritarrena. "Mendekotasuna" terminoaren esanahi-ugaritasuna nabarmen islatzen da emaitzetan. Inkesta horren arabera, Euskadin pertsona landunen mende bizi diren hamabost urtetik beherako kopurua 264.700ekoa da. Hamabost urtetik gorakoak diren baina pertsona landunen mende bizi diren 553.000 mendeko gehitu behar zaizkie haiei. Gehienak hirurogeita hamabost urtetik gorakoak dira (479.000). Umeen zaintza oso instituzionalizatua dago eta familia gehienek jotzen dute haurtzaindegi eta ikastetxeetara laneko ordutegian.

Landunarekiko "mendekotasun" kontzeptua honela definitzen da: *"pertsona landunaren arreta erregulartasunez behar duten mendekoen zaintzaz arduratzen den pertsona, harekin batera bizi bada nahiz aparte bizi bada. Pertsona landunaren lanaldian zehar nahiz lanalditik kanpo egiten diren zaintzak hartzen dira kontuan"*. Egia esan, kontzeptu hori oso zentzu zabalean interpretatu da, mendekoak behar duen arreta material eta afektiboa jasotzeko erantzukizun gisa. Lanaldian zehar, umeak dituzten familien % 85ek haurtzaindegi eta ikastetxeen esku uzten du haien zaintza. Landunen "mendeko" adinekoen zaintzari dagokionez, elkarrekin ez bizitzea da ohikoena (152.000 soilik bizi dira elkarrekin, eta 401.000 ez dira elkarrekin bizi); eta zaintzaile nagusien % 13 soilik dago lanaldian okupatuta, zaintzaren zatirik handiena ordaindu gabeko eta okupatu gabeko senitartekoek egiten dute (% 49), ordaindutako zaintzaile pribatuek dezenteko presentzia dute (% 19), eta baita zerbitzu publikoek (% 13'5) eta ordaindu gabeko auzotar eta lagunek ere (% 5).

Mendekoen zaintzak, askotan, talka egiten du senitarteko hurbilenean premiekin, batez ere enpleguan dituen ondorioengatik. Mendekoen zaintza eta enplegua aldi berean egiten dituztenek ordutegi-egonkortasuna behar dute gainjartzeak saihesteko. Aldiberekotasuna ia bateraezina da ordutegi luzeekin, aurreikusitako gabeko aparteko orduekin, lanagatiko desplazamendu edo lekualdaketeekin edo bizitza profesionalaren jarduera osagarriekin (prestakuntza eguneratzea, gertakizun sozialak, etab.). Zaintza-zerbitzu osagarrietan ere egonkortasuna behar dute, izan ere, edozein aldaketak bateragarritasun-arazo larriak eragiten ditu.

Lanaldi osoko zaintza egitea eta lanaldi osoko enplegua izatea ez da posible, ezin dira ordutegiak gainjarri. Hurbiltasuneko arreta ez da zerbitzu metagarria, pilatu edo handitu egin daitekeena, ordutegi malguan egitea onartzen duten unean uneko zereginetan izan ezik. Horregatik, mendekoak artatu eta zaintzeko modua aldatu egiten da lanaldiaren barruan edo lanalditik kanpo egitearen arabera. Kasu batean zein bestean, senitartekoaren zaintza arintzea edo atsedean hartzea eta ordainsaririk jasotzen ez duen beste senitarteko baten esku uztea edo harekin partekatzea da ohikoena. Horrela gertatzen da lanaldi barruan egiten den kasuen % 50,5ean eta lanalditik kanpo egiten den kasuen % 53,7an. Maiztasuna kontuan hartuta, okupatutako beste senitarteko batengana jotzeko aukerak jarraitzen dio; enplegua duten beste senitarteko batzuk arduratzen dira mendeko pertsonaz elkarrizketatuaren lanaldian kasuen % 13,3an. Horrek adierazten du bat ez datorren lanaldia dutela. Lanalditik kanpo, berriz, kasuen % 29,4ean arduratzen dira. Horrek esan nahi du okupatutako senitarteko horiek lanaldia amaitzen dutenean arduratzen direla mendeko pertsonaz.

Ordaindutako zaintzaileengana jotzea ere sarritan erabiltzen den neurria da, elkarrizketatuak bere lan profesionalari eskaintzen dion denborak mugatzen badu ere. Lanaldi barruko kasuen % 20,0an soilik erabiltzen dira ordaindutako pertsonak, eta lanaldiz kanpoko kasuetan % 9,3ra murrizten dira. Zaintza gizarte-zerbitzuen esku uztea maizago gertatzen da mendekoa gaztea denean

adinekoa denean baino. Mendekotasunaren motarekin eta larritasunarekin eta senitarteko hurbilenek lan- eta gizarte-egituran duten kokapenarekin lotuta dago hori. Landunek gizarte-zerbitzuetara jotzen dute eta haiak ematen diete zaintza lanaldian zehar mendeko senitartekoei kasuen % 24,1ean hirurogeita bost urtetik beherakoak direnean eta kasuen % 11,9an soilik adin hori gainditzen dutenean. Gizarte-zerbitzuetara jotzen dutenen artean hiru bider gehiago dira mendekoarekin batera bizi ez diren senitarteko okupatuak (% 16'6 eta % 5'2 hurrenez hurren). Lanalditik kanpo erabiltzen diren gizarte-zerbitzuak erdira murrizten dira (% 7,0). Mendeko gazteei dagokienez, hamarren batera murrizten dira eta adinekoak heren bat soilik murrizten dira.

Proporzio txiki batek, baina gutxietsi ezin denak, senitartekoak ez diren ordaindu gabeko pertsonen laguntza eskatzen dute lanaldian zehar, eta lagunak edo auzotarrak direlako egiten dute. Senitartekoek emandakoa baino arreta arinagoa eta jarraipen gutxiagokoa dela pentsa daiteke, inkestak horri buruzko informaziorik ematen ez duen arren. 15 urtetik beherako umeen kasuan, familien % 5ek beste senitarteko batzuegana jotzen du, eta okupatuak % 81ek ikastetxe edo haurtzaindegietara jotzen du. Jasotako laguntza edo zerbitzu motak eboluzionatu egiten du umearen adinaren arabera. Bi urtetik beherako umeen kasuan, familien % 67k haurtzaindegiak edo ikastetxeak erabiltzen ditu, % 13k ordaindu gabeko senitartekoengana jotzen du eta % 2k ordaindutako pertsonengana. 3 eta 5 urte arteko umeen kasuan, familiek gutxiago jotzen dute senitartekoengana eta gehiago erabiltzen dituzte haurtzaindegiak eta ikastetxeak.

Guraso landunen % 15ek senitartekoengana jotzen du (ezkontideez aparte) lanaldian zehar umeak zaintzeko aldizkako premiak izaten dituztenean. Kasu gehienetan aitona-amonak izaten dira, baina inkestak ez du zehazten. Kopurua askoz txikiagoa da, hutsaren hurrengo da (% 1,2) lanaldiz kanpoko zaintzaren kasuan.

VII.6-1 taula
Euskal AEko biztanleria landunaren mendeko pertsonak, lanaldian zehar jasotako zaintzaren eta ezagarrri soziodemografikoaren arabera. Milakotan eta ehunekotan. 2012

	Cuidado durante la jornada laboral						Cuidado fuera de la jornada laboral						
	Milaka	% horizontalak					Milaka	% horizontalak					
		Senitarteko landunak	Ordaindu gabeko beste senitarteko batzuk	Ordaindu gabeko auzotarrak edo lagunak	Ordaindutako beste pertsona bat	Gizarte-zerbitzuak	Guztira		Senitarteko landunak	Ordaindu gabeko beste senitarteko batzuk	Ordaindu gabeko auzotarrak edo lagunak	Ordaindutako beste pertsona bat	Ordaindutako beste pertsona bat
Euskal AE	55,3	100,0	12,9	49,4	5,2	19,0	13,5	55,3	100,0	32,7	51,9	8,5	7,0
Bizi den lurraldea													
Araba	3,7	100,0	10,7	46,3	4,9	25,4	12,6	3,7	100,0	54,2	38,7	7,1	-
Bizkaia	35,9	100,0	9,1	59,4	7,0	13,7	10,9	35,9	100,0	26,0	61,9	7,0	5,1
Gipuzkoa	15,7	100,0	22,1	27,3	1,3	29,6	19,7	15,7	100,0	43,0	32,1	12,2	12,8
Adina													
65 urtetik behera	7,4	100,0	10,3	41,8	11,1	12,7	24,1	7,4	100,0	54,3	40,0	3,2	2,6
65 urtetik gora	47,9	100,0	13,3	50,5	4,3	20,0	11,9	47,9	100,0	29,4	53,7	9,3	7,6
Sexua													
Gizonak	16,5	100,0	12,5	46,9	6,0	23,4	11,3	16,5	100,0	28,9	50,6	13,2	7,3
Emakumeak	38,8	100,0	13,1	50,4	4,9	17,1	14,4	38,8	100,0	34,3	52,4	6,4	6,8
Pertsona landunarekin bizi da													
Ez	40,1	100,0	10,7	49,8	4,4	18,5	16,6	40,1	100,0	22,0	59,0	9,5	9,6
Bai	15,2	100,0	18,9	48,3	7,3	20,3	5,2	15,2	100,0	61,2	33,1	5,7	-

Iturria: Lana, familia eta norberaren bizi-tza bateratzeari buruzko inkesta. EUSTAT, 2012

VIII. KAPITULUA

ADINEKOEN EKONOMIA MONETARIZATUAREN ETA MONETARIZATU GABEKOAREN ARTEKO INTERAKZIOA

VIII.1. FAMILIEN MUGA EKONOMIKOA: ORDAINDUTAKO ETXEKO LANA KONTRATATZEA ETA HORREN ISLA BPGAN

Etxeko eguneroko jarduerak, hirurogeita bost urtetik gorako herritarren kasuan, ordaindutako langileen esku geratzeko joera hartu dute, taula erantsiak adierazten duen bezala. Garbiketa proportzio handian kanporatzen da, bost kasutik ia batean, baina astean ordu gutxiko laguntza partziala da (VIII.1-1 taula). Gaixoen zaintza, bestalde, kasuen ehuneko txiki batean kanporatzen da (% 6,4), baina kasu horietan astean ordu asko behar izaten dira eta zaintzarako aukera hori erabiltzen duten familietan eragin handia izaten du diru-baliabideetan. Haren kostua ordaintzeko ezintasun ekonomikoa da, hain zuzen ere, hain eragin txikia izatearen arrazoiak. Gizonezkoek zerbitzuak gutxiago kanporatzearen arrazoi nagusia lan hori euren gain hartzen duten emakumeak (emaztea, alabak) etxean izatea da.

Berezko interesaz aparte, etxeetan zerbitzuak kanporatzeak interes metodologiko handia du, etxeetan ordainsaririk gabe egindako lana ordeztzeko kostuaren estimazioa nolabaiteko erraztasunez planteatzeko aukera ematen duelako. Etxeetan egindako lanaren zer proportzio egiten dute pertsona kontratatuek edo ordaindutakoek? Kontu Ekonomikoek balio bat ematen badiote etxeko ordaindutako lan honi, Euskadiko Kontu Ekonomikoek egiten duten bezala, ordaindu gabeko etxeko gainerako lanaren balioa gutxi gorabehera kalkula daiteke, bai guztizkoa eta bai adinekoen etxeetan egindakoa. Familien % 85ek ordaindutako langileen laguntzarik gabe egiten dituzte etxeko zerbitzuak. Zerbitzu hori kontratatzen duten familiek kontratatutako batez besteko denbora asteko 11 ordukoa da, etxe guztien kasuan asteko 1 ordu eta 61 ehunenekora murrizten dena. Nolanahi ere, begien bistakoa da ordaindutako etxeko lanak ez duela hartzen etxeetan egindako lan guztiaren % 1 ere. 2011ko ordaindutako etxeko lanaren balioa urteko 562.097 mila eurokoa dela kalkulatu dute Kontu Nazionalak. Ordaindu gabeko lan osoaren balioa gutxienez ehun bider handiagoa izango da, BPG osoaren antzeko zenbatekora hurbiltzen duena.

VIII.1-1 taula

65 urtetik gorakoen familietan jarduerak etxeko langileen esku uztea.

Etxeko jarduera gehienetarako etxeko langile bat duten familien %, elkarrizketatutakoaren generoaren arabera.

Jarduera	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Garbiketa	18,2	15,5	20,2
Arropa garbitzea	9,8	8,5	10,7
Janaria prestatzea	8,8	6,8	10,3
Gaixoak zaintzea	6,4	4,7	7,8
Erosketak egitea	4,4	3,7	4,9
Konponketa txikiak	3,9	2,4	5
Gestioak egitea	3,4	2,3	4,2

Iturria: IMSERSO, Adineko Pertsonen buruzko Inkesta, 2010.

VIII.2. KONTRATATUTAKO FUNTZIOAK ETA ASTEKO ORDUAK

Familia gehienek (% 86) etxeko zerbitzu gehienak ordaindutako kanpoko langilerik gabe egiten dituzte, eta % 14k langileak hartzen ditu. Kanpoko langileak erabiltzea familiaren gaitasun ekonomikoaren (diru-sarreraren maila) baitan eta zerbitzuen premiaren (familian zaintzak behar dituzten umeak edo adinekoak egotea, eta eguneroko zerbitzuak egiteko pertsonarik ez egotea) baitan dago batik bat. Diru-sarreraren mailaren arabera, lehen kintileko % 5ek soilik erabiltzen ditu ordaindutako langileak etxeko lanetarako eta ehunekoia etengabe igotzen da diru-sarreraren maila gorenean % 33ra iritsi arte.

Etxeko langileek askotariko funtzioak betetzen dituzte, hiru kategoriatan bildu daitezkeen arren: etxearen eguneroko mantentzearekin zerikusia dutenak eta zerbitzuen ardatza direnak (garbiketa, arropa, janaria prestatzea), arreta berezia behar duten familiako kideren bati (umeak, helduak) eskainitakoak, eta egunerokoak ez direnak edo lehen multzoan sartzen ez direnak (gestioak, erosketak, konponketak, etxeko animaliak eta lorezaintza, etab.). Etxeko langileen % 97k garbiketa-lanetan, arropa zaintzen eta janariak prestatzen erabiltzen du laneko denbora guztia edo zatirik handiena. Etxeko langile guztietatik, % 4k baino zerbait gutxiagok (% 3,84k) enplegu-emailearen etxean egiten du lo. Gehienak enplegu-emailearen etxean bizi diren enplegatuen dira (% 3,71k etxean afaltzen du), nahiz eta proportzio txiki bat beste etxe batean bizi den edo beste etxe batean lan egiten duen. Proportzio pixka bat handiagoak, % 10,24k, lan egiten duen etxean egiten du eguerdiko otordua eta ia % 14k gosaria edo otordu txiki bat egiten du goizean zehar (INE, Familia Aurrekontuen Inkestaren Modulua, 2009. Etxeko Zerbitzua).


Familien proportzioaren arabera ordaindutako laguntza gehien erabiltzen duen talde soziala da adinekoena, baina ez kontratatutako lan-kantitatearen arabera, umeak dituzten familiek gaintzen baitute.

Etxeko langileen % 11k adinekoak edo gaixoak zaintzeko lanak egiten ditu eta % 7k umeak zaintzekoak. 65 urtetik gorakoen familietan, % 1,4k soilik du enplegatua lanaldi osoan. Enplegatuen adinekoen zaintzari eskaintzen dion denboraren proportzioa familiaren errentaren alderantziz proportzionala da. Errenta handiko familietan, enplegatuen % 4k soilik erabiltzen du bere denbora pertsona helduak zaintzeko. Proportzioak gora egiten du errentak txikitzen diren heinean. Hilean mila eurotik beherako errenta eta enplegatua duten familien multzoan, % 22k helduak zaintzeko erabiltzen du.

Pertsona bakarrak edo 65 urtetik gorako bikoteak osatutako familien % 24k ordaindutako laguntzaren bat hartzen du etxeko zerbitzueterako, baina astean lau ordu baino gutxiago kontratatzea da ohikoena. Etxeko langileak dituzten 65 urtetik gorakoen artean, % 6k soilik ditu lanaldi osorako, eta batez bestekoa astean bederatzirdukoa da. Umeak dituzten familien % 15ek ordaindutako laguntza motaren bat kontratatzen du, eta astean lau eta hamar ordu artean kontratatzea da ohikoena.

VIII.2-1 grafikoa

Adinekoak eta ordaindutako etxeko lana kontratatzea.



Iturria: Durán et al.-ek eginia Familia Aurrekontuen 2009ko Inkestako datuetan oinarrituta (Etxeko Zerbitzuari buruzko Modulua).

Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailaren arabera, Euskadin, 2011n, 90.000 lagun ari ziren lanean etxeko langile gisa. Hori proportzio handia da 483.000 gizonen eta 413.000 emakumeen osatutako biztanleria landunarentzat. Etxeko langile guztiak emakumeak balira, emakume landun guztien % 22 izango lirateke. Familia enplegu-emaileen kopurua 106.000 dela kalkulatu da, hainbat etxetan orduka enplegatutakoena baino kopuru handiagoa. Etxeko langileen % 90ek etxe bakarrean egiten du lan eta % 7 lan egiten duen etxe berean bizi da. INEk Espainia osorako kalkulatuako ehunekoa baino handiagoa da hori (% 4k egiten du lan enplegu-emaileen etxean). Orduko batez besteko ordainsaria 7,30 eurokoa da iturri horren arabera. Batez bestekoak ez du jasotzen tarteko atsedenaldirik izaten ez duten ordukako garbitzaileen orduko soldataren (hamar euro ingurukoa) eta lanaldi osoko barneko langileen (3,84 euro ingurukoa) arteko aldea. % 19 soilik dago alta emanda Gizarte Segurantzian. Gehienek ez dute zergarik ordaintzen eta ez dute Gizarte Segurantzian egotearen ondoriozko eskubiderik⁸⁵. Honako hau da 2013rako legez xedatutako gutxieneko soldata: 645,30 euro hileko, 21,518 euro eguneko, 5,05 euro orduko eta 9.034,20 euro urteko. Erakunde sozial batzuek (adibidez, Valladolideko Cáritasek eta Gurutze Gorriak) soldata-taulak % 12 igotzea proposatzen dute, baldin eta etxeko langileek euren gain hartzen badute mendekotasuna duten adinekoen, ume txikien edo familia ugarien zaintzaren erantzukizuna.

Etxeko langileen lana jarduera produktibotzat jotzen da kontabilitate-xedeetarako, eta hala jasotzen dute Euskadiko Kontu Ekonomikoek. 2011rako (Eustat, 2013ko irailaren 12a) 562.097 mila euroko produkzioa kalkulatu zuen.

⁸⁵ Galinde, Diario Vasco, 2011/07/10.

VIII.2-2 taula

Euskadiko etxeko langileen produkzioaren balioa, 2011n, milaka eurotan.

A	Produkzioaren balorazioa	562.097
B	Soldatakoen ordainsaria	540.655
C	Soldatak eta ordainsariak	517.861
D	Gizarte-kotizazioak	22.794
E	Errenta mistoak, ustiapen-soberakina	21.442
F	Aren % produkzio osoarekiko, oinarritzko prezioetan (187.147.842 milaka euro)	% 0'30
G	Urteko batez besteko produkzioa pertsonako (eurotan)	6.245
H	Aren % BPGarekiko (65.684.285 mila euro 2011n)	% 0'9
H	% A sobre PIB (65.684.285 miles de euros en 2011)	0'9%

Iturria: M.A. Duránek egina, EUSTATen datuetan oinarrituta: Kontu Ekonomikoak, 2013ko irailaren 12a, 2011rako datuak, eta Eusko Jaurleri-tzako Enplegu Saila, 2011.

VIII.2-3 taula

Etxeko langileen funtzioak familiaren diru-sarreraren arabera (ehunekotan).

	Guztira	999 euroraino	1.000tik 1.999 eurora	2000tik 2999 eurora	3.000 euro baino gehiago
Etxea mantentzea, arropa zaintzea eta janaria prestatzea	96,68	95,94	95,15	96,68	97,85
Helduak zaintzea	10,62	22,08	15,92	8,88	4,17
Umeak zaintzea	6,58	.	.	5,36	11,94
Beste batzuk (lorezaintza eta etxeko animalien zaintza, erosketak, konponketak, etxeko gestioak, etab.)	12,00	15,94	12,67	11,22	10,57

Iturria: Durán et al.-ek egina INEren datuetan oinarrituta: Familia Aurrekontuen Inkestaren Modulua, 2009. Etxeko Zerbitzua.

Oharrak:

- 1) Ordezkaparratasun-faltagatik ezin dira eman daturik gabeko gelaxken estimazioak (puntutan).
- 2) Etxeko lanetarako pertsona bat baino gehiago duten familiak kategoría bat baino gehiagotan egon daitezke eta, horregatik, kategoría bakoitzeko ehuneko guztien batura % 100 baino handiagoa izan daiteke.
- 3) Diru-sarrerak dituzten familiak soilik.

Taula

Kontratututako asteko orduen batez besteko kopurua familia motaren arabera (ehunekotan).

	Denbora guztira	4 ordu baino gutxiago	4tik 10 ordura bitartean	10etik 40 ordura bitartean	Lanaldi osoa
Guztira	14,39	38,84	39,44	16,82	8,25
65 urteko edo gehiagoko pertsona edo bikotea	24,43	51,76	34,15	13,42	5,84
Pertsona bakarreko edo seme-alabarik gabeko bikoteko beste familia batzuk	10,06	51,83	39,62	7,60	--
Pertsona heldua 16 urte baino gutxiagoko seme-alabekin edo bikotea	14,92	27,77	42,51	23,32	8,89
16 urtetik beherako seme-alaba batekin gutxienez					
Beste familia batzuk	11,76	26,74	42,60	20,48	13,51

Iturria: Durán et al.-ek egina INEren datuetan oinarrituta: Familia Aurrekontuen Inkestaren Modulua, 2009. Etxeko Zerbitzua
Haztapen-eskala: 4 ordu baino gutxiago = 2; 4tik 10era bitartean = 7; 10etik 40ra bitartean = 25; lanaldi osoa = 42.

Oharrak:

- 1) Ordezkaparratasun-faltagatik ezin dira eman daturik gabeko gelaxken estimazioak (puntutan).
- 2) Etxeko lanetarako pertsona bat baino gehiago duten familiak kategoría bat baino gehiagotan egon daitezke eta, horregatik, kategoría bakoitzeko ehuneko guztien batura % 100 baino handiagoa izan daiteke.

VIII.3. FUNTZIOAK ETXEO BESTE KIDE BATZUEN, BESTE ETXE BATZUEN ETA ZERBITZU PUBLIKOEN ESKU UZTEA.

Adinekoen bitzita ekonomikoa ekonomiaren bi azpisisistemetan doa aldi berean: monetarizatu edo salgaiena, eta monetarizatu gabea. Azpisisistema monetarizatu gabeen preziorik gabeko ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dira, autokontsumorako nahiz beste batzuei lagatzeko zuzeneko diru-trukekoak ez diren baldintzetan. Monetarizatu gabeko ondasun eta zerbitzuen kontsumoa, produkzioa bezala, etxean bertan egiten da, baina baita senitarteko edo lagunen etxeetan eta borondatezko beste ingurune batzuetan ere.

Adineko pertsona gehienek okupatuta bizi direla uste dute (Adinekoei egindako Inkesta, Imserso, 2010); % 52k maila ertainean, % 30ek gehiegi (betebehar gehiegi dituzte) eta % 15ek gutxiegi (ez dute ezer egiteko).

VIII.3-1 taula

Jardueren transferentzia zahartzeko zikloan zehar.

Ondoren irakurriko dizkizudan jarduera hauetatik, nork betetzen ditu gehienetan zure etxean?

		SEXUA			ADINA				
		Gizona	Emakumea	Guztira	65 eta 69 urte bitartean	70 eta 74 urte bitartean	75 eta 79 urte bitartean	80 urtetik gora	Guztira
ARROPA GARBITZEA	Elkarrizketatuak	% 7,9	% 73,5	% 45,7	% 49,7	% 50,7	% 44,4	% 38,5	%45,7
	Ezkontideak	% 69,1	% 1,7	%30,3	% 40,1	% 34,3	% 31,4	% 16,7	%30,3
	Berarekin bizi den seme-alabak edo senitartekoak	% 11,2	% 12,6	% 12,0	% 4,2	% 10,2	% 12,7	% 20,3	%12,0
	Berarekin bizi ez diren seme-alabek, senideek, lagunek, auzokideek	% 3,1	% 1,5	% 2,2	% 1,7	% 0,8	% 1,5	% 4,5	%2,2
	Etxeko langileak	% 8,5	% 10,7	% 9,8	% 4,1	% 4,0	% 10,	% 20,1	%9,8
	Beste pertsona batek	% 0,2	% 0,0	% 0,1	% 0,2	% 0,0	% 0,1	% 0,0	%0,1
	Guztira	% 100,0	% 100,0	%100,0	%100,0	%100,0	% 100,0	%100,0	%100,0
ETXEO KONPONKETA TXIKIAK (EZ PROFESIONALAK)	Elkarrizketatuak	% 51,0	% 36,5	%42,6	% 51,9	% 45,7	% 46,3	% 28,4	%42,6
	Ezkontideak	% 27,4	% 19,9	% 23,1	% 32,1	% 25,6	% 23,1	% 12,7	%23,1
	Berarekin bizi den seme-alabak edo senitartekoak	% 10,5	% 21,9	% 17,1	% 9,0	% 18,5	% 13,5	% 25,9	%17,1
	Berarekin bizi ez diren seme-alabek, senideek, lagunek, auzokideek	% 5,9	% 13,9	% 10,5	% 3,9	% 6,7	% 12,1	% 18,8	%10,5
	Etxeko langileak	% 2,4	% 5,0	% 3,9	% 0,4	% 2,0	% 4,3	% 8,5	%3,9
	Beste pertsona batek	% 2,7	% 2,7	% 2,7	% 2,7	% 1,6	% 0,6	% 5,6	%2,7
	ED/EE	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,1	% 0,0	%0,0
Guztira	% 100,0	% 100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	

.../...

.../...

		SEXUA			ADINA				
		Gizona	Emakumea	Guztira	65 eta 69 urte bitartean	70 eta 74 urte bitartean	75 eta 79 urte bitartean	80 urtetik gora	Guztira
EROSKETAK EGITEA	Elkarrizketatuak	% 22,8	% 68,7	%49,3	% 57,0	% 53,0	% 50,7	37,6	% 49,3
	Ezkontideak	% 58,5	% 4,3	% 27,2	% 35,2	% 30,0	% 27,6	% 17,2	% 27,2
	Berarekin bizi den seme-alabak edo senitartekoak	% 11,2	% 16,7	% 14,4	% 6,1	% 13,4	% 13,6	% 23,4	%14,4
	Berarekin bizi ez diren seme-alabek, senideek, lagunek, auzokideek	% 3,7	% 5,3	% 4,7	% 1,4	% 2,1	% 4,8	% 10,0	%4,7
	Etxeko langileak	% 3,7	% 4,9	% 4,4	% 0,4	% 1,5	% 3,2	% 11,9	% 4,4
	Beste pertsona batek	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,1	% 0,0	% 0,0
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	% 100,0	% 100,0	%100,0	%100,0
GARBIKETA	Elkarrizketatuak	% 10,3	% 59,8	%38,8	% 47,2	% 46,4	% 38,0	% 24,7	%38,8
	Ezkontideak	% 59,4	% 2,9	%26,8	% 38,3	% 30,5	% 26,1	% 13,5	%26,8
	Berarekin bizi den seme-alabak edo senitartekoak	% 10,6	% 13,2	% 12,1	% 4,0	% 11,2	% 10,1	% 21,9	% 12,1
	Berarekin bizi ez diren seme-alabek, senideek, lagunek, auzokideek	% 3,8	% 3,8	% 3,8	% 2,2	% 2,2	% 5,4	% 5,5	% 3,8
	Etxeko langileak	% 15,5	% 20,2	% 18,2	% 8,2	% 9,5	% 20,0	% 34,2	% 18,2
	Beste pertsona batek	% 0,5	% 0,1	% 0,3	% 0,1	% 0,2	% 0,5	% 0,3	% 0,3
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
GESTIOAK EGITEA	Elkarrizketatuak	% 47,3	% 51,6	%49,8	% 58,5	% 55,0	% 50,2	% 36,6	%49,8
	Ezkontideak	% 33,8	% 14,4	% 22,6	% 29,4	% 25,7	% 22,6	% 13,6	% 22,6
	Berarekin bizi den seme-alabak edo senitartekoak	% 10,7	% 18,8	% 15,3	% 5,6	% 14,9	% 14,0	% 25,7	% 15,3
	Berarekin bizi ez diren seme-alabek, senideek, lagunek, auzokideek	% 4,8	% 6,8	% 5,9	% 3,0	% 2,4	% 6,8	% 11,2	% 5,9
	Etxeko langileak	% 2,3	% 4,2	% 3,4	% 1,3	% 1,4	% 4,3	% 6,4	% 3,4
	Beste pertsona batek	% 0,9	% 4,3	% 2,9	% 2,0	% 0,4	% 2,1	% 6,6	% 2,9
	ED/EE	% 0,2	% 0,0	% 0,1	% 0,1	% 0,2	% 0,0	% 0,1	% 0,1
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
JANARIA PRESTATZEA	Elkarrizketatuak	% 16,1	% 72,5	%48,6	% 52,8	% 54,1	% 52,1	% 36,8	% 48,6
	Ezkontideak	% 63,8	% 2,3	%28,4	% 38,2	% 31,4	% 28,9	% 16,1	% 28,4
	Berarekin bizi den seme-alabak edo senitartekoak	% 10,0	% 11,9	% 11,1	% 3,8	% 10,3	% 9,3	% 19,8	% 11,1
	Berarekin bizi ez diren seme-alabek, senideek, lagunek, auzokideek	% 2,9	% 2,2	% 2,5	% 1,3	% 1,6	% 1,6	% 5,1	% 2,5
	Etxeko langileak	% 6,8	% 10,3	% 8,8	% 3,2	% 2,5	% 7,8	% 20,7	% 8,8
	Beste pertsona batek	% 0,4	% 0,7	% 0,6	% 0,4	% 0,0	% 0,3	% 1,5	% 0,6
	ED/EE	% 0,0	% 0,1	% 0,1	% 0,3	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,1
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
GAIXORIK DAUDEN ETXEKOAK ZAITZEA	Elkarrizketatuak	% 7,7	% 25,5	% 17,4	% 20,8	% 21,1	% 15,6	% 11,5	% 17,4
	Ezkontideak	% 47,1	% 5,4	% 24,3	% 29,0	% 24,6	% 25,9	% 17,8	% 24,3
	Berarekin bizi den seme-alabak edo senitartekoak	% 10,2	% 15,4	% 13,0	% 7,5	% 12,1	% 11,4	% 21,1	% 13,0
	Berarekin bizi ez diren seme-alabek, senideek, lagunek, auzokideek	% 1,3	% 2,4	% 1,9	% 1,2	% 1,4	% 2,8	% 2,3	% 1,9
	Etxeko langileak	% 4,7	% 7,8	% 6,4	% 1,2	% 2,0	% 5,1	% 17,4	% 6,4
	Beste pertsona batek	% 0,3	% 1,8	% 1,1	% 1,5	% 0,2	% 1,0	% 1,6	% 1,1
	ED/EE	% 28,9	% 41,8	% 35,9	% 38,7	% 38,6	% 38,2	% 28,4	% 35,9
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Immersoren Adinekoei buruzko Inkestak (2010) nabarmen utzi zuen zahartzen joan ahala etxeko jarduerak beste pertsona batzuen esku uzten direla. Zahartzaroko lehen tartean (65 eta 69 urte bitartean) egiten ziren maiztasunarekin alderatuta, % 30 eta % 50 bitarteko ehunekoan murrizten dira azken adin-tartean (80tik gora). Gizonen eta emakumeen egoera oso desberdina da, eta guztientzako batez besteko maiztasunek ez dute zentzu handirik.

Adineko emakume gehienek jardunean jarraitzen dute ordaindu gabeko zerbitzuen produkzioan eta etxeko funtzio ekonomikoak betetzeaz arduratzen dira: % 73 arropa garbitzeaz arduratzen da; % 72 janaria prestatzeaz; % 69 erosketak egiteaz; % 60 garbiketaz; % 51 etxeko gestioez; eta % 36 konponketa txiki ez-profesionalez. Gaixo dauden etxekoez ere emakumeak arduratzen dira gehien bat, inkestaren metodologiak jarduera hori argi eta garbi jasotzeko aukerarik eman ez duen arren⁸⁶. Funtzioak betetzeko adierazleak ezin dira zuzenean laneko denbora bihurtu eta ezin zaie balio bat eman lan egindako orduaren prezioaren irizpidearen bitartez, izan ere, bere etxean jarduera horretaz gehienetan bera arduratzen bada ere, ez du esan nahi egunero egiten duenik. Adibidez, beste jarduera batzuk ere jasotzen zituen zerrenda batean, inkesta berean galdetu zen zer maiztasunekin egin zuen erosketa aurreko astean. Emakumeen % 31k ez zuen egin, eta hori bat dator aipaturiko kopuruekin, % 32k egunero edo ia egunero egin zuen eta gainerakoek astean behin edo bitan. Gizonezkoek ez zuten egin kasuen % 75ean.

Adineko emakumeak gizonezkoak baino gehiago kexatzen dira (% 50) zahartzearen ondorioz etxeko lanak egiteko dituzten arazoengatik. Gizonezkoek ez dute horrelakorik adierazten, eta ez da harritzekoa, normalean ez dituztelako egiten edo noizean behin bakarrik egiten dituztelako.

⁸⁶ Emakumeen % 42k eta gizonezkoen % 29k ez zioten galdera honi erantzun planteamenduaren zailtasunagatik. Etxe asko persona bakarrekoak dira, batez ere emakumeenak. Dena den, erantzuten duten gizonezkoen % 47k esaten du haien etxean ezkontideak betetzen duela funtzio hori.

IX. KAPITULUA

SINTESIA ETA KONKLUSIOAK

IX.1. AURREKO KAPITULUEN SINTESIA

Adinekoek Euskadiko ekonomian duten kokapena ekonomiari buruzko ikuspen berritzaile eta zabaletik soilik uler daiteke. Gizarte-harreman desberdinei dagozkien lau ekonomia mota daude Euskadin: a) merkatu-ekonomia; b) etxearen ekonomia; c) Administrazio Publikoena; eta d) boluntarioena. Merkatu-ekonomia oso garatuta dago eta gero eta gehiago nazioartekotzen ari da. Horregatik, bere lurralde-mugak kontabilitate-konbentzioen bidez zehazten dira hein handi batean. Ekonomia mota analizatuena eta gehien ikusten dena da, eta askotan ekonomia osoarekin nahasten da, horren zati bat baino ez den arren. Etxeak ondasun eta zerbitzuak ekoiztu, kontsumitu, metatu eta birbanatzeko unitateak dira, eta lotura estua dute merkatu-ekonomiarekin eta Administrazio Publikoenarekin. Oso bolumen handia dute, ohikoa den arren merkatu-ekonomiaren eraginez euren ekoizpen-funtzioa ikusezin bihurtzea eta merkatuak eta Administrazio Publikoek ekoiztako ondasun eta zerbitzuen kontsumitzaile gisa soilik aztertzea euren funtzioa. Administrazio Publikoak, haien tamaina kontuan hartuta, Euskadiko hirugarren ekonomia mota dira: merkatu-ekonomiaren arauen antzeko araupean kontsumitzen dute, ordainarazpen-ahalmena dute (nahitaezko ordainketak biltzea, esaterako, zergak edo tasak), eta ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte berehalako diru-ordainik gabe. Boluntarioen ezaugarri nagusia da euren oinarritzko harreman soziala dohaintza dela, merkatuko arauak ere partzialki arautzen duten arren eta etxeekin eta Administrazio Publikoekin ere loturak badituzten arren. Bi boluntario mota daude, erakunde edo instituzioen bitartez formalizatzen direnak eta instituzioetatik aparte aritzen diren banakakoak.

Adineko pertsona gehienek erretiroko adina gaituta dutenez, merkatuarekin harreman txikiagoa dute euren bizi-zikloko aurreko garaietan baino, hau da, lan-merkatuarekin nahiz ondasun eta zerbitzuen merkatuarekin harremana zutenean baino. Horregatik, haien egoera ekonomikoaren definizioan garrantzia hartzen du etxeen ekonomian, Administrazio Publikoen ekonomian eta boluntarioen ekonomian gainerako biztanleekiko duen kokapena. Nahiko ondo ezagutzen da Administrazio Publikoekin eta pentsio-hartzaileekin duten harremana, eta baita ondasun eta zerbitzu monetarizatuen kontsumitzaile gisa merkatuarekin duten harremana ere. Baina ez da hain ondo ezagutzen jabe eta zordun gisa duten kokapena, monetarizatu

gabeko zerbitzuen ekoizpenean eta kontsumoan familien barruan jokatzeko duten rola, Administrazio Publikoek diru-ordainik gabe eskainitako ondasun eta zerbitzuen kontsumitzaile gisa jokatzeko duten rola eta zerbitzuen ekoizle eta hartzaile gisa boluntarioen artean jokatzeko duten rola.

Azterlan honen helburua adinekoek Euskadiko ekonomian duten kokapena aztertzea da, Stiglitzek, Senek eta Fitoussik proposatutakoaren antzeko ikuspegitik (Garapen Ekonomikoa eta Aurrerapen Soziala Neurtzeko Batzordea) eta nazioarteko erakundeen dokumentu askotan goraiapatutakoa, bereziki Nazio Batuen Konferentziako Ekintza Plataforma (Pekin, 1995). Ez da erabili datu propioen beste iturririk eta, horregatik, lehendik dauden iturrien erabilera intentsiboa egin da. Horien artean Estatistikako Institutu Nazionalarena (INE), EUSTATena, Eusko Jaurlaritzarena, Imsersorena, Eurostatena, Ikerketa Soziologikoen Zentroarena (CIS), Zientzia Ikerketako Goi Kontseilua (CSIC), Nazio Batuen, Europako Banku Zentralarena eta INGEMAREna.

“Zahartzeari” dagokionez, ez dago adostasun handirik, ez Euskadin eta ez munduko gainerako herrialdeetan. Hainbat erakundek adin-atalase desberdinen arabera edo xedearen arabera definitzen dute (50, 55, 65, 75 urte). Iritzi publikoko sektore handi batek atalaserik gabeko prozesu jarraitu gisa ikusten du eta adin biologikotik banantzen du, bizitza-, osasun- eta jarduera-estiloak uztartuz. Dena den, edozein delarik definizioa, erabateko adostasuna dago Euskadiko biztanleria zahartuta dagoela esateko orduan, eta are gehiago egongo da etorkizunean. Honela planteatzen da eztabaida: gertakari hori aldatu behar den (biztanleria gaztetuta) ala herritarrei adin nagusira iritsi arte bizitzeko aukera ematen dieten gizarte garatuen arrakasta-seinalea den. Biztanleria gaztetu egin behar da ala zahartzea onartu eta gizarte eta ekonomia gertakari horretara egokitu?

Zahartze aktiboaren aldeko kanpainen joera hori erakusten dute, baina zahartze aktiboa ariketa edo jendetasuna sustatzea baino askoz gehiago da; munduan egoteko “modu ez-pasiboaz” aritzea bateraezina da jarduera konformistekin, etsiekin eta otzanekin. Modu aktiboan zahartzen direnek inguruan dutenarekin ikasteko, gozatzeko eta horretan esku hartzeko, beraiek antolatzeko, protesta egiteko eta beraien egoera eta inguruneak hobetzeko gaitasunari eusten diote. “*Ekintzarako borondate*” horretan ez dute esparrurik baztertzen; adibidez, zerbitzu-erabiltzaile gisa, zerga-ordaintzaile gisa, euren osasunaren kudeatzaile gisa eta lan-esparruko eta ordezkari politiko eta sozialeko erabaki propioen subjektu gisa duten egoera.

Eustatek zazpi agertoki desberdin erabiltzen ditu etorkizuneko zahartzea ezagutzeko, baina agertoki guztietan ateratzen da adinekoen kopurua handitu egingo dela, batez ere “oso zaharrena” eta emakumeena. Adinekoen etorkizuneko egoera ekonomikoa aurreikusteko, funtsezkoak dira honako bi ezaugarri hauek: “oso zaharrek” euren berezitasunak dituzte ordaindutako eta ordaindu gabeko zerbitzuen kontsumoari dagokionez; eta adinekoen kolektiboaren gehiengoa emakumeak izateak ere bizitza-zikloan izan duten egoera ekonomikoa islatzen du, batez ere lan-merkatuan izandako presentzia txikia eta lan ondorengo baliabideen ondoriozko eskasia.

Belaunaldien arteko ekonomia deiturikoak bizitza-zikloko diru-sarrerak eta gastuak aztertzen ditu eta “*Bizitza-zikloaren defizit ekonomikoa*” deiturikoaren zenbatekoa eta banaketa kalkulatzeko ditu. Batik bat baliabide monetarizatueta mugatutako ikuspegi horri “*monetarizatu gabeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpen-*

eta kontsumo-zikloaren” ikuspegia gehitu behar zaio, aurrekoa osatzen duena eta adierazle monetarizatueta soilik oinarritutako analisiari errealismoa eta sakontasuna gehitzen dizkiona. Euskadin, pertsona baten lan-ekoizpeneko zikloak 45 urte inguruko iraupena badu (20tik 65 urtera), monetarizatu gabeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpen-zikloa 65 urte ingurukoa da (18tik 83 urtera).

Euskadiko ekonomiaren ispilu nagusia Eustatek hiru hilean behin egiten dituen Kontu Ekonomikoak dira. Kontu Ekonomikoetan adinekoak ez dira ageri subjektu ekonomiko gisa, gainerako populazio multzoak ere ageri ez diren bezala. Dena den, adinekoek zeharkako lotura dute sektore guztiekin eta Kontu Ekonomikoetan jasotako jarduera gehienekin. Adineko gutxik jarraitzen duten arren soldatapeko jarduerarekin, batzuek autonomo gisa jarraitzen dute lanean, eta baita sektore guztietako beraien jabegoen kudeatzaile gisa ere, batez ere sektore tradizionalenetan (nekazaritza, abeltzaintza, artisautza, merkataritza txikia eta lanbide liberalak). Euren ekarpen sinbolikoaren balioa ekoizpen monetarizatuarena baino handiagoa izan daiteke (ekologia, paisaia mantentzea). Lan ondorengo errenten edukitzaile gisa badute loturaren bat jatorriko ekoizpen-sektoreekin. Horrek alde handiak sortzen ditu gizon eta emakumeen artean.

Euskadin lanaren prezioa handi samarra da, eta gutxienekoak legez ezarrita daude. Adinekoek, behin erretiroa hartzen dutenean, ezin dute berrirori enplegu bat izan, bestela pentsioak galtzeko arriskua dute. Gehienek poz handirik gabe eta disgusturik gabe hartzen dute erretiroa, baina gutxiengo batek atzeratzea nahiko luke eta justifikaziorik gabeko kaleratzea iruditzen zaie, adinagatik eta kalte-ordainerako eskubiderik gabe gauzatzen dena, eta zahartze aktiboaren aldeko kanpainekin bat ez datorrena. Erretiro-adina nahitaez atzeratzearen aurka dago gehiengoa, beraz, atzerapen hori beharrezkoa bada, borondatez eskatzen dutenetatik hasi beharko litzateke. Jarduera-denbora luzatzen duena langilea izateko aukera handitzen bada, eta ez enplegu-emailea, seguruenik gogortu egingo dira produktibitate-kontrolak eta baita langileen gaineko presioa ere erabaki horiek hartu aurreko adin-tartean.

Lan-baldintzak legez xedatzen direnean (soldatak, gizarte segurantza, zergak, lanaldiaren iraupena, oporrak, etab.), lan-merkatua bitan zatitzen da: formala edo azaleratutakoa eta informala edo ezkutukoa. Ekonomikoki aktibo jarraitu nahi duten adinekoei legez kanpoko lanaren atea bakarrik geratzen zaie irekita, etxeetako ekonomian, merkatu informalean nahiz boluntarioen merkatuan. Gauza bera gertatzen zaie beraien zaintzarako besteren lana kontratatzea behar duten adinekoei.

Adinekoentzako pobrezia- eta aberastasun-adierazleek ez dute zentzu handirik diruzko irizpideetan oinarritzen badira, kolektibo horretan baldintza garrantzitsuena ez delako zenbat irabazten den, zaintzako zenbat ordu behar diren baizik. Besteren lanaren kontsumitzaileen kasuan, bestalde, pentsio-hartzaileek lan kantitate oso txikiak soilik ordain ditzakete eta, gainera, prezio baxukoa izan behar du, beraz, prestakuntza handirik gabekoa. “*Zaintzaren burdinazko legea*” betetzen da horietan. Lege horren arabera, zenbat eta gehiago behar besteren zaintzak, are eta zailago izaten da zaintza horiek eskuratzea. Ez errentek eta ez pilatutako ondareak ez badiete ematen zaintzaren kostua ordaintzeko aukerarik, honako aukera hauek geratzen dira: a) ondorengo belaunaldira desbideratzea (seme/alaben ordaindu gabeko zuzeneko zaintza gisa edo zaintza ordaindua ordaintzeko diru-laguntza gisa); b) gainerako herritarrengan desbideratzea Administrazio Publikoen bidezko

zerga/birbanaketa bidez; c) musu-truk lortzea IAGE-en⁸⁷ bitartez edo partikularren bitartez borondatezko jarduera gisa; d) legez kanpoko baldintzetan lortzea ezkutuko lan-merkatuan.

Asko direlako eta gero eta gehiago direlako, adinekoak Administrazio Publikoaren subjektu (eta objektu/helburu) nagusiak dira, batez ere Osasunean eta Babes Sozialean. Adineko gehienek osasun ona dute, erantzuna testuinguruaren baitan dagoen arren. Osasun-adierazleak oso malguak dira, elastikotasun handikoak. Nolanahi ere, Euskadiko populazioa zahartzeak osasun-arloko gastua, batez ere prebentziokoa, inbertsio edo aurrezki gisa hartzera behartzen du gastu gisa baino gehiago. “Zaharra izatea” ez da egoera arraroa, populazioaren zati handi baten egoera “normala” da. Kronikotasuna eta multimorbilitatea dira herritar horien ezaugarri nagusiak. “Osasunez ia ondo egotea” ohikoa duen populazioarentzako eraiki beharko da gizartea, eta egoera horretara egokitu beharko da esparru guztietan, lan-esparrutik hasi eta hirigintza-esparruraino. Eta gainera, beraien zaintzari buruzko erabakietan protagonistak herritarrak direla aitortu beharko da, bai osasunean, bai gaixotasunean eta bai heriotzan.

Euskadiko Administrazio Publikoek gizarte-babesari baliabide ugari eskaintzen dizkioten arren, agerian geratzen da zahartze aktiboari eskainitako baliabide kolektiboen urritasuna, batik bat hezkuntza-sektoreko kontu ekonomikoetan. Gazte eta haurrentzako hezkuntzatik kanpo ez dago ia gasturik (hau da, inbertsiorik), eta dagoen apurra sektore publikoak finantzatzen du ia oso-osorik. Irakaskuntza tradizionalaren ondorengo urte guztiak modu aktiboan bizi behar badira, edo herritarrak eguneratuta eduki behar badira prestakuntza orokorrean, teknologian eta egoera berrietarako trebetasun berrietan, hezkuntzarako formatu berriak sustatu behar dira adin heldu eta aurreratuetan.

Pertsona nagusiek, banan-banan, errenta ertain/txikiak eta txikiak dituzte, krisi ekonomikoak eta langabeziak gazte eta langabetuekiko haien kokapen erlatibo asko hobetu badute ere. Hala ere, gainerakoei gehituta, adinekoek potentzia ekonomikoa osatzen dute Euskadin, bai hilerio jaso eta kudeatzen dutenaren zenbatekoagatik, bai euren egonkortasunagatik eta bai pilatuta duten ondareagatik. Higiezinaren parkearen heren baten jabeak dira eta, alde horretatik, Europako erretiratu gehienak baino aberatsago dira. Haien pentsio-funtsak negozio handia dira, eta finantza-erakundeak gogor lehiatzen dira haiek eskuratzeko, mantentze-kuotek eta beste kuota mota batzuek erakargarriak egiten dituztelako. Kuota horiek urtebetean euren finantza-ondarearen % 2 gaintzen ez duten arren, aurrezpen-ziklo luze batean, adinekoen ondarearen zati handi bat zaintzen duten erakundeetara transferitzea eragiten du. Adinekoen aurrezkiek prezio baxuko likidezia ematen diote ekonomia monetarizatuari.

Euskadin, adin nagusikoak gainerako adin-taldeetakoak baino proportzio handiagoan dira higiezinaren jabeak eta kontzeptu horregatik Euskadiko BPGa eta biztanleko BPGa hobetzen laguntzen dute, izan ere, nazioarteko kontabilitate-konbentzioa dela eta, jabeek berek erabiltzen dituzten etxebizitzaren truke lor litzaketan alokairuen zenbatekoak kalkulatu eta BPGan eta beste adierazle batzuetan jaso behar dira. Baina beste xede batzuetarako, existitzen ez diren diru-sarrerara bihurtutako fikziozko alokairu horiek ondorio negatibo batzuk eragiten dituzte aberats-itxura

⁸⁷ Irabazi asmorik gabeko erakundeak.

ematen dietelako aberatsak ez diren kolektiboak eta, horrela, onura sozialak edo asistentziazkoak jasotzeko aukeratik urruntzen dituztelako. Horrek, batik bat, lehengo etxebizitzetan eta mantentzea ordainduz bizitzen jarraitzen duten alargunei eragiten die. Etxeko egonkortasunerako joerak oinarri psikologikoak eta legezkoak ditu (batik bat fiskalak), baina askotan ez da eraginkorra ikuspegi ekonomikotik. Etxebizitzaren gaineko zergen aldaketak politikoki erabakitzen direnez (ondasun higiezinak, hiri-tasak, etab.), arrisku-faktorea dira adineko jabeentzat.

Etxeak eta familiak unitate sozial eta ekonomikoak dira, euren funtzioen artean errentak birbanatzea dutenak. Batez beste, errenta maila handieneko etxeak dira ugariak. Horregatik, hartzaile, etxe, biztanle eta kontsumo-unitate bakoitzeko errenta mailaren adierazleen (ELGaren eskala) banaketa ez dator bat. Errenta handiagoko etxeetan bizi baina errenta horiek etxeako kide gehiagoren artean banatzen direlako pobregoko diren umeei bezala, adinekoek diru-sarrerara gutxiago jasotzen dituzte eta errenta txikiagoko etxeetan bizi dira (krisiak zirkunstantzia hori aldatu du, eta adinekoen posizio erlatiboa hobetu du), baina horien errentak edo diru-sarrerak biztanleko edo kontsumo-unitateko beste mota bateko hartzaileenak baino hobekia dira, azken horien etxeetako kide kopurua txikiagoa delako. Adinekoen etxeetan populazio osoan adinako aldea dago diru-sarreraren banaketan. Egia da pentsio publikoek soldata ondorengo diru-sarrerak homogeneizatzen dituztela minimoen gainean finkatzen direlako, baina homogeneotasun horrek ez die eragiten pentsio pribatuei, ondareei eta lan ondorengoak ez diren errentei. Adineko gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna handia da ez baldin bada norberaren etxebizitzaren alokairuagatik fikziozko diru-sarrerekin leuntzen; 65 urtetik gorako emakumeen heren batek ez du diru-sarrera propiorik.

Adinekoen egoera ekonomikoa egonkorra da pentsioen sistema arrazoi politikoengatik bermatu delako orain arte, ez berez hala delako. Administrazio Publikoak aurrekontuak beste modu batean birdoitzea erabakiko balu, segurtasun eta egonkortasun hori galtzeko arriskua egongo litzateke. Bestalde, aurrezkien erosteko ahalmenari eragiten dion inflazioa ere kaltegarria da beraiarentzat, azken urte hauetan egoera hori gertatu ez bada ere.

Azterlan honen hasieran esaten genuen bezala, adineko pertsonen euren jardueraren ekonomikoaren parte handi bat merkatu-ekonomiatik kanpo garatzen dute, batez ere etxeen ekonomia monetarizatu gabe. Euskadiko adineko pertsonen etxeen tipologia aldatzen ari da arrazoi demografikoengatik (bizitza luzeagoa, seme-alaba gutxiago), kulturalengatik (etxebizitza-independentsia gorantz doan balioa da erdiko belaunaldietan eta baita nagusien artean ere) eta, batik bat, ekonomikoengatik. Adineko pertsonak buru dituzten etxek, sarritan pertsona bakarrez osatutakoak, ugaltzearen arrazoi nagusia etxebizitza independente baten kostua ordaindu ahal izatea da, premiak familia biltzera behartu gabe. Aldaketa horrek baremoak ezartzeko eta lagun egitea behar duten zerbitzuak emateko sistema osoa baldintzatzen du.

Adinekoek ez dutegogoko instituzionalizazioa, norberaren burujabetasunaren balioetik urruntzeaz gain, kasu gehienetan zerbitzu gehiago jasotzen dituztelako etxeetan instituzioek eskaintzen dizkietenak baino. Zaintza instituzionalizatua merkatuko prezioetan ordaindu beharko luketen erakunde publikoek edo aseguru-etxeek ahal duten guztia egiten dute adinekoak euren etxeetan gera daitezen. Instituzionalizazio oso garestia da, batik bat etxeen ekonomiatik Administrazio Publikoaren ekonomiara transferitzen dituelako kostuak. Haietan ia oharkabean pasatzen da eta ekonomiaren

ikuspegitik ebatzi beharrean ikuspegi moraletik ebazten da eta Administrazio Publikoek, aldiz, zerbitzu-hornitzaileei merkatuko prezioan ordaindu behar diete. Etxeetako zaintzaren kostua ikusezin bihurtzen da, doanekoaren eta kostu handirik gabearen itxura hartzeraino, edo "laguntza" ia sinbolikoekin ordaintzen zaie zaintzaileei. Laguntza ekonomikoa/sartutako orduak erlazioan soldatapeko langile bati ordaindu beharko litzaiokeena baino hamar bider gutxiago izan daiteke laguntza hori.

Adinekoek beraientzat eta beste pertsona batzuentzat zerbitzuak ekoizteko duten ahalmena izugarria da, baina ez da ia batere aztertu eta ez da ia batere etxeetatik kanpo bideratu. Haiek boluntarioen artean sartzeko egokitzapenak egin behar dira erakundeak kudeatzeko moduan, potentzial ikaragarria eta oraingoz gutxi garatutakoa delako, etorkizunean garrantzi handiagoa izango duena.

Adin nagusikoek merkatutik kanpo sortutako monetarizatu gabeko zerbitzuei buruzko lekukotza hainbat inkestak eman dute, batez ere Denboraren Aurrekontuen Inkestek. Euskadi aitzindari izan da inkesten esparru horretan (1993, 1998, 2003, 2008 eta 2013, azken hori oraindik argitaratu gabe). Inkesta horiek, eta zaintza-denborari buruzko informazioa ematen duten beste inkesta ez-monografiko batzuek, aukera ematen dute adinekoek hainbat jarduerari eskainitako ordu kopurua edo lan-bolumena zein den jakiteko, baina ez intentsitatea, prestakuntza maila eta, kasu askotan, beste jarduera batzuekiko gainezarpena jakiteko. Lan-kargaren edo erantzukizunen pilaketaren aurrean "kostu marjinal gorakorren" ikuspegia aplikatzeko aukerarik ere ez dute ematen.

Egun arrunt batean, Euskadiko adinekoen % 95ek denbora pixka bat eskaintzen die etxeari eta familiari (INE, 2009-10). Janaria prestatzea, garbiketa eta erosketak egitea, gestioak egitea eta laguntza behar duten umeak eta adineko pertsonak zaintzea aipatzeko modu eufemistikoa da.

Etxeen ekonomietako ekoizpen unitateak merkatuko ekoizpen unitate bihurtzeko aukera ematen duten bitarteko zuzenik ez dagoenez, baliokidetasunak zeharkako metodoekin bilatu behar dira, honako galdera honi erantzuten diotenak: "*Ordaindu beharko balitz, zenbat kostatuko litzateke....?*". Ekonomialari batzuek etxeak bizigarritasun-baldintzetan (garbiketa, ordena, etab...) mantentzearen bitartez sortutako balioaren baliokidea bilatzen dute hotel eta egoitzetan gaua igarotzearen prezioei eraikinaren edo alokairuaren balioa kenduta, baliabide monetarizatuen neurketan jasota dagoena. Beste azterlan batzuek, berriz, jatetxeetan, eskolako jangeletan eta kantinetan kontsumitutakoarekin alderatuta finkatzen dute etxean prestatutako janarien balioa. 2012an, Euskadiko familiek etxetik kanpo kontsumitutako janari eta edarien truke etxean bertan kontsumitutako janari eta edari guztien % 64 ordaindu zuten. Gauzak horrela, elikadura-funtzioa kanporatzea etxeek guztira egindako kontsumizioen % 10era ere ez da iristen. Adinekoek gutxi erabiltzen dituzte etxetik kanpoko janari-zerbitzuak, eta denboraren parte handi bat erabiltzen dute haiek ekoizteko diru-sarrerekin eskuratu beharrean.

Ostatuarekin eta elikadurarekin batera, adinekoek etxeen ekonomiari egiten dioten ekarpenik handiena euren burua eta beste pertsona batzuk zaintzea da. 2010eko Gizarte Premien Inkestaren arabera, 55 eta 64 urte bitarteko taldeko % 8,4k beste pertsona batzuk zaintzen ditu eta ehunekoak handia izaten jarraitzen du 75 urtetik aurrera ere. Adinekoak zaintzaile guztien % 30 dira, ume-zaintzaileak barne, batik

bat askoz adin txikiagokoekin bat datozenak. Adinekoek Euskadiko zaintza guztien kargaren herena baino gehiago hartzen dutela kalkulatu da. Lan-karga hori ezin da merkatura lekualdatu, zaintzak behar dituztenetatik gutxi batzuek bakarrik ordain ditzaketelako euren kasa edo senitartekoen bitartez. Partekatu egin behar dira, hau da, etxeen ekonomiara, Administrazio Publikoetara edo boluntarioetara lekualdatu behar dira. EDAD 2008 inkestak egoera hori berresten du: kasuen % 85ean mendeko pertsonen zaintza informala da. Mendeko pertsonen senitarteko enplegatuek lanean jarrai badezakete, zaintzaren karga lan-merkatuan ez dauden eta kasu askotan kanporatuak izan diren beste senitarteko batzuek hartzen dutelako da. Horien artean, etxekoandreak eta erretiratuak ugari dira.

Adinekoen ordaindu gabeko lanaren balioa, kantitateaz aparte, dedikazio-denborari ematen zaion balioaren baitan dago. Ikusezin bihur daiteke edo ikusgai egon eta aitortu. Modu desberdinean banatuta dago, bai adin-taldeen artean (zaharrak-gazteak vs. zaharrak-zaharrak) eta bai generoaren arabera. Zerbitzuak kanporatzeko prozesua adinarekin areagotu egiten da, osasun-baldintzak okertzen direnean. Familia guztien artean % 14k soilik kontratatzen baditu ordaindutako etxeko zerbitzuak, 65 urtetik gorakoan artean, proportzio hori % 24ra igotzen da (INE, modulu berezia, Familia Aurrekontuen Inkesta, 2009), nahiz eta adin nagusiko pertsonak dituzten familien % 1,4k soilik duen lanaldi osoko langilea. Batez bestekoa astean bederatzi ordukoa da. Eustaten arabera, etxeko langileek euskal BPGari egiten dioten ekarpena 562.097 mila eurokoa da (2011).

Etxeko langileak dituzten etxeetako kideek etxeko lanari eskainitako denbora ez da ia batere murrizten batez bestekoarekiko (INE, Denboraren Erabilerari buruzko Inkesta 2008-9), hain zuzen ere, langile gehienak zaintza-eskariaren ohiko kopurua baino handiagoa partekatze kontratatzen direlako (haur txikiak, gaixoak eta abar). Beraz, etxeetan egiten den lanaren % 1 baino gutxiago kanporatzen dela ondoriozta daiteke, baita adin nagusiko pertsonak dituzten familietan ere. Konklusio gisa, adineko pertsonak egindako lanak zer proportzio izango luke BPG konbentzionalarekiko eta Euskadiko BPG handituarekiko (etxeko produkzioa BPG konbentzionallean sartzen duena)? Euskadin etxeetako autokontsumorako zerbitzuak ekoizten egindako lanaren % 1 baino gutxiago baldin bada BPGaren % 0,9 monetarizatzen denean, zer balio eman beharko zaio monetarizatzen ez den gainerakoari? Dena delakoa erantzuna, eztabaida handiak eragingo ditu.

IX.2. EUSKADIKO ETORKIZUNEN ZAINZA-ESKARIA. BANAKETA-AGERTOKIAK

IX.2-1 taulak Euskadin zaintza-premien eta premia horiek gogobetetzeko adin ertaineko (15-64) herritarren erabilgarritasunaren artean dagoen erlazioa laburtzen du, INEren aurreikuspen demografikoez baliatuta. 2003rako euskal gizarteak egungoa baino ratio % 8 handiagoari egin beharko dio aurre, eta 65 urtetik gorakoan taldearentzat % 28koa izango da hazkundera. Nola ebatziko da zaintza-premia hori handitzea?

Gizarte- eta osasun-politikak zaintza-premiak eta -eskariak murrizten ahalegintzen dira, baina efektu erreala motela eta apala da. Gainera, joera sozial garrantzitsuek alderantzizko noranzkoan presionatzen dute zaintzaile potentzial erabilgarrien kopurua murrizteko. Bestelako kontua dira Administrazio Publikoek hartutako neurrien efektu administratibo edo estatistikoak; haiek zerbitzu-eskaintzan egindako edozein gehikuntzak edo murrizketak berehala du eragina eskarian eta

mota horretako adierazleak oso malguak dira.

Gizarte-eta politika-ikuspegitik, zaintza-premien kopurua aldatuezin bada, jarduketak zaintza-eskaintza aldatzen jarriko du arreta, eta adin nagusikoak hor bihurtzen dira protagonista, gogo onez edo halabeharrez. Eskaria gogobetetzeko, eskaintzak berdindu egin behar du, bestela premiak ez dira estaliko. Zaintza-zerbitzuen eskaintza edo produkzioa lau ekoizle-talde handiek egiten dute: familiek, Administrazio Publikoek, merkatuak eta boluntarioek. Denen artean eskariaren % 100 estali behar badute, banaketa-agertoki ugari egon daitezke lau ekoizleen artean. Gaur egun ez dago Euskadin eskaria nola estalita dagoen adierazten duen zenbatespen xehaturik, nahiz eta eskura dauden iturri guztien arabera familiak izan zaintza-hornitzaile nagusia. Zortzi urtetan eskariak % 8 handitu behar badu, horren kargu egin al daiteke Administrazio Publikoa edo merkatua? Ez dirudi Administrazioak horren ardura hartuko duenik aurrekontu-murrizketen testuinguruan, izan ere, baliabide gehiago lortzeko zerga-karga handitu beharko litzateke. Merkatuak kostu txikiko zaintza-produktu berriak sorditzake, baina zaila da hurbiltasun-zerbitzuetan eskulana modu intentsiboan erabiltzeko premiagatik lortzea. Diru-sarrera handiko familietan soilik gogobeteko du zaintza-eskaria eta, ondorioz, etengabeko presioa sortuko da legez kanpoko eta nazioarteko tutako kostu txikiko zaintza informaleko merkatua sortzeko. Eskaria gogobetetzeko presio handiena familietan pilatuko da, baina talka egingo du alderantzizko presioaren aurka, hain zuzen ere, gazteenak ikasketetan aritzea eta erdiko belaunaldia lanean aritzea, emakumeak barne, sustatzen duen presioaren aurka. Horregatik, adinekoak iturri perfektua dira adin guztietako zaintza-eskari gorakorra gogobetetzeko xede duten egiturazko presioentzat, bai haien senitartekoentzat eta bai pertsona ezezagunentzat boluntariotzaren bidez.

Adineko gazteenak (65 urtetik 75 urtera bitartekoak, Euskadin 248.432 direnak) eta osasun-egoera onean dauden gainerako adinekoak, edozein delarik euren adina, kontabilizatu gabeko ekonomiaren erreserbako armada dira. Iritzi publikoak ekoizti gabe kontsumitzen duen eta gainerako zergadunei arazo ekonomikoak sortzen dizkien kolektibo gisa aurkezten dituen arren, bere lan ikusezinak –emakumeenarekin batera– asko laguntzen du zerga-sistemak gainez egin ez dezan zaintza bereziko premiak dituzten herritarrak artatzeko. Adinekoak kolektibo heterogeneoa dira. Gehienek osasun ona dute eta ongizate komuna mantentzen parte hartzen dute. Zaintza-ekoizleak eta higiezin jabeak dira, beraien etxebizitzaren alokairuagatik fikziozko diru-sarreraren bidez BPG autonomikoa handitzen laguntzen dute, kontsumo ondasan eta zerbitzuen sektore kontsumitzaile ahaltsu eta hedakor gisa bermatzen dute eta likidezia ematen dute gordailuen eta pentsio-planen bitartez sistema ekonomiko monetarizatu osorako. Merkatu monetarizatuaren uzkuraldietan, adinekoek eraginkortasuna dutela erakutsi dute euren familia-sareetan besteren premiak birbanatzeko eta estaltzeko agente pribatu gisa. Etxeen ekonomiaren bidez eta aurrezki-jabe eta kontsumitzaile gisa betetzen duten funtzioaren bidez, lagundu egiten dute beraiek erdi kanporatuta uzten dituen ekonomia monetarizatuak arrakasta izan dezan.

IX.2-1 taula
Zaintza-eskarria Euskadin, 2015, 2020, 2023

	Biztanleria			Biztanleria (ehunekotan)			Behar diren zaintza-unitateak*			Behar diren zaintza-unitateak* (ehunekotan)			Behar diren zaintza-unitateak*(ehunekotan) 15-64 urteko biztanleria			% 2023 /2015
	2015	2020	2023	2015	2020	2023	2015	2020	2023	2015	2020	2023	2015	2020	2023	
Biztanleak, guztira	2.144,2	2.063,8	2.012,7	100,0	100,0	100,0	3143,1	3076,8	3024,0	100,0	100,0	100,0	2,28	2,40	2,47	1,08
0-4 urteko biztanleak	101,1	83,3	74,1	4,7	4,0	3,7	303,3	249,8	222,3	9,7	8,1	7,4	0,22	0,20	0,18	0,83
5-14 urteko biztanleak	203,4	203,7	192,2	9,5	9,9	9,5	406,8	407,5	384,4	12,9	13,2	12,7	0,29	0,32	0,31	1,06
15-64 urteko biztanleak	1.379,1	1.280,6	1.224,6	64,3	62,1	60,8	1379,1	1280,6	1224,6	43,9	41,6	40,5	1,00	1,00	1,00	1,00
65-80 urteko biztanleak	328,0	349,6	372,8	15,3	16,9	18,5	655,9	699,2	745,5	20,9	22,7	24,7	0,48	0,55	0,61	1,28
80 urte eta gehiagoko biztanleak	132,7	146,6	149,1	6,2	7,1	7,4	398,1	439,8	447,2	12,7	14,3	14,8	0,29	0,34	0,37	1,27
Zaintza-unitateen ratioa biztanleria osoaren gainean	1,46	1,49	1,50													

*Honako hau da erabilitako haztapena Durán eskalaren arabera: 0-4 urteko biztanleak = 3 zaintza-unitate; 5-14 urtekoak = 2; 15-64 urtekoak = 1; 65-80 urtekoak = 2; 80 eta + = 3.

Iturria: INE. Biztanle Kopuruak eta Errolda Demografikoak. Biztanleria-proiekzioak epe laburrera 2013-2023 (13/11/21).

ERREFERENTZIAK

- ABELLÁN GARCÍA, A. eta Pujol Rodríguez, R. "Un perfil de las personas mayores en España, 2013. Indicadores estadísticos básicos". Madril, Informes Envejecimiento en red. 1. zk. 2013.
- ALTUZARRA ARTOLA, AMAIA. "Txosten Sozioekonomikoa. Etxebizitza", Eustat, Txosten Sozioekonomikoa, 15. zk., 2013, 547. or., Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikan (2006, 558. or.) oinarrituta.
- ANTÓN MURILLO, F.J. ET AL. "La desigualdad en la distribución de la renta en Euskadi (1986-2012)". IKERKETAK-EKONOMIAZ. Eusko Jaurlaritza, 2013/II.
- AURTENETXE, JON L., Sobremonte de Medicuti, E. "Txosten Sozioekonomikoa. Osasuna", 3. zk., Eustat, 2012, bereziki 91.- 97. or. eta hurrengoak.
- AZÚA, JON. "La internacionalización de las empresas vascas. La paradoja de su internacionalización en un mundo globalizado", 2011ko azaroa.
- Espainiako Bankua. *Encuesta Financiera de las Familias*. 2013
- Banku-komisioak eta gastuak. Banku-bezeroaren ataria.
 - Ageriko gordailua, eperako gordailua eta aurrezki-gordailua. Banku-bezeroaren ataria.
- BETTIO, F., ET AL., *The gender gap in pensions in the EU*. Publications Office of the European Union, Luxenburgo, 2013.
- BOLUNTA. "Bizkaiko boluntariotzari buruzko ikerketa". Bizkaiko Foro Aldundia, 2008.
- BÖRSCH-SUPON, AXEL "Myths, scientific evidence and economic policy in an aging world". The Journal of The Economics of Aging, 1-2 (2013) 3-15. Munich Center for the Economics of Aging Max Planck, Institute for Social Law and Social Policy, Germany.
- CAMPS, V. "El valor del cuidado". Hemen: Libro Blanco del Envejecimiento Activo, IMSERSO, 2011.
- CASTILLO, M., SUSO, A. *La gestión de la diversidad. Por una estrategia de gestión de la edad y de la discapacidad en las empresas*. Red2Red Consultores, Madril, 2012.
- CAUSAPIÉ, LOPESINO, P. ET AL. (Zuz) "Libro Blanco del Envejecimiento Activo", IMSERSO, 2011.
- CELADE (2013). "El futuro del envejecimiento en México. Fechas emblemáticas y opciones de políticas: una mirada hacia 2040 y más allá". Donehwer-ek egin du dokumentua, P. Saad-ek eta T. Miller-ek ikuskatuta.

- CHINCHETRU, F. "El trabajo doméstico no monetarizado: por una nueva metodología de la ciencia económica sobre el trabajo", *Ekonomiaren Euskal Aldizkaria*, 39. zk., 198-123 or.
- CIS. 3017. zenbakidun ikerketa. 2014ko martxoa.
— 3013. zenbakidun ikerketa. 2014ko otsaila.
— 3011. zenbakidun ikerketa. 2014ko urtarrila.
— 2864. zenbakidun ikerketa. 2014ko martxoa.
- EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA (CES). "Distribución de la renta en España: desigualdad, cambios estructurales y ciclos", Madril, 2013. 102. or.
- DÍAZ-FERNÁNDEZ, M. ETA LLORENTE-MARRÓN, M.M. *Una aproximación econométrica a la demanda mundial de cuidado, 2010-2050*, BBVA Fundazioa, Documentos de Trabajo bilduma, 2011.
- DIENER, ED. ETA SUH, E. "Measuring quality of life: economic, social, and subjective indicators". *Social Indicators Research* 40:189-216, 1997.
- DURÁN, M.A. "The contribution of unpaid work to global well-being". Hemen: Glatzer, W. (Ed.) *The Global Handbook of Wellbeing and Quality of Life*. 2014 (prentsan).
— *El trabajo no remunerado en la economía global*. BBVA Fundazioa. Bilbo, 2012.
— "La visión española", *Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen* 54. kongresuan aurkeztutako txostena, Santiago e Compostela, 2012ko ekainaren 6tik 8ra.
— "The Challenges of Ageing Europe", *International Conference Ageing and Social-en aurkeztutako txostena*, Calouste Gulbenkain Fundazioa, Lisboa, 2012.
— "Las personas mayores en el medio rural y urbano". Hemen: *Libro Blanco del Envejecimiento Activo*, IMSERSO, 2011.
— *La cuenta satélite del trabajo no remunerado en la Comunidad de Madrid*. (Durán, zuz.), Emakumearen Zuzendaritza Nagusia, Madrilgo Erkidegoa, 2006.
- "El futuro del trabajo en Europa. El cuidado de las personas dependientes". Hemen: Mora, L. (Coord.), *Cohesión Social, Políticas y Presupuesto Público: Una mirada desde el género*, GTZ, United Nations Population Fund (UNFPA), 2006.
— "La estructura productiva de los hogares y la gestión de sus recursos monetarios". Hemen: *VVAA Las encrucijadas del cambio social*, Centro de Investigaciones Sociológicas, 127-156, 2002. or.
— "Producción y consumo. La estructura productiva de los hogares y la gestión de sus recursos monetarios". Hemen: *VVAA Estructura y cambio social*, Centro de Investigaciones Sociológicas, 653-672. or, 2001.
— "Concentración y reparto del trabajo no remunerado en los hogares", *Cuaderno de Relaciones Laborales*, 17. zk., 2000.
— *La contribución del trabajo no remunerado a la economía española: alternativas metodológicas* (Zuz.), Emakumearen Erakundea, 2000.
— "La nueva división del trabajo en el cuidado de la salud", *Política y Sociedad*, 35. zk., 2000.
— *The future of work in Europe (Gendered patterns of time distribution)* (Zuz.), European Commission, 1998.
— *Las bases familiares de la economía española* (Zuz.) *Universitat de Valencia*, 1997.
— *The social contract in Spain: Between citizenship and economic duties*. *International Workshop*, London School of Economics and Political Service, 1997.
— "Demandas urgentes de tiempo y asistencia sanitaria", (Durán eta Pachá) *Política y Sociedad*, 19. zk., 1995.
— "Invitación al análisis sociológico de la Contabilidad Nacional", *Política y Sociedad*, 19. zk., 1995.
— "Las demandas de trabajo no remunerado (DETRANME) de los ancianos", (Herrera eta Durán), *Política y Sociedad*, 19. zk., 1995.
— "Viejas y nuevas desigualdades. La dialéctica entre observadores y observados", *Revista Internacional de Sociología*, 1994.
— "La conceptualización del trabajo en la sociedad contemporánea", *Revista Economía y Sociología del Trabajo*, 13-14. zk., 1991.

- *De puertas adentro*. Kultura Ministerioa, Emakumearen Erakundea, 1987.
- EMAKUNDE. “*La autonomía de las mujeres mayores en el País Vasco y su contribución a los procesos de empoderamiento*”. 27. txostena. Gasteiz, 2012ko ekaina.
- ERICSSON, R. “*Descripciones de la desigualdad: El Enfoque Sueco de la Investigación sobre el Bienestar*”. Hemen: La Calidad de Vida. Marta C. Nusbaum y Sen, Amartya K. Sen (Konp.) Fondo de Cultura Económica. Mexiko, 2002, 101-125. or.
- EROSKI CONSUMER. 12/10/9. 900 etxetan –haietatik 100 Euskal Autonomia Erkidegoan– egindako zundaketan oinarrituta.
- EUROPEAN CENTRAL BANK, “*The eurosystem households finance and consumption survey. Results from the first wave*”, Statistics Paper Series, 2. zk., 2013ko apirila.
- EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda, 2011, Autonomia Erkidegoaren araberako emaitzak.
- *Prentsa-oharra* 2014/02/21.
- *Familia Gastuaren Estatistika*. 2014
- *Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak*. 2014
- *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA)*. 2014.
- *Emaitzen analisia eta 2020rako biztanleria-proiekzioak*. 2014.
- *Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta*. 2013.
- *Gizarte Babesaren Kontua*, 2010, 2013ko urtarrilaren 30a.
- *Osasun Kontuak*, 2012, 2013ko abenduaren 17a.
- *Okupazio-tasa*, 2013ko IV. hiruhilekoa.
- *Hezkuntzaren Kontua*. 2013.
- *Euskadiko Osasunaren Inkesta*, 2013.
- *Euskal AEko Ospitaleetako Erikortasunari buruzko Inkesta*. 2013.
- *Turismoaren Kontu Satelitea*. 2005eko oinarria, 2012ko apirilaren 23a.
- *Bizirik jaiotakoak eta jaiotza-tasak*, 2012, 2012ko abenduaren 2a.
- *Euskal Administrazioen Kontu Ekonomikoak*. 2011
- *Biztanleria landuna, sektorearen arabera*, 2011.
- *Inkesta Demografikoa*, 2011.
- *Errenta pertsonalaren eta familiarren estatistika*. 2011
- *Etxeko lanaren kontu satelitea*, 2008, 2010/06/29an argitaratua.
- *Prentsa-oharrak*, 2004/06/29 eta 2010/06/29.
- *Denboraren Aurrekontuen Inkesta (DAI)*, 2008 (2009an argitaratutako datuak).
- *Bizitza Baldintzen Inkesta*, 2009.
- *Euskadiko Osasunaren Inkesta*, 2007.
- *Errenta pertsonala eta familiarra*, 2006.
- *Agertoki demografikoak 2050*. 2006
- *Etxeko lanaren kontu satelitea*, 2004.
- FARQUHAR, M. “*Elderly people’s definitions of quality of Life*”. Pergamon. Soc. Sci. Med. 41. bol, 10. zk., 1439-1446. or., 1995.
- FERNÁNDEZ BALLESTEROS, R. “*Posibilidades y limitaciones de la edad*”. Hemen: Libro Blanco del Envejecimiento Activo, IMSERSO, 2011.
- GALINDE, Diario Vasco, 2011/07/10.
- GARCÍA DE LA RED, V. “*Usos del tiempo*”. Hemen: Euskal AEko ikuspegi soziala, Eustat, 2000.
- GARCÍA DÍAZ, M.A. “*Mejora de la estimación del umbral de pobreza relativa e los ciudadanos españoles, con especial atención al colectivo de jubilados y pensionistas*”, Gizarte Babesari buruzko ikerketa sustatzeko egindako ikerlana, FIPROS, 2008, batez ere 99-133 or.
- GARCÍA SAINZ, C. “*Tiempo de trabajo no remunerado en la C.A. de Euskadi*”. Hemen: Eustat, Denboraren Aurrekontuen Inkestari buruzko txostena. 2003. Monografikoak.
- GIL CALVO, E. “*El poder gris. Consecuencias culturales y políticas del envejecimiento de la población*”. ICE aldizkaria, maiatza-ekaina, 815. zk., 2004.
- EUSKO JAURLARITZA. “*Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta*”, Gizarte Zerbitzuak, Argitalpen Zerbitzu Zentrala, 2012.

- “Discapacidad y dependencia de las personas mayores en el País Vasco: con base en la Encuesta sobre Discapacidad, Autonomía personal y situaciones de Dependencia (EDAD) 2008”. Mayte Sancho Castiello (Koord.). Vitoria-Gasteiz, 2011. 154. or.
 - “Cien propuestas para Avanzar en el Bienestar y el Buen Trato a las Personas que Envejecen. Bases para un Plan de Acción”. Donostia, 2011ko iraila.
 - “El envejecimiento de la población vasca. Sus consecuencias sociales y económicas”, I. Beristain Etxabe (Zuz.), 2005.
- GOROSPE, P. El País, 2013/12/7.
- HART, JT. *The Inverse Care Law*. The Lancet. 1:405-12, 1971.
- IKERKETA FISKALEN INSTITUTUA.
“Panorámica de la economía española en perspectiva comparada. Análisis y evolución de las principales macromagnitudes y del sistema fiscal”. 20/2012 zenbakidun DOK.
- IMSERO. *Libro Blanco del Envejecimiento Activo*, Causapié Lopesino, P. et al. (Zuz.), Madril, 2011.
— *Adinekoei buruzko Inkesta*, 2010.
- INE. *Osasun Inkesta Nazionala 2011-2012* (2013an argitaratuta) eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.
— *Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkesta*, 2013ko 3. hiruhilekoa.
— *Prentsa-oharra*, 2013/11/20. Bizitza Baldintzen Inkesta.
— *Familia Aurrekontuen Inkesta*, 2009 (Etxe Zerbitzuari buruzko Modulua).
— *Biztanleriaren errolda 2011. Autonomia Erkidegoaren eta Autonomia Hiria-aren araberako emaitzak*.
— *Biztanleriaren zifrak eta demografia-erroldak. Epe laburrerako biztanle-proiektzioak*, 2013-2023. (21/11/13)
— *Espainiako Kontabilitate Nazionala. 2008ko oinarria. 2000-2012 kontabilitate-koadroak*.
— *Bizitza Baldintzen Inkesta*, 2012.
— *Familia Aurrekontuen Inkesta*, 2011.
— *Bizitza Baldintzen Inkesta*, 2010.
— *Denboraren Erabilerari buruzko Inkesta*, 2009-2010.
- *Minusbalioetasun, Urritasun eta Osasun Egoerei buruzko Inkesta*, 1999. 2002.
 - *Ezgaitasunei, Autonomia Pertsonalari eta Mendekotasunari buruzko Inkesta*, 2008 (DAPMI).
 - *Lan-kostuaren hiruhilekoko inkesta*.
- INGEMA (M. Sancho Castiello, Koord.)
“Discapacidad y dependencia de las personas mayores en el País Vasco”. 2008.
- “Envejecimiento, vivienda y entorno”. Zuzendaritza teknikoa: Sancho, M. eta Yanguas J. Ikerketa kualitatiboaren txostena. Eusko Jaurlaritza, 2012.
- Ikerketa Fiskalen Institutua, “Opiniones y actitudes fiscales de los españoles en 2011”, 19/2012 zenbakidun DOK.
- *Panel de Declarantes de IRPF 1999-2008: Metodología, Estructura y Variables*, 12/2012 zenbakidun DOK..
- INVERCO. “Las instituciones de inversión colectiva y los fondos de pensiones”. 2012ko txostena eta 2012rako perspektibak. Madril, 2012ko otsaila.
- IRONMONGER, D., SOUPOURMAS, F.
“Estimating household production outputs with time use episode data”. *Electronic International Journal of Time Use Research*, 6. bol. 2. zk., (2009: 240-268).
- IRONMONGER, D. *Household Production and the Household Economy*. University of Melbourne. Melbourne, 2001.
- JIMÉNEZ, A., RODRÍGUEZ, A. *La economía social y la atención a la dependencia. Propuestas para contribuir al desarrollo de los servicios de atención de la dependencia y a la generación de empleo estable y de calidad*. Documentos de Trabajo seriea, 177. zk., Alternativas Fundazioa, 2012.
- KALACHE, A. “Una sociedad para todas las edades”. Hemen: *Libro Blanco del Envejecimiento Activo*, IMSERSO, 2011.

- LARRAÑAGA, M. ETA JUBETO, Y. "Repesando la crisis desde un enfoque de género". Codo a Codo aldizkaria, 2010ko apirila.
- LEVY, H., MERCADER, M. "Retenciones a cuenta, número de declarantes y simplicidad en el nuevo IRPF", Cuadernos Económicos, ICE, 68. zk., 89-109. or., 2004.
- MARTÍNEZ RODRÍGUEZ, TERESA. "La atención gerontológica centrada en la persona. Guía para la intervención profesional en los centros y servicios de atención a personas mayores en situación de fragilidad o dependencia". Eusko Jauriaritza, Gizarte-ongizateko agiriak, 67. zk., 2011.
- MARTÍNEZ ROLLÓN, P. ETA MORÁN ALÁEZ, E. "Renta personal y familiar: un nuevo enfoque en el análisis de la renta", Eustat, 2001.
- MASON, A. AND LEE, R. "Population Aging and the Generational Economy: A global Perspective", Cheltenham, UK; Edward Elgar, 2011.
- MCCONNELL, M. "Behavioral economics and aging". The Journal of the Economics of Ageing, 1-2, 83-89. or., 2003.
- MEIL, G. "Encuestas redes sociales y solidaridad". 2007.
- ENPLEGU ETA LAN SEGURANTZAKO MINISTERIOA. "Lan Estatistiken Urtekaria". 2011.
- NAZIO BATUAK. *Kontu nazionalak: Sarrera praktikoa*. Ekonomia eta Gizarte Gaien Departamentua. Metodo-ikerketak, F seriea, 85. zk., New York, 2006.
- NUSSBAUM, M. "Las mujeres y el desarrollo humano. El enfoque de las capacidades". Herder, Bartzelona, 2002.
- PASCUAL CORTÉS, R. "Uno de cada dos cotizantes también tiene un plan privado de pensiones", Cinco Días, 2013/04/29.
- PLATAFORMA DEL TERCER SECTOR. "Propuesta de la Plataforma del Tercer Sector para afrontar el impacto social de la crisis". Madril, 2013, 34. or.
- PNUD. *Informe sobre Desarrollo Humano 2013. El ascenso del Sur: Progreso humano en un mundo diverso*, New York, 2013.
- PRATS, J. "Coto a los dependientes más graves". El País, 2014/01/1.
- RACC. "Mayores al volante. Estudio RACC sobre el envejecimiento y conducción en España", 2013ko maiatza.
- RIBERA CASA, J.M. "Envejecer con buena salud". Hemen: Libro Blanco del Envejecimiento Activo, IMSERSO, 2011.
- RODRÍGUEZ, A. ETA LARRAÑAGA, M. "El trabajo de las mujeres: claves para entender la desigualdad laboral". Hemen: Formación y acreditación en consultoría para la igualdad de mujeres y hombres. Emakunde, 2002-2004 ikastaroa.
- RODRÍGUEZ-CABRERO, G. ET AL. "La economía de las personas mayores". Hemen: Libro Blanco del Envejecimiento Activo, IMSERSO, 2011.
- RUBIO HERRERA, R. "La influencia de la soledad en las formas de vida y convivencia de los mayores". Hemen: Libro Blanco del Envejecimiento Activo, IMSERSO, 2011.
- STIGLITZ, J.E. *El precio de la desigualdad. El 1% de la población tiene lo que el 99% necesita*. 2. ed. Taurus, Madril, 2012.
- STIGLITZ-SEN-FITOUSSI. *Report by the Commission on the Measurement of Economic Performance and Social Progress*. 2009.
- SUBIRATS, J. "El reto de una nueva ciudadanía para las personas mayores". Hemen: Libro Blanco del Envejecimiento Activo, IMSERSO, 2011.

TARBERNA, D. Diario Vasco, 2014/1/7.

URRUTIA, VÍCTOR: "Txosten Sozioekonomikoa. Etxebizitza", Eustat, Txosten Sozioekonomikoak, 13. zk., 2006, 491. or.

VILLOTA, P.; JUBETO, Y.; ET FERRARI, I. "Estrategias para la integración de la perspectiva de género en los presupuestos públicos". Emakumearen Institutua. Madril. 2009.

VOGEL, E., LUDWIG, A. BÖRSCH-SUPAN, A. "Aging and pension reform extending the retirement age and human capital formation", Working Paper Series, 1476. zk., 2012ko iraila.

WATT, G. *The inverse care law today*. The Lancet, 2002 360:252-4.

II.3.1-2. taula (eranskina)

Euskal AEko Barne Produktu Gordina, osagaiaren arabera. Eskaintza eta eskaria. Uneko prezioak (urte arteko aldaketa-tasak). 2005-2012(a)

	2006/ 2005	2007/ 2006	2008/ 2007	2009/ 2008	2010/ 2009	2011/ 2010	2012(a)/ 2011
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ARRANTZA	-1,8	1,9	-11,1	-12,0	15,0	3,0	17,2
INDUSTRIA ETA ENERGIA	5,8	5,7	0,9	-19,0	4,5	1,9	-3,5
ERAIKUNTZA	9,0	17,4	-2,2	-10,2	-6,2	-9,4	-10,7
ZERBITZUAK	8,2	7,7	6,8	2,3	1,2	2,5	0,2
- Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	7,7	7,0	4,5	0,0	1,6	2,8	1,2
- Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	7,1	8,9	8,7	5,4	2,3	1,1	-2,6
- Gainerako zerbitzuak	9,1	7,6	7,2	2,1	0,3	3,1	1,1
BALIO ERANTSI GORDINA (BAG) oinarrizko prezioetan	7,5	8,1	4,0	-4,8	1,3	1,3	-1,4
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	11,0	3,2	-12,1	-8,4	6,6	-3,4	-2,6
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezioetan	7,9	7,5	2,3	-5,2	1,8	0,9	-1,5
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	7,9	6,9	3,9	-1,3	2,3	1,2	-0,3
- Etxe eta EZIAGE-en azken kontsumoko gastua	7,9	6,3	2,5	-3,4	2,6	1,8	0,8
- Administrazio Publikoen azken kontsumoko gastua	7,7	9,5	9,8	6,2	0,9	-0,7	-4,1
KAPITAL ERAKETA GORDINA	9,9	8,3	0,6	-16,1	-4,5	-2,9	-8,8
- Kapital finakoaren eraketa gordina eta balio handiko objektuak	9,4	9,5	-0,8	-16,2	-5,7	-4,3	-7,9
-- Ekipamendu-ondasunetan	9,6	4,1	-0,5	-22,3	3,9	7,5	-5,3
-- Eraikuntza-ondasunetan eta beste batzuetan	9,3	11,6	-1,0	-14,0	-9,0	-8,9	-9,1
- Izakin-aldaketa	-	-	-	-	-	20,8	-21,3
BARNE ESKARIA	8,5	7,3	3,0	-5,6	0,5	0,2	-2,3
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOA	10,1	8,9	4,4	-20,2	11,9	8,5	-2,4
- Estatuko beste lurraldeekin	7,5	3,8	0,4	-16,1	9,1	-0,1	-4,2
- Atzerriarekin	13,4	15,3	8,7	-24,6	15,2	17,9	-0,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOA	10,8	8,5	5,1	-19,5	8,9	7,0	-3,5
- Estatuko beste lurraldeekin	5,9	8,7	3,2	-9,6	1,7	3,2	0,2
- Atzerriarekin	19,0	8,3	8,0	-33,7	23,0	13,1	-9,0
ATZERRIAREKIKO SALDOAK	-	-	-	-	-	-	-
- Estatuko beste lurraldeekin	-	-	-	-	-	-	-
- Atzerriarekin	-	-	-	-	-	-	-
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-prezioetan	7,9	7,5	2,3	-5,2	1,8	0,9	-1,5

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak. (2013/09/12)

II.3.1-3. taula (eranskina)

Euskal AEko Barne Produktu Gordina, osagaiaren arabera. Errentak. Uneko prezioak (milaka eurotan).
2005-2012(a)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012(a)
Soldatakoen ordainsaria	27.429.123	29.260.409	31.333.403	33.140.036	32.685.529	33.306.554	33.343.399	33.102.689
Ustiapen-soberakin garbia	18.507.900	20.100.843	22.045.574	22.719.171	20.480.842	20.309.975	21.377.810	20.611.391
Kapital finkoaren kontsumoa	4.645.540	5.071.122	5.340.174	5.484.185	5.267.992	5.584.071	5.448.360	5.617.259
Produkzio eta inportazioen gaineko zerga garbiak	6.302.385	6.921.536	7.242.882	6.134.662	5.554.423	5.919.574	5.514.716	5.375.018
BPG merkatu-prezioetan	56.884.948	61.353.909	65.962.032	67.478.054	63.988.786	65.120.174	65.684.285	64.706.357

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak. (2013/09/12)

II.3.1-4. taula (eranskina)

Euskal AEko Barne Produktu Gordina, osagaiaren arabera. Errentak. Uneko prezioak (urte arteko aldaketa-tasak). 2012(a)

	2006/2005	2007/2006	2008/2007	2009/2008	2010/2009	2011/2010	2012(a)/2011
Soldatakoen ordainsaria	6,7	7,1	5,8	-1,4	1,9	0,1	-0,7
Ustiapen-soberakin garbia	8,6	9,7	3,1	-9,9	-0,8	5,3	-3,6
Kapital finkoaren kontsumoa	9,2	5,3	2,7	-3,9	6,0	-2,4	3,1
Produkzio eta inportazioen gaineko zerga garbiak	9,8	4,6	-15,3	-9,5	6,6	-6,8	-2,5
BPG merkatu-prezioetan	7,9	7,5	2,3	-5,2	1,8	0,9	-1,5

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak. (2013/09/12)

II.3.3.2-2. taula (eranskina)

Euskal AEko osasun-gastu osoa, lurralde historikoaren arabera (milaka eurotan). 2000-2012(a)

	2000	2001	2001/ 2000	2002	2002/ 2001	2003
Euskal AE	2.694.952	2.910.000	8,0	3.119.749	7,2	3.419.075
Araba	404.439	441.696	9,2	468.261	6,0	507.590
Bizkaia	1.411.875	1.547.066	9,6	1.668.779	7,9	1.815.767
Gipuzkoa	878.638	921.238	4,8	982.709	6,7	1.095.717

	2003/ 2002	2004	2004/ 2003	2005	2005/ 2004	2006
Euskal AE	9,6	3.667.364	7,3	3.994.669	8,9	4.303.344
Araba	8,4	547.719	7,9	655.369	19,7	706.551
Bizkaia	8,8	1.939.770	6,8	2.045.696	5,5	2.196.156
Gipuzkoa	11,5	1.179.875	7,7	1.293.604	9,6	1.400.637

Iturria: Eustat. Osasun Kontua.

II.3.3.2-3. taula (eranskina)

Euskal AEko osasun-gastu osoa, lurralde historikoaren arabera (milaka eurotan). 2000-2012(a)

	2006/ 2005	2007	2007/ 2006	2008	2008/ 2007	2009	2009/ 2008
Euskal AE	7,7	4.743.779	10,2	5.244.239	10,5	5.636.111	7,5
Araba	7,8	783.981	11,0	888.909	13,4	937.009	5,4
Bizkaia	7,4	2.432.456	10,8	2.679.899	10,2	2.904.468	8,4
Gipuzkoa	8,3	1.527.342	9,0	1.675.431	9,7	1.794.634	7,1

	2010	2010/ 2009	2011	2011/ 2010	2012(a)	2012(a)/ 2011
Euskal AE	5.768.253	2,3	5.774.601	0,1	5.662.970	-1,9
Araba	945.767	0,9	966.470	2,2	947.808	-1,9
Bizkaia	2.949.165	1,5	2.965.072	0,5	2.885.430	-2,7
Gipuzkoa	1.873.321	4,4	1.843.059	-1,6	1.829.732	-0,7

Iturria: Eustat. Osasun Kontua.

II.3.3.2-4. taula (eranskina)

Euskal AEko osasun-gastu osoa, funtzioaren arabera (milaka eurotan). 2005-2012(a)

	2005	2006	2006/ 2005	2007	2007/ 2006	2008	2008/ 2007
OSASUN GASTUA GUZTIRA	3.994.669	4.303.344	7,7	4.743.779	10,2	5.244.239	10,5
HC1 Sendatzeko osasun-laguntza	2.105.128	2.269.156	7,8	2.466.369	8,7	2.717.014	10,2
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	68.151	75.941	11,4	77.158	1,6	87.261	13,1
HC.3 Egonaldi ertaineko eta luzeko osasun-laguntza	496.655	550.231	10,8	631.691	14,8	750.742	18,8
HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	253.047	273.642	8,1	288.909	5,6	316.655	9,6
HC.1 – HC.4 Banakako osasun-zerbitzuak	2.922.981	3.168.970	8,4	3.464.127	9,3	3.871.672	11,8
HC.5 Kanpoko gaixoei emandako osasun-produktuak	781.618	827.664	5,9	870.376	5,2	931.612	7,0
Osasun-gastu indibiduala guztira	3.704.599	3.996.634	7,9	4.334.503	8,5	4.803.284	10,8
HC.6 Aurrea hartzeko eta osasun publikoko zerbitzuak	79.244	81.751	3,2	90.415	10,6	90.228	-0,2
HC.7 Osasun-administrazioa eta -aseguramendua	105.477	113.583	7,7	134.545	18,5	160.838	19,5
Sailkatu gabe	-	-	-	-	-	-	-
OSASUN GASTU ARRUNTA GUZTIRA	3.889.320	4.191.968	7,8	4.559.463	8,8	5.054.350	10,9
HC.R.1 Kapital-eraketa gordina	105.349	111.376	5,7	184.316	65,5	189.889	3,0

	2009	2009/ 2008	2010	2010/ 2009	2011	2011/ 2010	2012 (a)	2012(a)/ 2011
OSASUN GASTUA GUZTIRA	5.636.111	7,5	5.768.253	2,3	5.774.603	0,1	5.662.970	-1,9
HC1 Sendatzeko osasun-laguntza	2.909.899	7,1	2.986.412	2,6	3.007.122	0,7	2.964.914	-1,4
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	96.615	10,7	91.017	-5,8	104.474	14,8	105.923	1,4
HC.3 Egonaldi ertaineko eta luzeko osasun-laguntza	834.029	11,1	879.847	5,5	913.030	3,8	910.753	-0,2
HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	344.169	8,7	371.420	7,9	374.941	0,9	372.471	-0,7
HC.1 – HC.4 Banakako osasun-zerbitzuak	4.184.712	8,1	4.328.696	3,4	4.399.567	1,6	4.354.061	-1,0
HC.5 Kanpoko gaixoei emandako osasun-produktuak	986.777	5,9	1.011.666	2,5	966.432	-4,5	932.652	-3,5
Osasun-gastu indibiduala guztira	5.171.489	7,7	5.340.362	3,3	5.365.999	0,5	5.286.713	-1,5
HC.6 Aurrea hartzeko eta osasun publikoko zerbitzuak	98.877	9,6	87.865	-11,1	82.333	-6,3	80.816	-1,8
HC.7 Osasun-administrazioa eta -aseguramendua	176.523	9,8	183.365	3,9	174.971	-4,6	176.847	1,1
Sailkatu gabe	-	-	-	-	-	-	-	-
OSASUN GASTU ARRUNTA GUZTIRA	5.446.889	7,8	5.611.592	3,0	5.623.303	0,2	5.544.376	-1,4
HC.R.1 Kapital-eraketa gordina	189.222	-0,4	156.661	-17,2	151.300	-3,4	118.594	-21,6

II.3.3.2-5. taula (eranskina)

Euskal AEko osasun-gastu osoa, funtzioaren arabera (milaka eurotan). 2011

	FINANTZIAZIOA		
	GUZTIRA	Publikoa	Pribatua
OSASUN GASTUA GUZTIRA	5.774.603	4.258.789	1.515.814
HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	3.007.122	2.240.879	766.243
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	104.474	94.422	10.052
HC.3 Egonaldi ertaineko eta luzeko osasun-laguntza	913.030	656.119	256.911
HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	374.941	281.156	93.785
HC.1 – HC.4 Banakako osasun-zerbitzuak	4.399.567	3.272.576	1.126.991
HC.5 Kanpoko gaixoei emandako osasun-produktuak	966.432	675.026	291.406
Osasun-gastu indibiduala guztira	5.365.999	3.947.602	1.418.397
HC.6 Aurrea hartzeko eta osasun publikoko zerbitzuak	82.333	61.185	21.148
HC.7 Osasun-kudeaketa eta -aseguramendua	174.971	129.040	45.931
Sailkatu gabe	–	–	–
OSASUN GASTU ARRUNTA GUZTIRA	5.623.303	4.137.827	1.485.476
HC.R.1 Kapital-eraketa gordina	151.300	120.962	30.338

Iturria: EUSTAT. Osasun Kontua.

II.3.3.2-6. taula (eranskina)

Euskal AEko osasun-gastu osoa, funtzioaren eta finantziazio-iturriaren arabera (milaka eurotan). 2011

			FINANTZIAZIOA		
			Guztizko orokorra	Publikoa	Pribatua
		OSASUN GASTU ARRUNTA GUZTIRA	5.623.303	4.137.827	1.485.476
HC.1		Sendatzeko osasun-laguntza	3.007.122	2.240.879	766.243
	HC.1.1	Barne-erregimena	1.316.609	1.167.888	148.721
	HC.1.2	Eguneko erregimena	111.081	110.565	516
	HC.1.3	Kanpo-erregimena	1.540.606	923.675	616.931
	HC.1.4	Etxez etxekoa	38.826	38.751	75
		Sailkatu gabe	-	-	-
HC.2		Errehabilitatzeko osasun-laguntza	104.474	94.422	10.052
	HC.2.1	Barne-erregimena	26.950	26.906	44
	HC.2.2	Eguneko erregimena	29.087	26.346	2.741
	HC.2.3	Kanpo-erregimena	48.437	41.170	7.267
HC.3		Egonaldi ertaineko eta luzeko osasun-laguntza	913.030	656.119	256.911
	HC.3.1	Barne-erregimena	672.653	437.984	234.669
	HC.3.2	Eguneko erregimena	45.328	32.891	12.437
	HC.3.3	Gaixoentzako etxez etxeko laguntza	195.049	185.244	9.805
HC.4		Osasun-zerbitzu osagarriak	374.941	281.156	93.785
	HC.4.1	Laborategi klinikoak	137.687	98.034	39.653
	HC.4.2	Irudi bidezko diagnostikoa	136.216	102.471	33.745
	HC.4.3	Gaixoen garraioa eta erreskate-zerbitzuak	76.933	76.933	-
	HC.4.9	Gainerako osasun-zerbitzu osagarriak	24.105	3.718	20.387
HC.5		Kanpoko gaixoei emandako osasun-produktuak	966.432	675.026	291.406
	HC.5.1	Botikako produktuak eta bestelako osasun-material ez-iraunkorrak	914.272	666.856	247.416
	HC.5.2	Material terapeutikoa eta bestelako osasun-material iraunkorrak	52.160	8.170	43.990
HC.6		Prebentzioko eta osasun publikoko zerbitzuak	82.333	61.185	21.148
	HC.6.1	Ama-haurren osasuna. Familia-plangintza	6.049	6.049	-
	HC.6.2	Eskola-osasuna	71	71	-
	HC.6.3	Gaixotasun kutsakorren prebentzioa	420	420	-
